



# EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko VI. plangintzaldiaren **AMAIERAKO EBALUAZIOA**

## **TXOSTEN OROKORRA**

2023ko iraila



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Siadeco<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia  
943 31 00 34

[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)



## Aurkibidea

<b>Sarrera</b> .....	<b>6.</b>
<b>A. HERRI ERAKUNDEAK</b> .....	<b>8.</b>
<b>1. Metodologia</b> .....	<b>9.</b>
1.1 Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa .....	9.
1.2. Fitxa teknikoa .....	11.
<b>2. Hizkuntza gaitasuna</b> .....	<b>16.</b>
<b>3. Zerbitzu-hizkuntza</b> .....	<b>20.</b>
3.1. Irudia .....	20.
3.2. Herritarrari zuzendutako jarduerak eta ikastaroak .....	22.
3.3. Herritarrekiko harremanak .....	24.
<b>4. Lan-hizkuntza</b> .....	<b>35.</b>
4.1. Erakunde barneko hizkuntza paisaia, komunikazio euskarriak eta prozedura administratiboetako hizkuntza .....	35.
4.2. Idatzizko jarduna .....	39.
4.3. Ahozko jarduna .....	43.
4.4. Baliabide informatikoak .....	47.
4.5. Langileen kudeaketa eta prestakuntza .....	50.
4.6. Kanpo harremanak, beste erakunde publikoekin eta enpresa pribatuekin .....	54.
4.7. Hizkuntza kudeaketa eta irizpideak .....	58.
4.8. Euskararen bilakaerarekiko balorazioak .....	71.
<b>5. Hizkuntza adierazleen taulak</b> .....	<b>91.</b>
5.1. Zerbitzu hizkuntza .....	92.
5.2. Lan hizkuntza .....	94.
5.3. Adierazle orokorrak .....	101.
<b>6. Hizkuntza adierazleen bilakaera</b> .....	<b>103.</b>
6.1. Zerbitzu hizkuntza .....	103.
6.2. Lan hizkuntza .....	105.
<b>7. Ondorioak</b> .....	<b>113.</b>
7.1. Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa .....	113.
7.2. Hizkuntza gaitasuna .....	113.
7.3. Zerbitzu-hizkuntza .....	114.
7.4. Lan-hizkuntza .....	116.
7.5. Hizkuntza kudeaketa eta irizpideak .....	118.
7.6. Iritziak .....	119.

<b>B. GAINERAKO SEKTORE PUBLIKOA.....</b>	<b>122.</b>
<b>1. Metodologia.....</b>	<b>123.</b>
1.1 Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa .....	123.
1.2. Fitxa teknikoa .....	126.
1.3. Ebaluazioan parte hartu duten gainerako sektore publikoko erakundeak.....	129.
<b>2. Hizkuntza gaitasuna .....</b>	<b>131.</b>
<b>3. Zerbitzu-hizkuntza .....</b>	<b>135.</b>
3.1. Irudia.....	135.
3.2. Herritarrari zuzendutako jarduerak eta ikastaroak.....	139.
3.3. Herritarrekiko harremanak .....	140.
<b>4. Lan-hizkuntza .....</b>	<b>147.</b>
4.1. Erakunde barneko hizkuntza paisaia, komunikazio euskarriak eta prozedura administratiboetako hizkuntza .....	147.
4.2. Idatzizko jarduna .....	150.
4.3. Ahozko jarduna .....	152.
4.4. Baliabide informatikoak .....	154.
4.5. Langileen kudeaketa eta prestakuntza .....	156.
4.6. Kanpo harremanak, beste erakunde publikoekin eta enpresa pribatuekin .....	159.
4.7. Hizkuntza kudeaketa eta irizpideak .....	162.
4.8. Euskararen erabileraren bilakaerarekiko balorazioak.....	173.
<b>5. Hizkuntza adierazleen taulak.....</b>	<b>183.</b>
5.1. Zerbitzu hizkuntza .....	184.
5.2. Lan hizkuntza .....	187.
5.3. Adierazle orokorrak .....	194.
<b>6. Hizkuntza adierazleen alderaketa: gainerako sektore publikoa eta administrazio orokorreko erakundeak.....</b>	<b>195.</b>
6.1. Zerbitzu hizkuntza .....	195.
6.2. Lan hizkuntza .....	197.
<b>7. Ondorioak .....</b>	<b>206.</b>
7.1. Ikerlanaren objektua eta lagina .....	206.
7.2. Hizkuntza gaitasuna .....	206.
7.3. Zerbitzu-hizkuntza.....	207.
7.4. Lan-hizkuntza .....	209.

<b>C. ERAKUNDE ORDEZKARIAK .....</b>	<b>214.</b>
Sarrera .....	215.
<b>1. Helburua .....</b>	<b>216.</b>
<b>2. Metodologia.....</b>	<b>217.</b>
2.1. Aztertutako erakundearen unibertsoa eta lagina .....	217.
2.2. Prozedura metodologikoa .....	218.
<b>3. Eusko Jaurlaritza .....</b>	<b>219.</b>
3.1. Inkestatuaren profila .....	219.
3.2. Hizkuntza-gaitasuna ahoz eta idatziz .....	219.
3.3. Hizkuntzaren erabilera lan jardunean .....	220.
3.4. Euskara planaren ezagutza eta balorazioa .....	224.
3.5. Euskarak erakundearen izan duen bilakaeraren balorazioa .....	225.
3.6. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza eta hizkuntza eskubideen bermea.....	228.
3.7. Euskararen erabilereko jarrera proaktiboa .....	229.
3.8. Bestelako zenbait iritzi eta ekarpen .....	231.
<b>4. Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia .....</b>	<b>232.</b>
4.1. Erantzun maila.....	232.
4.2. Inkestatuen profila .....	232.
4.3. Hizkuntza gaitasuna ahoz eta idatziz .....	233.
4.4. Hizkuntzaren erabilera lan jardunean .....	234.
4.5. Euskara planaren ezagutza maila eta balorazioa.....	238.
4.6. Euskarak erakundearen izan duen bilakaeraren balorazioa .....	240.
4.7. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza eta hizkuntza eskubideen bermea .....	244.
4.8. Euskararen erabilereko jarrera proaktiboa .....	245.
4.9. Beste zenbait iritzi eta ekarpen .....	247.
<b>5. Udalak .....</b>	<b>248.</b>
5.1. Erantzun maila.....	248.
5.2. Hizkuntza gaitasuna ahoz eta idatziz .....	249.
5.3. Hizkuntzaren erabilera lan jardunean .....	250.
5.4. Euskara planaren ezagutza maila eta balorazioa.....	255.
5.5. Euskarak erakundearen izan duen bilakaeraren balorazioa .....	258.
5.6. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza eta hizkuntza eskubideen bermea.....	267.
5.7. Euskararen erabilereko jarrera proaktiboa .....	269.
<b>6. Erakunde guztien emaitza nagusi orokorrak .....</b>	<b>272.</b>



<b>Eranskinak.....</b>	<b>281.</b>
<b>1. Herri erakundeak .....</b>	<b>282.</b>
1.1. Erakundearen galdetegia .....	282.
1.2. Langileen galdetegia .....	294.
<b>2. Gainerako sektore publikoa .....</b>	<b>306.</b>
2.1. Erakundearen galdetegia .....	306.
2.2. Langileen galdetegia .....	319.
<b>3. Erakunde ordezkariek .....</b>	<b>331.</b>
3.1. Udal ordezkariek erantzun duten udalerrien zerrenda .....	331.
3.2. Ordezkariek galdetegia .....	334.

## SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 2018-2022 aldiari dagokion VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egin du Siadecok, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz.

Aurrez egindako azken bi ebaluazioetan – V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa eta VI. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioa – erabilitako metodologia berarekin egin da oraingoa ere. Bi informazio iturritatik jaso dira ebaluazioa egiteko datuak: herri erakunde bakoitzeko elementu orokorren hizkuntza-erabileraren datuak – entitatearen irudiari, herritarrei zuzendutako ikastaro eta jardueri, baliabide informatikoei, pertsonen eta ikastaroen kudeaketari, eta plangintzaren kudeaketari buruzkoak – erakundeetako teknikari edota solaskideen bitartez eskuratu dira; aldiz, erakundeen jardunean erabilitako zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntzaren ebaluazioa egiteko, inkesta bat egin zaie langileei; langileak izan dira beren jardun pertsonalari buruzko informazioa eman dutenak.

Sektore publikoko EAEko erakunde-mota guztietako ebaluazioa egin da, bi multzo nagusi berezita, herri erakundeak eta gainerako sektore publikoa. Herri erakundeen multzoa, guztira, 321 erakundek osatzen dute eta hauek dira:

EAEko udalak, mankomunitateak, partzuergoak eta kuadrillak .....	295
3 Foru aldundiak eta 3 batzar nagusiak.....	6
Eusko Jaurlaritza eta menpeko erakunde autonomiadunak.....	14
Erakunde publiko independenteak .....	6

Herri erakunde horiez gain, sektore publikokoak diren merkataritza-sozietate, fundazio, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, partzuergo eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde publikoetan ere egin da VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa. “Gainerako sektore publikoa” deituriko multzoan bildu dira hauek eta, guztira, 218 entitate ezberdin dira.

VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazio honetan, orain arte inoiz egin gabeko inkesta bat ere egin da. EAEko herri administrazioetako erakunde-ordezkarien hizkuntza gaitasuna eta erabilera-mailaren datuak jaso dira lehen aldiz; ordezkaritza politikoko eta izendapen askeko arduradun eta zuzendariak ere egin zaie inkesta eta, ordezkaritza modura, norbere erakundeko hizkuntza irizpideen ezagutzaz eta euskara planari buruzko iritziez ere galdetu zaie.

Beraz, hiru unibertso ezberdin neurtu dira VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko eta atal banatan jaso dira emaitzak:

**A atala. HERRI ERAKUNDEAK**

**B atala. GAINERAKO SEKTORE PUBLIKOA**

**C atala. ERAKUNDE-ORDEZKARIAK**



## A. HERRI ERAKUNDEAK

## 1. Metodologia

### 1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta lagina

Aztergai hartu da EAEko herri administrazioa: udalak, mankomunitateak, foru aldundiak eta batzar nagusiak, Eusko Jaurlaritza eta haren menpeko erakunde autonomiadunak, eta erakunde publiko independenteak. Unibertsoa 321 erakunde ezberdinek osatzen dute; Eusko Jaurlaritzan, sailen arabera ebaluazioa ere egin denez, sail horiek ere zenbatuta, unibertso osoaren azterketa-unitateak, guztira, 332 izan dira. Erakunde hauetan 35 mila langile baino gehiago ari dira beharrean. Unibertso hori aztertu eta kasu bakoitzean lortu beharreko adierazgarritasun estatistikoa kontuan hartuta, guztira 195 erakunderen datuak jaso dira eta 4.153 behargini egin zaie inkesta.

EAEko funtzio publikoko langile askok hartu du parte ikerketa honetan eta egindako inkestaren lagina handia da, datuek behar besteko adierazgarritasun-estatistikoa izateko, erakunde-mota, lurraldea eta erakundearen derrigortasun indizearen arabera; bestetik, Eusko Jaurlaritzako Sail eta erakunde autonomiadun bakoitzaren ebaluazioa ere egin denez, horrek ere egin beharreko inkesta kopurua altua izatea eragin du.

Esan bezala, EAEko herri administrazioak osatu du euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko ikerlanaren unibertsoa, baina ebaluazioa ez da unibertso unitate guztietara zabaldu eta udalen kasuan, 5.000 biztanlez beherako udalerrietako udaletan eta mankomunitate partzuergo eta kuadrillatan lagin bat aztertu da.

Informazio ahalik eta osatu eta zabalena lortzeko, bi informazio-iturri erabili dira:

- Erakundeetako ordezkari, teknikari edo solaskideak: euskara teknikariak, idazkariak eta abar. Horiei, erakunde bakoitzean izaera orokorrekoak diren alderdiei buruz galdetu zaie.
- Herri administrazioiko langileak: euren hizkuntza praktikari eta iritzi pertsonalari buruz galdetu zaie.

Bietan jasotako informazioa aztertu eta landu da eta bi iturrietatik jasotako emaitzak dira txosten honetan jasotakoak.

Hurrengo taulan jaso dira herri-erakundeetan egindako ikerketaren unibertsoa eta laginaren datuak, erakunde eta langile kopuruaren arabera.

**1. taula. Herri erakundeetan, VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluaziorako, unibertsoa eta lagina osatu duten erakunde eta langileen kopuruak, erakunde mota, lurralde historikoa eta udalerraren tamainari jarraiki (5 mila biztanletik gorakoak eta behekoak)**

Erakunde esparrua	Lurraldea		UNIBERTSOA				LAGINA			
			Erakundeak		Langileak		Erakundeak		Langileak	
			Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Udalak eta mankom.	Araba	Gasteiz	1	0.30	2.998	8.49	1	0.51	120	2.89
		>5000 biztanle	3	0.90	286	0.81	3	1.54	43	1.04
		<5000 biztanle	47	14.16	286	0.81	16	8.21	33	0.79
		Mankomunitate, partzuergo, kuadrillak	11	3.31	88	0.25	5	2.56	29	0.70
	Bizkaia	Bilbo	1	0.30	2.453	6.95	1	0.51	112	2.70
		>5000 biztanle	33	9.94	5.463	15.47	29	14.87	130	3.13
		<5000 biztanle	78	23.49	695	1.97	33	16.92	71	1.71
		Mankomunitate, partzuergo, kuadrillak	15	4.52	625	1.77	6	3.08	41	0.99
	Gipuzkoa	Donostia	1	0.30	1.373	3.89	1	0.51	804	19.36
		>5000 biztanle	33	9.94	3.974	11.26	32	16.41	145	3.49
		<5000 biztanle	54	16.27	479	1.36	24	12.31	86	2.07
		Mankomunitate, partzuergo, kuadrillak	18	5.42	206	0.58	8	4.10	51	1.23
<b>Guztira</b>			<b>295</b>	<b>88.86</b>	<b>18.926</b>	<b>53.60</b>	<b>159</b>	<b>81.54</b>	<b>1.665</b>	<b>40.09</b>
FA eta Batzar Orok.	Araba	Foru Aldundia	1	0.30	2.151	6.09	1	0.51	107	2.58
		Biltzar Nagusiak	1	0.30	12	0.03	1	0.51	8	0.19
	Bizkaia	Foru Aldundia	1	0.30	4.019	11.38	1	0.51	157	3.78
		Batzar Nagusiak	1	0.30	16	0.05	1	0.51	8	0.19
	Gipuzkoa	Foru Aldundia	1	0.30	2.096	5.94	1	0.51	114	2.75
		Batzar Nagusiak	1	0.30	12	0.03	1	0.51	6	0.14
<b>Guztira</b>			<b>6</b>	<b>1.81</b>	<b>8.306</b>	<b>23.53</b>	<b>6</b>	<b>3.08</b>	<b>400</b>	<b>9.63</b>
<b>Lurralde mailako erakundeak guztira</b>			<b>301</b>	<b>90.66</b>	<b>27.232</b>	<b>77.13</b>	<b>165</b>	<b>84.62</b>	<b>2.065</b>	<b>49.72</b>
Erakunde publiko independenteak	EHU	1	0.30	1.513	4.29	1	0.51	101	2.43	
	Eusko Legebiltzarra	1	0.30	149	0.42	1	0.51	34	0.82	
	Herri Kontuen Euskal Epaitegia	1	0.30	78	0.22	1	0.51	17	0.41	
	Lan Harremanen Kontseilua	1	0.30	15	0.04		0.00	11	0.26	
	Arartekoa	1	0.30	30	0.08	1	0.51	20	0.48	
	Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arauzetarako Batzordea	1	0.30	20	0.06	1	0.51	5	0.12	
	<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>1.81</b>	<b>1.805</b>	<b>5.11</b>	<b>5</b>	<b>2.56</b>	<b>188</b>	<b>4.53</b>	
Eusko Jaurlaritza Sailak	Lehendakaritzak	1	0.30	83	0.24	1	0.51	57	1.37	
	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	1	0.30	469	1.33	1	0.51	114	2.75	
	Ekon. Garapena, Jasangarr. eta Ingurumena	1	0.30	513	1.45	1	0.51	133	3.20	
	Lana Eta Enplegua	1	0.30	238	0.67	1	0.51	79	1.90	
	Lurralde Plangintza, Etxebiz. eta Garraioa	1	0.30	285	0.81	1	0.51	86	2.07	
	Ekonomia eta Ogasuna	1	0.30	232	0.66	1	0.51	106	2.55	
	Hezkuntza (Ikastetxeetako Langileak Kanpo)	1	0.30	574	1.63	1	0.51	146	3.52	
	Osasuna	1	0.30	824	2.33	1	0.51	170	4.09	
	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	1	0.30	79	0.22	1	0.51	59	1.42	
	Kultura eta Hizkuntza Politika	1	0.30	155	0.44	1	0.51	83	2.00	
	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika	1	0.30	438	1.24	1	0.51	111	2.67	
	Segurtasuna	1	0.30	660	1.87	1	0.51	160	3.85	
	<b>Guztira</b>	<b>12</b>	<b>3.61</b>	<b>4.550</b>	<b>12.89</b>	<b>12</b>	<b>6.15</b>	<b>1.304</b>	<b>31.40</b>	
Erakunde autonomiadunak	IVAP - Herri-Arduralar. Euskal Erakundea	1	0.30	130	0.37	1	0.51	69	1.66	
	H.A.B.E.	1	0.30	64	0.18	1	0.51	53	1.28	
	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akad.	1	0.30	120	0.34	1	0.51	54	1.30	
	Eustat - Euskal Estatistika Erakundea	1	0.30	184	0.52	1	0.51	88	2.12	
	Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	1	0.30	35	0.10	1	0.51	27	0.65	
	Osalan - Laneko Seg. Osasunerak.Eus.Erak.	1	0.30	169	0.48	1	0.51	76	1.83	
	Cojuae - Euskadiko Aholku Batzorde Jurid.	1	0.30	6	0.02	1	0.51	6	0.14	
	EAE Kontratuaren Inguruko Errekur.Adm.Org.	1	0.30	4	0.01	1	0.51	4	0.10	
	Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Inst.	1	0.30	61	0.17	1	0.51	48	1.16	
	Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua	1	0.30	921	2.61	1	0.51	151	3.64	
	Lehiaren Euskal Agintaritzak	1	0.30	11	0.03	1	0.51	10	0.24	
	Gogora - Mem.Inst., Bizikid.eta Giz.Esk.	1	0.30	11	0.03	1	0.51	7	0.17	
	EAEko Datuak Babesteko Ordezkarria	1	0.30	4	0.01	1	0.51	3	0.07	
	<b>Guztira</b>	<b>13</b>	<b>3.92</b>	<b>1.720</b>	<b>4.87</b>	<b>13</b>	<b>6.67</b>	<b>596</b>	<b>14.35</b>	
<b>EAE mailako erakundeak guztira</b>			<b>31</b>	<b>9.34</b>	<b>8.075</b>	<b>22.87</b>	<b>30</b>	<b>15.38</b>	<b>2.088</b>	<b>50.28</b>
<b>Guztira</b>			<b>332</b>	<b>100.00</b>	<b>35.307</b>	<b>100.00</b>	<b>195</b>	<b>100.00</b>	<b>4.153</b>	<b>100.00</b>

Iturria: HPS, Siadeco. 2022

## 1.2. Fitxa teknikoa

Jarraian, egindako landa-lanaren fitxa teknikoa:

### a) Unibertsoa:

- Herri administrazioko erakundeak: 332, Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomiadun bakoitza erakunde modura kontsideratuz.
- Herri erakunde horietako langileak: 35.307

Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomoen kasuan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez eskuratu dira lanpostuen zerrenda eguneratuak.

Gainerako herri administrazioen kasuan, azken bi ebaluazioetan jasotako langileen zerrendetatik abiatu gara; lagina zehaztu, eta erantzutea egokitu zaien langileen zerrenda, erakunde bakoitzeko solaskidearekin kontrastatu da eta —beharrezkoa zen kasuetan—, informazioa zuzendu edota osatu egin da.

### b) Teknika:

- Galde-sorta egituratua erabili da, bai erakundeetako ordezkariari erakundearen beraren informazioa eskatzeko, baita langileak inkestatzeko ere.
- On-line betetzeko inkesta bidali zaie posta elektronikoko bidez, erakundeetako ordezkariari nahiz langileei. On-line inkestari erantzuteko zailtasunak izan direnean, telefono bidez egin dira elkarrizketak edo paperean inprimatutako galdetegia beteta.

### c) Galde-sorta:

- Bi galde-sorta egituratu erabili dira – bat, erakundeko ordezkariak edo “solaskideak” erantzuteko, eta bigarrena, langileak betetzeko –, bateragarriak izanik, V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan erabilitako metodologiarekin eta hizkuntza adierazleekin. Bi galdetegiak eskuragarri daude, on-line, ondorengo helbideetan:
  - Erakundearen ordezkariak edo “solaskideak” betetzekoak:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/herri\\_admin\\_normalizazioa/eu\\_def/ad\\_juntos/Galdetegia\\_VI-plang-amaiera\\_erakundeak-002-.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/herri_admin_normalizazioa/eu_def/ad_juntos/Galdetegia_VI-plang-amaiera_erakundeak-002-.pdf)
  - Langileak betetzekoak:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/herri\\_admin\\_normalizazioa/eu\\_def/ad\\_juntos/Galdetegia\\_VI-plang-amaiera\\_langileak-002-.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/herri_admin_normalizazioa/eu_def/ad_juntos/Galdetegia_VI-plang-amaiera_langileak-002-.pdf)
- Bi galdetegiak, euskaraz zein gaztelaniaz erantzuteko aukera eskaini da.

#### d) Laginketa mota:

- 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan, foru aldundi eta batzar nagusietan eta EAE mailako erakunde guztietan egin da inkesta. Erakunde guztiak baina ez langile guztiak, erakunde horietako bakoitzean lanean ari diren langileen lagin bat inkestatu baita. Inkestatu beharreko langilea ausaz hautatu da.
- Aldiz, 5.000 biztanlez beheko udalerrietan, udal, mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoen lagin bati egin zaio ebaluazio-inkesta. Erakunde horietan ere, langileen lagin bat inkestatu da, ez guztiak.
- Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan planteatutako laginketak, bakoitzerako datu estatistikoki adierazgarriak lortzea izan du helburu, ez soilik Eusko Jaurlaritzaren datuak modu orokorrean hartuta.
- Donostiako Udalaren kasuan, Siadeco aurrez metodologia berdinarekin egindako ebaluazioko informazioa erabili da (804 inkesta).
- 5.000 biztanlez beheko udalerrietako erakundeen lagina diseinatzeko, lurralde historikoa, udalerrien tamaina eta erakundearen derrigortasun-indizea ere hartu da kontuan. Aldagai horien araberrako geruza bakoitzean egin beharreko inkesta kopurua, interesatua eta ez proportzionala izan da eta emaitza orokorrak kalkulatzeko, lagin bidez lortutako datuak haztatu egin dira, laginketarako erabilitako aldagai berak erabilia.

#### e) Laginaren tamaina eta errore-marjina estatistikoa

- Guztira, 195 erakunde eta 4.153 langile inkestatu dira.
- Errore-marjina estatistikoko orokorra, langileen inkestarako, %  $\pm 1,43$ koa da, %95eko konfiantza tarterako ( $p=q=0,5$  izanik ausazko laginketa sinplerako). Erakundeen kasuan, errore-marjina orokorra % $\pm 4,51$ koa da.
- Honakoa da errore-marjina estatistikoa erakunde motaren arabera, eta udalen kasuan, lurraldearen arabera:

**2. taula.** Erakunde eta langileen laginetako errore-marjina estatistikoa (%)

	Erakundeen azterketa	Langileen azterketa
Arabako udal eta mankom, partzuergo eta kuadrillak	$\pm 15,26$	$\pm 6,33$
Bizkaiko udal eta mankom, partzuergo eta kuadrillak	$\pm 8,00$	$\pm 5,11$
Gipuzkoako udal eta mankom, partzuergo eta kuadrillak	$\pm 7,60$	$\pm 2,71$
Udal eta mankom, partzuergo eta kuadrillak guztira	$\pm 5,29$	$\pm 2,29$
Foru aldundiak	$\pm 0,0$	$\pm 4,78$
Eusko Jaurlaritza: Sailak	$\pm 0,0$	$\pm 2,29$
Eusko Jaurlaritza: Erakunde autonomiadunak	$\pm 0,0$	$\pm 3,25$
Erakunde publiko independenteak	$\pm 19,6$	$\pm 6,77$
<b>Guztira, datu orokorrak</b>	<b><math>\pm 4,51</math></b>	<b><math>\pm 1,43</math></b>

Iturria: Siadeco, 2022



#### f) Landa lana egin den garaia

- Eusko Jaurlaritzako Sail eta erakunde autonomiadunetan, 2022ko uztaila eta urria artean egin zen landa-lana.
- Gainerako erakundeetan, 2022ko irailean abiatu eta abenduan amaitu.

#### g) Inkestatutako langileen generoa eta adin tartea

4.153 langilek osatutako lagina, honela banatzen da generoa eta adin tartearen arabera :

**3. taula.** Inkestatutako langileak generoaren eta adin tartearen arabera (haztatu gabeko datuak)

Adin tartea	Generoa								Guztira	
	Emakumezkoa		Gizonezkoa		Ez bitarra		Zehaztu gabe			
	Kop	% hor.	Kop	% hor.	Kop	% hor.	Kop	% hor.	Kop	% bert.
<= 35 urte	177	61,9	107	37,4	1	0,3	1	0,3	286	6,9
36-45 urte	474	60,5	296	37,8	12	1,5	2	0,3	784	18,9
46-55 urte	957	64,2	511	34,3	17	1,1	6	0,4	1.491	35,9
>55 urte	767	57,4	549	41,1	7	0,5	14	1,0	1.337	32,2
Zehaztu gabe	131	51,4	61	23,9	14	5,5	49	19,2	255	6,1
<b>Guztira</b>	<b>2.506</b>	<b>60,3</b>	<b>1.524</b>	<b>36,7</b>	<b>51</b>	<b>1,2</b>	<b>72</b>	<b>1,7</b>	<b>4.153</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2022

Emakumeak dira hamar langiletik sei (% 60) eta aldeak daude erakunde batzuetatik besteetara; proportzio hori oraindik eta altuagoa da Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundi eta batzar nagusietan, eta baxuagoa berriz udal eta mankomunitateetan (% 54). Adinez, hiru langiletatik batek baino gehiagok (% 36) 46 eta 55 urte bitartean ditu eta beste batek (% 32) 55etik gora. Batez beste, 50,32 urte dauzkate. Aurreko datu guztiak, azterketan parte hartu dutenenak dira.

**4. taula.** Azterketan parte hartutako langileen generoa eta adin tartea, erakunde motaren arabera (%) (haztatu gabe)

	GENEROA				ADIN-TARTEA				Guztira	Batez besteko adina	
	Emaku-mezkkoa	Gizonez-koa	Ez bitarra	Zehaztu gabe	<= 35 urte	36-45 urte	46-55 urte	>55 urte			Zehaztu gabe
< 5 mila bizt	67,9	31,6	0,5	-	7,9	16,8	37,4	31,6	6,3	100,0	50,64
> 5 mila bizt	55,7	42,5	1,9	-	8,8	22,3	37,7	26,4	4,7	100,0	48,88
Hiriburua	50,9	45,0	1,6	2,5	6,9	22,9	38,4	25,1	6,7	100,0	49,21
Mankom	58,7	41,3	-	-	2,5	14,9	37,2	39,7	5,8	100,0	51,92
Udal+mankom	54,3	42,7	1,4	1,6	7,1	21,5	38,1	27,1	6,2	100,0	49,51
Foru Ald+Batx Orok	62,5	37,3	0,3	-	4,8	24,0	43,3	26,3	1,8	100,0	49,52
EJ Sailak+Erak auton	64,9	31,4	1,3	2,4	7,5	16,3	32,3	37,1	6,7	100,0	50,98
Erak publ indep	62,8	36,2	1,1	-	3,2	10,6	37,2	39,9	9,0	100,0	52,78
<b>Guztira</b>	<b>60,3</b>	<b>36,7</b>	<b>1,2</b>	<b>1,7</b>	<b>6,9</b>	<b>18,9</b>	<b>35,9</b>	<b>32,2</b>	<b>6,1</b>	<b>100,0</b>	<b>50,32</b>
N	2.506	1.524	51	72	286	784	1.491	1.337	255	4.153	

Iturria: Siadeco, 2022

## h) Ebaluazio-atalak eta adierazleak

V. plangintzaldiaren amaieran egindako ebaluazioarekin alderagarri egiteko, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza, bi ardatz nagusi horien baitan multzokatu dira adierazleak.

### 5. taula. VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko erabilitako adierazleak

Zerbitzu-hizkuntza	Lan-hizkuntza
<p><b>Erakundearen irudia</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Eraikinetako errotulazio orokorra: eraikinetako seinaleak eta bestelako errotuluak</li> <li>Irudi korporatiboko elementuak: gutun azal, orri buru, zigilu eta horrelakoetako euskarri eta papertegiko elementuak</li> <li>Paperezko argitalpenak: erakundeak berak kaleratutako argitalpenak</li> <li>Hedabideen bidez zabaldutako iragarkiak eta publizitatea: idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetako erakundearen iragarkiak, sustapen kanpainak eta publizitatea</li> <li>Hedabideen bidez zabaldutako berriak: Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan ageri diren erakundearen berriak.</li> <li>Jendaurreko ekitaldiak: euskararen presentzia ahozko eta idatzizko harremanean, erakundeak egiten duen eskaintzan (agerraldiak, prentsaurrekoak, jardunaldiak...)</li> <li>Herritarrei eskainitako jarduerak (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...) eta ikastaroak.</li> <li>Webgune eta tramitazio telematikoak; webguneko atal finko eta dinamikoak eta internet bidezko zerbitzuak</li> <li>Sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak.</li> </ul>	<p><b>Barne komunikazioa eta lan tresnak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lanari lotutako hizkuntza paisaia: errotulazio txikia, horma irudiak, errotulazio aldakorra...</li> <li>Informaziorako edota komunikaziorako tresnak: agiriguneak, ohar eta iragarki taulak..</li> <li>Lan bileretako idatziak eta ahozko harremanak</li> <li>Erakundearen barne harremanetarako idatziak</li> <li>Erakundearen barruko ahozko harremanak, telefonoz eta aurrez aurre.</li> <li>Baliabide informatikoak: euskarazko bertsioen instalazioak eta erabilera maila.</li> </ul> <p><b>Langileen kudeaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Langileen kudeaketarekin lotutako dokumentuak: protokoloa, barne txostenak, barne inprimakiak...</li> <li>Ikastaroen kudeaketarako hizkuntza.</li> <li>Prestakuntza jasotako hizkuntza</li> </ul> <p><b>Kanpo harremanak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazioarekiko ahozko eta idatzizko harremanak</li> <li>Enpresa pribatuekiko(finantza entitateak, hornitzaileak...) ahozko eta idatzizko harremanak</li> <li>Beste erakunde pribatuekiko(aliatuak, erakunde kolaboratzaileak...) ahozko eta idatzizko harremanak</li> </ul>

### Bezeroekiko edo herritarrekiko harremanak

- Idatzizko *harremanak*:
  - Zein hizkuntzatan bidaltzen zaizkien dokumentuak herritarrei
  - Idazkiak euskaraz aurkeztu dituzten herritarrei nola erantzuten zaien
- Ahozko harremanak, harrera guneetan eta gainerako langileen aldetik
  - *Aurrez aurreko harremanak*:
    - Langileen lehen hitza: nola hasten diren hizketan langileak
    - Herritarren lehen hitza: nola hasten diren hizketan herritarrak
  - *Telefono bidezko harremanak*:
    - Langileen lehen hitza: zein hizkuntzatan hasten diren langileak
    - Herritarren lehen hitza: zein hizkuntzatan hasten diren herritarrak
- Euskaraz nahiago dutela adierazi duten herritarrek zein hizkuntzatan jasotzen duten zerbitzua

### Erakundearen hizkuntza kudeaketa


- Zuzendaritza batzordeko kideen inplikazioa planaren jarraipenean
- Euskararen kudeaketak, kudeaketa orokorrean duen txertatze maila
- Idatzien sortze-hizkuntza
- Dokumentuen estandarizazio maila
- Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideen ezartze eta betetze maila
- Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatutako langileak.
- Ordezkarri politikoaren euskara gaitasuna.
- Euskara planaz egindako balorazioa: lorpenak, hutsuneak, eta erronka berriak-
- Parte hartze aktiboa planaren ekimenetan

Langileei egindako inkestan, beste datu hauek ere jaso dira, hizkuntza adierazleen datuak, aldagai horiekin gurutzatu ahal izateko: euskara-maila, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna, egiaztatutako hizkuntza eskakizuna, adina eta generoa. Azkenik, euskararen erabilerak bere erakundean izandako bilakaeraz, zer balorazio egiten duten ere galdetu zaie langileei.

## 2. Hizkuntza gaitasuna

Langileei galdetu zaie nola moldatzen diren euskaraz ulertzeko, irakurtzeko, hitz egiteko eta idazteko. Datu aitortua jaso da, beraz: langileen autopertzepzioa. Maila handiena ulermenean eta irakurmenean dago: hamarretik zortzik baino gehiagok diote maila ona edo nahiko ona dutela. Hizketan eta idazten, langileen hiru laurdenek (% 74) adierazi dute hori.

1. grafikoa. Herri erakundeetako langileen hizkuntza gaitasun aitortua, trebetasunen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2022.

Generoa, adina, erakunde esparrua, herrialdea eta erakundeari dagokion derrigortasun indizea aintzat hartuta aztertu dira datuak, eta hona ekarri dira hitz egiteko eta idazteko gaitasunari buruzkoak.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, aldeak daude batez ere adinaren arabera emaitzetan: 35 urtez beherakoetan gehien gehienak dira gai euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egin eta idazteko ere; aldiz 55 urtetik gorakoetan, % 60 ingurura murrizten da gaitasun hori. Generoari erreparatuta, idatzizkoan da emakumezkoen gaitasuna altuagoa batik bat. Kontuan izatekoa da adin talde guztien pisua ez dela berbera: 35 urte edo gutxiagoko beharginek dute gaitasun maila handiena, baina langileen % 7 dira; 55 urtez gorakoek dute txikiena, eta % 32 dira.

Bestalde erakunde esparruaren arabera datuetan ere badaude aldeak. Hiriburuak ez diren udal eta mankomunitateetako langileek dute euskara gaitasunik handiena: bostetik lauk ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute, eta batez bestekoaren gainetik daude ongi edo nahiko ongi idazten dutenak. Foru aldundi eta erakunde publiko independenteetako langileak datoz ondoren, eta azkenik Eusko Jaurlaritza eta haren erakunde autonomiadunetako eta hiriburuetako langileak.

**2. grafikoa. Langileen hitz egiteko eta idazteko gaitasuna (ongi edo nahikoa ongi) (%)**




Iturria: Siadeco, 2022.

Erkidego mailakoak diren erakundeak albo batera lagata, lurraldearen eta derrigortasun indizearen arabera emaitzak ere jaso dira aurreko grafikoan. Euskaraz hitz egin eta idazteko, 10 beharginetatik 5-6 inguru dira gai Arabako erakundeetan, 10etik 7 Bizkaikoetan eta 10etik 9 Gipuzkoakoetan. Erakundearen derrigortasun indizearen arabera aldeak ere handiak dira. %70etik gorako derrigortasun-indizea duten erakundeetan, ia langile guztiak dira euskaraz hitz egiteko eta idazteko gai.

Jendaurreko lanpostuetako langileen euskara gaitasuna altuagoa da, eta 10etik 8k diote gai direla euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko. Alderik handiena, hitz egiteko gaitasunean ematen da, non jendaurreko lanpostua dutenen artean, 10 puntu altuagoa den euskaraz ongi/nahikoa ongi egiten dutenen ehunekoak.

**3. grafikoa.** Jendaurreko lanpostua duten langileen (Bai) eta ez dutenen (Ez) euskara gaitasuna (%)



Iturria: Siadeco, 2022.

Azken ebaluazio honetan langileek adierazitako euskara gaitasunak, V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluaziokoarekin alderatuz gero, gora egin du: euskaraz ongi edo nahiko ongi idazteko gai direnek 9 puntu egin dute gora, eta 6 puntuko igoera gertatu da, berriz, euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai direnetan.

**6. taula.** Herri erakundeetako langileen euskara gaitasun aitortuaren bilakaera, trebetasunaren arabera (%)

		Ulertu	Hitz egin	Irakurri	Idatzi
2017	Ongi	53,7	42,7	49,5	38,2
	Nahiko ongi	26,0	24,6	24,8	26,7
	Zertxobait	12,4	19,7	14,9	21,2
	Hitz batzuk	5,1	7,9	3,9	5,7
	Ezer ez	2,8	5,1	6,9	8,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,1
2020	Ongi	64,8	50,5	59,5	46,1
	Nahiko ongi	18,7	20,7	20,2	24,5
	Zertxobait	8,4	16,3	9,5	15,7
	Hitz batzuk	4,1	6,0	3,2	5,1
	Ezer ez	2,2	4,5	5,8	6,3
	Zehaztu gabe	1,8	2,0	1,9	2,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
2022	Ongi	63,1	49,5	58,9	45,4
	Nahiko ongi	23,2	24,0	23,8	28,5
	Zertxobait	8,0	17,9	10,3	17,6
	Hitz batzuk	2,0	3,6	2,1	2,7
	Ezer ez	0,8	2,0	2,0	2,8
	Zehaztu gabe	2,9	3,0	3,0	3,0
	Guztira	100,0	100,0	100,1	100,0
Ongi + nahiko ongi	2017	79,7	67,3	74,3	64,9
	2020	83,5	71,2	79,7	70,6
	2022	86,3	73,5	82,7	73,9
Aldea 2020-2017		3,8	3,9	5,4	5,7
Aldea 2022-2020		2,8	2,3	3,0	3,3

Iturria: Siadeco, 2017, 2020, 2022

### 3. Zerbitzu-hizkuntza

Erakunde publikoetan euskara zertan den aztertzeko, zerbitzu-hizkuntzaren ikuspegiari heldu zaio lehenik, zerbitzuak zein hizkuntzatan eskaintzen diren jakiteko.

Hiru azpiataletan jaso da zerbitzu-hizkuntzari buruzko azterketa: erakundeen irudia, jendaurreko ekitaldiak eta herritarrekiko harremanak.

Erakundeko ordezkari edo solaskideari, galdetu zaio, erakundearen irudiaz eta erakundeak eskaintako jendaurreko ekitaldietan eta herritarrari eskaintako bestelako jardueratan -erakusketak, kanpainak, ikastaroak, bestelako egitasmoak...- erakundeak erabilitako hizkuntzari buruz; bestetik, langileei zuzenean galdetu zaie, ahoz, zein hizkuntzatan zuzentzen diren herritarrengana, eta herritarrak euskaraz egindakoa, zein hizkuntzatan erantzuten zaien.

#### 3.1. Irudia

Erakundeen elementu hauek aztertu dira:

- Eraikinetako errotulazio orokorra: eraikinetako seinaleak eta bestelako errotuluak
- Irudi korporatiboko elementuak: gutun azal, txartel eta horrelakoetako irudi korporatiboak
- Papereko argitalpenak: erakundeak berak egiten dituen papereko argitalpenak
- Hedabideetan zabaldutako iragarkiak eta publizitatea: erakundearen iragarkiak zein hizkuntzatan ageri diren hedabideetan
- Hedabideen bitartez zabaldutako berriak
- Erakundearen webguneak eta zerbitzu telematikoak
- Erakundearen sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak
- Erakundearen ordezkarien (politiko zein teknikoen) jendaurreko ekitaldiak: ekitaldi publikoetan ahoz erabilitako hizkuntza


Iraupen luzekoak diren iruditeriko elementuetan (errotulazioa, irudi korporatiboa eta webguneak), euskararen erabilera ia guztiz bermatzen da – oso orokortua dago euskararen eta gaztelaniaren aldi bereko erabilera, % 83 eta % 95 artean, eta gainerako ia guztia euskara hutsean dago –. Erakunde esparru eta herrialde guztietan da nagusi elebitasuna, baina 5 mila biztanlez beherako udal txikietan eta Gipuzkoan, ohikoagoa da euskara bakarrik erabiltzea.

Aldiz, maiztasun handiagoko sorkuntza eta zabalpena duten beste arlo hauetan, euskararen erabilera ez da guztiz bermatzen: publizitatean (euskara hutsean gehi ele bietan, % 93), argitalpenetan (% 92), sare sozialetan (% 91) eta batez ere hedabideen bitartez zabaldutako albisteetan (% 77). Ez euskaraz eta ez ele bietan, gaztelania hutsean zabaltzen dira herri erakundeen albisten % 23.



Koxka bat beherago dago euskararen erabilera jendaurreko ekitaldietan eta euskararen erabilera adierazlea % 71 da. Jendaurreko ekitaldietan erakundeetako ordezkari eta langileek emandako informaziotik zenbat azaldu den euskaraz erakusten du adierazle horrek, ez euskaraz aritutako denboraren ehunekoa. Adibidez, ekitaldi batean informazio guztia euskaraz eta erdaraz eman bada, informazio bera errepikatuz, euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa %100 litzateke eta erdaraz emandakoa ere %100. Horrela jasotzen da, Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jaso izan denarekin alderagarria izateko. Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera indizea % 71 izanik, herri erakundeetako ordezkari eta langileek jendaurrean emandako informazioaren % 29 gaztelania hutsean zabaltzen da.

**4. grafikoa.** Euskararen erabilera (ele bietan eta euskara hutsean) iruditerian eta jendaurreko ekitaldietan (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2022.

Jendaurreko ekitaldietan erabiltzen da gaztelaniarik gehien beraz eta erakunde esparruaren arabera zein alde dauden erakusten du hurrengo grafikoak. Jendaurreko ekitaldietan euskaraz azaldutako informazioaren ehunekoa, % 71ko batez bestekoa baino altuagoa da herri erakunde handietan, hau da hiriburu eta foru aldundietan (Jaurlaritza da salbuespena); baxuagoa berriz, 5 mila biztanlez gorako udalerrietan, mankomunitateetan, Eusko Jaurlaritza eta bere menpeko erakunde autonomiadunetan, eta batez ere erakunde publiko independenteetan (% 21). 5 mila biztanletik beherako udalen datua, batez bestekoaren parean dago (% 71).

Bizkaian eta bereziki Gipuzkoan kokatutako erakundeetan, hobeak dira euskararen erabileraren datuak; erakundeen derrigortasun-indizeak ere nabarmen markatzen du aldea, zenbat eta indize altuagoa, orduan eta altuagoa da euskararen erabilera jendaurreko ekitaldietan.

**5. grafikoa.** Jendaurreko ekitaldietan erakundearen ordezkariak euskaraz ahoz azaldutakoaren ehunekoa (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

### 3.2. Herritarrari zuzendutako jarduerak eta ikastaroak


Aztertu egin da erakundeak herritarrari zuzendutako jardueretan (erakusketak, kanpainak, ikastaroak, bestelako egitasmoak...) jarduera edo ekitaldi hori euskaraz jarraitu ahal izateko aukera zenbaterainokoa den, ez ekitaldia edo jarduera bera zein hizkuntzatan gauzatzen den. Gai honen inguruan bi galdera planteatu zaizkie ordezkariari: lehenengoan herritarrei zuzendutako erakusketa, kanpaina eta bestelako egitasmoez galdetu zaie; eta bigarrenean herritarrei zuzendutako ikastaroak.

Herri erakunde gehienek (% 89) antolatzen dituzte herritarrei begirako jarduerak; gehiago udal eta mankomunitate eta foru aldundiek (% 94 eta % 100 hurrenez hurren), eta gutxiago Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunek eta erakunde publiko independenteek (% 60). Aldiz herritarrentzako ikastaroak antolatzen dituzten erakundeak zertxobait gutxiago dira (% 82); udal eta mankomunitateek gehien (% 88), gutxiago gainerakoek: Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadun eta erakunde publiko independenteen erdiek pasatxo, eta foru aldundi eta batzar orokorren heren batek.

Herritarrei zuzendutako jardueretan, EAEko herri erakundeen euskararen erabileraren indize orokorra % 88 da. Aparte galdetu da ikastaroetarako buruz, eta emaitza oso ezberdina da; ikastaroetan euskararen eskaintza ez da erdia baino askoz ere gehiago (% 57).

Hurrengo grafikoak erakusten duen bezala, bi adierazle horien datuak, nabarmen baxuagoak dira erakunde publiko independenteetan.

**6. grafikoa.** Euskararen eskaintza, herritarrentzat antolatutako jarduerak eta ikastaroetan, erakunde esparruaren arabera (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

### 3.3. Herritarrekiko harremanak

Aztertu da herritarrekiko erlazioan zein den hizkuntzen erabilera: bai erakundeek herritarrekin, bai herritarrek erakundeekin.

#### 3.3.1. Idatzizko harremanak

Idatzizko harremanak hartu dira aztergai, honako aldagai hauek:

- Herri erakundeek zein hizkuntzatan bidaltzen dizkieten agiri ofizialak herritarrei
- Idazkiak euskaraz aurkeztu dituzten herritarrei nola erantzuten dieten herri erakundeek

Oro har, langileen erdiek egiten dituzte herritarrei zuzendutako idazkiak.

#### *Erakundeak herritarrei bidalitako idazkiak*

EAEko herri erakundeek herritarrei bidalitako idatzien % 60 ele bietan daude eta euskaraz % 13. Soilik euskaraz eta ele bietan daudenak ere batuta (% 73), ehuneko orokor horren gainera dauden erakunde esparruak dira: hiriburuak ez diren udalak, mankomunitateak, foru aldundiak, jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak. Azpitik daude berriz, erakunde publiko independenteak eta bereziki hiriburuak. Gipuzkoako herri erakundeen datua ere altua da, % 88.


Langilearen ezaugarrien arabera, langileen euskara-mailak eragiten du gehien; euskaraz idazteko behar besteko mailarik ez duten langileen ardurapekoak diren idatzietan, 10etik 6 baino gutxiagotan bermatzen da euskararen erabilera, idazteko gaitasuna nahiko ongi denean, 10etik 7; eta azkenik, euskaraz ongi hitz egiteko gai diren langileak hartuta, 10etik 8 pasatxo izatera iristen da. Gizonetatik emakumeetara ere badago aldea, 6 puntukoa; emakumeek idatzia diren herritarrek jasotzen dituzten idazkietan, euskararen erabilera maila altuagoan bermatzen da. Adina, euskara mailarekin dago lotua.

#### *Herritarrek erakundeetan euskaraz aurkeztutako idatzien erantzunak*

Erantzun gehienak, % 62, euskara hutsean bidaltzen zaizkie herritar horiei eta % 25 ele bietan. Bi ehuneko batura % 87 izanik, datu hori hobetzen duten erakunde esparruak dira, hiriburuak ez diren udalak, foru aldundiak eta Jaurlaritza; azpitik daudenak berriz, hiriburuak eta erakunde publiko independenteak. Gipuzkoako erakundeetan gehiago erabiltzen dira (% 71) euskara hutsean prestatutako idatzia.

Langileen ezaugarrien arabera kalkulaturako datuetan, aurreko joerak errepikatzen dira; batez bestekoaren gainera daude euskaraz ongi idazteko gai direnak, emakumeak eta gazteak.

**7. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskara hutsean eta ele bietan) herritarrei bidalitako idazki ofizialetan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

### 3.3.2. Ahozko harremanak

Herritarrekiko ahozko harremanetan euskararen erabilera maila zenbaterainokoa den ere aztertu da, aurrez aurreko harremanetan eta telefono bidezkoetan; harrera guneetako langileen artean,—hots, bere lanpostuaren eginkizun nagusia herritarrei harrera egitea duten langileen artean—, eta gainerakoen artean, —herritarrekiko ahozko harremana izan bai, baina lanpostuko zeregin nagusia hori ez denean—.

Langileari galdetu zaio ahozko harremanean zein den harrera egiteko erabiltzen duen hizkuntza —agurra, herritarrak erabili nahi duen hizkuntza esplizitatu arte—, bai aurrez aurreko harreran, bai telefono bidezkoan. Eta zein hizkuntzatan erantzuten duten herritarrek. Otik 10erako eskala batean kokatzeko eskatu zaio, non 0 den beti gaztelaniaz eta 10 beti euskaraz. Gero, eta lortutako datuen irakurketa erraztu nahirik, eskala bidez jasotako datu horiek, balio bakoitzaren ehunekoa eta dagokion hizkuntza erabileraren balioekin biderkatuta, euskararen erabilera mailaren batez besteko ehunekoa kalkulatu da; modu horretara kalkulatu dira hurrengo grafikoetako ehunekoak.

#### a) Harrera guneak

Bost langiletatik bat (% 20), hori da harrera guneetan lan egiten dutenen pisua. Gehixeago udal eta mankomunitateetan (% 26), eta gutxiago foru aldundietan eta Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan (% 11 inguru).

Herritarren harrera guneetan lan egiten duten langileei egindako inkestatik lortutako datuak aztertu dira. Aurrez aurreko zerbitzua eta telefono bidezkoa, zer hizkuntzatan ematen diren jaso da, honela bereizita:

- Langileak harreran erabilitako hasierako hizkuntza, herritarrak zein hizkuntzatan artatzea nahi duen esplizitatu aurretik.
- Langilearen agurra entzun ondoren, herritarra zein hizkuntzatan zuzendu den erakundera.

#### *Langileak herritarrari*

Aurrez aurre % 68, eta telefonoz % 71, horiek dira harrera guneetan herritarrak artatzerakoan erabilitako euskara adierazlearen ehunekoak. Baina eremu soziolinguistikoaren arabera aldeak handiak dira eta harrera guneetan herritarrari lehen hitz euskaraz egitea ez dago sistematizatua herri erakunde guztietan. Eremu euskaldunetan kokatutako herri erakundeetan (derrigortasun indizea % 70 baino altuagoa) % 90 baino altuagoak diren adierazleak (lehen hitza euskaraz), gune soziolinguistiko erdalduneneko erakundeetan (derrigortasun indizea % 45 baino txikiagoa), % 48 - % 52raino jaisten dira. Langileen hizkuntza gaitasunak badu eragina, ingurune erdaldunetan langileen euskara maila baxuagoa delako; baina langileen adinaren arabera datuak begiratuta, gazteek euskara maila hobea izanik, euskara gehiago erabili beharko lukete herritarrei harrera egiteko, eta ez da hala: 46-55 urte arteko langileen datuak (% 75 inguru), 46 urtez azpikoenak baino hobeak dira (% 70 inguru aurrez aurreko harreran). Herritarren harreran langileen hasierako hizkuntza euskara zenbat den erakusten duen adierazlearen datuak, EAEko batez bestekoarekin alderatuta, baxuagoak dira hiriburuetan (% 55 aurrez aurre) eta Jaurlaritzan (% 63).

### *Herritarrak langileari*

30 puntu inguruko aldea dago harrera guneetako langileek lehen hitza euskaraz zenbat egiten duten eta herritarrek zein hizkuntza erabiltzen duten alderatuta. Langileen hasierako harreran euskararen erabilera-adierazlea % 70 inguru izanik, herritarren erantzuna euskaraz, % 40 inguru da – alde oso txikia dago aurrez aurrekoa (% 40) eta telefono bidezkoaren artean (% 41) –. Eta adierazgarria da oso, honako hau: gazteak diren herri erakundeetako langileekin, herritarrek joera handiagoa dute euskaraz egiteko; 35 urtez azpiko langileekin, herritarrek zer mailatan euskara erabiltzen duten, 17 puntu altuagoa da datu hori. Elkarrizketari hasiera emateko, gazteenek ez dute euskara gehiago erabiltzen, baina euskara erabilitakoa, langile gazteekin herritar gehiagok jarraitzen dute solasaldia euskaraz.

Herritarrak herri erakundeetara zein hizkuntzatan gerturatzen diren, nagusiki ingurune soziolinguistikoak markatzen du: ingurune erdaldunean (derrigortasun indizea % 45 baino baxuagoa), % 23 da euskararen erabilera aurrez aurrekoan, tartekoetan (derrigortasun indizea % 45 - % 70), % 45, eta euskaldunean (derrigortasun indizea % 70etik gora), % 70. Baina langileek zein hizkuntza erabiltzen duten solasaldia hasteko eta langileen euskara gaitasuna zein den ere, giltzarriak dira, ondoren herritarrekiko solasaldia euskaraz izateko. Euskara maila altua duten langileekin, harrera guneetan euskaraz egiten duten herritarren ehunekoa, batez besteko orokorra baino 7 puntu altuagoa da (% 47 aurrez aurre).

Hiriburuetan, foru aldundietan eta Jaurlaritzan, euskara hautatzen duten herritarren ehunekoak baxuagoak dira, % 32, % 33 eta % 34, hurrenez hurren (aurrez aurreko harreran). Aurrez aurre edo telefonoz, herritarren euskara erabileraren datuak hobekiak dira telefonoz, Jaurlaritzan eta aldundietan, eta alderantzizkoa gertatzen da erakunde publiko independenteetan.

**8. grafikoa.** Harrera guneetako langileen euskararen ahozko erabilera herritarrekiko harreran, aurrez aurre eta telefonoz, eta euskararen erabilera herritarren erantzunean (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.



## **b) Harrera guneak ez diren lanpostuak**

Harrera guneetan lan egin ez arren, herritarrekin harremana duten lanpostuetako langileen erantzunetako datuak jaso dira jarraian. % 35ek dituzte aurrez aurreko harremanak herritarrekin, eta %45ek telefono bidezkoak. Udal eta mankomunitateetan, antzeko dira aurrez aurreko harremanak (% 39) eta telefono bidezkoak dituztenak (% 43). Gainerako erakundeetan, ohikoagoa da telefono bidezko harremanak izatea, aurrez aurrekoak baino.

### *Langileak herritarrari*

Harrera guneetako datuekin alderatuta, euskararen erabilera datuak zertxobait baxuagoak dira: aurrez aurre % 64, eta telefonoz % 66. Batez besteko horietatik nabarmen gorago daude, hiriburuak ez diren udalak, mankomunitateak eta Gipuzkoako erakundeak.

### *Herritarrek langileari*

Logikoa den bezala, alde txikia dago harrera guneetatik gainerako lanpostuetara. Harrera guneak ez diren lanpostuetako langileekin hitz egiteko, herritarren % 42k euskara erabiltzen dute aurrez aurre, eta telefonoz % 40ek. Ingurune soziolinguistikoa, lurraldea eta erakunde-motaren arabera aldeak eta joerak, harrera guneetako datuen parekoak dira: herritar gehiago dira administrazioa euskaraz zuzentzen direnak hiriburuak ez diren udaletan, mankomunitateetan eta Gipuzkoako erakundeetan; gutxiago berriz, hiriburuetan, foru aldundietan eta Jaurlaritzan.

**9. grafikoa.** Harrera guneetakoak EZ diren langileen euskararen ahozko erabilera herritarrekiko harreran, aurrez aurre eta telefonoz, eta euskararen erabilera herritarren erantzunean (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

**c) Euskarazko eskariari emandako erantzuna eta euskaraz artatzeko gai ez direnen jokabidea**


Herri erakundeetako langileei zuzenean galdetu zaie, zein hizkuntzatan komunikatzen diren herritarrekin, aurrez aurre zein telefonoz, euskara denean herritarrak langilearengana zuzentzeko aukeratutako hizkuntza. Egoera horietan, langileek, batez beste, euskara erabiltzen dute % 80 batean eta hortik % 100era dagoen tartea, % 20, izango litzateke hiritarren hizkuntza eskubideak bermatzen ez diren egoeren neurria.

Langileen % 86k erantzun diote galdera honi, gainerakoek ez baitute ahozko harremanik herritarrarekin; gehixeago udal eta mankomunitateetan (% 90).

Erakunde esparruaren arabera, % 80ko datu orokorraren gainetik daude, hiriburuak ez diren udalak eta mankomunitateak (% 87 inguru) eta Gipuzkoako herri erakundeak (% 92). Behetik berriz, Eusko Jaurlaritza eta erakunde publiko independenteak (% 77 inguru) eta bereziki hiriburuak (% 71); aldundiak, batez beste orokorraren parean daude (% 81).

Langileen ezaugarriari erreparatuta, datuak hobek dira, batez ere, 35 urtez azpiko langile gazteenetan (% 96). Generoari jarraiki, hiru puntuko aldea dago; emakumezkoak batez bestekoaren gainetik daude (% 82) eta gizonezkoak azpitik (% 79).

**10. grafikoa. Langileen euskararen erabilera euskaraz ahoz zuzentzen zaien herritarrari (batez besteko %)**



Iturria: Siadeco, 2022.

Eta herritarrak euskaraz eskatu bai, baina euskaraz erantzuteko gai ez diren langileei, egoera horretan zer egiten duten ere galdetu zaie.

Guztiei galdetuta, % 68k erantzun dute gai direla herritarra euskaraz artatzeko. Langileen gainerako % 32ko multzoa honela banatzen da:

- % 14k, herritarrari aukera ematen diote euskaraz egiteko nahiz eta beraiek gaztelaniaz erantzun.
- % 6k gaztelaniaz egitea eskatzen diote herritarrari.
- %5ek erantzun dute, euskaraz dakien beste lankide batek artatzen duela herritarra; kasu batzuetan badago horretarako protokolo bat erakundean (% 3), beste batzuetan aldiz, ez (% 2).
- Gainerako %7ak, “besterik” erantzun dute: batzuk ahal duten neurrian euskaraz jarraitzen dute, baina tarteka gaztelaniara pasaz: ‘hizkuntza oso teknikoa’ denean, ‘azaldu beharrekoa oso garrantzitsua’ denean, ‘ongi ulertzen ez diodanean’,.... Beste batzuek bi hizkuntzak tartekatzen dituzte, eta badira ere kasu batzuk hori inoiz gertatu ez zaiela diotenak.

Herritarrak euskaraz artatzeko gai ez direnen multzoa bakarrik hartuta (% 32), 10 langiletatik 2k, gaztelaniaz hitz egitea eskatzen diete herritarrei, beste 2k, ez dute zehaztu zer jokabide hartzen duten, 4k euskaraz hitz egiteko aukera ematen diete administratuari, nahiz eta gaztelaniaz erantzun, eta gainerako 2ek, herritarra euskaraz artatzeko neurriak hartzen dituzte, lankideen laguntzarekin.

Erakunde esparruaren eta lurraldearen araberako datuetan, hiriburuetako udaletan eta Bizkaia eta Arabako herri erakundeetan, gaztelaniaz erantzun arren hiritarrari euskaraz egin dezan proposatzen dieten langileen ehunekoak altuagoak dira. Bestalde, erakundean protokolo bat badagoela ezarria erantzun duten langileen ehunekoak, altuagoa da, Eusko Jaurlaritzan, foru aldundietan eta Arabako erakundeetan.

**7. taula. Herritarra euskaraz artatzeko gai ez diren langileen hizkuntza jokabidea (%)**

			Euskaraz artatzeko gai ez direnen jokabidea					Besterik (%)	Guztira (%)
			Eskatzen diot gaztelaniaz hitz egiteko (%)	Euskaraz hitz egiteko eskatzen diot, nahiz eta nik gaztelaniaz erantzun (%)	Erakundearen protokolo bat dago eta beste lankide batek artatzen du (%)	Erakundearen ez dago protokolorik, baina beste lankide bati eskatzen diot artatzeko (%)	Ez dagokio. Gai naiz herritarra euskaraz artatzeko (%)		
Guztira			6,1	13,9	2,9	2,1	67,8	7,1	100,0
Langilearen ezaugarriak	Generoa	Emakumezkoa	3,7	15,8	3,1	2,5	67,2	7,6	100,0
		Gizonezkoa	10,0	11,3	2,5	1,6	69,0	5,5	100,0
	Adin-tartea	<= 35 urte	2,4	4,6	1,3	0,0	90,7	1,0	100,0
		36-45 urte	1,9	8,5	0,9	0,5	84,0	4,1	100,0
		46-55 urte	5,3	14,4	2,6	1,7	67,3	8,8	100,0
		>55 urte	9,9	17,3	4,8	4,2	57,0	6,9	100,0
	Euskara gaitasuna	Ongi	1,2	0,9	0,2	0,5	94,0	3,2	100,0
		Nahiko ongi	1,3	13,3	1,2	1,3	73,8	9,1	100,0
		Zertxobait	12,5	49,8	7,6	5,4	11,1	13,7	100,0
		Ezer ez/Hitz batzuk	46,4	12,0	19,1	10,2	0,2	12,1	100,0
Erakunde esparrua	< 5 mila bizt		9,2	8,9	0,6	2,3	74,6	4,4	100,0
	> 5 mila bizt		4,9	11,9	1,5	1,2	75,4	5,1	100,0
	Hiriburua		8,4	18,8	1,7	3,2	58,8	9,1	100,0
	Mankom		9,2	11,4	0,4	0,7	73,6	4,7	100,0
	Udal+Mankom		6,7	14,1	1,5	2,0	69,4	6,4	100,0
	Foru Ald+Batx Orok		5,0	12,8	4,4	1,9	69,9	6,0	100,0
	EJ Sailak+Erak auton		5,2	15,4	4,9	3,4	61,8	9,3	100,0
	Erak Publiko indep		9,2	12,5	3,7	1,2	65,5	6,5	100,0
Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak	Lurraldea	Araba	9,4	20,2	6,8	4,1	49,4	10,2	100,0
		Bizkaia	6,9	16,4	1,8	1,7	67,0	6,2	100,0
		Gipuzkoa	2,7	4,5	0,1	0,8	88,4	3,6	100,0
	Derrigortasun indizea	<%45	9,8	22,3	4,6	3,4	51,3	8,6	100,0
		%45-%70	3,6	9,0	0,9	1,0	80,0	5,4	100,0
		>%70	3,2	0,2	0,0	0,2	95,5	0,8	100,0
	Guztira		6,2	13,7	2,4	1,9	69,6	6,3	100,0

Iturria: Siadeco, 2022

## 4. Lan-hizkuntza

Aurreko atalean herri erakundeen kanpora begirako jarduna azterturik, barruko jardunari erreparatu zaio: zer hizkuntza erabiltzen den barne harremanetan eta nolakoa den hizkuntzen kudeaketa. Langileena eta erakundeko solaskideena, bi informazio bide baliatu dira hemen ere eta jardunari buruzko datuak ez ezik, iritzia ere eskatu zaie.

### 4.1. Erakunde barneko hizkuntza paisaia, komunikazio euskarriak eta prozedura administratiboetako hizkuntza

Erakundeetako solaskideei galdetuta, erakunde barruko hizkuntza paisaiaren egoera neurtu eta erakundearen barruko komunikazioetan zein hizkuntza erabiltzen den ere jaso da.

#### *Lanari lotutako hizkuntza paisaia*


Erakundeen barneko hizkuntza paisaia (langileei zuzendutakoa) osatzen duten elementuak hartu dira kontuan: barneko errotulazio txikia (armairuak, apalak, karpetak, artxiboak, etab.), horma irudiak, eta antzekoak. Lan arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa. Kafe eta janari-makinak, fotokopiagailuak, etab. Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak.

Eta egindako ebaluazioaren emaitzak hauek dira:

- Herri erakunde guztiak hartuta, batez beste, barneko hizkuntza paisaiako elementuen % 42 ele bietan dago eta % 23 euskara hutsean eta bien baturak % 65 ematen du.
- Erakunde esparruaren arabera, euskara hutsean dauden elementuen ehunekoa altuagoa da, Eusko Jaurlaritzan (% 30), eta batez ere, hiriburuak ez diren udaletan eta 5 mila biztanlez azpikoetan (% 50). Bi hizkuntzetan dago berriz barne errotulazioa gehien bat (erditik gora), erakunde publiko independenteetan (% 70), Eusko Jaurlaritzan (% 65), mankomunitateetan (% 65) eta foru aldundietan (% 56). Hiriburuak diren udaletako datuak dira okerrenak, gaztelania hutsean daude erakunde barneko hizkuntza paisaiako hiru elementutatik ia bi (% 65).
- Euskaraz eta ele bietan dagoena batuta, % 82 da Gipuzkoako erakundeen datua, % 55 Bizkaikoena eta % 41 Arabakoena.

Datu guztiak hurrengo grafikoan daude adieraziak.

**11. grafikoa.** Euskararen erabilera (ele bietan eta euskara hutsean) erakunde barneko hizkuntza paisaian (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.




**Barneko informazio eta komunikazio euskarriak**

Euskarri mota hauek hartu dira kontuan: erakunde barneko ohar eta iragarki taulak, iradokizunen postontzia, intranet-a, berripaperak, posta elektronikoz langileei egindako jakinarazpenak eta bidalitako zirkularrak.

Ele bietan daude elementu horietatik gehienak (%71) eta euskaraz % 17. Oro har, joerak errepikatu egiten dira. Euskaraz bakarrik idatzitako barne informaziorako euskarrien presentzia handiagoa da, udal txikienetan (% 47), 5 mila biztanletik gorakoetan (% 38) eta Eusko Jaurlaritzan (%21). Ele bietan gutxiago daude udal txikienetan (% 25) eta 5 milatik gorakoetan ere (% 39). Eta elebitasuna nagusitzen da, bereziki hiriburuetan (% 90), foru aldundietan (% 85), erakunde publiko independenteetan (%77) eta Eusko Jaurlaritzan (%74).

**12. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskaraz edo ele bietan) erakunde barneko informazio eta komunikazio euskarrietan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.


### Barneko prozedura administratiboetako hizkuntza

Barneko prozedura administratiboak kudeatzeko erabiltzen den informazioa sistematikoki jasotzen duten galdetu zaie erakundeetako solaskideei, eta egiten dutenetan, zer hizkuntzatan egiten den. Hiru erakundetatik batek (% 32) egiten du prozedura administratiboak kudeatzeko erabilitako hizkuntzaren jarraipena.

Aurrez aztertutako datuen – laneko hizkuntza paisaia eta barneko komunikazio euskarriak – tarteko emaitzak lortu dira hemen: batez beste, ele bietan kudeatzen dira gehienak (% 55) eta euskara hutsean ia laurdena (% 23), gaztelania hutsean gainerakoa (% 22).

Gehiago kudeatzen dira euskara hutsean prozedura administratiboak, udal txikienetan (% 70), oro har Gipuzkoako erakundeetan (% 52) eta hiriburuak ez diren 5 milatik gorako udaletan (% 46). Ele bietan, nabarmen gehiago Eusko Jaurlaritzan (% 73). Soilik gaztelania erabiltzen den ehuneko altueneko erakunde esparruak dira, Araba eta Bizkaiko erakundeak oro har (% 34) eta foru aldundiak (% 29).

**13. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskaraz edo ele bietan) erakunde barneko prozedura administratiboan kudeaketan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

## 4.2. Idatzizko jarduna

Langileei zuzenean galdetuta, neurtu da, batetik, erakunde barnerako idazten diren langile bakoitzaren ardurapekoak diren idatzi eta dokumentuak – txostenak, memoriak, bileretarako dokumentuak eta bestelako barne idatziak –zein hizkuntzatan tramitatzen diren, eta bestetik, egindako lan bileretako dokumentuak – deialdiak, aktak eta txostenak – zein hizkuntzatan egoten diren. % 55 dira bere lanean barneko idatzizko komunikazio ofizialak idazten dituzten langileak; gehiago lan bileretan dokumentu idatziak manejatzen dituztenak (% 68).


### *Erakunde barneko dokumentu ofizialak*

Batez beste, erakundeen barne dokumentuetan, % 54,0 euskaraz edo ele bietan idazten da; lautik bat euskara hutsean (% 25) eta beste bat pasatxo (% 29) ele bietan. Beraz, 100era arteko diferentzia, % 46, soilik gaztelaniaz. Euskara hutsean gehiago, udal txikietan (% 57), 5 milatik gorakoetan (% 42) eta oro har Gipuzkoako herri erakundeetan (% 56); ele bietan gehiago, foru aldundietan (% 31), Eusko Jaurlaritzan (% 37) eta bereziki erakunde publiko independenteetan (% 51). Eta erakunde barneko 10 dokumentu ofizialetatik 7 inguru gaztelania hutsean idazten dira hiriburueta udal eta Arabako erakundeetan (% 72).

Langileen soslaiak ere eragina du. Soilik euskaraz edo ele bietan tramitatutakoak orokorrean % 54 izanik, 35 urtez beheko langileetan (% 64), euskaraz ongi idazteko gaitasuna dutenetan (% 69) eta emakumezkoetan (% 58), euskararen erabileraren datuak hobeak dira.

Hurrengo grafikoan daude adierazita datu guztiak.

**14. grafikoa. Euskararen erabilera maila (euskaraz edo ele bietan) erakunde barnerako idatzitako dokumentu ofizialetan (batez besteko %)**




Iturria: Siadeco, 2022.

### *Lan bileretako dokumentuak*

Erakundeetan bertan langileek egindako lan bileretako dokumentazio gehiena (% 52) gaztelania hutsean dago; lautik bat eskas (% 23) euskara hutsean eta beste bat (% 25) ele bietan. Bileretako dokumentazioa gaztelania hutsean egotea, gehiago gertatzen da hiriburuetako udaletan (% 70), foru aldundietan (% 61) eta Eusko Jaurlaritzan (% 59); eta euskara hutsean egotea ohikoagoa da udal txikietan eta 5 milatik gorakoetan, % 53 eta % 41, hurrenez hurren. Langileen ezaugarrien araberrako emaitzetan, joerak errepikatu egiten dira: lan bileretako dokumentuetan euskara gehiago erabiltzen da, euskaraz gaitasun ona dutenek (% 62 euskaraz edo ele bietan), gazteenek (% 65) eta emakumeek (% 50) parte hartzen duten bileretan.

**15. grafikoa. Euskararen erabilera maila (euskaraz edo ele bietan) lan bileretako dokumentuetan (batez besteko %)**



Iturria: Siadeco, 2022.

### 4.3. Ahozko jarduna

Ahozko jarduna ere begiratu da barne komunikazioa aztertzeko, aldagai hauen bidez:

- Lankideen arteko ahozko harremanak, aurrez aurre eta telefonoz
- Lan bileretako hizkuntza: zein hizkuntzatan egiten dituzten laneko bilerak


Lan bilerak, lau langiletik hiruk egiten dituzte (% 77); gehixeago udal eta mankomunitateetan (% 83) eta erakunde publiko independenteetan (% 85). Gutxiago foru aldundi eta batzar orokorretan (% 72) eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan (% 66).

#### *Langile arteko ahozko harremanak, aurrez aurre eta telefono bidez*

Ez dago alderik langileak aurrez aurre aritu edo telefonoaren bestaldetik; langileek elkar ezagutzen duten heinean, hizkuntza ohiturak finkatuta daudelako. Hauek dira datuak:

- % 44,5 telefonoz eta % 44,0 aurrez aurre, horiek dira euskararen erabilera mailaren ehunekoak.
- Langileen artean euskaraz gehiago egiten da ahoz, udal txikietan (%64), 5 milatik gorakoetan (57), mankomunitateetan (% 51) eta Gipuzkoako erakundeetan (% 73). Gutxiago berriz, Eusko Jaurlaritzan (% 41), foru aldundietan (% 40), erakunde publiko independenteetan (% 38), eta bereziki hiriburuetan (% 30).
- Euskaraz ongi egiteko gai diren langileek (% 64) eta 35 urtez azpiko gazteek (% 57) erabiltzen dute gehien euskara. Kontuan hartzekoa da zenbat jaisten den erabilera, euskara *ongi* dakitenetatik (% 57), *nahiko ongi* dakitenetara (% 35).

**16. grafikoa. Euskararen erabilera lankideen arteko ahozko harremanetan, aurrez aurre eta telefonoz (batez besteko %)**




Iturria: Siadeco, 2022.



### *Lan bileretako hizkuntza*

Herri erakunde guztien datu orokorrari erreparatuta (% 38), lankideekin baino gutxiago erabiltzen da euskara lan bileretan, baina hiriburuek eta udalerriz gaindiko erakundeek eragindakoa da jaitziera hori. Udaletan, bai txikietan bai 5 biztanlez gorakoetan, eutsi egiten zaio erabilerari bileretako ahozko jardunean ere, %64 eta % 56, hurrenez hurren. Aldiz, lankideekin baino gutxiago egiten da bileretan euskaraz beste erakunde hauetan: hiriburuetan (% 21), erakunde publiko independenteetan (% 30), Eusko Jaurlaritzan (% 32) eta foru aldundietan (% 33). Lurralde arteko aldeak ere nabarmenak dira, % 72 Gipuzkoan, % 30 Bizkaian eta % 15 Araban. Langileen hizkuntza gaitasunak eragin handia du hemen ere, hurrengo grafikoan azaldu bezala.

**17. grafikoa. Euskararen erabilera lan bileretan, ahoz (batez besteko %)**



Iturria: Siadeco, 2022.


#### 4.4. Baliabide informatikoak

##### Programa informatikoen euskarazko bertsioak

Udal eta gainerako erakundeetako teknikari zein solaskideei galdetuta, langileek beren lanerako erabiltzen dituzten baliabide informatikoetan – PCak, ordenagailu eramangarriak, tabletak eta eskuko telefonoak – euskaraz instalatutako programa informatikoak zenbat diren neurtu da. 10 erakundetatik 8tako solaskideek erantzun diote galdera honi.

Hiriburuak diren udaletan jarriak daude euskarazko bertsioak lanpostu ia gehienetan (% 97), baina ez beste erakundeetan<sup>1</sup>. Ehunekoak nabarmenki baxuagoak dira mankomunitateetan (% 16), erakunde publiko independenteetan (% 24) eta udal txikietan (% 29). Ehunekoak altuagoak izan arren, lanpostuen erdia baino gutxiagotan daude jarriak euskarazko programa informatikoak, Eusko Jaurlaritzan (% 42) eta foru aldundietan (%44).

18. grafikoa. Programa informatikoen euskarazko bertsioak instalatuta dituzten lanpostuak (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

<sup>1</sup> Datuok Donostia eta Gasteizi dagozkio, Bilboko Udalak ez baitu zehaztu euskarazko bertsioak instalatuak dauden lanpostuen ehunekoak

### *Euskarazko aplikazio informatikoen erabilera*


Erakundearen solaskidearengandik jasotako informazioa osatzeko, lanerako baliabide informatikoak erabiltzen dituzten langileei, gehien erabilitako programa eta aplikazio informatikoak euskaraz zenbateraino erabiltzen dituzten galdetu zaie.

10 langiletik 7k baino gehiagok (% 72), gaztelaniaz daudenak erabiltzen dituzte beti edo gehiago, %18ak euskaraz daudenak beti edo gehiago eta gainerako %10ak, parean, hizkuntza batean zein bestean daudenak.

Beti edo gehiagotan gaztelaniazko bertsioak erabiltzen dituzten langileen ehunekoak batez bestekoaren gaineratik dauden erakunde esparruak hauek dira: hiriburuak (% 84), foru aldundiak (% 76), erakunde publiko independenteak (% 82) eta Arabako erakundeak (%93). Beste muturrean euskaraz daudenak bakarrik edo gehiago erabiltzen dituzten langileen pisua handiagoa da, udal txikietan (% 31), 5 milatik gorakoetan (% 29), eta orokorrean, Gipuzkoako entitateetan.

Langilearen soslaiaren arabera, etengabe errepikatzen direnak dira; euskarazko bertsioen erabilera handiagoa, euskara ongi dakitenek eta gazteenek (% 31 inguru).

**19. grafikoa. Lanerako erabilitako programa informatikoetako hizkuntza (%)**



Iturria: Siadeco, 2022.


#### 4.5. Langileen kudeaketa eta prestakuntza

##### Langileen kudeaketarako dokumentazioa

Erakunde bertako pertsonalaren kudeaketarako erakundeak erabiltzen dituen inprimaki, dokumentu eta komunikazioetako hizkuntzaren datuak, erakundeetako solaskideen bitartez jaso dira. Pertsonalaren kudeaketarekin lotura duten dokumentuak dira, langile etorri berrientzako protokoloa, lan kontratuak eta bestelako lege dokumentuak, lanpostuarekin edo erakundearen barne funtzionamenduarekin zerikusia duten barneko txostenak eta baita zabalpen handiagoa duten jakinarazpenak ere - lanpostu eskaintzak, posta bidezko jakinarazpenak, lan egutegia...-.

Gisa horretako dokumentazioaren gehiengoa ele bietan dago; EAEko herri erakundeetan, batez beste, pertsonalaren kudeaketarako erabilitako dokumentu eta komunikazioen % 70 bi hizkuntzetan dago, euskara hutsean % 10 eta gaztelania hutsean gainerako %20a. Ele bietan egiteko irizpidea zabalduagoa dago hiriburuetan, Eusko Jaurlaritzan eta erakunde publiko independenteetan, horietan % 90 inguru baita bi hizkuntzak erabilitako dokumentazioaren batez bestekoa. Aldiz udaletan, batez ere txikienetan, hizkuntza bakarrean egotea da ohikoena. Hala ere, gaztelania hutsean dauden dokumentuen batez bestekoak nahiko altuak dira – 5 mila biztanlez azpiko udal txikienetan %35 eta 5 milatik gorakoetan, hiriburuak aparte utzita, % 29 –. Lurraldean artean, aldea dago Gipuzkoa eta beste bi lurraldeetan kokatutako herri erakundeen batez bestekoetan.

**20. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskaraz edo ele bietan) langileen kudeaketarako dokumentu eta komunikazioetan (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2022.

**Prestakuntza ikastaroen dokumentazioa**

Langileen prestakuntzarako kudeaketa, erakundeek zein hizkuntzatan egiten duten erreparatuta – ikastaroen deialdiak, izen-emateak, asebetetze inkestak, kudeaketa-aplikazioak, eta abar –, esan, horietan euskararen erabilera, langileen kudeaketarekin lotutako dokumentazioan baino zertxobait baxuagoa dela.

Orokorrean, batez beste, % 64 ele bietan, % 13 euskaraz eta gainerako % 23a gaztelaniaz. Langileen prestakuntzari lotutako euskarrietan, ele bietan erabilitakoen batez bestekoak altuak dira, Eusko Jaurlaritza (% 82) eta foru aldundietan (% 87). Datu hauek, erakundeetako solaskide edota ordezkariak emandakoak dira.

**21. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskaraz edo ele bietan) langileen prestakuntza ikastaroen dokumentazioan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

### Langileek jasotako formakuntza saioak

Langileei zuzenean galdetuta neurtu da, lanari lotutako prestakuntza zein hizkuntzatan jaso duten. Langileen % 62k parte hartu dute lan prestakuntza saio edota ikastaroren batean, azken 12 hilabeteetan.

**8. taula. Azken 12 hilabeteetan lan prestakuntza saio edota ikastaroren batean parte hartu duten langileak (%)**


		%	
Guztira		62,4	
Erakunde esparrua	< 5 mila bizt	62,9	
	> 5 mila bizt	60,7	
	Hiriburua	57,1	
	Mankom	67,0	
	Udal+Mankom	59,8	
	Foru Ald+Batx Orok	70,9	
	EJ Sailak+Erak auton	59,2	
	Erak Publiko indep	60,9	
Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak	Lurraldea	Araba	57,9
		Bizkaia	66,7
		Gipuzkoa	61,3
	Derrigortasun indizea	<%45	59,4
		%45-%70	65,4
		>%70	68,6
	Guztira		63,2

Iturria: Siadeco, 2022

Aldea dago, langileentzako ikastaroen kudeaketatik, gero, ikastaro horietan erabilitako hizkuntzara. Administrazioko langileen formakuntza nagusiki gaztelaniaz egiten da; hirutik bik (% 68), formazioa gaztelania hutsean edo nagusiki gaztelaniaz jaso dutela erantzun dute, % 17k euskaraz edo euskaraz gehiago eta gainerako % 14ak euskaraz gaztelaniaz bezainbeste. Udal txikienetan dago aldea, bertako langileen % 31k egin baititu ikastaroak nagusiki euskaraz; aldiz erakunde handiagoetan (hiriburuetako udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta erakunde publiko independenteak), gaztelania erabiltzen da gehiago. Edonola ere, euskaldunenak diren udalerrietan kokatutako erakundeen datuak hobek dira; Gipuzkoan euskararen erabilera gaztelaniaren aurretik dago eta baita % 70etik gorako derrigortasun indizea dagokien erakundeetan ere.



22. grafikoa. Langileek lanerako prestakuntzan erabilitako hizkuntza (%) kontuz, datuak honela eman behar dira:



#### 4.6. Kanpo harremanak, beste erakunde publikoekin eta enpresa pribatuekin

##### *Bidalitako idatziak*

Erakundeek bidaltzen dituzten idatzien hizkuntza egoera aztertzeko, jasotzailea zein den, hiru multzo bereizi dira: administrazio publikoko beste erakundeak (udalak, aldundiak, Jaurlaritza...), enpresa pribatuak (produktu nahiz zerbitzuen hornitzaileak, finantza entitateak eta bezero diren pertsona juridikoak) eta bestelako erakunde pribatuak (aliatuak, erakunde kolaboratzaileak...).

Herri erakundeetako langileei galdetu zaie, idatzi horiek prestatu edo kudeatu beharrik izaten duten eta zein hizkuntzatan bidaltzen diren.

**Beste herri erakundeetara:** inkestatutako 5 langiletatik 2k (% 42) idatzi edo kudeatzen du halako dokumenturik eta horiei, beste administrazio publiko batera bidaltzeko direnean, zein hizkuntzatan idatziak dauden galdetuta, jasotako batez besteko erantzunak dira: % 23 euskaraz, % 45 ele bietan eta gainerako % 32a gaztelania hutsean; azken ehuneko hori nabarmen altuagoa da gainera hiriburuetako udaletan (% 59). Langilearen soslaiak ere markatzen du aldea, batez ere euskaraz idazteko gaitasun mailak. Generoari erreparatuta, idatzi elebidunen ehunekoa 10 puntu altuagoa da emakumeen artean, eta adinez, 35 urtez beherakoetan hobeak dira euskararen datuak, soilik euskaraz (% 30) zein ele bietan (% 49).

**Enpresa pribatuetara:** hiru langiletik batek-edo (% 37) du harremana enpresekin eta euskararen erabilera, beste administrazioekiko harremanetan baino gutxiago bermatzen da enpresa pribatuetara zuzendutako idazkietan. Bidalitako idatzien erdia baino gehiago (% 54) gaztelania hutsean bidaltzen da – ele bietan % 27 eta euskaraz % 19 –. Erakunde mota eta langileen soslaiaren arabeko datuetan dauden aldeak eta joerak, aurreko adierazlearen berdinak dira –gaztelania hutsean bidalitakoak gehiago hiriburuetan, eta gutxiago, euskara gaitasun ona dutenetan, emakumeetan eta gazteetan–.

**Bestelako erakunde pribatuetara:** langile gutxiagok (% 30) dute harremana; euskararen erabileraren datuak, aurreko atalean jasotako enpresa pribatuenak baina zertxobait hobeak dira, baina beste administrazio publikoetara bidalitako komunikazioetakoak baino okerragoak. Hauek dira EAEko datu orokorrak: % 48 gaztelania hutsean –hiriburuetan % 69–, % 36 ele bietan eta %16 euskaraz.

**23. grafikoa. Beste erakundeetara bidalitako dokumentu edo agirietako hizkuntza (batez besteko %)**




Iturria: Siadeco, 2022.

### *Ahozko harremanak*

Kanpo harremanetako ahozko erabileraren datuak ere, langileek zuzenean emandakoak dira. Beste administrazioekin ahozko harremanak badituztela erantzun duten langileak % 58 dira, erakundearentzat lan egiten duten enpresa pribatuekin % 52 eta bestelako erakundeekin (erakunde kolaboratzaileak, bezero diren enpresak...) % 47.

Ahoz ere, beste erakunde publikoekin egiten da euskaraz gehien – euskararen batez besteko erabilera indizea % 54 izanik – eta gutxiago, enpresa pribatuekin (% 38) eta beste erakunde pribatuekin (% 40). Udal txikienek gehien eta hiriburuak gutxien, hori da joera orokorra. Aldundietan, Jaurlaritzan eta erakunde publikoko independenteetan, hiriburuak ez diren udaletan baino gutxiago; alde handiena, enpresa pribatuekiko ahozko harremanetan dago; euskararen erabilera indizea % 31 da aldundietan, % 33 Eusko Jaurlaritzan eta % 26 erakunde publiko independenteetan.

**24. grafikoa. Euskararen erabilera ahoz, beste administrazioekin, enpresa pribatuekin eta bestelako erakunde pribatuekin (batez besteko %)**



Iturria: Siadeco, 2022.

#### 4.7. Hizkuntza kudeaketa eta irizpideak

##### *Zuzendari edota erakunde-ordezkarien parte-hartzea*

Zuzendariak diren edota ordezkari-ardurak dituzten pertsonak erakundearen euskara planean zenbateraino parte hartzen duten jakiteko informazioa jaso da atal honetan. Erakundearen informazio orokorra jasotzeko galdetegia bete duten euskara teknikari edo bestelako solaskideek emandakoa da informazio hori, eta hauek dira emaitzak:

- EAE mailan, 10 erakundetik 8tan (% 81), zuzendari edo erakunde-ordezkariek erabilera planaren jarraipenean parte hartzen dutela jaso da. Hala ere, erakundearen tamainaren arabera aldeak handiak dira eta hiriburuak ez diren udaletan, % 59ra murrizten da datu hori, eta mankomunitateetan ere, baxuagoa da (% 68). Altua da berriz, Jaurlaritzan (% 100), hiriburuetan (% 100), erakunde publiko independenteetan (% 98). Hiru aldundi eta batzar orokorretako batez bestekoa % 74 da.
- Planaren jarraipena egiten den erakundeak bakarrik hartuta, jarraipen bileretan parte hartzea da ohikoena (% 81); euskararen erabilerean adierazleetan gertatutako bilakaerari buruzko hausnarketetan gutxiago hartzen dute parte erakundeetako arduradunek (% 51), eta oraindik eta gutxiago berriz, hobekuntzak zein neurri zuzentzaileak proposatzerakoan (% 39) edo erabilera planaren diseinuan (% 39). Neurri zuzentzaileei buruzko hausnarketaren fasean eta planaren diseinu fasean, zuzendarien parte-hartze mailaren datuak hobekuntza dira Eusko Jaurlaritzan – % 47 hobekuntza neurriak proposatzerakoan eta % 60 erabilera planaren diseinua egiterakoan – eta bereziki erakunde publiko independenteetan ere (% 93).
- Zuzendari edo erakunde-ordezkarietatik zenbat diren planari jarraipena egiten diotenak galdetuta, % 48 da EAE mailako batez beste orokorra (jarraipena egiten zaiola adierazi duten erakundeak bakarrik hartuta, hau da, erakunde guztien % 81). Batez besteko horren azpitik kokatzen dira, udal, hiriburu eta mankomunitateetako datuak, eta gainera berriz, foru aldundietakoak (% 71). Eusko Jaurlaritzarenak (% 47), batez besteko orokorraren parekoak dira.

**9. taula. Zuzendari edota erakunde-ordezkarien parte-hartzea erakundearen euskara planean: jarraipena egiten den erakundeak, eta horietan zuzendaritza batzordeko kideek parte hartzen duten zereginak**

		Zuzendaritza batzordeak jarraipena egiten duen erakundeak (%)	Zuzendaritza batzordeak jarraipena egiten duela adierazi duten erakundeak soilik (% 81)					
			Jarraipen bileretan parte hartu (%)	Adierazleen bilakaerari buruzko hausnarketa n parte hartu (%)	Hobekuntzei eta neurri zuzentzaileei buruzko hausnarketan parte hartu (%)	Erabilera planen diseinuan parte hartu (%)	Zenbatak parte hartu (batez besteko %)	
GUZTIRA		81,0	81,1	50,8	39,4	38,8	47,8	
Erakunde esparrua	< 5 mila bizt	58,9	80,5	54,3	61,9	49,2	22,2	
	> 5 mila bizt	58,1	69,8	38,7	65,3	48,3	45,7	
	Hiriburua	100,0	100,0	56,1	35,9	0,0	28,7	
	Mankom	67,8	98,2	10,8	12,6	94,0	13,9	
	Udal+Mankom	75,7	87,2	47,5	47,7	24,1	36,1	
	Foru Ald+Batz Orok	73,8	99,8	65,6	0,2	34,2	70,9	
	EJ Sailak+Erak auton	100,0	70,2	31,9	46,8	59,7	46,7	
	Erak Publiko indep	98,2	12,6	92,2	92,2	92,2	39,0	
Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak	Lurraldea	Araba	59,1	90,4	0,4	7,8	3,4	14,9
		Bizkaia	76,1	93,2	76,2	40,9	18,5	65,9
		Gipuzkoa	85,8	89,1	48,2	32,8	52,8	50,2
	Derrigortasun indizea	<%45	60,3	93,8	36,6	49,9	16,9	18,3
		%45-%70	90,0	89,6	68,5	16,7	33,1	64,6
		>%70	78,0	91,0	34,6	50,1	36,0	43,4
	Guztira		75,1	91,3	53,4	32,3	27,3	49,2

Iturria: Siadeco, 2022

### *Langileen parte hartzea euskararen normalizaziorako egitasmoetan*

Langileei galdetu zaie zenbateraino hartu duten parte euskararen aldeko ekimenetan; zehazki, VI. plangintzaldian zehar (2018tik 2022ra) erakundeak antolatutako normalizazio ekintzetan –mintza saioak, Euskaraldia, Eusle metodologia, trebakuntza saioak, euskara planen jarraipena...– eta langileen herenak baino gehiagok (% 35) parte hartu izan dute, asko edo nahikoa. Beste heren bat pasatxok (% 36) halakoetan gutxi hartu duela parte erantzun du eta bostetik ia batek (% 18) batere ez. Gainerako % 10a kanpoan ageri da: edo ez dutelako egitasmorik antolatu beren erakundeetan, edo ez dutelako joateko aukerarik izan.

Askota nahikoa erantzunetako ehunekoaren baturaren EAEko datu orokorra % 35 izanik, langileen partehartzea altuagoa izan den erakunde esparruak dira: udal txikiak (% 49) eta, hiriburuak sartu gabe, 5 mila biztanlez gorako udalak (% 45). Parte hartze hori baxuagoa izan da berriz, hiriburuetako udaletan (% 25), mankomunitateetan (% 31) eta Eusko Jaurlaritzan (% 29). Aldundien eta batzar orokorren (% 35) eta erakunde publiko independenteen (% 35) ehunekoak, EAEkoaren parean kokatzen. Erakundeak kokatua dagoen eremua zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta handiagoa izan da langileen parte hartzea. Langileen soslaiak ere badu eragina; euskara ekimenetan gehiago hartu dute parte euskara maila altukoek eta emakumeek; adinez berriz, 35-46 urte bitartekoek.



**10. taula. Taula: Langileen parte-hartze maila plangintzaldi honetan erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan (%)**

			Plangintzaldi honetan, zein mailatan parte hartu duzue erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan? (adierazlea eta langileen erantzunak)							Guztira (%)
			Adierazlea (asko + nahikoa)(%)	Asko (%)	Nahikoa (%)	Gutxi (%)	Batere ez (%)	Erakundeak ez du euskararen normalizaziorako ekimenik aurrera eraman (%)	Ez dut aukerarik izan euskararen normalizaziorako ekimenetan parte hartzeko (%)	
GUZTIRA			35,4	7,5	27,9	36,3	18,3	2,3	7,7	100,0
Langilearen ezaugarriak	Generoa	Emakumezkoa	37,3	8,4	28,9	35,7	17,1	2,3	7,6	100,0
		Gizonezkoa	32,7	6,2	26,5	38,0	19,8	2,2	7,3	100,0
	Adin-tartea	<= 35 urte	34,4	11,1	23,3	26,4	13,6	0,8	24,9	100,0
		36-45 urte	45,2	11,2	34,0	33,2	12,4	1,4	7,8	100,0
		46-55 urte	36,6	6,5	30,1	37,8	17,4	2,5	5,6	100,0
		>55 urte	29,4	6,2	23,2	38,9	22,9	2,4	6,5	100,0
	Euskara gaitasuna	Ongi	45,4	10,5	35,0	32,7	12,7	1,8	7,3	100,0
		Nahiko ongi	33,5	5,7	27,8	42,6	14,6	2,2	7,2	100,0
Zertxobait		18,8	3,6	15,2	43,5	25,5	4,0	8,2	100,0	
Ezer ez/Hitz batzuk		7,9	1,4	6,5	19,1	60,7	1,2	11,1	100,0	
Erakunde esparrua	< 5 mila bizt		48,8	11,4	37,3	29,4	9,7	2,8	9,2	100,0
	> 5 mila bizt		45,3	11,5	33,8	34,1	8,3	2,5	9,7	100,0
	Hiriburua		25,3	4,9	20,4	36,9	27,6	2,6	7,5	100,0
	Mankom		31,3	13,7	17,6	35,0	18,9	8,2	6,6	100,0
	Udal+Mankom		37,6	9,2	28,3	34,8	16,0	2,9	8,7	100,0
	Foru Ald+Batx Orok		35,2	5,3	29,9	39,0	20,2	0,5	5,0	100,0
	EJ Sailak+Erak auton		29,3	5,7	23,6	37,5	21,7	2,5	9,0	100,0
	Erak Publiko indep		35,1	6,3	28,8	35,5	21,1	3,1	5,3	100,0
Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak	Lurraldea	Araba	28,7	6,3	22,4	31,2	29,2	3,0	7,9	100,0
		Bizkaia	36,7	6,6	30,1	38,2	15,4	2,2	7,5	100,0
		Gipuzkoa	43,0	11,5	31,5	36,3	11,8	1,4	7,6	100,0
	Derrigortasun indizea	<%45	29,9	6,3	23,6	35,0	24,0	3,0	8,0	100,0
		%45-%70	37,9	8,1	29,8	39,7	13,3	1,5	7,5	100,0
		>%70	61,1	14,9	46,2	23,0	8,3	1,6	6,0	100,0
	Guztira		36,8	8,0	28,8	36,1	17,3	2,2	7,6	100,0

Iturria: Siadeco, 2022

### Euskara plana erakundearen kudeaketan

Erakundearen funtzionamenduari lotuta eta hizkuntzen erabilera egokia izan dadin, erakundearen gestio plan eta kudeaketa orokorrean, euskara plana txertatua dagoen eta euskararen kudeaketa sistematikorik egiten den ere galdetu da. Informazio hau modu objektiboan jasotzeak baditu bere zailtasunak eta erakundeetako solaskideei galdetu zaiena da, erakundeko langileek zenbateraino dakiten edozein kudeaketatan, hizkuntzaren kudeaketa ere kontuan hartu behar dutela. Kontsultatutako solaskide bakoitzak, bere erakundeko datua eman du, erantzun-tarte hauen arabera estimazioak eginda: batere ez, % 25 baino gutxiago, % 25-50 artean, %50-75 artean eta %75 baino gehiago. Jasotako erantzunekin kalkulaturako EAE mailako batez besteko orokorra, % 55 da. Ehuneko horren azpitik dauden erakundeak dira, 5 mila biztanletik gorako udalak, % 52 (hiriburuak aparte utzita), mankomunitateak (% 52), foru aldundiak eta batzar orokorrak (% 50) eta erakunde publiko independenteak (% 38). Parean daude 5 biztanletik beherakoak (% 55), eta gaineratik berriz, Eusko Jaurlaritza (% 56) eta batez ere hiriburuak (% 79). Lurralde arteko aldeak ere nabarmenak dira, Araba % 21, Bizkaia % 56 eta Gipuzkoa % 70.

**11. taula. Euskara plana zenbateraino dagoen txertatua erakundearen kudeaketa sisteman (batez besteko %)**

			Erakundearen kudeaketan, zenbateraino txertatuta dago euskararen kudeaketa (Batez besteko %)
GUZTIRA			55,0
Erakunde esparrua	< 5 mila bizt		55,1
	> 5 mila bizt		52,6
	Hiriburua		79,0
	Mankom		52,0
	Udal+Mankom		60,2
	Foru Ald+Batz Orok		49,9
	EJ Sailak+Erak auton		56,1
	Erak Publiko indep		37,6
Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak	Lurraldea	Araba	20,6
		Bizkaia	56,0
		Gipuzkoa	69,5
	Derrigortasun indizea	<%45	41,1
		%45-%70	62,4
Guztira	>%70	82,7	
			56,2

Iturria: Siadeco, 2022


### *Idatzizko lanaren sortze hizkuntza*

Beren lanean idatziz egin beharreko lanik egiten duten galdetuta, langileen % 85ek erantzun dute baietz. Eta idazten dutenei, sortze hizkuntza zein duten galdetu zaie, hau da, lanean idazten dituzten testuak –dokumentuak, inprimakiak, mezu elektronikoak...– zein hizkuntzatan sortzen dituzten.

EAEko erakunde guztien batez besteko datuak hartuta, gaztelania hutsean sortzen da edukien erdia baino gehiago (% 52), euskara hutsean % 25 eta ele bietan % 23. Hala ere batez besteko orokor horren atzean errealitate oso ezberdinak daude:

- Euskara hutsean edo ele bietan, gaztelania hutsean baino eduki gehiago sortzen da 5 mila biztanle baino gutxiago dituzten udaletan –euskaraz % 45 eta ele bietan % 19– eta hiriburuak ez diren 5 milatik gorako gainerako udaletan ere –euskaraz % 38 eta ele bietan % 23–. Aldiz hiriburuen udaletan, langileen sortze hizkuntza nagusia gaztelania da –gaztelaniaz % 72, euskaraz % 12 eta ele bietan % 16–.
- Aldundi eta batzar orokorretako batez besteko datuak dira, % 20 euskaraz, % 23 ele bietan eta gainerako % 56a gaztelania hutsean. Hala ere, hiru aldundien artean diferentzia nabarmenak egon daitezke, lurraldeen araberrako datutan ikus daitekeen modura. Gipuzkoako erakundeetan, euskara hutsean sortzen da erdia baino gehiago (% 51) eta ele bietan ia beste laurden bat (% 23).
- Erakunde bereko langileen artean ere badaude aldeak. Langilearen euskara mailak markatzen du diferentziarik gehien; euskara ahoz eta idatziz *nahiko ongi* eta *ongi* dakitenean artean, euskara hutsezko ekoizpenean 20 puntuko aldea dago eta ele bietan sortutakoan 3 puntukoa. Lehen multzokoek gaztelaniaz sortzen dute gehien (% 57) eta bigarrengeok berriz euskaraz –euskaraz % 38 eta ele bietan % 28–.

**25. grafikoa. Idatzizko lanaren sortze hizkuntza (batez besteko %)**




### Ordezkaritza politikoen hizkuntza gaitasuna

Solaskideei galdetuta bere erakundean zein den euskaraz ulertzeko eta euskaraz hitz egiteko gai den ordezkaritza politikoen ehunekoak, euskaraz ulertzeko eta euskaraz hitz egiteko gai diren ordezkaritza politikoen batez besteko ehunekoak kalkulatu dira eta erakunde esparruaren araberrako gurutzaketak egin. Kontuan hartu behar da 2023ko udal eta foru hauteskundearen aurreko datuak direla. Batez beste, EAE mailako erakunde guztietako ordezkaritza politikoen lau bostenek (% 80) euskaraz ulertzen dute eta bi heren baino gehiago (% 67) gai dira euskaraz hitz egiteko ere. Erakunde ordezkaritza politikoen gaitasuna txikiagoa da mankomunitateetan (euskaraz hitz egiteko gai % 62), foru aldundi eta batzar orokorretan (% 63) eta Eusko Jaurlaritzan (% 65); gehiago berriz, udaletan, bereziki 5 mila biztanletik beherakoetan (% 81).

Erakundeak kokatua dagoen guneko soziolinguistikoari erreparatuta, biztanleriaren euskara mailaren araberrako erakundearentzat kalkulaturako derrigortasun indizea –biztanleria euskalduna gehi ia euskalduna zati bi– baino altuagoak dira euskaraz hitz egiteko gai diren ordezkaritza politikoen ehunekoak; kasu guztietan gainera.

### 26. grafikoa. Ordezkaritza politikoen euskarazko gaitasuna (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2022.

### Hizkuntza irizpideak

Hizkuntza irizpideen gaineko hiru adierazle ebaluatu dira: hizkuntza irizpideak ezarriak dituzten erakundeen ehunekoa – erakunde bakoitzeko solaskideari galdetuta jaso da informazio hau–, hizkuntza irizpideak langileek zenbateraino ezagutzen dituzten eta zer mailatan betetzen diren –azken bi datu hauek langileei egindako inkestatik kalkulaturakoak dira–. Ondorengoak dira emaitzak:

- Hizkuntza irizpideen **ezarpen maila**: EAEko erakunde gehienek badituzte hizkuntza irizpideak (% 95), baina ez guztiek. Hiriburuetako udal guztietan, aldundietan, batzar orokorretan eta Eusko Jaurlaritzan ezarrita daude hizkuntza irizpideak. Ez ordea mankomunitate guztietan (% 76) eta ezta 5 mila biztanletik beherako udal txikietan (% 80) eta 5 milatik gorakoetan ere (% 85). Lurraldeari erreparatuta, Bizkaiko erakundeetan (% 90) baxuagoa da ezarpen maila.

**27. grafikoa.** Hizkuntza irizpideen ezarpen maila (%)



Iturria: Siadeco, 2022.

- Hizkuntza irizpideen **ezagutza**: EAE osoan egindako inkestaren arabera, hiru langiletatik bik (% 66) erantzun dute bere erakundearen hizkuntza irizpideak asko edo nahikoa ezagutzen dituztela. Adierazle horren ehunekoa baxuagoa da hiriburuetan (% 58) eta mankomunitateetan (% 61). Eremu linguistikoaren arabera, ingurune erdalduneneko erakundeetan –derrigortasun indizea % 45aren azpitik– hizkuntza irizpideen ezagutza baxuagoa dute langileek –% 42ak erantzun du, ez dituela batere ezagutzen edo gutxi–. Langileen soslaiaren araberrako datuetan ere badaude aldeak; hizkuntza irizpidez informatuagoak daude, emakumeak, euskara maila altua dutenak eta 35 urtez azpiko langileak.
- **Betetze maila**: Hizkuntza irizpideak batere ez dituztela ezagutzen erantzundakoak aparte utzita –orokorrean EAE mailako datuetan % 5 dira horiek–, gainerako 10 langiletatik 8k (% 79), bere lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak asko edo nahikoa betetzen dituztela erantzun dute. Adierazle horren datuak, EAEko batez bestekoaren gainetik daude hiriburuak ez diren udaletan (% 84), mankomunitateetan (% 86), foru aldundi eta batzar orokorretan (% 80) eta erakunde publiko independenteetan (% 86); zertxobait azpitik Eusko Jaurlaritzan (% 76) eta dezente beherago hiriburuetan (% 68). Ingurune euskaldunean edo erdaldunean kokatua egon, hizkuntza irizpideen betetze-maila altuagoa edo baxuagoa da; eta langilearen ezaugarrien araberrako joerak, ezagutza-mailari buruzko datuen berdinak dira, hau da, datuak positiboagoak dira, emakumeen artean, gazteetan eta langilearen euskara maila zenbat eta altuagoa izan.

28. grafikoa. Hizkuntza irizpideen ezagutza eta betetze maila (%)



Iturria: Siadeco, 2022.



12. taula. Hizkuntza irizpideen ezagutza eta betetze maila(%)

			Zenbateraino ezagutzen dituzu zure erakundearen hizkuntza irizpideak? (adierazlea eta langileen erantzunak)							Zuk zure lanean zenbateraino betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak? (adierazlea eta langileen erantzunak)(erakundearen hizkuntza irizpideak asko/nahikoa/gutxi ezagutzen dituzten langileak soilik)						
			Adierazlea (asko+nahikoa)	Asko (%)	Nahikoa (%)	Gutxi (%)	Batere ez (%)	Erakundeak ez ditu hizkuntza irizpideak ezarritako (%)	Guztira (%)	Adierazlea (asko+nahikoa) (%)	Asko (%)	Nahikoa (%)	Gutxi (%)	Batere ez (%)	Ez ditut ezagutzen / Ez dauzka (%)	Guztira (%)
GUZTIRA			66,0	14,9	51,1	26,9	5,4	1,8	100	78,8	32,3	46,5	12,6	0,9	7,6	100
Langilearen ezaugarriak	Generoa	Emakumezkoa	68,3	16,6	51,7	26,6	3,7	1,4	100	80,2	32,6	47,5	12,3	0,9	6,7	100
		Gizonezkoa	63,1	12,7	50,4	27,6	7,2	2,1	100	77,2	32,1	45,1	12,8	1,1	9	100
	Adin-tartea	<=35 urte	72,1	17,7	54,3	18,5	7,8	1,6	100	89	46,4	42,6	5,8	0	5,2	100
		36-45 urte	60,6	13,2	47,4	31,3	6,7	1,5	100	80,6	36,2	44,4	7,4	0,8	11,2	100
		46-55 urte	66,4	14,8	51,6	27	4,9	1,7	100	77,6	31,3	46,2	14	0,8	7,6	100
		>55 urte	69,0	15,5	53,4	24,7	4,4	2	100	79,1	28,7	50,4	15	1,1	4,8	100
	Euskara gaitasuna	Ongi	72,2	20,9	51,3	21,4	4,3	2,1	100	88,5	48,1	40,5	5,4	0,2	5,9	100
		Nahiko ongi	65,3	9,4	55,9	29,2	4,8	0,7	100	77,1	20,6	56,5	13,7	1	8,2	100
Zertxobait		55,9	7,3	48,6	34,5	7,8	1,8	100	60,1	9,9	50,2	27,7	1,7	10,5	100	
Ezer ez / Hitz batzuk		52,2	9,7	42,5	36,5	8	3,2	100	60,5	14,3	46,1	26,5	3,6	9,4	100	
Erakunde esparrua	< 5 mila bizt	65,9	19,4	46,5	19,3	3,3	11,5	100	84,2	38,9	45,3	9,1	0	6,7	100	
	> 5 mila bizt	69,5	21,5	47,9	22,1	7,2	1,2	100	84,2	45,8	38,5	9,2	1,4	5,1	100	
	Hiriburua	58	8,8	49,2	31,6	8,8	1,6	100	68,2	21,2	47,1	19,4	1,5	10,8	100	
	Mankom	61	18,5	42,5	21,2	13,4	4,4	100	85,9	39	46,8	10,9	0,4	2,9	100	
	Udal+Mankom	64,6	16,6	48	25,3	7,8	2,3	100	78,6	36,2	42,4	12,9	1,3	7,1	100	
	Foru Ald+Batx Orok	66,6	12,1	54,5	30	2,5	1	100	79,8	29,2	50,7	11,1	0,3	8,7	100	
	EJ Sailak+Erak auton	66,4	12,4	54,1	29,5	2,9	1,1	100	76	26,5	49,5	15,6	0,7	7,7	100	
	Erak Publiko indep	76	18,7	57,4	20,4	1,2	2,3	100	86,2	29,8	56,5	6,3	0,9	6,5	100	
Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak,	Lurraldea	Araba	63,6	9,9	53,7	29	5,8	1,6	100	69,1	20,7	48,4	17,9	1	12,1	100
		Bizkaia	60,4	13,8	46,6	30,4	7,2	2	100	76,7	28,1	48,6	13,5	1,5	8,3	100
		Gipuzkoa	74,2	21,4	52,8	19,1	4,8	1,9	100	89,7	52,6	37,1	6,6	0,3	3,4	100
	Derrigor-tasun indizea	Araba	63,6	9,9	53,7	29	5,8	1,6	100	69,1	20,7	48,4	17,9	1	12,1	100
		Bizkaia	60,4	13,8	46,6	30,4	7,2	2	100	76,7	28,1	48,6	13,5	1,5	8,3	100
		Gipuzkoa	74,2	21,4	52,8	19,1	4,8	1,9	100	89,7	52,6	37,1	6,6	0,3	3,4	100
Guztira			65,2	15,2	50	26,7	6,2	1,9	100	79	33,9	45,1	12,4	1	7,6	100


Iturria: Siadeco, 2022.

### Dokumentuen estandarizazio maila

Erakundearen prozedura administratiborako erabilitako dokumentuetatik euskaraz estandarizatuta daudenek zein pisu duten, ehunekoan erantzun-tarte bat –batere ez, % 25 baino gutxiago, %25-50 artean...– estimatzea ere eskatu zaie solaskideei. Horrela neurtutako estandarizazio mailaren EAEko batez besteko orokorra % 71 da. Erakunde esparru guztietan % 60tik gora kokatzen da eta Eusko Jaurlaritza eta erakunde publiko independenteetan % 80aren bueltan edo oraindik eta gorago.

Modu berean egin da galdera herritarrekiko harremanetan erabilitako dokumentuen euskarazko estandarizazio maila neurtzeko ere. Oraindik eta altuagoak dira ehunekoak. EAEko orokorra % 76 da. Hiriburuetakoa da baxuagoa (% 54) baina beste erakunde guztiak % 70aren gaineratik daude eta mankomunitateak, aldundiak, Jaurlaritza eta erakunde publiko independenteak, % 80tik gora.

### 29. grafikoa. Euskaraz estandarizatutako dokumentuak (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2022.

#### 4.8. Euskararen bilakaerarekiko balorazioak

Lanean ari diren erakundean, euskararen erabilerak izan duen bilakaera baloratzeko eskatu zaie langileei. Batetik, balorazio orokor bat eskatu zaie erantzun itxien bidez, eta bestetik, galdera irekiak eginda, balorazio hori argumentatzeko aukera izan dute.

##### *Balorazioaren emaitza kuantitatiboak*

Langileen iritzia jaso da, galdetuz, bere erakundean euskararen erabilerak duen bilakaeraz zer balorazio egiten duen. Langileen erdiek baino gehiagok (% 54), balorazio positiboa (% 44) edo oso positiboa (% 10) egin dute. Beste muturrean, iritzi ezkorra adierazi dutenak askoz gutxiago dira –% 10ek balorazio negatiboa eta % 3k oso negatiboa–, baina langile asko izan dira (% 34), tartean kokatu direnak, *ez modu positiboan eta ez modu negatiboan* erantzun dutenak.

Balorazio horren zergatiaz galdetu zaie langileei ondoren, eta gehienek iritziz, euskararen aldeko ahalegin handia (% 20) edo nahiko handia (% 37) egin da bere erakundean. Bostetik batek (% 19) hala ere, gutxiegi egin dela uste du, eta oso gutxi dira (% 1), egindako ahalegina gehiegizkoa izan dela adierazi dutenak. Eta langileen ia laurden batek (% 23) berriz, ez dakiela erantzun du.


Zer balorazio egin duten, eta zergatik, bi galdera horietako erantzunak gurutzatuta, balorazio oso positiboa egin dutenen artean (% 10), gehienek (% 86) asko egin dela irizten diotelako da eta balorazio positiboa egindakoetatik (% 44) multzorik zabalenak (% 68) nahikoa egin dela uste du. Euskararen bilakaeraz pertzepzio negatiboa dutenek berriz (% 10), gutxiegi egin dela uste duteko da –% 86k eman dute erantzun hori–. Balorazioaz galdetuta, *ez negatiboa ez positiboa* erantzundakoen (% 23) erdiek baino gehiagok (% 55), ez daukalako informaziorik eman dute erantzun hori.

Erakunde batetik bestera, langileen iritzietan zer alde dagoen begiratuta, balorazio positiboa edo oso positiboa egindako langileen ehunekoak altuagoak dira 5 mila biztanlez azpiko udaletan (% 71), hiriburuak ez diren 5 milatik gorakoetan (% 61) eta aldundi eta batzar orokorretan (% 58). Hiriburuetan baxuagoa da adierazle horren ehunekoa (% 40), gehiago direlako alde batera edo bestera kokatu ez direnak (*ez positiboa ez negatiboa*) baina baita balorazio negatiboa egin dutenak ere. Eusko Jaurlaritzan ere, EAEko batez bestekoaren gainetik dago *ez negatiboa ez positiboa* erantzundakoen ehunekoa (% 41) eta erakunde publiko independenteetan, balorazio negatiboa egindakoen ehunekoa da, batez bestekoa baino hiru puntu altuagoa.

Araban (% 40), Bizkaian (% 51) edo Gipuzkoan (% 73) kokatuak egon, balorazio positiboa edo oso positiboa egindako erakundeetako langileen ehunekoetan alde nabarmenak daude.

Langileen soslaiari erreparatuta, euskara gaitasun txikia duten langileen artean, askoz gehiago izan dira euskararen bilakaeraz galdetuta *ez positiboa ez negatiboa* erantzun dutenak. Aldiz euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasun handia dutenek, informazio gehiago dute eta alde batera edo bestera posizionatu dira; horiek egiten dute baloraziorik positiboena –% 45ek balorazio positiboa eta % 14k oso positiboa–, baina kritikoenak ere horiek dira –% 12k balorazio negatiboa eta %3 k oso negatiboa–.

30. grafikoa. Euskararen bilakaerarekiko balorazioak (%)



Iturria: Siadeco, 2022.

**13. taula.** Erakundearen erabilerak duen erabilerari buruz langileek egindako balorazioa (%), eta erantzun horren arrazoia (%)

			Zein balorazio egiten duzu zure erakundearen erabilerak duen bilakaerari buruz? (adierazlea eta langileen erantzunak)								Zergatik?					
			Aadierazlea (%) (Oso positiboa + positiboa)	Aadierazlea (%) (Oso negatiboa + negatiboa)	Oso negatiboa (%)	Negatiboa (%)	Ez negatibo ez positiboa (%)	Positiboa (%)	Oso positiboa (%)	Guztira (%)	Asko egin delako (%)	Nahikoa egin delako (%)	Gutxi egin delako (%)	Gehiegi egin delako (%)	Ed/Ee (%)	Guztira (%)
GUZTIRA			53,5	12,1	2,5	9,6	34,4	43,7	9,7	100,0	19,9	36,9	19,0	1,4	22,8	100,0
Langilearen ezaugarriak	Generoa	Emakumezkoa	55,6	9,9	1,6	8,3	34,5	44,9	10,6	100,0	22,0	37,3	17,6	1,2	21,9	100,0
		Gizonezkoa	51,5	15,8	4,0	11,8	32,7	43,1	8,4	100,0	17,1	37,1	21,4	1,7	22,7	100,0
	Adin-tartea	<=35 urte	61,8	14,0	3,9	10,2	24,2	43,5	18,3	100,0	30,1	28,7	14,3	0,3	26,5	100,0
		36-45 urte	49,4	15,9	2,7	13,2	34,7	41,5	7,9	100,0	17,0	36,2	21,0	0,7	25,1	100,0
		46-55 urte	53,8	12,0	3,0	9,0	34,2	44,8	9,0	100,0	21,0	36,0	20,7	1,5	20,8	100,0
		>55 urte	56,1	9,8	1,9	8,0	34,0	45,0	11,2	100,0	20,5	39,5	16,9	1,3	21,8	100,0
	Euskara gaitasuna	Ongi	59,1	15,2	3,0	12,2	25,7	45,4	13,7	100,0	26,8	33,4	21,4	0,5	17,9	100,0
		Nahiko ongi	52,4	9,5	1,5	8,1	38,1	46,8	5,7	100,0	13,7	43,5	18,1	2,3	22,4	100,0
		Zertxobait	45,9	9,9	2,7	7,2	44,2	40,2	5,7	100,0	11,5	40,0	18,1	1,9	28,4	100,0
		Ezer ez/Hitz batzuk	37,4	5,7	2,8	2,9	56,9	31,8	5,6	100,0	12,4	32,3	9,7	4,6	41,0	100,0
Erakunde esparrua	< 5 mila bizt		70,9	4,0	1,3	2,7	25,2	53,0	17,8	100,0	37,0	35,5	9,1	0,7	17,7	100,0
	> 5 mila bizt		60,9	10,6	2,5	8,2	28,4	44,1	16,9	100,0	29,3	34,4	16,6	0,7	19,0	100,0
	Hiriburua		40,0	17,8	4,9	12,9	42,2	36,1	3,9	100,0	11,1	31,9	27,9	2,0	27,1	100,0
	Mankom		58,3	11,5	3,4	8,2	30,2	43,8	14,5	100,0	23,9	35,5	12,0	3,5	25,1	100,0
	Udal+Mankom		54,1	12,7	3,3	9,4	33,2	41,9	12,2	100,0	23,1	33,6	19,9	1,3	22,1	100,0
	Foru Ald+Batx Orok		57,5	10,0	1,3	8,7	32,5	49,6	7,9	100,0	18,6	42,0	15,1	1,5	22,8	100,0
	EJ Sailak+Erak auton		46,9	12,1	1,8	10,3	41,0	41,2	5,7	100,0	13,0	38,7	21,5	1,2	25,7	100,0
	Erak Publiko indep		51,3	15,4	2,6	12,8	33,3	44,4	6,8	100,0	15,5	41,0	19,7	3,0	20,8	100,0
Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak	Lurraldea	Araba	40,0	13,3	2,7	10,6	46,7	36,6	3,3	100,0	8,8	36,6	19,8	2,7	32,1	100,0
		Bizkaia	50,9	14,2	3,4	10,8	34,9	42,3	8,6	100,0	17,8	37,8	22,5	0,8	21,0	100,0
		Gipuzkoa	73,2	7,0	1,5	5,5	19,8	53,0	20,2	100,0	37,2	33,3	10,8	1,3	17,4	100,0
	Derrigortasun indizea	<%45	37,7	16,6	3,9	12,7	45,7	33,7	4,0	100,0	8,6	34,3	25,4	2,2	29,4	100,0
		%45-%70	64,1	9,4	1,9	7,4	26,6	51,5	12,6	100,0	24,9	40,5	14,8	0,9	19,0	100,0
		>%70	85,6	4,2	1,0	3,2	10,2	53,8	31,8	100,0	61,5	23,2	6,5	0,0	8,8	100,0
	Guztira		55,1	11,9	2,7	9,2	33,0	44,2	10,9	100,0	21,7	36,2	18,4	1,4	22,3	100,0

Iturria: Siadeco, 2022

### **Beharginen argudioak**

Bilakaerari buruzko balorazio hori arrazoitzeko eskatu zaie beharginei, zertan ikusten duten aurrerapausoa edo atzerapausoa.

Euskararen erabilerak izan duen bilakaeraren balorazio **oso positiboa** egin dutenek (% 10), azken urteotan euskararen ezagutzan, erabileran eta sustapenean emandako urratsak azpimarratu dituzte. Bide horretan erakundeetako euskara teknikariek eta euskara zerbitzuek egindako lana azpimarratu dute batzuek. Langileen inplikazioa bera eta euskara batzordeak sortu izana, beste batzuek. Eta badira, halaber, belaunaldi aldaketarekin eta euskaraz dakien jende berria sartu izanaren eraginarekin lotu dutenak bilakaera hori, batez ere —ardura-karguetan izan diren aldaketak aipatu dituzte, baita ere—.

Jarraian jasotzen diren testigantzetan, erantzuna eman duen langilearen euskara-gaitasuna da parentesi artean zehazten dena.

*«Barne komunikazioan, formala zein informala, ahozkoan zein idatzizkoan, euskarak aurrera egin du. Lankide asko euskara erabiltzera animatu dira bere egunerokoan»*

*(Ongi)*

*«Lanean hasi nintzenean oso lankide gutxirekin sor zitezkeen harremanak euskaraz bakarrik, gaur egun berriz, gehiengoarekin egiten dut euskaraz bakarrik»*

*(Ongi)*

*«Orain dela 15 urte, ia harreman guztiak erderaz egiten ziren nire sailean. Gaur egun, ordea, alderantzizkoa da egoera»*

*(Ongi)*

*«Azken 20 urte hauetan aurrerapen izugarria nabaritu dut ezagupenean eta baita erabileran ere»*

*(Ongi)*

*«En los últimos años he utilizado mucho más y he aprendido mucho más euskera»*

*(Nahiko ongi)*

*«Euskara Teknikariak lan itzela egiten duela pentsatzen dut»*

*(Ongi)*

*«Lan handia egin du Euskara Zerbitzuak hizkuntza politikan. Langileen aldetik ere prestutasuna dagoelako sentiazioa daukat»*

*(Ongi)*

*«Langileen artean euskara-batzorde bat sortu da, oso inplikatura daudenak, eta zuzendaritzaren babesa eta bultzada dago»*

*(Ongi)*

*«Langilegoaren aldetik, euskararen erabilera zabalduz joan da, batez ere langilego gaztea iritsi den heinean. Bestalde, ibilbide luzeko hainbat lankidek ardura karguak hartu dituzte azken aldian eta jende honek euskararen erabileran aurrerapausu handia eman du, erabilera normalizatu ezezik sustatu ere egin duelako»*

*(Ongi)*

*«Edade bat dukagunok eta gaztelaniaz ikasi degunok desagertzen garenean, eta gazte jendea finkatzen denean, egoera hobetu egingo da, hauek euskeraz ikasi dutelako»*

*(Ongi)*

**Positibo** jo dutenek egoera (% 44), ezagutzan izan den eboluzioari erreparatu diote, batez ere. Alde horretatik, asko estimatzen dituzte euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaro eta aukera ezberdinak. Eta horietan sakontzeko interesa adierazi dute.

Erabileran, aldiz, hobetzeko tarte handia dagoela uste dute, oro har. Alde horretatik, arduradun teknikoen eta politikoen inplikazio handiago baten beharra iradoki dute, batetik. Bestetik, herritarrek beraiek, administrazioarekin harremanetan jartzerakoan, erdarara jotzeko ohitura dutela adierazi dute. Zentzu horretan, euskaraz egiteko aukera dutela jakinarazteko euskarrien eta baliabideen erabilgarritasuna azpimarratu dute.

Itzulpen-politika eta irizpideak berrikustea eta sortze-hizkuntza euskara izan dadin sustatzea galdegin dute batzuek. Horretarako, hizkuntzen teknologia berriak lanpostuetan inplementatu beharra adierazi dute. Administrazioan erabiltzen diren aplikazio informatikoetan, hain zuzen ere, euskarak presentzia eskasa duela aipatu dute langile batzuek.

*«Positiboa azken urteotan asko aurreratu delako euskararen ezagutza maila, baina oso gutxi erabilera esparruan»*

*(Ongi)*

*«Udala oro har hartuta, euskararen erabilera beti da nahi genukeena baino txikiagoa, jakina. Baina egia da, denbora perspektiba batekin begiratuta, oso nabarmena dela hobekuntza azken urteetan»*

*(Ongi)*

*«Azken urteotan aurrerapen batzuk egin dira, baina euskararen erabilera langileon borondatearen esku dago oraindik ere, eta horrek asko zailtzen du aurrerago egitea, eta are atzera ez egitea momentu batzuetan»*

*(Nahiko ongi)*

*«Aukera asko dago euskara gehiago eta hobe erabiltzen ikasteko eta nire kasuan hobetzen saiatzen ari naiz»*

*(Nahiko ongi)*

*«Euskara erabiltzeko tresnak ematen jarraitu behar da, eta interesa duten langile guztientzat mintza-praktika moduko ikastaroak antolatzen jarraitu behar da»*

*(Nahiko ongi)*

*«Trebakuntza saioak eskertuko nituzke»*

*(Ongi)*

*«Sería interesante retomar los grupos de "mintza praktika" que hace unos dos años se organizaban en el departamento»*

*(Zertxobait)*

*«Euskaldun zaharrak ez garen lankideei bideratutako euskara gaurkotze programak indarrean jarriko nizkioke, ohiturak indartzeko eta ditugun akatsak zuzentzeko»*

*(Nahiko ongi)*

*«En mi entidad no está permitido hacer cursos intensivos de euskera con exención laboral aún teniendo saldo de horario para aprendizaje de euskera.*

*La inversión de dos horas diarias es mejor que nada, pero resulta a todas luces infructuoso de cara a ser una persona resolutiva en otro idioma si no se aborda de una forma más intensa, lo cual permitiría cumplir mi objetivo de trabajar y vivir en euskera»*

*(Zertxobait)*

«Erabileran eta jarreran oraindik ere lan asko dago egiteko; arduradun politikoei eta teknikoei eredu izan behar dute eta euskara erdigunean jartzeko erabakiak hartu behar dira»

(Ongi)

«Erakundeak euskara sustatzeko ahalmena dutenen artean, inplikazioa ez da berdina izan pertsona guztiengan. Ematen du normalizatzaileak egin duen ahaleginaren zati handi batek ezin izan duela aurrera egin bestelako arduradunak ez direlako maila berean inplikatu»

(Ongi)

«Erabilerarekin dugu arazoa, baina jendartearen ispilua ere badu»

(Ongi)

«Biztanlegoak hautatzen du hizkuntza. Gaztelera bada, erantzuna ele bieran bideratzen da»

(Ongi)

«Herritarrei administrazioan euskaraz lasai egin dezakeela helarazteko tresnak sustatu behar dira (lehenengo hitza euskaraz, euskaraz komunikatu daitekeela adierazten duten kartelak jartzea, eta abar)»

(Ongi)

«El hecho de saber qué personas pueden hablar (en mayor o menor medida) en euskera ayuda a iniciar conversaciones con ellas en este idioma»

(Zertxobait)

«Euskaraz sortu eta lan egiten dugunok gero eta denbora gehiago ematen dugu bertsio elebidunak eta eleaniztunak egiten. Uste dut sasoiak dela errebisatzeko Jaurlaritzak berak euskaraz sortzen duten langileen lana nola estimatu eta bultzatzeko. Prestakuntza modernizatzea, hizkuntzen teknologia berriak azkarrago aplikatzea lanpostuetara, eta itzulpen politikaren errebisioa behar beharrezkoa dela esango nuke. Belaunaldi berriak sartuko dira datozen urteetan eta aldaketa hauek ia berandu datoz»

(Ongi)

«Lehenetsitako hizkuntza gaztelera dela esango nuke. Aplikazio informatikoei egiten dut lan eta hainbatetan, euskararen presetzia zein maila eskasa dela iruditzen zait»

(Ongi)

«Hala ere zenbait informatikako tresna edo programa euskaraz aukeratu arren gero erderaz azaltzen dira (barneko plantilak). Beste batzuetan euskaraz egon arren oso gaizki itzuliak»

(Ongi)



**Ez positibo, ez negatibo** agertu direnek (% 34) aurreko multzoetan ere atera diren hainbat egoera eta errealitate aipatu dituzte. Baina badira ezberdinak diren gaiak ere: euskara sustatzeko ekintzak ez direla eraginkorrak edo lehendik ere euskaraz egiteko ohitura dutenengana soilik iristen direla; garrantzia handia eman zaiola hizkuntza-egiaztagiriak eskatzeari baina ez etengabeko prestakuntzari, euskararen ezagutza sendotzeari edo erabileraren sustapenari; ez dela Euskara Planen edo hizkuntza-irizpideen behar adinako jarraipenik egiten.

*«Euskararen erabilera sustatzeko ekintza asko egiten diren arren, nire irudirako, ekintza horietan euskaraz dakitenek bakarrik hartzen dute parte; beraz, ez zait iruditzen ekintza horiek balio dutenik gaztelaniaz hitz egiteko joera daukatenek ohitura hori alda dezaten»*

(Ongi)

*«Euskaraldia pasatu ondoren, ezin direla bi urte itxaron horrelako ekintzak aurrera eramateko. Euskara gure egunerokotasunean "normalizatu" nahi baldin badugu, sinistu behar dugula ahal dugula. Adibidez, ez da nahikoa Hizkuntz Eskakizun bat eskatu lanpostu baterako, gero lanpostu horretan dagoen pertsonak euskara erabiltzen ez badu»*

(Ongi)

*«Neurri kosmetikoak dira gehienetan, bete behar ez direnak, eta euskararen erabilera borondatezkoa dela iruditzen zait»*

(Ongi)

*«Ez dut ikusten benetako interesik euskaraz lan egiteko. Horrela balitz, neurri eraginkorragoak hartuko lirateke. Hartu diren neurriak itxura egiteko besterik ez dira»*

(Ongi)

*«Asko egin da, baina nire ustez jomuga ez da zuzena izan. Hau da, garrantzi handia eman zaio hizkuntza eskakizunei, eta formakuntza jarraia alde batera utzi da. Honekin ez dut esan nahi hizkuntza maila minimo bat eskatu behar ez denik (beharrezkoa da bermatzea hiritarra artatzeko prest dagoen langileria dagoela), baina postu teknikoan kasuan 4. maila eskatzea hainbat postuetan gehiegi iruditzen zait (...). Nire ustez hobe litzateke garrantzia ematea ikastaroei, etengabeko hizkuntza formakuntzari, eta euskararen erabileraren jarraipenari»*

(Ongi)

*«Badaude kasu batzuk non beharrezkoa den Euskararen perfila eta lanpostua hartzen duen pertsonak tituloa dauka baina ez gaitasuna. Hau da, duela asko atera zuen titulazioa baina gaur egun galdu egin du zeukan gaitasuna»*

(Nahiko ongi)

*«Si tienes un perfil acreditado, ya está. No se facilitan, ni facilitarán, los medios que pueda necesitar el trabajador para recuperar el nivel perdido. Por ejemplo, por falta de uso del idioma durante años»*

(Zertxobait)

*«Faltan cursos de reciclaje para conseguir fluidez REAL en el uso del euskera oral en el puesto de trabajo que sean en horario laboral al completo (curso+desplazamiento de ida y vuelta)»*

(Nahiko ongi)

*«Es un sistema basado, únicamente en perfiles lingüísticos, en beneficio económico de unos pocos, pero sin buenos resultados. Las personas que trabajamos en la administración estamos hastiadas de este tema. En cuanto tienes el perfil, es como si tuvieses un pase al holocausto de la lengua, porque ya dejas de existir. No hay promoción para el verdadero uso de la misma. Actividades, aunque sean lúdicas, que promuevan su desarrollo entre las personas para luego adaptarlo a la Administración»*

(Nahiko ongi)

«Euskara Plana egon arren jarraipen eskasa egiten zaio. Langile askok ez du kontuan hartzen edo Euskara teknikariaren ardura/lana dela uste du. Ez da zeharkakotasunez lantzen Udalean. Batzuetan legea, Udalak ezarritako hizkuntza irizpideak edo ordenantza ez da betetzen, eta ez zaio inolako garrantziarik ematen. Euskara Teknikariak (edo langile kontzientziaturen batek) "polizia" lana egin behar du»

(Ongi)

«Hainbat politikari, langile eta zuzendaritzetako arduradunek ez diote behar besteko indarrez heltzen hizkuntza planari (ezta jarraibideei ere) eta ez dute eredu garrantzitasunez jokutzen»

(Ongi)

«Kanpoko enpresekin egiten diren kontratuek, nahiz eta hizkuntza irizpideak ezarrita eduki, ez dira betetzen INOIZ»

(Ongi).

Egoeraren balorazio **negatiboa** egin dutenak (% 10) ondorengo argudioengatik nabarmentzen dira: hizkuntza-eskakizunak gehiegizkoak edo neurriz kanpokoak direla zenbait lanpostutan; euskararen erabilera itzulpenetan oinarritzen dela eta ez euskarazko sorkuntzan; erdaldunak diren lankideek gainontzekoen hizkuntza-jokabideak baldintzatzen dituztela eta euskaldunek ere ez dutela behar adinako indarrik egiten, askotan, egoera horien aurrean.

«Hay muchos puestos con preceptividades de euskera muy alta que no corresponden con las necesidades reales.

La prueba está en puestos de responsabilidad en los que no se ha exigido Euskera durante mas de 30 años y cuando se jubila el titular resulta que se le impone una preceptividad de perfil 3-4. El Euskera no debe ser un obstáculo para desarrollar un puesto de trabajo»

(Zertxobait)

«Ez nago ados 4HE eskatzea euskera erabiltzen ez den plaza batzuetan, 3HEekin nahikoa izanda. Gainera, nire administrazioan ez dago 4HE ateratzeko ikastaroak egiteko aukerarik»

(Ongi)

«Erakunde honetan lan egiten dutenek ez daukate zergatik euskera jakin behar»

(Ongi)

«Considero absurdo en determinados puestos de jefatura no técnica y en los que la atención al público es nula, sea indispensable tener el perfil 3 (...) Añado que considero que a los que venimos de una educación diferente en la que no hemos tenido posibilidad de aprender no se nos debería exigir lo mismo que a una persona de 30 que ha realizado sus estudios en euskera. Es totalmente injusto y lo que se consigue es el efecto contrario, estar muy decepcionado en cómo se ha llevado el tema»

(Nahiko ongi)

«Erabilera, neurri handi batean, itzulpenetan oinarritzen da. Ezer gutxi sortzen da euskaraz oraindik ere, beraz.

Testu guztiak, edo ia guztiak, ele bitan argitaratzeak ez du inondik ere esan nahi Administrazioan bi hizkuntzen erabilera orekatua denik. Erdaraz sortzen dira ia testu guztiak, eta bilera gehien-gehienak ere erdaraz egiten dira»

(Ongi)

«Euskara erabiltzen denean, gehienetan, itzuli egiten da, hau da, oso oso gutxitan sortzen da euskaraz. Itzultzeak edota ele bietan sortzeak dakarren "lanak" edo horrek eskatzen duen denborak "bide errazera" garamatzala iruditzen zait; hau da, gaztelania soilik erabiltzera»

(Ongi)

«Orain nagoen lanpostuan, betiko gauza berdina gertatzen da. Langile batzuek ez dakite euskera edo ez dute hitz egiten, beraz, bilera ia guztiak erderaz izaten dira. Email orokorrek ere berdina gertatzen da (lankideen arteko email orokorrak), beti dagoenez norbait euskara ez dakiena, erderaz idazten dira. Horretaz gain, oraingo lanean entitate pribatuekin harremanetan egoten gara, eta entitate horietako oso pertsona gutxiak dakite euskera, beraz, erderaz komunikatu behar izaten gara»

(Ongi)

«Erdaldun bat azaldu orduko egun on eta agur bakarrik entzuten da euskeraz elkarren artean hitz egiterakoan. Beti bezela erdaldunak ez du lankideen arteko komunikazioa euskeraz ulertzeko beharrik ikusten, geroen artean ez bait diegu behartzen, zein guk besteei hori horrela eskatzeko asmorik azaltzen; erdaldun bakarra tartean delarik denok erderaz egin behar»

(Ongi)

**Oso negatibo** azaldu direnen artean (% 2,5), honako argudioak nabarmentzen dira: euskara inposatu egiten dela eta euskara-maila bat egiaztatzeraz derrigortzeak euskararekiko gaitzespena edo jarrera ezkorra eragiten duela; profesionaltasunari baino garrantzi handiagoa ematen zaiola euskararen ezagutzari; modu artifizialean ari dela euskara zabaltzen eta jendea ez zaiola komunikatzeko erabilgarri; euskararen sustapena oso garesti ateratzen dela eta dirua xahutu egiten dela zeregin horretan.

«Se está obligando a usar el euskera a la gente y se penaliza o se le impide ascender o cambiar de puesto al que no tiene el perfil acreditado, aun y cuando accedió en su momento sin necesidad de perfil o se encuentra exento de acreditarlo por razón de la edad. Todo ello genera un rechazo hacia el euskera en vez de ayudar a que la gente lo disfrute. Las personas que se ven obligadas a obtener el perfil, dejan de hablar el euskera por el asco que le han cogido ante tal imposición. Las medidas de promoción, por lo tanto, considero, al igual que la mayoría de mis compañeros, que son contraproducentes y llevan años produciendo el efecto contrario al deseado. No se está ayudando a enriquecer una lengua tan excelente como el euskera, sino que al imponerlo de la manera que se está haciendo solo sube para la estadística, pero no para su uso diario que es lo que al final enriquece y hace crecer a una lengua»

(Ongi)

«Creo que está mal fomentada la utilización del euskera. Es algo impuesto, que conlleva más dificultad para su utilización»

(Zertxobait)

«Creo que se le da demasiado valor al perfil lingüístico para los puestos de trabajo, sin tener en cuenta el tiempo o la dificultad que las personas tienen para aprender el idioma. Además, creo que se intenta meter el tema lingüístico pase lo que pase y le afecte a quien le afecte. No somos más que números para el ayuntamiento»

(Ongi)

«Lo que hace falta son policías buenos, no que tengan un perfil lingüístico, y si se exige perfil lingüístico, que se exija en castellano también»

(Hitz batzuk)

«Mediante la obligación de imponer el euskera la gente está aborreciendo el idioma. Me parece totalmente ilógico que se valore más un idioma que la profesionalidad»

(Ongi)

«Se está forzando artificialmente bajo justificaciones de legalidad, criterios, derechos a que todo el mundo utilice el euskera en su trabajo. Su utilización debe ser voluntaria y acorde al nivel de riqueza y de posibilidad de transmitir ideas con precisión. Estoy cansado de escuchar hablar en euskera con falta de precisión y riqueza solo por el hecho de hablar en euskera. La finalidad última de la lengua es la comunicación y si esta no se realiza en un idioma con la precisión adecuada mejor utilizar otra en la que sí se consiga esos niveles»

(Ongi)

*«El poco euskera que se habla por aquí es pobre y macarrónico. Los compañeros que hablan algo en seguida cambian a castellano. Es demencial y negativo que los puestos sean ocupados por mastuerzos con perfil y gente competente y preparada profesionalmente se tenga que ir a la empresa privada y nos quedemos con ilustres paletos»*

*(Hitz batzuk)*

*«Dirua eta baliabideak jartzen dira, gehiegi jarri ere, baina gero ez dago inolako konpromisorik erabilerarekin, eta jarritako baliabide guztiak xahutu egiten dira. Non da euskara lan-hizkuntza, benetan, euskara langai duten zerbitzuetatik kanpo? Inon ere ez!»*

*(Ongi)*

*«Se gasta mucho y se logra casi nada»*

*(Zertxobait)*

### ***Erakundeetako euskara teknikari eta solaskideen iritzi eta ekarpenak***

Azken plangintzaldian (2018-2022) izandako bilakaeraren balorazioa eskatu zaie erakundeetako solaskideei ere: zer nolako lorpenak eta hutsuneak izan dituzten, eta zer erronka dituzten aurrera begira. Galdera irekiak izan dira, hortaz.

Atal honetako testigantzen kasuan, erantzuna eman duen solaskidearen erakunde-mota da parentesi artean zehaztu dena.

### ***Lorpenak***

Lanpostuetan derrigortasun-datak finkatu izana da gehien aipatu den gaietako bat, VI.Plangintzaldiko lorpenez galdetuta. Horrek kontratazio berrietan ere eragin duela azaldu dute solaskideek. Gainera, langile berriei begira harrera-protokoloak martxan jarri eta sistematizatu egin direla ere azpimarratu dute. Horrela, langile berri euskaldunak sartu direla eta euskaraz lanean hasi direla nabarmendu dute, Eusko Jaurlaritzako Saitetako solaskideek nahiz tamaina eta guneko soziolinguistiko ezberdinetako udalek.

*«Plangintzaldian zehar derrigortasun-data ugari jarri dira; lanpostu oso gutxi gelditu dira derrigortasun-datarik gabe. Ondorioz, hizkuntza-gaitasunak gora egin du sailean»*

*(EJ Saila)*

*«Saileko lanpostu guztiek dute derrigortasun-data, eta horrek bermatzen du datozen lankide berri guztiek beteko dutela lanpostuen hizkuntza-eskakizuna»*

*(EJ Saila)*

*«Lanpostu guztietan derrigortasun data jartzea eta betetzen joatea»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Derrigortasun data duten lanpostu kopurua gora joan den heinean, kontratazio berrietan euskararen ezagutza ere gora joan da eta horrek islada zuzena izan du hainbat prozeduretan eta, batez ere, publikoari egiten zaion arreta zerbitzuan»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Onartutako hizkuntza irizpideak finkatu eta egonkortzea, eta hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten betetze progresiboa, egonkortasun prozesuak lagunduta»*

*(Udala, < 5 mila biztanle)*

*«Lankide berriak datozenean, Zerbitzu Zuzendaritzak transmititzen die gure asmoa dela euskaraz lan egitea ahal den guztietan. Harrera-protokoloa sistematizatu dugu, eta oso pauso garrantzitsua izan da lankideek garbi izan dezaten gure sailaren kultura»*

*(EJ Saila)*

*«Hizkuntza irizpide sendoak ditu Udalak euskaraz egin dezan lan. Udalean langile hasi berriekin harrera protokoloa egitea sistematizatuta dago eta ezinbesteko tresna bihurtu da, Udalak euskaraz lan egin dezan»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Saileko derrigortasun-daten kopurua igo ahal izan da, etorkizuneko euskara-gaitasuna bermatze aldera. Gainera, urteotan, langile asko erretiratuko dira; beraz, derrigortasun-data berriak ezartzeko aukerak garrantzi berezia hartu du»*

*(EJ Saila)*

«Langile berrien protokoloan euskara hobeto txertatuta. Langile berriak euskaraz hasten dira lanean»  
(Udala, > 5 mila biztanle)

«Harrera linguistikoa egiten diegu langile berriei, urteetan lortutako gaitasuna gal ez dezaten lanean hasten direnean. Horrela, Udalean sartzen diren langile berriak identifikatuak izaten ditugu: batetik, euren benetako hizkuntza gaitasuna zein den jakiteko; eta bestetik, Euskara Atalaren berri emateko: euskararen erabilera planaren berri, euskaraz lan egiteko baliabideak, itzulpen eta zuzenketa zerbitzua (BIZZ)... Horrez gain, bereizgarriak (herritarrek langile elebidunak zein diren errazago antzeman dezan) eta egun indarrean dagoen hizkuntza irizpideen esku-liburua banatzen dizkiegu»  
(Udala, > 5 mila biztanle)

«Udal langile berriak hartzerakoan kontuan hartzen da lanpostuari dagokion hizkuntza-ezagutza (erreleboa oso apurka gertatu arren), erakundearen ezagutza egoera gero eta hobea da, erabilera-erronka gero eta sakonagoei modu sistematikoagoan heltzeko. Hizkuntza-irizpideen txertaketa eta erabilera apurka zabaltzen doa erakundearen hainbat jardun-arlotara, nahiz eta poliki doan eta aurrerapauso zein atzerapausoekin. Orokorrean gero eta barneratuago dago euskarak presentzia eta erabilera izan behar duela erakundearen jardun-arlo guztietan, nahiz eta kostatu egiten den pertzepzio hori neurri zehatzetara ekartzea»  
(Udala, < 5 mila biztanle)

Gaztelaniatik euskararako itzulpenak gutxituz eta euskaraz sortutako testuen zuzenketa- eta orrazketa-lanak areagotuz doazela ere azpimarratu dute, lorpenen artean. Itzulpen-zerbitzuen lan-karga eta haiekiko mendekotasuna arindu dira horrela. Euskara sortze-hizkuntza gisa sustatu izanaz gainera, dokumentuen estandarizazioa eta itzultzaile automatikoen erabilera aipatu dituzte, arrazoi gisa. 5 mila biztanlez gorako udaletan nabarmendu den gaia da, batez ere.

«Itzulpenak gutxituz doaz eta euskara zuzenketak gehituz, dokumentu gehienak estandarizatu direlako eta langileak gero eta gehiago animatzen dira euskaraz sortzera, batez ere, itzulpen automatikoen laguntza ere badutelako»  
(Udala, > 5 mila biztanle)

«Gero eta gutxiago itzultzen da, eta gero eta gehiago zuzendu»  
(Udala, > 5 mila biztanle)

«Gehitu egin dira orrazketa eskaerak, hau da, euskaraz ekoiztu eta gero gainbegiratzeko eskaerak»  
(Udala, > 5 mila biztanle)

«Itzultzailea jubilatu ondoren, langileek 285 hitzetik beherako testuen itzulpena euren gain hartzea, eta beharrezkoak ez diren itzulpenak ez egitea»  
(Udala, > 5 mila biztanle)

«Itzultzaile neuronalaren bidez itzulpen automatiko asko egin dira, eta jendeak ele bitan idazteko lan-karga arindu du, nahiz eta askotan neuronalak itzultzaileak irakurri ez»  
(Udala, > 5 mila biztanle)

«Itzultzaile neuronalari esker, itzulpenen kopurua gutxitu egin da»  
(EJ Saila)

«Baliabide informatiko berriek (itzultzaile neuronalak tartean) dokumentazioa ele bietan izaten lagundu du. Dokumentuen estandarizazioa burutu da, eta lagungarria izan da»  
(EJ Saila)

«Euskararen erabilera idatzia sustatu da eta horrek berekin ekarri du zuzenketen areagotzea»  
(Foru Aldundia)

Zerbitzu-kontratazioetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza klausula bereziak txertatu eta sistematizatu izana da aipatzen den beste lorpen nagusietako bat: zerbitzua emango duten langileen euskara-maila, zerbitzu jasoleekiko idatzizko eta ahozko harreman-hizkuntza edota udalaren eta enpresaren arteko ahozko nahiz idatzizko harreman hizkuntza.

*«Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausula bereziak sartzea»*

*(EJ Erakunde Autonomoa)*

*«Dirulaguntzetako oinarrietan eta kontratuetako baldintzetan, baita txikietan ere, hizkuntza irizpideak sartzea sistematizatu da»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Sistematizatu egin da hizkuntza baldintzak ezartzea kontratuetan, dirulaguntzetan, jarduera-baimenetan, hirigintzako hainbat espedientetan (titulartasun aldaketak, jarduera berriak zabaltzea...)»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Zerbitzu publikoak kontratatzeko garaian, enpresei hizkuntza baldintzak jartzen dizkie Udalak: zerbitzua emango duten langileen euskara gaitasun maila, zerbitzu jasoleekiko idatzizko eta ahozko harreman hizkuntza; eta, Udalaren eta enpresaren arteko ahozko nahiz idatzizko harreman hizkuntza. Adostua dago baldintza horien betetze mailari jarraipena nork egin»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Udalak kontratatutako enpresei ere hizkuntza irizpideak gero eta maila handiagoan ezartzen zaizkie, batik bat euren zerbitzuan hizkuntzak pisu garrantzitsua daukan kasuetan. Eta harremanak ere euskaraz izateko urratsak ematen ari gara»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Udalak zerbitzu kontratazioen bidez ematen dituen zerbitzuetan hizkuntza klausulak txertatu eta horien jarraipen-sistema ezartzea»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Kontratazio arloan hizkuntza klausulak sartzea sistematizatu izana»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Hizkuntza klausulak ezartzea kontratazio guztietan (baldintza pleguetan)»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Kontratazio alorrean hizkuntza-irizpideak gehiago finkatzea eta jarraipena egiten hastea»*

*(Udala, hiriburua)*

Agerian gelditu da, halaber, arduradun politikoek inplikazioak, adostasunak eta determinazioak duen garrantzia eta erakundearen hizkuntza egoeran izan dezakeen eragin positiboa.

*«Momentu honetan gobernatzen duen alderdi politikoak bere egín dituela hizkuntza irizpideak eta eguneroko jardunean proaktibo jokatzeko duela euskararen erabilerari dagokionez; bai herritarrekiko informazio trukaketan, baita gainerako ordezkari politikoekikoetan»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Zerbitzu-zuzendariak eta kargu politikoek modu aktiboan hartzen dute parte erabilera-planaren jarraipenean eta horrek asko lagundu digu»*

*(EJ Saila)*

*«Langile zein ordezkari politikoek bere egiten dute plana eta maila altuan betetzen dituzte irizpideak...Horietako askok jarrera proaktiboa dute, gainera»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Ordezkaritza politikoaren arteko adostasuna eta determinazioa»*

*(Udala, < 5 mila biztanle)*

### **Hutsuneak**

VI.Plangintzaldiko hutsune edo zailtasun nagusiak non antzeman dituzten galdetu zaie erakundeetako ordezkariari. Orokorrean aipatu den gaia da gaztelania nagusi dela oraindik erakunde askotako funtzionamenduan. Erdararako joera dutela langileek, batzuetan harreman informaletan, eta, beste batzuetan, formaletan ere bai. Edonola ere, euskara lan-hizkuntza gisa finkatzeko zailtasun handiak daudela dirudi. Solaskideek ohartarazi dute, langile askok hizkuntza eskakizunak egiaztatuta eduki arren, ez dutela aitortu zaien mailarik erakusten euskarazko jardunean.

Euskararen idatzizko erabilerari dagokionez, kasu askotan, itzulpenean oinarritzen den tramitea besterik ez dela adierazi dute. Itzulpenari dagokienez, itzultzaile automatikoak tresna erabilgarriak badira ere, horien erabilera desagokiak —itzulpena gainbegiratu, zuzendu eta orraztu gabe—, euskararen kalitatea kaltetu dezakeela ohartarazi dute.

*«Ahozko harremanetan (batez ere informaletan) euskararen erabilera»*

*(Udala > 5 mila biztanle)*

*«Langileen ahozko harremanetan hizkuntza-ohiturak errotuak eta aldatzeko zailtasunak»*

*(Udala, hiriburua)*

*«Ahozko erabilera ez formalean gaztelaniaren aldeko inertzia zenbait langileren artean»*

*(Udala > 5 mila biztanle)*

*«Ahozko erabileran (bereziki jardun ez instituzionalizatuan) gaztelania ere dezente erabiltzen da udal-langile batzuen artean»*

*(Udala > 5 mila biztanle)*

*«Ahozko erabileran, sail batzuetako langileen artean erdararako joera»*

*(Udala > 5 mila biztanle)*



«Euskararen erabilera oso-oso apala da, maila formalean zein informalean»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Gaztelararako joera duten langile horiek euskaraz hitz egiten jartzea, ohitura aldatzea»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Ahoz erdaraz egiten dute nagusiki langileen artean. Ikastaroak erdaraz egiten dituzte»

(Udala < 5 mila biztanle)

«Ezagutza-maila handia dago langileen artean baina erabilera formala eta informala oso baxua da; hots, ez da lortzen euskara lan-hizkuntza izateko urrats esanguratsurik ematea»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Langile askoren ohiturak aldatzea zaila da. Batzuek gaitasuna izanda ere, urte askoan eman dute erdaraz lan egiten, eta zaila da ohitura horiek aldatzea»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Langileek dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan arren, sarritan ez dute gaitasun nahikorik eguneroko jardunean euskaraz ahoz aritzeko»

(EJ Saila)

«Hizkuntza eskakizuna lortua izanak ez du bermatzen euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzea»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Langileek ez dute euskaraz lan egiteko behar besteko ezagutzarik. Askok 3.HE egiaztatu arren, ez dute HE horri aitortutako ezagutzarik. Langileek ez dute euskara erabiltzen ez idatziz, ez ahoz. Bietan, ezagutzan eta erabileran eragin behar da. Ez da idazkirik euskaraz sortzen, gaztelaraz egiten da eta ostean itzuli»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Oraindik inolako zalantzarik gabe, gaztelania da eguneroko lan-hizkuntza, legeak, proiektuak, planak... eta euskara itzulpena da. Bukaerako tramitea. Ondorioz, euskarazko itzulpen egoki bat egiteko behar den denbora ez zaio ematen»

(EJ Saila)

«Ohiko lan-hizkuntza gaztelania da eta itzulpenaren mendekotasuna erabatekoa da»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Euskaraz ezer gutxi sortzen da, udal langileek elebitasuna bermatze aldera, dokumentuak gaztelaniaz sortzen dituzte eta gero Euskara Atalera bidaltzen dituzte itzultzeko, edo itzultzaile neuronalaz baliatzen dira»

(Udala > 5 mila biztanle)

«Itzultzaile neuronalaren erabilera zabaldu egin da, alde batetik, ele bietan idazkiak bidaltzeko denbora murriztu da, baina, bestalde, zuzentasun aldetik nola joaten diren jakiteko zailtasun handiagoa dago, ez baitira normalkuntza teknikariaren eskuetatik pasatzen. Honela, hainbat kexa jasotzen dira euskararen kalitatearen ingurukoak»

(EJ Saila)

«Itzultzaile automatikoen sorrerak idatzkiak azkar eta autonomoki euskaratzea ekarri du, baina kalitatea kolokan dago»

(EJ Saila)

Kontratazioen, dirulaguntzen eta hitzarmenen hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipen egokirik ez dela egiten adierazi dute solaskideetako batzuek. Horrekin lotuta, hornitzaileekiko harremanak sarritan gaztelaniaz izaten direla azpimarratu dute.

*«Kontratazio eta dirulaguntzetan euskara-klausulak jarri bai, baina ez zaie jarraipenik egiten»*

*(EJ Saila)*

*«Hizkuntz irizpideen aplikazio eraginkor eta egonkorra bai dirulaguntzetan eta baita kontratazioetan ere»*

*(Foru Aldundia)*

*«Kontratazioetan hizkuntza-irizpideak txertatzen dira, jarraipena sistematizatzea falta da»*

*(> 5 mila biztanle)*

*«Ez dugu sistematikoki egiten hizkuntza-irizpideen betetze mailaren jarraipena. Hutsune eta erronka nagusienak dira une honetan zerbitzuen kontratazioan jarritako hizkuntza baldintzen jarraipena egitea eta herritarren euskarazko eskaerari euskaraz erantzuteko sistema (prozedura, datu-basea) sortzea»*

*(> 5 mila biztanle)*

*«Dirulaguntzetan eta kontratazioetan hizkuntza-irizpideen jarraipen lana ez egitea»*

*(> 5 mila biztanle)*

*«Kontratueta ezarritako hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipen txikia»*

*(> 5 mila biztanle)*

*«Hizkuntza-irizpideen jarraipenean dago hutsunerik handiena; alegia, udalak hizkuntza-irizpide aurreratuak ezartzen ditu kontratazio publikoan eta dirulaguntzetan, adibidez, baina ez du jarraipen zehatzik egiten irizpide horiek betetzeari buruz. Baliabide faltarekin lotua dago hutsune hori»*

*(Udala, < 5 mila biztanle)*

*«Udalak ez du lortu lan egiten duen hainbat hornitzaileekin harremanak (idatzizkoak eta ahozkoak, baina batez ere idatzizkoak) euskaraz izatea. Nahiz eta arlo hau lantzen ibili, eta jarraipena egin, kostata egiten ditugu aurrerapenak»*

*(> 5 mila biztanle)*

*«Enpresa askorekin, harremanak gazteleraz dira (enpresaren eskariz)»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

Arduradun politikoen lidergo edo inplikazio-falta da gehien nabarmendu den beste gaietako bat, baita erakundeetako solaskideen artean ere. Arduradun horien euskararen ezagutza- edo gaitasun-falta bera ere aipatu dute, gainera, zailtasun gisa.

*«Lidergoa, arduradun politikoez ez dute nahikoa parte hartzen»*

*(EJ Saila)*

*«Arduradun politikoen hizkuntza gaitasun eta benetako erabileran eragiteko konpromiso falta»*

*(Foru Aldundia)*

*«Ordezkeri politiko zein laneko arduradunen hizkuntza-jokamoldeak erakundearen hizkuntza-ohituretan daukan eraginaz jabetu eta era sistematikoan aurrerapausoen mesedetan erabiltzen»*

*(Mankomunitatea)*

*«Hutsune nabarmenena agian politikarien hizkuntza erabileran dago, guztiek euskaraz jakin arrear, gaztelania gehiago erabiltzen dutelako (zuzendaritza taldean, osoko bilkuran, hainbat teknikarirekin dituzten lantaldeetan,...)»*

*(Udala > 5 mila biztanle)*

Aplikazio informatikoen erabilgarritasuna da gehien errepikatu den beste gaietako bat: ez daudela euskaraz erabilgarri edo, erabilgarri egonik ere, gaztelaniazkoak erabiltzen direlako.

*«Merkatuan euskaraz dauden aplikazio informatikoen eskaintza urria da, eta Udala behartuta dago gaztelaniazko bertsioa erostera (langileen lan-hizkuntzan eragina du horrek)»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Tresna eta aplikazio informatikoak: eguneroko lanerako gehien erabiltzen diren programak eta aplikazioak edo sistema eragilea euskaraz daude erabilgarri, baina gaztelerazko bertsioak erabiltzen dira gehienbat»*

*(Udala > 5 mila biztanle)*

*«Espedienteak kudeatzeko aplikazioa erabat euskaraz ez izatea (gauza batzuk euskaraz daude eta beste batzuk ez, dena nahastuta) eta, horren ondorioz langile gehienek gaztelaniaz erabiltzen dute»*

*(Udala > 5 mila biztanle)*

## **Erronkak**

Euskara lan-hizkuntza gisa sustatzearekin lotuta daude, orokorrean, hurrengo plangintzaldiari begira solaskideek planteatzen dituzten erronka nagusiak. Bai ahozkoan, egoera formaletan eta informaletan; eta baita idatzizkoan ere, euskaraz sortzea sustatuz eta itzultzaileekiko mendekotasuna murriztuz.

*«Erabileran eragitea, euskara lan-hizkuntza izan dadin eta horretarako neurriak ezarriz»*

*(EJ Saila)*

*«Plangintzaldi berrian neurri egokiak hartzea euskara lan-hizkuntza gisa zabaltzeko»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Euskeraz sortzeko lanean sakondu, bai idatzizkoan eta bai ahozkoan. Hori da gure erronka nagusia»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Ahozko komunikazioetan ere euskaraz egin daitekeen guztia euskaraz egiteko helburua betetzen ahalegintzea»*

*(Foru Aldundia)*

*Ahozko erabileran (bereziki jardun ez instituzionalizatuan) euskararen erabilera aktibatzeke ekimenak bideratzea: Euskaraldiari jarraipena eman, Hlkaldia, sentsibilizazio-bilerak, Eusle metodologia...*

*(Udalak > 5 mila)*

*«Sortze hizkuntza euskara izateko dauden zailtasunak (adibidez, oinarritzko testuak gaztelaniaz egotea) aztertu eta konponbidea bilatzea»*

*(Udalak > 5 mila)*

Itzultzaile automatikoen eta bestelako tresna teknologikoen erabileraz mintzo dira, halaber, erronkei buruz jarduterakoan. Baina horien erabilera egokian jarriaz arreta.

*«Itzultzaile neuronalaren erabilerak hainbat erronka dakartza berarekin (tarteetan, testuaren kalitatea eta ganorazko zuzenketak); ondorioz, indarra jarri beharko da egokitzapenean»*

*(EJ Saila)*

*«Itzulpenaren mendekotasuna arintzea: itzulpenak modu arrazionalizatuan erabiltzea. Lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileak ahalegintzea zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortzen eta ematen»*

*(Udala, > 5 mila biztanle)*

*«Itzulpen bolumena jaisteko, langileak prestatu euskaraz sortzeko edota euskarazko itzulpena egiteko itzultzaile neuronalaren bitartez»*

*(Mankomunitatea)*

Garrantzi handia eman diote erakunde osoan eta modu eraginkorrean erabilera planen eta urtez-urteko kudeaketa planen berri emateari. Baita plan horien jarraipen sistematizatua egiteari ere. Horretarako, erakunde barneko egiturak eta ardurak finkatu beharra nabarmendu dute. Jarraipen lanetarako baliabide gehiagoren beharra ere azpimarratu dute batzuek. Beste batzuek, Euskara arloez gain, beste arloak ere inplikatu beharko liratekeela adierazi dute.

*«Zuzendarien aldetik Kudeaketa Planen ezagutza eta jarraipen zuzena egin ahal izateko modua sistematizatu behar da»*

*(EJ Saila)*

*«Erabilera Planaren hizkuntza irizpideak modu zehatzagoan ezartzea eta ondo komunikatzea»*

*(Udalak > 5 mila)*

*«Kudeaketa-plan asko jartzen dira martxan, baina horien jarraipena indartu behar da. Eguneroko lan-kargak plan horien garapena eta jarraipena alde batera uzteko arriskua dakar»*

*(EJ Saila)*

*«Egiten den plan berriaren zabalkunde eraginkorra egin eta hizkuntza irizpideak adosteko BATZORDE BAT osatu eta behin betiko dokumentua biltzen dituen udalbatzean onartu. Batzordean jarraipena egiteko neurriak eta baliabideak adostu»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

*«Eguneratu ditugun hizkuntza irizpideak onartzea, horien berri ordezkari, ataleko buru eta lankide guztiei ematea eta inplementatzen hastea»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

*«Erabilera Plana inplementatzeari begira, Euskara Atalak proposatzen dituen ekintzak aurrera eramateko ordezkari eta ataleko buruen laguntza eta inplikazioa»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

*«Lidergoaren sistemazioaren lanketarako, sailean egitura berri bat eraikitzea (hizkuntza-normalizazioari buruzko erabakiak hartu, betearazi eta jarraipena egingo duen organoa). Adibidez, kontratazio eta dirulaguntzetako euskara-klausulen gaia jorratuko luke aipatutako organoak»*

*(EJ Saila)*

«Sailaren egitura handia denez, hurrengo plangintzaldirako zuzendaritzetako ordezkariekin euskara batzordea sortzea izango da erronka, arduradun politikoak ere bertan egonda. Helburuak eta erabakiak taldean adosteko eta langileengana errazago iristeko»

(EJ Saila)

«Giza-baliabide gehiago izatea (lurralde ordezkartza bakoitzean HNT bat) martxan jarriko diren planei behar bezalako jarraipena egiteko»

(EJ Saila)

«Euskara Zerbitzua bere funtsezko zereginetara mugatu beharra, gero eta arlo zabalagoak gero eta okerrago lantzerantz beharrezkoak»

(Mankomunitateak)

«Euskara teknikariaz haratako, langile zein ordezkari politikoak inplikatzeko. Lana guztiona dela ulertzea»

(Udalak, > 5 mila biztanle)

Zuzendari, arduradun eta ordezkari politikoaren lidergoaren gaia ere berriro atera da, hurrengo plangintzaldiko erronkei buruz galdetzerakoan.

«Erakundeko ordezkari politiko eta lan-arduradunen eredu garrantzitsua eta gidaritzaren areagotzea, erronka berriei bat eginik modu eraginkorrean heltzeko»

(Mankomunitateak)

«Alde politikoaren inplikazio handiagoa»

(Udala, > 5 mila biztanle)

«Plangintzaldi berriarekin batera hasiko da agintaldi berria ere, eta euskarari dagokionez, berebiziko garrantzia izango du ordezkari politiko berrien hizkuntza gaitasunak eta euskararekiko konpromisoak»

(Udala, > 5 mila biztanle)

«Hurrengo plangintzaldia hasi orduko, aldaketa izango da ordezkari politikoetan, eta horiek ere lan egin beharko da hasieratik, hizkuntza-irizpideak azaltzeko eta dagokien lidergoa har dezaten eskatzeko. Urteotan ikusi dugu zenbateko garrantzia izan duen horrek udalaren funtzionamenduan»

(Udalak, <5 mila biztanle)

Erretiroa hartuko duten lankideak ordezkatu dituzten langile berriak dira erronka, solaskide askorentzat. Euren lanposturako hizkuntza gaitasun egokia izan dezaten eta hasieratik euskaraz lan egin dezaten lortzea, hori da plangintza berrirako zeregin handienetako bat. Euskalduntze prozesuan egindako bidea hauspotzeko baliatzea langile berri horien etorrera, alegia.

«Datorren plangintzaldian udal langile askok erretiroa hartuko dutela aurreikusten da, eta erronka nagusia langile berri horiek hizkuntza gaitasun nahikoa izatea eta euskaraz lan egin dezaten lortzea izango da»

(Udalak, > 5 mila biztanle)

«Guretzat erronka da hainbeste urtetan egindako euskalduntze prozesuari eustea, eta langile etorri berri horiek orain artekoa hauspotzeko eta indartzeko erabilteza»

(Udalak, > 5 mila biztanle)

«Langile berriak iritsiko dira datozen urteetan, egungo langileen erretiroarekin lotuta. Hizkuntza-irizpideak hasieratik azaldu behar dira, euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadin»

(Udalak, < 5 mila biztanle)

«Oinarri sendoak jartzea laster etorriko diren langile berriek bide egokia har dezaten, elkarrekin aurrera egiteko»

(Udalak > 5 mila)

Udal barrura begirako lanaz aparte, herritarrak ahaldundu eta sentsibilizatu beharra azpimarratu du zenbait solaskidek, administrazioak eskaintzen dien aukeraz baliatu eta zerbitzua euskaraz eska dezaten. Izan ere, sarritan, herritarren eskaera-faltari egozten diote euskararen erabilera apala.

*«Herritarrak ahalduntzea euren hizkuntza eskubideak aldarrika ditzaten»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

*«Eskaera euskaraz izan dadin, kanpainak martxan jarri»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

*«Sentsibilizazio kanpaina erakargarriak eta eraginkorrak egitea, herritarrak anima daitezen udalarekin euskaraz ahoz zein idatziz egitera»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

*«Herritarrak udalarekin izan beharreko harremana euskaraz egitera animatzea. Sentsibilizazio kanpaina erakargarriak eta eraginkorrak egin behar dira horretarako»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

Elebitasun ez **orekatuaren** kontzeptua aipatu dute erakunde batzuetan. Elebitasun orekatu esan zaion hori gainditu eta euskarari lehentasuna emateko erronkari heltzen diote, hain zuzen ere. Herritarrari nahi duen hizkuntza hautatzeko aukera emanez, baina, defektuz, euskara erabiliz. Eta, posible den neurrian, euskara hutsez jardunez.

*«Elebitasun ez orekatua sistematizatzea, eta langile guztiak barneratzea Udalak euskaraz funtzionatuko duela defektuz; alegia, herritar guztiak izango dutela hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta ez dela inor diskriminatuko hizkuntza kontuengatik, baina Udalak ez duela egingo bi hizkuntzen tratamendu berdina»*

*(Udalak > 5 mila)*

*«Herritarrentzat argitaratu beharreko idazki guztiak udalaren webgunean euskaraz bakarrik argitaratzea eta klik batean itzultzaile neuronalen bidez automatikoki itzultzea»*

*(Udalak > 5 mila)*

*«Erabilera planaren jarraipen zehatza egindakoa ikusiko da hobeto baina errezeloa da jarraitzen dugula hainbat eta hainbat komunikazio elebrietan egiten, euskara hutsez egin ote daitezkeen begiratu ere egin gabe. Hau da, elebitasunetik euskara hutsezko jauzi hori finkatzea izango litzateke erronka»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa ere aipatu dute batzuek, batez ere, hirigintza-proiektuekin lotuta. Tresna honen helburu nagusia da herri erakundeen esku-hartzeek udalerrira euskaldunetako euskararen egoeran izan dezaketen eragina aurreikustea eta neurtzea, eta, balizko kalteak neurri zuzentzaileen bidez zuzentzea edota murriztea.

*«ELE erabat finkatzea (ELEren udal-ordenantza ontzea eta onartzea)»*

*(Udalak > 5 mila)*

*«HAPOaren eta bestelako plan partzialen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

*«Espedienteak kudeatzeko aplikazioa behingoz euskaratzea eta euskaraz eskaini ahal izatea»*

*(Udalak, > 5 mila biztanle)*

## 5. Hizkuntza adierazleen taulak

### *Argibideak*

Tauletara ekarri dira EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko VI. plangintzaldiaren ebaluazioan jasotako adierazle nagusiak. Txostenaren aurreko ataletan azaldutako datu berdinak dira baina adierazle guztiak jarraian jarrita. Beraz langileek eta erakundeetako ordezkariak emandako informazioetik osatu dira eta V. Plangintzaren amaierako ebaluazioan erabilitako adierazleekin bateragarriak dira hein handi batean. VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioaren argazki orokorra erakusten dute eta erabilgarriak dira, azken bost urteetako bilakaera zein izan den ikusteko ere.

Adierazle bakoitzari dagokion lerroan, EAEko herri erakunde mota guztietan egindako ebaluaziotik ateratako EAE mailako adierazle orokorraz gain, erakunde esparrua eta lurralde mailako adierazleak ere jasoak daude, lurralde mailako erakundeen kasuan (udalak, mankomunitateak, foru aldundiak eta batzar nagusiak), lurralde historikoa eta erakundeen derrigortasun indizearen araberrako emaitzak berezita.

Adierazlea zein informazio iturritatik eskuratutako datuekin kalkulatu den jakiteko (langileei egindako inkesta edo erakundeetako solaskideen inkesta), bi kolore erabili dira; horrela, taulan grisez dauden adierazleak, solaskideen erantzunekin kalkulatu dira, eta marroi argian daudenak, langileen erantzunekin. Adierazle bakoitzak aurrean duen zenbakiak berriz, galdetegiko galdera zenbakia adierazten du. Datu bilketa egiteko erabilitako bi galdetegiak (langileena eta solaskidearena) eranskin modura gehitu dira eta galdera zenbakia erreferentziatzen hartuta, adierazle bakoitzari dagokion galdetegiko galdera zein den jakin daiteke.

Bestalde, begizko irakurketa errazte aldera, berdez markatuta daude EAEko adierazle orokorra baino balio altuagoa duten adierazle bakoitzaren gelaxkak.

Bi ardatzetan egituratu dira adierazle taulak: lehen ardatzean, zerbitzu-hizkuntzaren adierazleak eta herritarrei begirako jarduna aztertzen dira –erakundearen irudia eta herritarrekiko harremanak–. Bigarrean, lan-hizkuntzaren, hizkuntza kudeaketaren eta hizkuntza gaitasunaren adierazleak jaso dira, erakunde barruko hizkuntza jarduna eta hizkuntza kudeaketa aztertzen –barne komunikazioa eta lan tresnak, kanpo komunikazioa, pertsonen kudeaketa, kanpo harremanak eta erakundearen hizkuntza kudeaketa–.

## 5.1. Zerbitzu-hizkuntza

### 5.1.1. Erakundearen irudia

**14. taula.** Erakunde-irudiaren hizkuntza adierazleak, erakunde esparrua, lurraldea eta erakundeen derrigortasun indizearen arabera

		GUZTIRA	Erakunde esparrua								Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak						
			< 5 mila bizt	> 5 mila bizt	Hiriburua	Mankom	Udal+ Mankom	Foru Ald+ Batz Orok	EJ Sailak+ Erak auton	Erak Publiko indep.	Lurraldea			Derrigortasun indizea			Guztira
											Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	<%45	%45-%70	>%70	
1.1.- Eraikinetako errotulazio orokorraren hizkuntza egoera	Euskara hutsean (%)	10,9	46,3	35,5	1,8	10,9	21,1	0,0	0,1	4,2	0,1	11,9	28,1	6,4	9,9	71,1	14,1
	Ele bietan (%)	87,9	50,1	62,6	98,0	87,3	77,7	99,5	99,9	86,9	99,4	86,4	71,6	92,3	89,5	27,7	85,0
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>98,8</b>	<b>96,4</b>	<b>98,2</b>	<b>99,8</b>	<b>98,2</b>	<b>98,8</b>	<b>99,5</b>	<b>100,0</b>	<b>91,1</b>	<b>99,4</b>	<b>98,4</b>	<b>99,7</b>	<b>98,7</b>	<b>99,4</b>	<b>98,8</b>	<b>99,0</b>
1.2.- Erakundearen irudi korporatiboko elementuen hizkuntza egoera	Euskara hutsean (%)	14,5	54,8	45,8	1,6	14,7	26,8	2,5	1,0	4,2	0,1	13,5	41,1	5,9	17,3	88,2	18,7
	Ele bietan (%)	83,5	39,9	52,6	98,4	84,3	72,2	92,6	98,8	91,5	99,7	81,7	58,8	92,8	78,9	11,7	79,0
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>98,0</b>	<b>94,7</b>	<b>98,5</b>	<b>100,0</b>	<b>99,0</b>	<b>99,0</b>	<b>95,2</b>	<b>99,8</b>	<b>95,7</b>	<b>99,8</b>	<b>95,3</b>	<b>99,9</b>	<b>98,7</b>	<b>96,2</b>	<b>99,9</b>	<b>97,7</b>
1.3.- Erakunde beraren paper edizio argitalpenen hizkuntza egoera	Euskara hutsean (%)	12,2	37,6	18,4	2,6	0,1	12,0	18,1	7,3	0,0	5,2	14,1	17,0	2,6	15,2	50,9	13,6
	Ele bietan (%)	79,8	53,9	76,8	87,6	96,9	81,1	65,2	90,4	97,7	82,6	73,0	80,1	87,1	74,0	48,5	76,8
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>92,0</b>	<b>91,5</b>	<b>95,3</b>	<b>90,2</b>	<b>97,0</b>	<b>93,1</b>	<b>83,3</b>	<b>97,7</b>	<b>97,7</b>	<b>87,7</b>	<b>87,0</b>	<b>97,2</b>	<b>89,7</b>	<b>89,2</b>	<b>99,4</b>	<b>90,5</b>
1.4.- Hedabideen bitartez zabalduko iragarki eta publizitatearen hizkuntza egoera	Euskara hutsean (%)	21,5	51,2	35,6	13,8	15,0	26,4	17,7	14,1	0,0	11,9	8,4	56,5	8,9	28,6	72,6	23,5
	Ele bietan (%)	71,1	39,1	56,4	86,2	76,9	68,8	74,7	71,8	100,0	87,0	86,9	32,5	86,3	64,7	22,3	70,8
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>92,6</b>	<b>90,3</b>	<b>92,0</b>	<b>100,0</b>	<b>91,9</b>	<b>95,2</b>	<b>92,4</b>	<b>85,9</b>	<b>100,0</b>	<b>98,9</b>	<b>95,4</b>	<b>89,1</b>	<b>95,2</b>	<b>93,3</b>	<b>94,9</b>	<b>94,3</b>
1.5.- Hedabideen bitartez zabalduko berriak	Euskara hutsean (%)	15,0	50,3	32,4	12,7	9,4	25,1	0,0	5,3	10,8	14,5	9,9	35,5	10,2	13,4	67,4	17,9
	Ele bietan (%)	61,3	20,7	29,7	46,7	80,0	37,5	99,8	82,5	28,8	80,4	49,5	52,4	42,7	78,3	12,4	55,4
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>76,3</b>	<b>71,0</b>	<b>62,1</b>	<b>59,5</b>	<b>89,4</b>	<b>62,6</b>	<b>99,8</b>	<b>87,8</b>	<b>39,6</b>	<b>94,9</b>	<b>59,5</b>	<b>87,9</b>	<b>52,9</b>	<b>91,7</b>	<b>79,9</b>	<b>73,3</b>
1.6. Jendaurreko ekitaldiak	Euskaraz (%)	71,3	70,6	63,0	82,1	50,7	68,2	81,0	65,5	63,5	62,1	73,0	77,1	61,1	77,9	94,1	73,1
1.7. Webguneak eta tramitazio telematikoak	Euskara hutsean (%)	3,2	19,1	10,3	0,0	0,0	6,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,6	7,6	0,0	1,9	33,5	4,0
	Ele bietan (%)	94,6	73,0	83,7	100,0	96,2	90,5	100,0	98,3	100,0	99,0	93,9	89,1	97,1	96,3	64,3	93,7
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>97,8</b>	<b>92,0</b>	<b>94,0</b>	<b>100,0</b>	<b>96,2</b>	<b>96,5</b>	<b>100,0</b>	<b>98,3</b>	<b>100,0</b>	<b>99,0</b>	<b>97,6</b>	<b>96,8</b>	<b>97,1</b>	<b>98,2</b>	<b>97,9</b>	<b>97,7</b>
1.8. Sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak	Euskara hutsean (%)	15,5	31,9	21,9	17,6	5,1	19,9	10,0	12,2	0,0	20,0	7,0	29,1	11,4	12,8	59,4	16,6
	Ele bietan (%)	75,6	58,8	75,2	64,9	89,3	70,9	84,5	75,3	100,0	58,0	92,0	62,5	77,0	81,5	39,6	75,5
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>91,1</b>	<b>90,6</b>	<b>97,1</b>	<b>82,5</b>	<b>94,4</b>	<b>90,8</b>	<b>94,5</b>	<b>87,5</b>	<b>100,0</b>	<b>78,0</b>	<b>99,0</b>	<b>91,6</b>	<b>88,4</b>	<b>94,3</b>	<b>99,0</b>	<b>92,0</b>
2.1. eta 2.2. Herritarrari zuzendutako jarduerak	Euskaraz (%)	88,2	80,5	83,7	100,0	62,5	89,5	79,9	96,6	21,1	93,0	87,2	79,7	89,8	81,6	91,0	86,3
2.3. eta 2.4. Herritarrari zuzendutako ikastaroak	Euskaraz (%)	56,4	69,1	47,9	55,3	59,4	51,9	51,4	72,8	20,3	61,0	31,9	65,0	41,8	56,7	87,8	51,8



## 5.1.2. Herritarrekiko harremanak

**15. taula.** Herritarrekiko harremanetako hizkuntza adierazleak, erakunde esparrua, lurraldea eta erakundeen derrigortasun indizearen arabera

		GUZTIRA	Erakunde esparrua								Lurralde mailako erakundeak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak							
			< 5 mila bizt	> 5 mila bizt	Hiriburua	Mankom	Udal+ Mankom	Foru Ald+ Batz Orok	EJ Sailak+ Erak auton	Erak Publiko indep.	Lurraldea			Derrigortasun indizea			Guztira	
											Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	<%45	%45-70	>%70		
1.2. Erakundeak herritarri bidalitako dokumentu edo idatzi ofizialak	Euskara hutsean (%)	13,0	33,3	21,0	5,3	8,5	16,9	6,5	7,9	12,9	4,3	7,3	28,6	3,8	12,2	52,4	14,1	
	Ele bietan (%)	60,2	48,4	55,9	52,0	70,4	54,9	68,2	69,0	57,1	54,2	59,5	59,2	52,4	66,4	43,1	58,4	
	<b>Euskaraz+ele bietan (%)</b>	<b>73,2</b>	<b>81,6</b>	<b>77,0</b>	<b>57,3</b>	<b>78,8</b>	<b>71,8</b>	<b>74,7</b>	<b>77,0</b>	<b>70,1</b>	<b>58,5</b>	<b>66,8</b>	<b>87,9</b>	<b>56,2</b>	<b>78,6</b>	<b>95,5</b>	<b>72,6</b>	
1.3. Herritarrek euskaraz aurkeztutako idatzi erantzuteko erabilgaitako hizkuntza	Euskara hutsez (%)	61,8	69,5	65,9	59,6	49,3	63,5	58,9	58,6	64,8	59,1	57,1	71,0	58,9	60,2	80,6	62,3	
	Ele bietan (%)	25,0	21,6	22,0	19,8	36,9	22,1	29,7	31,3	13,6	24,4	26,6	20,6	20,4	29,1	14,4	24,2	
	<b>Euskaraz+ele bietan (%)</b>	<b>86,7</b>	<b>91,1</b>	<b>87,8</b>	<b>79,4</b>	<b>86,2</b>	<b>85,6</b>	<b>88,6</b>	<b>89,9</b>	<b>78,4</b>	<b>83,5</b>	<b>83,8</b>	<b>91,7</b>	<b>79,3</b>	<b>89,3</b>	<b>95,0</b>	<b>86,4</b>	
Harrera guinea	2.3. Aurrez aurreko harreran erabilgaitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	68,2	81,8	71,1	54,6	72,3	67,9	71,3	62,9	73,4	64,8	64,8	82,7	47,6	79,4	93,4	68,5
	2.4. Aurrez aurreko harremanean herritarrek erantzuteko erabilgaitako hizkuntza	Euskaraz (%)	39,9	58,1	41,5	31,8	41,1	40,8	33,2	33,9	58,1	35,7	35,7	52,2	22,5	45,0	70,1	39,5
	2.6. Telefono bidezko harreran erabilgaitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	70,7	84,7	72,8	58,6	78,9	70,5	73,0	66,7	73,6	69,0	69,0	83,4	52,3	80,1	95,6	71,0
	2.7. Telefono bidezko harremanean, herritarrek erantzuteko erabilgaitako hizkuntza	Euskaraz (%)	41,4	57,8	42,7	31,1	44,6	41,3	39,6	39,5	50,2	37,7	37,7	53,0	24,1	47,4	69,0	41,0
Harrera guneetakoak ez	3.2. Aurrez aurreko harreran erabilgaitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	63,6	78,7	71,9	48,1	73,8	65,9	58,0	64,3	58,9	60,1	60,1	82,2	42,5	72,6	95,5	63,7
	3.3. Aurrez aurreko harremanean herritarrek erantzuteko erabilgaitako hizkuntza	Euskaraz (%)	42,3	57,3	50,2	34,9	49,3	46,5	33,0	37,9	46,8	37,4	37,4	61,5	26,2	47,0	77,0	42,7
	3.5. Telefono bidezko harreran erabilgaitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	65,7	77,9	80,1	44,0	75,0	68,9	61,1	65,3	56,4	64,0	64,0	87,6	44,2	76,4	95,8	66,2
	3.6. Telefono bidezko harremanean, herritarrek erantzuteko erabilgaitako hizkuntza	Euskaraz (%)	39,8	53,1	51,1	27,2	48,5	43,9	33,3	37,5	40,9	36,5	36,5	58,7	23,9	45,3	72,5	40,3
4.1. Euskarazko eskaerei, erakundeak emandako erantzuna	Euskaraz (%)	80,5	86,8	87,4	70,6	86,9	81,5	81,0	77,2	77,1	65,4	81,8	91,8	69,2	88,3	97,4	81,4	
4.2. Euskaraz artatzeko gai ez diren jokabidea	Eskaerak diot gaztelaniaz hitz egiteko (%)	6,1	9,2	4,9	8,4	9,2	6,7	5,0	5,2	9,5	9,4	6,9	2,7	9,8	3,6	3,2	6,2	
	Euskaraz hitz egiteko eskaerak diot, nahiz eta nik gaztelaniaz erantzun (%)	13,9	8,9	11,9	18,8	11,4	14,1	12,8	15,4	14,3	20,2	16,4	4,5	22,3	9,0	0,2	13,7	
	Erakundearen protokolo bat dago eta beste lankide batek artatzen du (%)	2,9	0,6	1,5	1,7	0,4	1,5	4,4	4,9	3,0	6,8	1,8	0,1	4,6	0,9	0,0	2,4	
Guztira (%)	100,0		100,0		100,0		100,0		100,0		
13.2. Zuk zure lanean zenbateraino betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak? (adierazlea eta langileen erantzunak)	<b>Adierazlea (asko+nahikoa) (%)</b>	<b>78,8</b>	<b>66,5</b>	<b>78,6</b>	<b>67,2</b>	<b>79,8</b>	<b>61,8</b>	<b>76,0</b>	<b>63,0</b>	<b>86,2</b>	<b>79,5</b>
	Asko (%)	32,3		36,2		29,2		26,5		29,8	
	Nahikoa (%)	46,5		42,4		50,7		49,5		56,5	
	Gutxi (%)	12,6		12,9		11,1		15,6		6,3	
	Batere ez (%)	0,9		1,3		0,3		0,7		0,9	
	Ez ditut ezagutzen (%)	7,6		7,1		8,7		7,7		6,5	
Guztira (%)	100,0		100,0		100,0		100,0		100,0		

**32. taula.** Lanpostuen hizkuntza eskakizunen eta egiaztatze mailaren bilakaera (2017-2022), erakunde esparruaren arabera

		Guztira		Udal+Mankom		Foru Ald+Batzen Orok		EJ Sailak+Erak auton		Erak Publiko indep	
		2022	2017	2022	2017	2022	2017	2022	2017	2022	2017
15.1. Zein da zure lanpostuari dagokion HE (langilearen erantzuna)	1 HE (%)	5,4	9,8	6,3	10,3	5,1	6,4	2,3	15,3	8,3	3,4
	2 HE (%)	34,9	39,7	36,0	41,4	30,7	41,2	35,5	38,5	41,8	32,9
	3 HE (%)	43,6	39,4	38,7	34,5	55,3	43,7	42,7	35,5	42,3	59,4
	4 HE (%)	10,9	11,0	11,8	13,8	6,3	8,7	16,2	10,8	4,5	4,3
	Ez dakit (%)	5,2		7,2		2,6		3,3		3,1	
	Guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
15.2. Zein da zuk egiaztatutako maila altueneko hizkuntza eskakizuna	1 HE (%)	5,7	6,6	6,0	6,2	4,1	4,8	6,4	9,5	7,4	5,2
	2 HE (%)	22,4	23,2	23,5	25,1	17,1	23,1	23,8	23,8	30,1	14,1
	3 HE (%)	49,6	37,9	46,6	33,2	61,5	41,0	42,8	34,3	50,1	60,7
	4 HE (%)	12,9	9,9	11,9	11,8	12,2	8,5	18,3	8,8	8,7	6,8
	Batere ez (%)	8,6	22,3	10,8	23,7	4,9	22,5	8,2	23,8	3,5	13,1
	Ez dakit (%)	0,8		1,3		0,2		0,6		0,2	
Guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

<sup>6</sup> VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan "erakunde publiko independenteak" kategoria osatu duten erakundeak eta V. plangintzaldiaren amaierakoan "beste herri administrazio batzuk" osatu zutenak ez dira berdinak eta bi ebaluazioetako datuak ezin dira zuzenean alderatu.

<sup>7</sup> VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan "erakunde publiko independenteak" kategoria osatu duten erakundeak eta V. plangintzaldiaren amaierakoan "beste herri administrazio batzuk" osatu zutenak ez dira berdinak eta bi ebaluazioetako datuak ezin dira zuzenean alderatu.

**33. taula.** Ordezkaritza politikoen euskara mailaren bilakaera (2017-2022), erakunde esparruaren arabera

		Guztira		Udal+Mankom		Foru Ald+Batza Orok		EJ Sailak+Erak auton		Erak Publiko indep	
		2022	2017	2022	2017	2022	2017	2022	2017	2022	2017
5.9. Erakunde ordezkaritza politikoen hizkuntza gaitasuna (%)	Hitz egiteko gai (%)	67,5	72,3	69,6	73,6	62,9	70,1	65,2	70,4	80,1	52,7
	Utertzeko gai (%)	79,7	79,5	79,0	79,7	82,0	75,7	74,3	81,8	92,6	76,8

**34. taula.** Euskararen erabilera bilakaerarekiko langileen balorazioen eta parte-hartzearen bilakaera (2017-2022), erakunde esparruaren arabera

		Guztira		Udal+Mankom		Foru Ald+Batza Orok		EJ Sailak+Erak auton		Erak Publiko indep <sup>8</sup>	
		2022	2017	2022	2017	2022	2017	2022	2017	2022	2017
14.1. Zein balorazio egiten duzue zure erakundearen euskararen erabilera duen bilakaerari buruz? (adierazleak eta langileen erantzunak)	<b>Adierazlea (%) Oso positiboa+positiboa</b>	53,5	52,3	54,1	55,2	57,5	44,6	46,9	44,8	51,3	71,9
	<b>Adierazlea (%) Oso negatiboa+negatiboa</b>	12,1	10,7	12,7	9,4	10,0	12,0	12,1	13,3	15,4	8,4
	Oso negatiboa (%)	2,5		3,3		1,3		1,8		2,6	
	Negatiboa (%)	9,6		9,4		8,7		10,3		12,8	
	Ez negatibo ez positiboa (%)	34,4		33,2		32,5		41,0		33,3	
	Positiboa (%)	43,7		41,9		49,6		41,2		44,4	
	Oso positiboa (%)	9,7		12,2		7,9		5,7		6,8	
	Guztira (%)	100,0		100,0		100,0		100,0		100,0	
14.2. Zergatik? (langileen erantzunak)	Asko egin delako (%)	19,9		23,1		18,6		13,0		15,5	
	Nahikoa egin delako (%)	36,9		33,6		42,0		38,7		41,0	
	Gutxi egin delako (%)	19,0		19,9		15,1		21,5		19,7	
	Gehiegi egin delako (%)	1,4		1,3		1,5		1,2		3,0	
	Ed/Ee (%)	22,8		22,1		22,8		25,7		20,8	
	Guztira (%)	100,0		100,0		100,0		100,0		100,0	
14.4. Plangintzaldi honetan, zein mailatan parte hartu duzue zure erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan? (adierazleak eta langileen erantzunak)	<b>Adierazlea (asko+nahikoa)(%)</b>	35,4	24,6	37,6	26,6	35,2	20,6	29,3	19,8	35,1	33,7
	Asko (%)	7,5		9,2		5,3		5,7		6,3	
	Nahikoa (%)	27,9		28,3		29,9		23,6		28,8	
	Gutxi (%)	36,3		34,8		39,0		37,5		35,5	
	Batere ez (%)	18,3		16,0		20,2		21,7		21,1	
	Erakundeak ez du euskararen normalizaziorako ekimenik aurrera eraman (%)	2,3		2,9		0,5		2,5		3,1	
	Ez dut aukerarik izan euskararen normalizaziorako ekimenetan parte hartzeko (%)	7,7		8,7		5,0		9,0		5,3	
	Guztira (%)	100,0		100,0		100,0		100,0		100,0	

<sup>8</sup> VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan “erakunde publiko independenteak” kategoria osatu duten erakundeak eta VI. plangintzaldiaren amaierakoan “beste herri administrazio batzuk” osatu zutenak ez dira berdinak eta bi ebaluazioetako datuak ezin dira zuzenean alderatu.

## 7. Ondorioak

### 7.1. Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa

#### **Dimentsioa: 321 erakunde eta 35 mila langile inguru**

VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa, EAEko herri administrazioaren herri erakunde guztietan egin da: udalak, mankomunitateak, foru aldundiak eta batzar nagusiak, Eusko Jaurlaritza eta haren menpeko erakunde autonomiadunak, eta erakunde publiko independenteak (EHU, Arartekoa...). Unibertsoa 321 erakundek osatzen dute eta 35 milatik gora dira bertako langileak.

#### **Lagina: 195 erakunde eta 4.153 langile**

EAEko herri administrazioak osatu du ebaluazioa egiteko ikerlanaren unibertsoa eta, errolda bidezkoa eta lagin bidezkoa izan da ikerketaren irismen maila. Errolda bidezkoa, hau da, unibertsoa erakunde guztien ebaluazioa egin da erakunde hauetan: Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak, foru aldundiak eta batzar nagusiak, EAE mailako erakunde publiko independenteak eta 5 mila biztanlez gorako udallerrietako udal guztiak. Aldiz 5 mila biztanlez azpiko udallerrietako udaletan, mankomunitateetan, partzuergoetan eta kuadrilletan, estatistikoki adierazgarria den lagin bat aukeratu da. Guztira, 195 erakundetako ebaluazioa egin da eta 4.153 langile inkestatu dira.

### 7.2. Hizkuntza gaitasuna

#### **Hizkuntza gaitasuna: aurrerabidea gazteen sarbideari esker**

Hizkuntza gaitasun aitortuaren datuak jasotzeko, langileei galdetu zaie nolako gaitasuna duten lau trebetasunetan (ulermena, irakurmena, idazmena eta hizketa); haien arabera, lautik hiruk (% 74), euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dute eta idazten (% 74). Aurreko ebaluaziotik (V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa) oraingora, 6 puntu igo da hitz egiteko gaitasuna eta 9 puntu idaztekoa. Gazteen sarbidearekin ari da batik bat langileen hizkuntza gaitasuna hobetzen: zenbat eta adin talde gazteagoa, orduan eta euskara gaitasun handiagoa; 35 urtez beherako ia guztiak dira gai ongi edo nahiko ongi hitz egiteko (% 98) eta idazteko (% 96). Gazteetan, euskara maila altuena dutenen multzoa bakarrik hartuta ere, hau da, ongi erantzun dutenak, lautik ia hiru (% 73) dira maila altukoak. Gaitasun hori, aurrerago azaldutako datuek erakutsi moduan, faktore erabakigarria da erabileran. 35 urte edo gutxiagoko beharginek dute gaitasun maila handiena, baina langileen % 7 dira; 55 urtez gorakoek dute txikiena, eta % 32 dira.

### **Erakunde motaren arabera baino, askoz ere nabarmenagoak dira testuinguru soziolinguistikoaren araberako aldeak**

Ebaluazioaren emaitzak, erakunde esparru hauen arabera gurutzatu dira: 5 mila biztanletik beherako udalerrietako udalak, 5 milatik gorakoak (hiriburuak sartu gabe), hiriburuen udalak, mankomunitateak, foru aldundiak eta batzar orokorrak, Eusko Jaurlaritzaren eta bere menpeko erakunde autonomoak eta erakunde publiko independenteak. Hiru hiriburu eta udalerrietako langileen batez besteko euskara maila, beste, erakunde esparru guztiena baino dezente baxuagoa da (% 58); hiriburuak ez diren gainerako udalerrietan eta mankomunitateetan dago gaitasun altuena (% 80) eta gainerako erakunde esparru guztiak % 75aren bueltan kokatzen dira. Hala ere, testuinguru soziolinguistikoak sortzen dituzten alderik handienak: derrigortasun indizea % 45 baino baxuagoa duten erakundeetan, langileen erdiak baino zertxobait gehixeago (% 54) dira euskaldunak eta derrigortasun indizea % 70etik gorakoa dutenetan berriz, orokortua dago euskararen ezagutza (% 98). Tartekoetan ere (indizea %45-70 artean), langile gehienek (% 85) ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute euskara. Horrela, lurraldearen arabera kalkulaturako hizkuntza gaitasunean ere salto handiak daude: % 53 Araban, % 71 Bizkaian eta % 92 Gipuzkoan. Gipuzkoako herri erakunde gehien gehienetan, orokortua dago langileek euskara jakitea, ez ordea Araban eta Bizkaian.

## **7.3. Zerbitzu-hizkuntza**

### **IRUDIA**

#### **Erakundearen iruditeriko idatzizko elementu gehienetan bermatua dago euskararen erabilera**

Oso orokortua dago (% 80tik gora) euskararen eta gaztelaniaren aldi bereko erabilera erakundearen idatzizko hizkuntza paisaiaren elementu gehienetan (errotulazioan, irudi korporatiboan, webguneetan eta papereko argitalpenetan), eta ele bietan ez dagoena, euskara hutsean ageri da nagusiki, proportzio altuagoan 5 mila biztanletik beherako udal txikienetan eta Gipuzkoako herri erakundeetan. Aldiz jendaurreko ekitaldietako ahozko erabileran, herri erakundeetako ordezkariak azaldutako informazioaren % 29, gaztelania hutsean ematen da.

### **JARDUERAK**

#### **Herritarrentzat antolatutako jarduerak euskaraz eskaintzerakoan, ikastaroetan dago arazo gehien**

Modu orokorrean galdetu da, zein aukera duten herritarrek erakundeak antolatutako erakusketa, kanpaina eta bestelako egitasmoetan euskaraz parte hartzeko, eta batez beste, % 88 da euskaraz egindako eskaintzaren ehunekoa. Baina berariaz ikastaroak galdetutakoan, nabarmen jaisten da ikastaro horiek euskaraz jasotzeko aukera, % 57raino.

## IDATZIZ

### **Elebitasuna da nagusi erakundeek herritarrei bidalitako dokumentuetan (% 60) eta hizkuntza bakarreko agiriak, gehiago dira gaztelaniaz (% 27), euskaraz baino (% 13)**

Erakunde esparruaren araberako egoeraren bi muturrak hauek dira: hiriburuetakoa udaletan eta erakunde publiko independenteetan gaztelania hutsean bidalitako agiriak % 30 baino gehiago dira. 5 milatik beherako udaletan berriz, herritarrei bidalitako dokumentuen % 48 ele bietan dago eta alderik handiena euskaraz bakarrik bidalitakoetan dago, % 33. Aldundietan eta Jaurlaritzan, elebitasunaren sistemak du pisu handiena, % 69aren bueltan, eta euskaraz bakarrik bidalitakoak gehituta, hurrenez hurren, % 75 eta % 77 dira erakunde esparru horien euskara adierazleak.

### **Herritarrek euskaraz aurkeztutako agiriei euskaraz erantzuten zaie gehien bat (% 62), gutxiago ele bietan (% 25)**

Erakunde esparruaren arabera Jaurlaritzan eta mankomunitateek, gainerako erakundeek baino joera handiagoa dute euskarazko agiriei bi hizkuntzetan erantzuteko, % 31 eta % 37, hurrenez hurren. Udal txikietan eta Gipuzkoako erakundeetan berriz, euskara hutsean erantzuten da gehiago, % 70 eta % 71, hurrenez hurren.

## AHOZ

### **Harrera guneetan herritarren lehen hitza euskaraz egitea ez dago sistematizatua herri erakunde guztietan**

Hutsunea, erdaldunenak diren ingurune soziolinguistikoetan kokatutako herri erakundeetan dago. Harrera guneetan herritarrekin langileek solasaldia zein hizkuntzatan hasten duten, % 68 aurrez aurreko harreraren eta % 71 telefonoz, horiek dira EAE osoko erabilera-adierazle orokorrak. Eta eremu erdaldunenean kokatutako erakundeetan (derrigortasun indizea % 45aren azpitik), langileak ere askoz gutxiago zuzentzen dira herritarrengana euskaraz, aurrez aurreko harreraren datua % 48raino murrizten baita.

### **Gazteen euskara maila altuagoa da baina falta da, haiek, herritarrekin euskaraz mintzatzeko jarrera proaktiboagoa izatea**

Hizkuntza gaitasuna giltzarria da langileak herritarrengana euskaraz zuzentzeko eta 35 urtez beherako administrazioa ia behargin guztiak gai dira zerbitzua euskaraz emateko. Ordea, harrera guneetan aurrez aurre herritarrei lehen hitza euskaraz egiten dieten langileen pisua, 45-55 urte bitartekoetan baino (% 75) baxuagoa da 45 urtez azpikoetan (% 70). Honakoa da datu positiboa: badago herritarren joera bat behargin gazteekin euskara gehiago erabiltzeko.

### **Gazteak diren langileekin, herritarrek gehiago egiten dute euskaraz, hasieratik**

Aldea batez ere aurrez aurreko harreran dago: langileen hasierako harrerari euskaraz erantzuten dioten herritarren adierazle orokorra % 40 izanda (harrera guneean), 35 urtez beherako langileetan, 17 puntu altuagoa da datu hori (% 57).

### **Zenbat eta gazteago, orduan eta erantzun hobea herritarren hizkuntza eskubideei**

Zerbitzua euskaraz eskatu duten herritarrei nola erantzuten dieten galdetu zaie langileei eta lotura estua dago adinarekin. Ahozkoan, euskaraz nahiago duten herritarren %80ri euskaraz ematen zaie zerbitzua; langileen adinaren arabera bi muturrak hauek dira 35 urtetik beherakoetan % 96 eta 55 urtetik gorakoetan % 73.

### **Herritarrekiko harremanen hizkuntza adierazle guztiek, bilakaera positiboa izan dute**

Azken ebaluazio honetako emaitzak (2022koak), V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioak (2017 urtea) eman zituenarekin alderatuta, herritarrei harrera euskaraz zenbat egiten zaion, 15 puntu igo da, % 49tik % 64ra (aurrez aurre eta harrera gunekak diren lanpostuak sartu gabe); herritarrek zer hizkuntzatan erantzuten duten, 7 puntu igo da, % 35etik % 42ra. Eta, zerbitzua euskaraz jasotzea nahiago duten herritarrei emandako erantzunak ere, hobera egin du, 8 puntu, % 72tik % 80ra.

## **7.4. Lan-hizkuntza**

### **Barneko komunikazioak ele bietan erakunde gehienetan, udal txikietan euskaraz**

Intraneta, iradokizun postontzia, langileei zuzendutako posta elektronikoak eta jakinarazpenak, gisa horretako erakunde barneko komunikazio gehienak ele bietan egiten dira (batez beste % 71 EAE mailan) eta bostetik bat baino gutxiago (% 17) euskaraz; 5 mila biztanlez beherako udal txikienean, hala ere, gehiago egiten dute euskara hutsean (% 47), ele bietan baino (% 25).

### **Behargin gazteen eta emakumeen ardurapekoak diren erakunde barneko dokumentuetan, gehiago erabiltzen da euskara**

Erakundeek barrura begira idatzi eta tramitatu behar izaten dituzten txostenak, memoriak eta bestelako barne idatziak, ia erdiak (% 46) gaztelania hutsean egiten dira, laurden bat pasatxo (% 29) ele bietan eta gainerako laurdena (% 25) euskara hutsean. Erakunde esparruaren arabera, udal txikien (euskaraz edo ele bietan % 73) eta hiriburuetakako udalen artean (% 31) dago alderik gehien. Eta langileen soslaiak ere eragiten du: 35 urtez beherako langileen ardurapekoak diren barne dokumentuak, gehiago tramitatzen dira euskara hutsean (% 34); eta emakumeen artean gizonetan baino altuagoa da euskararen erabilera, bi puntuko aldea euskara hutsean eta 7 puntuko aldea, ele bietan idazten diren erakunde barneko dokumentu ofizialetan.



### **Udaletan izan ezik, gainerako erakundeetan egiten diren lan bileretako dokumentazio gehiena gaztelania hutsean dago**

EAE osoko erakundeak hartuta, erdarak pisu handiagoa hartzen du lan bileretako dokumentuetan eta hizkuntza bakarrean gaztelaniaz egiten dena (% 52), euskara hutsean (% 23) egiten denaren bikoitza da; gainerakoa (% 25) ele bietan egiten da. Aldea, hiriburuak ez diren udaletan dago: euskaraz edo ele bietan hamar dokumentuetatik zazpi inguru (% 70); udal txikienetan, euskara hutsean gehiago (% 53).

### **Ahozkoari dagokionez, erakunde handietan, lankideen artean gehiago erabiltzen da euskara lan bileretan baino**

Telefonoz zein aurrez aurre, lankideekin hitz egiterakoan, euskararen batez besteko erabilera % 44 da, EAEko erakunde guztiena kalkulaturik. Gaineratik daude, udal txikiak (% 64), 5 milatik gorako udalak (% 57), mankomunitateak (% 51) eta, oro har, Gipuzkoako herri erakundeak (% 73). Azpitik berriz, Jaurlaritza (% 41), foru aldundiak (% 40), erakunde publiko independenteak (% 38), hiriburuetako udalak (% 30), Bizkaia (% 38) eta Arabako (% 22) erakundeak.

Lan bileretan zein hizkuntzatan hitz egiten den galdetuta, ageri dira diferentzia batzuk. Udaletan, bai txikietan bai 5 milaz gorakoetan, lankideekin bezainbeste egiten da euskaraz bileretan; ordea, erakunde handiagoetan, lankideekin baino gehiago erabiltzen da erdara lan bileretan; erakunde horien euskararen batez besteko erabilera indizeak ondorengoak dira: hiriburuetan % 21, erakunde publiko independenteetan % 30, Jaurlaritzan (% 32) eta foru aldundietan (% 33).

### **Idatzizkoan, tamaina jakin batetik gorako erakundeetan, erdarak pisu handiagoa hartzen du barruan**

Idatzizkoari dagokionez elebitasunak indarra du herritarrekiko erlazioan, baina, barrura begirakoetan, gutxiago ageri da euskara eta gaztelania hutsezko jardunak hartzen du indarra. Hiriburuetako udaletan, aldundietan eta Jaurlaritzan, barneko dokumentu ofizialen erdia baino gehiago gaztelaniaz bakarrik dago.

Langileek lanerako erabilitako baliabide informatiko gehienak gaztelaniaz erabiltzen dira (% 72).

### **Langileek euskaraz jasotzen duten formakuntza, langileen hizkuntza gaitasunaren oso azpitik dago**

EAEko herri erakunde guztietako langileei egindako inkestaren arabera, hirutik bik (% 68), erakunde bertatik sustatutako formakuntza ikastaroak, gaztelania hutsean edo nagusiki gaztelaniaz jaso dituzte. Hala ere, udalen tamaina ere gune soziolinguistikoaren araberrako aldeak nabarmenak dira, honetan ere.

### **Erakundeetan bertan baino gehiago egiten da euskaraz beste herri erakundeekin**

Erakunde publiko ezberdinen artean, ahoz, % 54 euskaraz egiten da batez beste; datu hori, erakunde bertan lankideekin egiten dena baino (% 44), hamar puntu altuagoa da.

### Sortze hizkuntza, gaitasunaren azpitik dago

Langileen ia erdiak (% 45) gai dira euskaraz ondo idazteko eta beste % 29, nahiko ondo; guztira beraz, lautik hiru (% 74) ongi edo nahiko ongi idazteko. Sortze hizkuntzan euskarak, aldiz, askoz pisu txikiagoa du: euskaraz laurdena (% 25) eta horri ele bietan ekoizten dena gehituta (% 23), % 48 da euskarazko edo ele bietako produkzioa. Hizkuntza gaitasunak eragiten du gehien: euskaraz ongi idazteko gaitasuna dutenen artean, gehienek euskaraz sortzen dute –euskaraz % 38 eta ele bietan % 28–; aldiz, euskaraz idazteko gaitasun apalagoa dutela diotenetan (nahiko ongi), gaztelania hutsean produzitzen da gehiena (% 57). Gazteek, gaitasuna ere handiagoa dute eta gehiago sortzen dute euskaraz: euskaraz edo ele bietan, 35 urtez beherakoetan % 61 eta 36-45 urte bitartekoetan, % 51.

## 7.5. Hizkuntza kudeaketa eta irizpideak

### Euskara planari erakunde-ordezkariek egindako jarraipena txikiagoa da udaletan

EAEko 10 erakundetik 8tan (% 81), zuzendari edo erakunde-ordezkariek erabilera planaren jarraipenean parte hartzen dutela jaso da, baina udaletan (hiriburuak sartu gabe) gutxiago (% 59) eta mankomunitateetan ere (% 68). Jarraipen lan hori, bileretan parte hartuz egiten da nagusiki (% 81), ez horrenbeste hobekuntzak edota hartu beharreko neurri zuzentzaileak proposatzeko (% 39).

### Euskara ez dakiten langileek, gutxiago hartzen dute parte euskara ekimenetan

VI. plangintzaldian zehar (2017tik 2022ra) erakundeak antolatutako normalizazio ekintzetan –mintza saioak, Euskaraldia, Eusle metodologia, trebakuntza saioak, euskara planen jarraipena...– parte hartu al duten langileei galdetuta, hirutik batek baino gehiagok (% 35) *asko* edo *nahikoa* erantzun dute. Udal txikietan eta eremu linguistiko euskaldunetan gehiago, eta langileen soslaiari erreparatuta, euskara gaitasun altua dutenek eta emakumeek ere gehiago. Aldiz, gutxiago, euskararik ez dakitenek eta ingurune linguistiko erdaldunetan kokatuak dauden erakundeetako langileek.

### Hizkuntza irizpideak ezarrita daude herri erakunde ia guztietan

Hamarretik bederatzik baino gehiagok (% 95) badituzte eta mankomunitateetan dago hutsunerik handiena (% 76). Falta dena da, zer hizkuntza irizpide jarraitu, langileek ezagupen handiagoa izatea – ezagupen egokia langileen % 15ek adierazi dute, nahikoa ezagupen % 51k eta gainerakoek, txikia edo batere ez – eta behin ezagututa gero, bete daitezten neurriak hartzea; hala ere, hizkuntza irizpideez informatuak dauden langile gehienek (% 79) adierazi dutena da, bere lanpostuari dagozkion irizpideak, asko edo nahikoa betetzen direla

### **Asko aurreratu da baina oraindik urrats bat falta da, herri erakundeek modu sistematizatuan hizkuntzaren kudeaketa egokia egiteko**

Erakundearen gestio plan eta kudeaketa orokorrean, euskara plana txertatua dagoen eta euskararen kudeaketa sistematikorik egiten den neurtu nahirik, erakundeak egindako gestio guztietan hizkuntza kontuan hartu behar dela, langileek hori zer neurritan dakiten galdetu da – erakundeetako solaskideen bitartez jaso dira datu horiek, erantzun aukera hauek emanda: batere ez, % 25 baino gutxiago, % 25-50 artean, %50-75 artean eta %75 baino gehiago –. Jasotako erantzun guztiekin kalkulaturako batez besteko adierazlea, EAE mailakoa % 55 da. Asko da lortutakoa, hizkuntzaren kudeaketa egokia egin beharra, gero eta barneratuago dutelako, gero eta langile gehiagok, baina oraindik badago urrats bat egiteko. Indize hori altuago da hiriburuetako udaletan eta Jaurlaritzan; eta baxuagoa, 5 milatik gorako udaletan, aldundietan eta bereziki erakunde publiko independenteetan.

### **Erakunde-ordezkarien hizkuntza gaitasuna, erakundeen derrigortasun indizearen gaitetik dago**

EAEko herri erakundeetan, batez beste, hiru ordezkaritatik bi (% 68) gai dira euskaraz hitz egiteko, eta hitz egin ez baina ulertu bai, hamarretik zortzi (% 78). Herri erakundeen ingurune soziolinguistikoaren arabera, asko aldatzen dira datu horiek; ordea, beti, erakundeei dagokien derrigortasun indizea baino altuagoa da ordezkaritako politikoen euskara gaitasuna, lehen (<% 45), bigarren (%45-70 artean) eta hirugarren (>% 70) eremuetan, euskaraz hitz egiteko gai direnak, % 50, % 73 eta % 97 dira, hurrenez hurren.

## **7.6. Iritziak**

### **Euskararen erabilera zein norabidetan doan, langile gehienek balorazio positiboa egiten dute**

Langileei galdetuta bere erakundearen euskararen erabileraz zer iritzi duen, erdia baino gehiagoren (% 54) balorazioa positiboa izan da eta askoz ere gutxiago izan dira (% 12) balorazio ezkorra egin dutenak; hala ere langileen multzo zabal batek (% 34) ez du ez alde batera ez bestera egin, bilakaera horretan alderdi positiboak eta negatiboak ere ikusten dituelako, edo hori baino gehiago, balorazio bat egiteko informaziorik ez daukalako.

Balorazio positibo hori, erakundeak egindako ahaleginarekin lotzen dute langile gehienek; horrela, euskara sustatzeko erakundeak egindako ahalegina, handia edo nahiko handia dela irizten dute hamarretik ia seik (% 57); bostetik batek (% 19) hala ere, ahalegin hori ez dela nahikoa erantzun du.

### **Beharginen argudioak:**

Maila kualitatiboan, egindako balorazio positiboa edo ez positiborako, hauek izan dira langileek gehien adierazitako aurrerabideak eta hutsuneak:

### **Aurrerabideak:**

- Euskararen ezagutzan, erabileran eta sustapenean emandako urratsak, berezik euskaraz dakien jende berriari esker.
- Erakundeetako euskara teknikariek eta euskara zerbitzuek egindako lana
- Langileen inplikazioa
- Euskara batzordeak sortu izana

### **Hobekuntza beharrak:**

- Arduradun tekniko eta politikoen inplikazio handiago baten beharra
- Euskaraz egiteko aukera ikusgarriago egin
- Itzulpen-politika eta irizpideak berrikusi beharra
- Sortze-hizkuntza euskara izan dadin sustatzea
- Euskara sustatzeko ekintzen eraginkortasuna hobetu beharra
- Euskararen etengabeko formakuntzarako aukera eskaintzea
- Hizkuntza irizpideen jarraipen estuago baten beharra

### **Erakundeetako euskara teknikari eta solaskideen iritzi eta ekarpenak:**

#### **Lorpenak:**

- Lanpostuetan derrigortasun-datak finkatu izana
- Langile berrientzako harrera-protokoloak
- Gaztelaniatik euskararako itzulpenak gutxitzea, dokumentuen estandarizazioa eta itzultzaile automatikoen erabilera
- Zerbitzu-kontratazioetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza klausulak jartzea
- Arduradun politikoen inplikazioak duen eragin positiboa

#### **Hutsuneak:**

- Langileen erdararako joera eta euskara lan-hizkuntza gisa finkatzeko zailtasunak
- Euskarazko jarduna, hizkuntza eskakizunean aitortutako mailaren azpitik egotea
- Euskararen erabilera itzulpenetara mugatua egotea askotan
- Itzultzaile automatikoen erabilera desegokia

- Hizkuntza-klausulen jarraipenik ez egitea, bereziki hornitzaileekiko harremanetan
- Aplikazio informatikoak euskaraz ez egotea erabilgarri
- Arduradun politikoen inplikazio falta

**Erronkak:**

- Euskara lan-hizkuntza gisa sustatzea, euskaraz sortzea, itzultzaileekiko mendekotasuna murriztuz.
- Urtez-urteko kudeaketa planen berri eman eta jarraipena egitea
- Zuzendari, arduradun eta ordezkari politikoen lidergoa indartzea
- Langile berriak, euskalduntze prozesurako bultzada izatea
- Herritarrak ahaldundu eta sentsibilizatzea, zerbitzua euskaraz eska dezaten
- Elebitasun orekatua gainditu eta euskarari lehentasuna ematea, herritarrari, nahi duen hizkuntza hautatzeko aukera emanda
-



## **B. GAINERAKO SEKTORE PUBLIKOA**

A atalean herri administrazio eta erakundeetan egindako ebaluazioa jaso ondoren, B atal honetan, sektore publikokoak diren gainerako erakundeetan ere egindako neurketen emaitzak aztertu dira. “Gainerako sektore publiko” gisa sailkatutakoaren artean, sektore publikoan diharduten izaera ezberdineko ondorengo erakunde guztiak aztertu dira: merkataritza-sozietateak, fundazioak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, partzuergoak eta irabazi asmorik gabeko bestelako erakunde publikoak.

## 1. Metodologia

### 1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta lagina

A atalean aztertutako herri erakundeetan erabilitako metodologia bera erabili da gainerako sektore publikoko erakundeetan ere, VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko. Aldaketa, ikerketa egindako erakundeen unibertsoan dago: V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan 164 erakunde sartu ziren eta VI. Plangintzaldiaren amaierako honetan 218; hainbat irizpide egokitu egin dira eta erakunde publiko gehiagorekin osatu da azken ebaluazio honen unibertsoa. 218 erakunde publiko horien enplegatutako behargin kopurua, 13.200 inguru dela kalkulatu da.

Izaera juridikoaren arabera datuak hauek dira: hiritik bi (% 68) merkataritza-sozietateak dira, % 15 fundazioak, % 7 zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, % 6 irabazi-asmorik gabeko beste erakundeak eta % 4 partzuergoak.

Zein herri erakunderen menpekoak diren, herena (% 34) udal edo mankomunitate baten menpekoa da, eta lautik ia bat (% 24), soilik Eusko Jaurlaritzaren menpekoa. Aldundiei lotuak daude % 16, erakunde mota bat baino gehiagoren menpekoak dira % 13 eta beste administrazioaren baten menpekoak % 12.

Erakunde publiko horiek zein lurraldetan diharduten, % 34 Bizkaian, % 29 Gipuzkoan eta % 12 Araban. Erkidego osoa dagokie, % 100ean Eusko Jaurlaritzaren menpekoak diren 52 erakunderi, eta baita bestelako erakunde menpekoak diren biri ere (administrazio zentralaren menpekoa bat eta EHUren menpekoa bestea).

Tamaina txikiko erakundeak dira asko eta 10 langiletik behera dituzte erakundeen ia erdiek (% 45); 11-30 langile artean 5etik 1ek (% 21), 31-100 langile artean % 15ak, eta 100 langiletik gorako erakunde handiak % 13 dira.

Ebaluazioan ez dira sartu unibertsoan 218 erakundeak, baizik eta laginketa nola egin, aurrez zehaztutako irizpideak erabilia, erakunde horien lagin adierazgarri bat osatu da, 84 erakunderekin, eta horietan egin da ebaluazioa. Aurreko bi edizioetan egin bezala (V. Plangintzaldiaren amaierako eta VI. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioetan), lagina estratifikatu egin da, erakundearen eragin eremua eta langile kopuruaren arabera; bi aldagai horiek gurutzatu dira, elkarrizketatu beharreko erakundeak zenbat, eta horietako bakoitzean inkestatu beharreko langileak zenbat erabakitzeko.

**35. taula. Sektore publiko gainerako erakundeen ezaugarriak: unibertsoa eta lagina**

Izaera	UNIBERTSOA		LAGINA	
	Kop	%	Kop	%
Merkataritza-sozietateak	149	68,3	60	71,4
Fundazioak	32	14,7	13	15,5
Zuzenbide Pribatuko erakunde publikoak	16	7,3	7	8,3
Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk	13	6,0	2	2,4
Partzuergoak	8	3,7	2	2,4
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>
Noren menpekoak diren	Kop	%	Kop	%
Eusko Jaurlaritza	52	23,9	26	31,0
Udala(K) / Mankomunitatea(k)	76	34,9	27	32,2
Foru Aldundia	35	16,1	15	17,9
EJ/FA/ Udalak	28	12,8	10	11,9
Bestelakoak (beste bat, administrazio zentrala, zehaztu gabe...)	27	12,4	6	7,2
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>
Eragin eremua	Kop	%	Kop	%
Euskal Autonomia Erkidegoa	54	24,8	26	31,0
Araba	25	11,5	11	13,1
Bizkaia	75	34,4	25	29,8
Gipuzkoa	64	29,4	22	26,2
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>
Langile kopurua (hurbilpena)	Kop	%	Kop	%
0 langile	15	6,9	-	-
<=10 langile	98	45,0	30	35,7
11-30 langile	45	20,7	19	22,6
31-100 langile	32	14,7	16	19,0
>100 langile	28	12,8	19	22,6
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: HPS, 2023.*

Herri administrazio orokorrean erabilitako informazio iturri berak erabili ditugu: erakundeetako ordezkari edo solaskideena (erakundearen informazio orokorra jasotzeko) eta erakundeetako langileak (erabilera aitortuari buruzko datuak jasotzeko). Hala ere, badago diferentzia bat langileei egindako inkestan. Herri administrazio orokorrean, inkestatu beharreko langileen zerrendak eta kontakturako informazioa eskuratzen dira lehenik, gero Siadecotik langileei zuzenean inkestak egiteko. Sektore publikoko gainerako erakunde publikoetan aldiz, Siadecok ez du zuzenean langileekin harremanik eta erakunde bakoitzaren esku geratzen da langileen erantzunak jasotzea.

Guzti horrek zaildu egiten du eta baita atzeratu ere informazio bilketari lotutako fasea. Hala ere, ahalegin handia egin da, Siadeco-tik eta erakundeetatik ere, langileen erantzunak jasotzeko, 84 erakunderen ebaluazioa egitea lortu da, eta guztira, 1.298 beharginek emandako datuak jaso dira.



**36. taula. Sektore publiko gainerako erakundeetan, VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluaziorako erakundeen unibertsoa eta lagina osatu duten erakunde eta langileen kopuruak**

Izaera	UNIBERTSOA		LAGINA			
	Erakundeak		Erakundeak		Langileak	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Merkataritza-sozietateak	149	68,3	60	71,4	822	63,3
Fundazioak	32	14,7	13	15,5	184	14,2
Zuzenbide Pribatuko erakunde publikoak	16	7,3	7	8,3	199	15,3
Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk	13	6,0	2	2,4	34	2,6
Partzuergoak	8	3,7	2	2,4	50	3,9
Zehaztu gabe	-	-	-	-	9	0,7
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>	<b>1298</b>	<b>100,0</b>
Noren menpekoak diren	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Eusko Jaurlaritza	52	23,9	26	31,0	545	42,0
Udala(K) / Mankomunitatea(k)	76	34,9	27	32,2	338	26,0
Foru Aldundia	35	16,1	15	17,9	188	14,5
EJ/FA/ Udalak	28	12,8	10	11,9	168	12,9
Bestelakoak (beste bat, administrazio zentrala, zehaztu gabe...)	27	12,4	6	7,2	59	4,5
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>	<b>1298</b>	<b>100,0</b>
Eragin eremua	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Euskal Autonomia Erkidegoa	54	24,8	26	31,0	545	42,0
Araba	25	11,5	11	13,1	70	5,4
Bizkaia	75	34,4	25	29,8	362	27,9
Gipuzkoa	64	29,4	22	26,2	312	24,0
Zehaztu gabe	-	-	-	-	9	0,7
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>	<b>1298</b>	<b>100,0</b>
Langile kopurua (hurbilpena)	Kop	%	Kop	%	Kop	%
0 langile	15	6,9	-	-	-	-
<=10 langile	98	45,0	30	35,7	118	9,1
11-30 langile	45	20,7	19	22,6	202	15,6
31-100 langile	32	14,7	16	19,0	476	36,7
>100 langile	28	12,8	19	22,6	493	38,0
Zehaztu gabe	-	-	-	-	9	0,7
<b>Guztira</b>	<b>218</b>	<b>100,0</b>	<b>84</b>	<b>100,0</b>	<b>1298</b>	<b>100,0</b>

Iturria: HPS eta Siadeco, 2023.

## 1.2. Fitxa teknikoa

Azaldu berri dena kontuan hartuz, jarraian egindako landa-lanaren fitxa teknikoa:

### a) Unibertsoa:

- Sektore publikoko gainerako erakundeak: 218, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak pasatako informazioaren arabera.
- Erakunde horietako langileak: hurbilpen modura, 13.200 behargin inguru.

### b) Teknika:

- Galde-sorta egituratua erabili da, bai erakundeetako ordezkarietara erakundearen beraren informazioa eskatzeko, baita langileak inkestatzeko ere.
- On-line betetzeko inkesta bidali zaie posta elektronikoko bidez, erakundeetako ordezkarietara eta langileetara ere. On-line betetzeko zailtasunak izan direnean, telefono bidez erantzun dira edo paperean inprimatuta.

### c) Galde-sorta:

- HPSk Siadecoren laguntzarekin diseinatu eta V. plangintzaldiko amaierako ebaluazioan erabilitako metodologiarekin bateragarriak diren eta Bikain ziurtagiriaren ebaluazioko Erreferentzia Marko Estandarreko adierazleetan oinarritzen diren bi galde-sorta egituratuak erabili dira; baina galde-sorta horietara bizpahiru moldaketa egin zaizkie erakunde hauen errealitateara hobeto egokitze<sup>9</sup>.
- Bi galdetegiak, euskaraz zein gaztelaniaz erantzuteko aukera eskaini da.

### d) Laginketa mota:

- Lagina diseinatzeko, erakundeen eragin esparrua kokatuta dagoen lurraldea (lurralde historikoa edo erkidego osoa) eta estimatutako langile kopurua hartu dira kontuan (10 langile edo gutxiago, 11-30 langile, 31-100 langile eta 100 langile baino gehiago).
- Bi aldagai horiek gurutzatu eta geruza bakoitzean inkestatu beharreko erakundeen kopurua finkatu da, adierazgarritasun orokorra bermatze aldera. Honela zehaztu dira erakundeen lagin "titularra" eta "ordezkoa".
- Geruza bakoitzean egin beharreko inkesta kopurua zehaztuta, eta erakunde bakoitzak dituen langile kopuruaren arabera (kasu askotan, estimatutako langile kopurua) finkatu da erakunde bakoitzean inkestatu beharreko langile kopurua: 30 langile edo gutxiago dituzten erakundeetan, langile guztiak inkestatzeko ahalegina egin da; 30 langile edo gehiago dituzten erakundeetan, 30 langile.

---

<sup>9</sup> Erabilitako galdetegiak eranskinetan jasota daude.

- Laginketa egiteko, eragin eremua eta erakundeen tamainaren arabera geruzak erabili dira eta geruza bakoitzean zenbat inkesta egin, modu interesatu eta ez proportzionalean kalkulatu denez, ondoren, datuak haztatu egin dira, geruza bakoitzari, unibertsoan duen pareko pisua emateko.

**e) Laginaren tamaina eta errore-marjina estatistikoa**

- Guztira, 73 erakundetako solaskide eta 75 erakundetako 1.298 langile inkestatu dira. Denera, 84 erakundek hartu dute parte modu batera ala bestera.
- Errore-marjina estatistiko orokorra langileen inkestarako  $\pm$  % 2,58 da, % 95eko konfiantza tarterako ( $p=q=0,5$  izanik ausazko laginketa sinplerako). Erakundeen kasuan, errore-marjina orokorra  $\pm$  % 9,38 da.

**37. taula. Erakunde eta langile kopuruaren arabera errore-marjina estatistikoa (%)**

	Erakunde azterketa	Langileen azterketa
Arabako kokatutako erakundeak	$\pm 29,16$	$\pm 11,23$
Bizkaian kokatutako erakundeak	$\pm 17,68$	$\pm 4,90$
Gipuzkoan kokatutako erakundeak	$\pm 17,67$	$\pm 5,28$
Eragin eremua EAE osoa duten erakundeak	$\pm 16,23$	$\pm 3,94$
Guztira, datu orokorrak	$\pm 9,38$	$\pm 2,58$

*Iturria: Siadeco, 2023*

**f) Landa-lana egin den garaia**

- Landa-lana 2023ko otsailean hasi eta apirilean amaitu da.

**g) Inkestatutako langileen generoa eta adin-tartea**

- 1.298 langilek osatutako lagina, honela banatzen da generoa eta adin-tartearen arabera:
  - Inkestatutako 10 langiletik 6 emakumezkoak dira eta 4 gizonezkoak. Ez bitarrak % 1 dira.
  - Multzorik handiena (% 37) 46-55 urtekoek osatzen dute; % 28k 36-45 urte bitartean dituzte, % 18k 55 urte baino gehiago eta gainerako % 13ak, 35 urte baino gazteagoak dira. Inkestatutako langileek, batez beste, 47 urte dituzte.

**38. taula.** Inkestatutako langileak generoaren eta adin-tartearen arabera (haztatu gabeko datuak)

Adin tarte	Generoa								Guztira	
	Emakumezkoa		Gizonezkoa		Ez bitarra		Zehaztu gabe			
	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% hor	Kop	% bert
<=35 urte	95	57,9	67	40,9	2	1,2	0	0	164	12,6
36-45 urte	243	65,9	118	32	6	1,6	2	0,5	369	28,4
46-55 urte	301	63,5	170	35,9	2	0,4	1	0,2	474	36,5
>55 urte	136	58,1	96	41	1	0,4	1	0,4	234	18,0
Zehaztu gabe	29	50,9	20	35,1	2	3,5	6	10,5	57	4,4
Guztira	804	61,9	471	36,3	13	1,0	10	0,8	1.298	100,0
BB adina	46,5		46,9		42,2		48,5		46,6	

Iturria: Siadeco, 2023.

### 1.3. Ebaluazioan parte hartu duten gainerako sektore publikoko erakundeak

Laginketarako erabilitako irizpideei jarraiki, ausaz hautatuak izan diren eta ebaluazioan parte hartu duten erakundeen zerrenda ageri da jarraian. Aurreratu bezala, guztira, era batera ala bestera, 84 erakundeak parte hartu dute: 73k bete dute solaskidearen galdetegia, eta 75 erakundetan, langileen erantzunak jaso dira.

**39. taula. VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan parte hartu duten sektore publikoko gainerako erakundeak**

	Erantzun duten galdetegia	
	Solaskidearena	Langileena
Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa	Bai	Bai
Alokabide, S.A.	Bai	Bai
Amurrio Bidean, S.A.	Bai	Bai
AMVISA-Aguas Municipales de Vitoria S.A.	Bai	Bai
Araba Garapen Agentzia	Bai	Bai
Arabako Artium Fundazioa	Ez	Bai
Arabako Industrialdea, S.A.	Ez	Bai
Arabako Teknologí Elkartegia, S.A.	Bai	Ez
Arabat Arabako Bideak	Bai	Bai
Aramaioko Argindarraren Banatzailea, S.A.	Bai	Bai
Areatza 1338, S.L.	Bai	Bai
Arratiako Industrialdea S.A.	Bai	Bai
Artxandako funikularra - Funicular de Artxanda, S.A.	Bai	Bai
Azkue Fundazioa	Bai	Bai
Azpiegiturak, SAMP	Bai	Bai
Basque Team Fundazioa	Bai	Bai
Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, S.A.	Bai	Bai
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (BIOEF)	Bai	Bai
Bidasoa Bizirik	Bai	Bai
Bilbao Ekintza EPEL	Bai	Bai
Bilbao Exhibition Centre, S.A. (BEC)	Bai	Bai
BILBAO Ría 2000, S.A.	Bai	Bai
Bilbao Zerbitzuak	Bai	Ez
Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa	Ez	Bai
Biodonostia Osasun Ikerketako Institutua	Bai	Bai
Bizkaiko Basalan, AB	Bai	Bai
Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.	Ez	Bai
Busturialdeko Industrialdea, S.A.	Bai	Ez
Centro De Actividades Culturales Teatro Arriaga Antzokia, S.A.	Bai	Bai
Cristobal Balenciaga Fundazioa	Bai	Bai
CTSS / Dbus	Bai	Bai
Deba Bailarako Industrialdea, S.A.	Ez	Bai
Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.	Bai	Bai
Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa	Bai	Bai
Donostia Zinemaldia, S.A.	Bai	Bai
Donostiako Musika Hamabostaldia, S.A.	Bai	Bai
Egaz Txorierrri	Bai	Ez
Energiaren Euskal Erakundea (EEE/EVE)	Bai	Bai
Enpresa Garapena Ahalbidetzeko Elkartea, Dema Enpresa-Garapena	Bai	Bai
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA	Bai	Bai


	Erantzun duten galdetegia	
	Solaskidearena	Langileena
Euskadiko Orkestra, A.B.	Ez	Bai
Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, IKEKS, S.A.	Bai	Bai
Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua (Musikene)	Ez	Bai
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca (EITB)	Bai	Bai
Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE)	Bai	Ez
Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A. (Euskotren)	Bai	Bai
Ficoba Fundazioa	Bai	Bai
Fundacion Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana Fundazioa	Bai	Bai
Garbiker, S.A.	Ez	Bai
Gasteizko Industria Lurra, S.A. (GILSA)	Bai	Bai
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzza (Mugí)	Bai	Bai
Goierri Beheko Industrialdea, S.A. (GOBEISA)	Bai	Bai
Haurreskolak	Bai	Bai
HAZI Fundazioa	Bai	Ez
Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea S.A.	Bai	Bai
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE S.A.	Bai	Bai
Iraurgi Lantzen, S.A.-Iraurgi Berritzen	Bai	Bai
Irungo Aduana Guneako Elkarrekin Sustatzailea, S.A. (ZAISA)	Bai	Bai
Itelazpi, S.A.	Bai	Bai
IZFE, S.A.	Bai	Bai
Kirolgi Fundazioa	Bai	Ez
Kulturnieta, s.a.	Bai	Bai
Kursaal elkargunea, s.a.	Bai	Bai
Lantik, S.A.	Bai	Bai
Mercados Centrales Abastecimiento De Bilbao, S.A. (Mercabilbao, S.A.)	Bai	Bai
Metro Bilbao, S.A.	Bai	Ez
Naturgolf - Izki Golf	Bai	Bai
NEIKER-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, S.A.	Bai	Bai
Oarso Aldea SA (Oarsoaldea Garapen Agentzia)	Bai	Bai
Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea (ETS)	Bai	Bai
San Sebastián Turismo – Donostia Turismoa S.A.	Ez	Bai
Sestao Berri 2010, S.A.	Bai	Bai
SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	Bai	Bai
Sueskola Fundazioa	Bai	Bai
Surbisa	Bai	Bai
Surposa	Bai	Bai
Tabakalera - Centro Internacional De Cultura Contemporanea S.A	Bai	Bai
Taller Usoa Lantegia, S.A.U.	Bai	Bai
Talleres Gallarreta Lantegiak, S.L.	Bai	Ez
Tuvisa- Transportes Urbanos De Vitoria, S.A.	Bai	Bai
UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia. S.A.U)	Bai	Bai
Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Bai	Bai
Urduñederra, S.L.	Ez	Bai
Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa IZENPE, S.A.	Ez	Bai
Guztira	73	75

Iturria: Siadeco, 2023

## 2. Hizkuntza gaitasuna

Langileei galdetu zaie nola moldatzen diren euskaraz ulertzeko, irakurtzeko, hitz egiteko eta idazteko. Datu aitortua jaso da, beraz: langileen autopertzepzioa. Maila handiena ulermenean eta irakurmenean dago: hamarretik zortzik diote maila ona edo nahiko ona dutela. Hizketan eta idazten, langileen ia hiru laurdenek (% 73) adierazi dute hori.

**31. grafikoa.** Gainerako sektore publikoko langileen hizkuntza gaitasun aitortua, trebetasunen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2023.

Datuen gurutzaketak egiterakoan, % 100ean Eusko Jaurlaritzaren menpekoak direnak eta beste erakunderen baten menpekoak direnak bereiztu dira (izan udal, mankomunitate, foru aldundi baten menpekoa, edo partaidetua); bigarren multzokoetan, zein lurraldetan diharduten bereizi da. Soilik Jaurlaritzaren mende daudenak, erkidego mailakoak, bestea, lurralderen batekoak.


Eragin eremuaz aparte, langileen soslaia ere erabili da datuak gurutzatzeko: adina, generoa eta euskara maila.

Gainerako sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, lautik hiru (% 73) euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai izanda, alderik handienak, lurraldea eta langileen adinaren arabera dira. Gipuzkoakoak diren erakundeetan, hamarretik bederatzik (% 91) dira euskaraz egiteko gai (ongi edo nahiko ongi), eta idatzi ere, % 86, gai dira, ongi edo nahiko ongi idazteko. Soilik Jaurlaritzaren menpekoak diren erakundeetan ere, batez bestekoa baino hobeak dira datuak –% 78 inguru, hitz egiteko zein idazteko gai–.

Adina ere giltzarria da: 45 urtez beherakoetan, euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egin edota idazten dute hamarretik zortzik; 46-55 urte bitartekoen artean hamarretik zazpik eta 55 urtez gorakoetan aldiz, erdiek.

Bestalde, administrazio orokorrean bezala, erakunde hauetan ere, emakumeen euskara maila gizonena baino hobea da, mintzatzeko eta bereziki idazteko.

**32. grafikoa. Langileen hitz egiteko eta idazteko gaitasuna (ongi edo nahikoa ongi) (%)**




*Iturria: Siadeco, 2023.*



Nagusiki harrera guneetan lan egiten duten langileen gaitasuna, euskaraz mintzatzeko, 15 puntu altuagoa da, harrera guneetan lan egiten ez duten langileena baino; hamarretik ia bederatzik (% 86) gai dira euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko.

**33. grafikoa. Harrera gunean lan egiten duten langileen (Bai) eta ez dutenen (Ez) euskara gaitasuna (%)**



Iturria: Siadeco, 2023.

Zer euskara maila duten egiaztatuta ere galdetu zaie: ia erdiek (% 49), C maila edo baliokidea dute (EGA edo Euskaltzaindiaren D edo B tituluak), % 22k B maila (B1 edo B2) eta % 4k A1 edo A2. Gainerakoek, bostetik batek (% 18) ez dute inolako euskara titulurik.

C1 maila egiaztatutako langileak askoz ere gehiago dira Gipuzkoan kokatutako erakundeetan (% 64) eta zerbait gehiago Jaurlaritzaren menpekoetan (% 52); adina eta generoan ere badaude aldeak: C1 mailarekin gehiago 45 urtez azpikoetan eta emakumezkoetan ere.

**40. taula.** Gainerako sektore publikoko langileek egiaztatutako euskara mailarik altuena Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuari jarraiki (%)

			A1	A2	B1	B2	C1 - EGA - Euskal- tzaindia D	C2 - Euskal- tzaindia B	Batere ez	Ez dakit	Guztira
<b>GUZTIRA</b>			1,6	2,5	4,9	17,5	45,3	4,0	17,7	6,4	100,0
Langilearen generoa, adin-tartea eta euskara gaitasuna	Generoa	Emakumezkoa	1,6	1,6	4,1	18,3	52,2	4,1	13,2	4,9	100,0
		Gizonezkoa	1,6	3,6	6,2	16,5	35,0	4,0	24,4	8,6	100,0
	Adin-tartea	<=35 urte	0,3	2,2	1,6	14,9	58,5	4,1	16,1	2,3	100,0
		36-45 urte	0,9	1,4	5,0	19,3	53,4	3,9	10,3	5,8	100,0
		46-55 urte	1,5	2,6	6,4	18,5	45,2	4,1	15,2	6,5	100,0
		>55 urte	4,2	4,7	1,9	13,3	25,2	4,3	36,4	10,1	100,0
	Euskara gaitasuna idazteko	Ongi	0,2	0,0	2,0	10,7	72,3	7,9	2,0	4,8	100,0
		Nahiko ongi	2,3	2,6	6,7	36,1	34,4	0,3	14,2	3,4	100,0
		Zertxobait	2,4	10,6	15,5	26,0	8,0	0,0	27,6	10,0	100,0
		Hitz batzuk	5,5	2,5	1,7	0,0	0,0	0,0	73,7	16,6	100,0
Ezer ez		5,0	3,4	0,0	0,0	0,0	0,0	82,4	9,2	100,0	
Zein erakunderen menpekoa den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)		1,8	2,4	3,3	15,5	52,0	4,8	13,2	7,0	100,0
	Gainerakoak		1,5	2,5	6,0	18,8	40,9	3,5	20,7	6,1	100,0
Lurralde eremuko eragin esparrua	Araba		0,3	0,0	10,2	29,9	31,0	4,9	22,8	0,8	100,0
	Bizkaia		2,1	3,9	7,5	19,4	23,2	0,8	32,4	10,7	100,0
	Gipuzkoa		1,2	1,4	2,6	15,9	64,1	5,8	6,8	2,3	100,0

Iturria: Siadeco,2023.

### 3. Euskara zerbitzu-hizkuntza

Txostenaren A zatian herri erakundeekin egin bezala, gainerako sektore publikoaren ebaluazioa egiteko ere, zerbitzu-hizkuntzaren ikuspegiari heldu zaio lehenik, hau da, erakundeek zer neurritan egiten duten zerbitzu-eskaintza euskaraz. Bi arlo bereizi dira: erakundeen irudia eta herritarrekiko harremanak.

Erakundeko ordezkari edo solaskideei, erakundearen iruditeriko elementuen hizkuntza erabilera nolakoa den galdetu zaie: erakunde irudiaren idatzizko euskarriak, jendaurreko ekitaldietan erakundearen ordezkari politiko edota teknikoek erabilitako hizkuntza, eta zein herritarrari eskainitako bestelako jardueratan - erakusketak, kanpainak, ikastaroak, bestelako egitasmoak...- erakundeak erabilitako hizkuntza. Eta langileei galdetu zaie berriz, idatziz eta ahoz, zein hizkuntzatan zuzentzen diren herritarrengana.

#### 3.1. Irudia

Irudiaren atalaren barnean, erakundeen elementu hauek aztertu dira:

- Eraikinetako errotulazio orokorra: eraikinetako seinaleak eta bestelako errotuluak
- Irudi korporatiboko elementuak: gutun azal, txartel eta horrelakoetako irudi korporatiboak
- Papereko argitalpenak: erakundeak berak egiten dituen papereko argitalpenak
- Hedabideetan zabaldutako iragarkiak eta publizitatea: erakundearen iragarkiak zein hizkuntzatan ageri diren hedabideetan
- Hedabideen bitartez zabaldutako berriak
- Erakundearen webguneak eta zerbitzu telematikoak
- Erakundearen sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak
- Erakundearen ordezkarien (politiko zein tekniko) jendaurreko ekitaldiak: ekitaldi publikoetan ahoz erabilitako hizkuntza


Halako elementu gehienak badituzte gainerako sektore publikoko erakunde gehienek, erakundeen % 80k baino gehiagok. Hedabideen bitartez berriak zabaltzea, gutxiagok egiten dute (% 76) eta gutxiago dira ere sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak dituztenak (% 79)

Erakundeen iruditeriko elementu gehienetan –errotulazioa, irudi korporatiboa, argitalpenak eta webguneak zein hizkuntzatan dauden aztertu da – euskararen erabilera orokortua dago, % 90 inguru ziurtatua baitago, gehien bat, ele bietan dauden euskarri eta elementuak erabilia.

Sare sozialetan eta komunikaziorako aplikazio digitaletan (% 85) baxuagoa da datua, eta batez ere, hedabideen bidez zabaldutako berrietan (% 69).

Jendaurreko ekitaldiren bat egiten duten erakundeak % 72 dira —aztertutako aldagai guztietatik hori da ahozko jardunarekin lotutako bakarra—. Erakundeetako ordezkari tekniko zein politikoeak ahoz ematen duten informazio guztia kontuan hartuta, euskaraz emandakoa erdia baino zertxobait gehiago da (% 53,8). Beraz, jendaurreko ekitaldietan, ahoz azaldutako informazioaren ia erdia gaztelania hutsean eman ohi da – hizkuntza batean eta bestean ahoz azaldutako informazio kopuruaz galdetu da, ez hizkuntza batean edo bestean hitz egindako denboraz. Adibidez, ekitaldi batean informazio guztia euskaraz eta erdaraz eman bada, informazio bera errepikatuz, euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa %100 litzateke eta erdaraz emandakoa ere %100. Horrela jaso da, Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jaso izan denarekin alderagarria izateko—.

**34. grafikoa.** Euskararen erabilera (ele bietan eta euskara hutsean) iruditerian eta jendaurreko ekitaldietan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.

Eraikinetako errotulazio orokorra da salbuespena; gainerako elementu guztietan, Jaurlaritzaren menpeko erakundeen datuak hobek dira eta euskaraz dauden elementuen presentzia gainerako erakundeetako baino altuagoa da. Lurralde mailakoak diren Gipuzkoako erakundeetan, euskararen presentzia ia erabat bermatua dago iruditeriko elementuetan, zertxobait gutxiago Araban eta Bizkaian.

Ele bietako eredia erabat nagusi da, batez ere errotulazioan, paper edizioko argitalpenetan eta webguneetan; euskara hutsean gehiago daude irudi korporatiboko elementuak eta sare sozial eta komunikaziorako aplikazio digitalak.


**41. taula.** Euskararen erabilera erakundearen iruditerian (batez besteko %)

	1.1. Eraikinetako errotulazio orokorraren hizkuntza egoera			1.2. Erakundearen irudi korporatiboko elementuen hizkuntza egoera			1.3. Erakundea beraren paper edizioko argitalpenen hizkuntza egoera			1.4. Hedabideen bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatearen hizkuntza egoera			1.5. Hedabideen bitartez zabaldutako berriak			1.7. Webguneak eta tramitazio telematikoak			1.8. Sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak			
	Euskara hutsean (%)	Ele bietan (%)	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	Euskara hutsean (%)	Ele bietan (%)	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	Euskara hutsean (%)	Ele bietan (%)	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	Euskara hutsean (%)	Ele bietan (%)	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	Euskara hutsean (%)	Ele bietan (%)	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	Euskara hutsean (%)	Ele bietan (%)	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	Euskara hutsean (%)	Ele bietan (%)	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	
<b>GUZTIRA</b>	4,9	90,1	<b>95,0</b>	18,1	71,7	<b>89,8</b>	6,9	86,0	<b>92,9</b>	10,1	78,0	<b>88,1</b>	11,4	57,3	<b>68,7</b>	4,2	88,8	<b>93,0</b>	16,3	69,0	<b>85,3</b>	
Zein erakunderen menpekoak den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)	4,7	86,7	<b>91,5</b>	21,2	74,1	<b>95,3</b>	0,0	97,9	<b>97,9</b>	3,9	93,5	<b>97,5</b>	5,1	76,7	<b>81,8</b>	0,0	94,3	<b>94,3</b>	6,2	84,8	<b>90,9</b>
	Gainerakoak	5,0	91,2	<b>96,2</b>	17,0	70,9	<b>87,9</b>	8,9	82,6	<b>91,5</b>	11,8	73,8	<b>85,6</b>	12,7	53,3	<b>66,0</b>	5,6	87,0	<b>92,6</b>	19,9	63,5	<b>83,4</b>
Lurralde eremuko en eragin esparrua	Araba	2,6	90,6	<b>93,1</b>	2,6	76,4	<b>79,0</b>	12,1	69,6	<b>81,7</b>	0,0	86,2	<b>86,2</b>	0,0	63,1	<b>63,1</b>	2,6	62,7	<b>65,3</b>	6,9	49,8	<b>56,7</b>
	Bizkaia	2,0	92,3	<b>94,3</b>	27,5	57,2	<b>84,7</b>	9,4	82,4	<b>91,8</b>	15,5	69,4	<b>85,0</b>	13,6	54,8	<b>68,4</b>	9,4	87,3	<b>96,7</b>	30,9	58,9	<b>89,8</b>
	Gipuzkoa	9,3	90,1	<b>99,4</b>	10,4	84,1	<b>94,5</b>	7,5	86,6	<b>94,0</b>	10,3	76,0	<b>86,3</b>	16,1	47,8	<b>63,9</b>	2,0	95,4	<b>97,4</b>	11,8	72,6	<b>84,3</b>

Iturria: Siadeco, 2023.

Eta lehen esan bezala, jendaurreko ekitaldietan, erakundeko ordezkari politikoez zein teknikariek, herritarrekin egiten dituzten ekitaldi, agerraldi, prentsaurreko eta jardunaldietan, ahoz emandako informazioaren erdia pasatxo da euskaraz emandakoa (% 54). Euskaraz gehiago egiten Gipuzkoan jarduten diren erakundeetan (% 66) eta Eusko Jaurlaritzaren menpekoetan (% 59).

**35. grafikoa.** Jendaurreko ekitaldietan erakundearen ordezkariak euskaraz ahoz azaldutakoaren ehunekoa (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.


### 3.2. Herritarrari zuzendutako jarduerak eta ikastaroak

Gainerako sektore publikoa osatzen duten erakundeetan ere, herritarrari zuzendutako jardueretan (erakusketak, kanpainak, ikastaroak, bestelako egitasmoak...), jarduera edo ekitaldi hori euskaraz jarraitu ahal izateko aukera zenbaterainokoa den neurtu da – ez da neurtu ekitaldia edo jarduera zein hizkuntzatan gauzatu den eta zein izan den herritarrek erabilitako hizkuntza–. Bereizi dira alde batetik herritarrei zuzendutako erakusketak, kanpaina eta bestelako egitasmoak, eta bestetik herritarrei zuzendutako ikastaroak.

Hamar erakundetatik seik (%59) antolatzen dituzte jarduera horiek eta euskararen batez besteko eskaintza, % 68koa da; jarduera horietan eskaintzako informazioa % 100 izanik, euskaraz, batez beste, bi heren eskaini da, eta heren bat, gaztelania hutsean. Gipuzkoan diharduten erakundeetan da euskarazko eskaintza altuagoa (% 83).

Herritarrentzat ikastaroak antolatu, erakunde gutxiagok egiten dute, hirutik batek bakarrik (% 31). Eta antolatzen diren ikastaro horietan, erdiak inguru eskaintzen dira euskaraz, Bizkaia eta Gipuzkoako erakundeetan zertxobait gehiago, % 60 inguru.

**36. grafikoa.** Euskararen eskaintza erakundeak herritarrari zuzendutako jardueretan eta herritarrari zuzendutako ikastaroetan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.

### 3.3. Herritarrekiko harremanak

Aztertu da herritarrekiko erlazioan zein den hizkuntzen erabilera: bai erakundeek herritarrekin, bai herritarrek erakundeekin.

#### 3.3.1. Idatzizko harremanak


Langileei galdetu zaie zein hizkuntzatan iristen zaizkien herritarrei beraien ardurapean dauden dokumentuak, lehen komunikazioak direnean; eta bigarrenik galdetu zaie, zein hizkuntzatan erantzuten diren, herritarrek erakunde euskaraz aurkeztutakoei erantzuteko idatziak direnean –langile bakoitzari, bere ardurapekoak diren idatzien hizkuntza erabileraz informazioa ematea eskatu zaio–. Galdetzeko modua hau izan da: batez beste, zein ehunekotan euskaraz, zein ehunekotan ele bietan eta zein ehunekotan gaztelaniaz. Informazio hori, hiru langiletatik batek eman du (% 37), hau da, bere lanean herritarrei zuzendutako dokumentu edo idazkiak egin behar izaten dituztenek erantzun dute. Hauek dira emaitzak:

- Batez beste, herritarri bidalitako dokumentuen % 69, hots, hirutik bi pasatxo, ele bietan bidaltzen dira, eta % 13 euskara hutsean. Beraz, hamarretik 8 baino gehiagotan (% 82) bermatzen da euskararen erabilera.
- Herritarrek euskaraz aurkeztutako idatziei erantzuterakoan, batez beste, % 89 da euskarazko erantzun maila, % 64 euskaraz eta % 25 ele bietan.

Langilearen euskara maila altua denean, bermatuago dago euskararen erabilera bai herritarrei bidaliko komunikazio orokorretan, bai euskaraz jasotakoei erantzuterakoan ere; horrela, ehuneko horiek altuagoak dira euskaraz ongi idazten dutenen artean, eta adinez, 36-45 urte bitartekoan artean –kontuan hartu behar da idazteko gaitasuna, zertxobait altuagoa dela 36-45 adin tartean, 36tik beherakoetan baino–.



37. grafikoa. Euskararen erabilera (euskara hutsean eta ele bietan) herritarrei bidalitako idazki ofizialetan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.

### 3.3.2. Ahozko harremanak


Ahozko erabilera jakiteko, herritarrei harrera egiterakoan langileek zein hizkuntza erabiltzen duten jaso da, telefonoz zein aurrez aurre — hasierako agurra nola egiten den, herritarrak zein hizkuntza erabili nahi duen esplizitatu aurretik—. Otik 10era arteko eskala bat erabilita eskatu da datua, non 0 den beti gaztelaniaz eta 10 beti euskaraz. Gero, eta lortutako datuen irakurketa erraztu nahirik, eskala bidez jasotako datu horiek, balio bakoitzaren ehunekoa eta dagokion hizkuntza erabileraren balioekin biderkatuta, euskararen erabilera mailaren batez besteko ehunekoa kalkulatu da; horrela, hurrengo tauletara eramandako datuak, modu horretara kalkulatu dira.

#### a) Harrera guneak

Gainerako sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, langileen % 12k egiten dute lan harrera gune batean, % 7k Jaurlaritzaren menpekoetan eta % 15ak gainerakoetan. Eta langile horiek emandako datuak honakoak dira:

- Batez beste, % 74 da euskararen erabilera, herritarrari hasierako agurra egiteko eta ez dago alderik aurrez aurre edo telefonoz izan. Alde handia dago hala ere, Gipuzkoa (% 91 inguru) eta beste bi lurraldeen artean (% 50aren azpitik). Ez ohikoa den datua da, gizonezkoek euskaraz gehiago egitea emakumezkoek baino.
- Aldiz, batez beste % 40ean erantzuten dute herritarrek euskaraz (% 44 aurrez aurre eta % 40 telefonoz) eta euskarazko eskaera maila, asko aldatzen da lurralde batetik bestera; aurrez aurre, % 55 Gipuzkoan, askoz ere baxuagoa Bizkaian (% 17) eta oraindik eta baxuagoa Araban (% 12).

**38. grafikoa.** Harrera guneetako langileen euskararen ahozko erabilera herritarrekiko harreran, aurrez aurre eta telefonoz, eta euskararen erabilera herritarren erantzunean (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023.

**b) Harrera guneak ez diren lanpostuak**

Harrera gune batean aritu ez arren, herritarrekin harremana duten beste lanpostuetako langileak % 28 inguru dira (% 28 aurrez aurre eta % 31 telefonoz). Langile horiei ere galdetu zaie herritarrekin zer hizkuntzatan egiten duten eta emaitzak honakoak dira:

- Herritarrari hasierako agurra euskaraz zenbat, % 65 aurrez aurre eta % 67 telefonoz. Harrera guneetan baino 9 puntu baxuagoa (aurrez aurre). Lurraldea eta langilearen soslaiaren arabeko joerak errepikatu egiten dira hemen ere.
- Eta herritarrek zein hizkuntzatan erantzuten duten, % 43 inguru euskaraz. Honetan ez dago halako alderik, harrera guneen eta gainerako lanpostuen artean.

**39. grafikoa. Harrera guneetakoak EZ diren langileen euskararen ahozko erabilera herritarrekiko harreran, aurrez aurre eta telefonoz, eta euskararen erabilera herritarren erantzunean (batez besteko %)**




Iturria: Siadeco, 2023.

**c) Euskarazko eskariari emandako erantzuna eta euskaraz artatzeko gai ez direnen jokabidea**

Euskara denean herritarrak erakundearekin ahoz komunikatzeko aukeratutako hizkuntza, langileek, batez beste, euskaraz ematen dute zerbitzua hamarretik zazpitan (% 73). Langileen % 74 dira une batean ala bestean herritarrekin ahozko harremanak dituztenak.

Araba eta Bizkaian, Gipuzkoan baino gutxiago bermatzen da euskarazko zerbitzua, nahiz eta zerbitzua euskaraz eskatzen duten herritarrak askoz ere gutxiago izan.

**40. grafikoa.** Langileen euskararen erabilera euskaraz ahoz zuzentzen zaion herritarrari (batez besteko %).



Iturria: Siadeco, 2023

Herritarra euskaraz zuzentzen zaienean, zein jokabide hartzen duten ere galdetu zai langileei, euskaraz erantzuteko gai direnei, eta ez direnei . Hirutik bi (% 67) gai dira herritarra euskaraz artatzeko. Gai ez diren gainerako % 33a honela banatzen da: % 12k euskaraz hitz egiten jarraitzeko eskatzen diote herritarrari, nahiz eta beraiek gaztelaniaz erantzun; % 11k gaztelaniaz hitz egiteko eskatzen diote herritarrari eta % 5ek, euskara badakien beste lankide bati pasatzen diote; langileen gainerako % 4ak, “besterik” erantzun du.

**42. taula.** Herritarra euskaraz artatzeko gai ez diren langileen jokabidea (%)

			Euskaraz artatzeko gai ez diren jokabidea						Besterik (%)	Guztira (%)
			Eskatzen diot gaztelaniaz hitz egiteko (%)	Euskaraz hitz egiteko eskatzen diot, nahiz eta nik gaztelaniaz erantzun (%)	Erakundearen protokolo bat dago eta beste lankide batek artatzen du (%)	Erakundearen ez dago protokolorik, baina beste lankide bati eskatzen diot artatzeko (%)	Ez dagokio. Gai naiz herritarra euskaraz artatzeko (%)			
GUZTIRA			11,4	12,3	3,4	1,6	67,2	4,0	100,0	
Langilearen generoa, adin-tartea eta euskara gaitasuna	Generoa	Emakumezkoa	10,0	11,1	3,4	1,8	68,9	4,7	100,0	
		Gizonezkoa	13,2	14,6	3,4	0,9	65,1	2,8	100,0	
	Adin-tartea	<=35 urte	11,5	4,9	1,5	0,9	77,4	3,8	100,0	
		36-45 urte	7,3	11,5	1,7	0,6	75,7	3,2	100,0	
		46-55 urte	8,5	14,3	2,6	1,8	70,3	2,5	100,0	
		>55 urte	21,2	15,3	6,9	3,3	44,1	9,2	100,0	
	Euskara gaitasuna hitz egiteko	Ongi	0,7	1,1	1,5	0,5	95,5	0,7	100,0	
		Nahiko ongi	2,0	13,6	1,1	1,2	76,9	5,2	100,0	
		Zertxobait	20,9	50,1	8,3	2,6	5,8	12,3	100,0	
		Hitz batzuk	64,6	14,4	9,9	4,1	0,0	7,0	100,0	
Ezer ez		73,4	3,7	9,3	9,8	0,0	3,8	100,0		
Zein erakunderen menpekoa den		Eusko Jaurlaritza (%100ean)	7,3	10,9	3,1	1,0	73,4	4,2	100,0	
		Gainerakoak	14,0	13,2	3,6	2,0	63,3	3,9	100,0	
Lurralde eremukoaren eragin esparrua		Araba	22,7	17,9	6,2	0,7	46,4	6,1	100,0	
		Bizkaia	16,0	19,3	5,4	3,2	51,4	4,7	100,0	
		Gipuzkoa	9,2	4,0	0,7	1,0	82,8	2,4	100,0	

Iturria: Siadeco, 2023

## 4. Lan-hizkuntza


### 4.1. Erakunde barneko hizkuntza paisaia, komunikazio euskarriak eta prozedura administratiboetako hizkuntza

#### Lanari lotutako hizkuntza paisaia

Erakundeen barneko hizkuntza paisaia aztertzeko, langileei zuzendutako elementuak hartu dira kontuan: errotulazio txikia (armairuak, apalak, karpetak, artxiboak, etab.), horma irudiak eta antzekoak. Lan arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa. Ekoizpen-makinen errotulazioa, botoiak eta plakak; errotulazio aldakorra. Kafe eta janari-makinak, fotokopiagailuak, etab. Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak, eta abar.

Erakunde barneko hizkuntza paisaiaren zatirik handiena, hirutik bi (% 65), euskaraz dago, % 41 ele bietan eta % 24 euskara hutsean. Jaurlaritzaren menpeko erakundeetan euskarak pisu handiagoa hartzen du (% 78), eredu elebidunak indar handiagoa duelako (% 55). Gipuzkoako erakundeetan, gehiago dago euskaraz bakarrik (% 32) eta gutxiago ele bietan (% 36).

**41. grafikoa.** Euskararen erabilera (ele bietan eta euskara hutsean) erakunde barneko hizkuntza paisaian (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023.

### Barneko informazio eta komunikazio euskarriak

Euskarri mota hauek hartu dira kontuan: erakunde barneko ohar eta iragarki taulak, iradokizunen postontzia, intranet-a, berripaperak, posta elektronikoz langileei egindako jakinarazpenak eta bidalitako zirkularrak.

Batez beste, barne komunikazio horien % 63 euskaraz daude, % 44 ele bietan eta % 19 euskaraz. Elementu hauetan ere, Jaurlaritzaren menpeko erakundeak gaineratik daude (% 86), gehiena ele bietan (% 79,) eta Gipuzkoan diharduten erakundeak ere: euskararen erabilera guztira % 73, kasu honetan euskara hutsean gehiago (% 41).

#### 42. grafikoa. Euskararen erabilera (euskaraz eta ele bietan) erakunde barneko informazio eta komunikazio euskarrietan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.




### Barneko prozedura administratiboetako hizkuntza

Barneko prozedura administratiboak kudeatzeko erabiltzen den informazioa sistematikoki jasotzen ote duten galdetu zaie erakundeei, eta egiten dutenetan, zer hizkuntzatan egiten den.

Lautik batek (% 28) egiten du jarraipen hori modu sistematizatuan, eta erakunde horietan, batez beste, % 63 da euskaraz kudeatzen diren prozedura administratiboen ehunekoa, nagusiki ele bietan (% 55), gutxiago euskaraz bakarrik (% 8). Datu hori nabarmen altuagoa da Jaurlaritzaren menpeko erakundeetan (% 94,0). Ez da ahaztu behar hala ere, datu horiek, jarraipen sistematikoa egiten duten erakundeetakoak direla (% 28), ez erakunde gutzientak.

**43. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskara hutsean eta ele bietan) erakunde barneko prozedura administratiboen kudeaketan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.


## 4.2. Idatzizko jarduna

### Erakunde barneko dokumentu ofizialak

Langileei egindako inkestatik jaso da erakundearen barne agiri eta dokumentu ofizialak (prozedura administratiboak, bileretako dokumentuak, bestelako barne komunikazioak...) zein hizkuntzatan tramitatu edo bideratzen diren —zein ehunekotan euskaraz, ele bietan eta gaztelaniaz—. Hamar langiletatik 7k (% 71), barneko dokumentu horiek idatzi beharra izaten dutela adierazi dute.

Batez beste, erakunde barneko dokumentu horien % 46, euskaraz edo ele bietan idazten da, erdiak inguru (% 22) euskara hutsean eta beste erdiak inguru (% 24) ele bietan. Gehiago Gipuzkoako erakundeetan (% 62) eta euskaraz ongi idatzeko gai direnek (% 59); eta bi kasuotan, euskara hutsezko idatzien ehunekoa altuagoa izateak eragiten du alderik handiena, % 36 eta % 34, hurrenez hurren. Jaurlaritzaren erakundeak ere gaineratik daude (% 54), gizonetatik (% 39) emakumeetara (% 50) salto handia dago, eta adinez, deigarria da, daturik baxuena (% 40), 35 urtez beherako langileena izatea.

#### 44. grafikoa. Euskararen erabilera (euskara hutsean eta ele bietan) erakunde barerako idatzizko komunikazioetan (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023

### Lan bileretako dokumentuak

Inkesta egindako langile gehienek (% 85) erantzun dute lan bileretako dokumentazioa zein hizkuntzatan egon ohi den.

Batez beste, lan bileretako dokumentuen % 47 dago euskaraz (% 26 ele bietan eta % 21 euskara hutsean), beraz gehiena (% 53) gaztelaniaz bakarrik. Eragin eremua, lurraldea eta langileen euskara mailaren arabera joerak, aurrez azaldutako adierazleen berdinak dira.

#### 45. grafikoa. Euskararen erabilera (euskara hutsean eta ele bietan) lan bileretako dokumentuetan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023


### 4.3. Ahozko jarduna

#### Langile arteko ahozko harremanak, aurrez aurre eta telefono bidez

Langileen arteko komunikazioetako hizkuntza erabileran ez dago alderik, aurrez aurre mintzatu edo telefonoz aritu; lankideen arteko hizkuntza ohituren arabera erabiltzen da hizkuntza bat edo bestea.

Lankideen artean euskara zenbat erabiltzen den, euskararen batez besteko erabilera % 41ekoa da, bai aurrez aurre, bai telefonotik. Erabilera datu altuagoak dituzte, Gipuzkoako erakundeek, euskaraz ongi egiteko gai diren langileek, Jaurlaritzaren menpeko erakundeetako langileek, 36-55 urte bitartekoek eta emakumezkoek.

#### 46. grafikoa. Euskararen erabilera lankideen arteko ahozko harremanetan, aurrez aurre eta telefonoz (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023.

### Lan bileretako hizkuntza

Lankideekin baino gutxiago egiten da euskaraz lan bileretan: % 35. Joerak errepikatuz, erabilera datu hobeak Gipuzkoako lurraldean kokatutako erakundeetan (% 59), euskaraz ongi egiten dutenek (% 49), emakumezkoek (% 38), eta 36-45 urte bitartekoek (% 40).

**47. grafikoa.** Euskararen erabilera lan bileretan, ahoz (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023

#### 4.4. Baliabide informatikoak

##### Programa informatikoen euskarazko bertsioak

Lanerako baliabide informatiko gehienak gaztelaniaz daude. Erakundeetako teknikari zein solaskideen bitartez jaso da datu hau – ebaluazioa egindako hamar erakundetatik bederatzitako solaskideek erantzun dute –. Langileek beren lanerako erabiltzen dituzten, PC, ordenagailu eramangarri, tablet eta eskuko telefonoetako programa informatikoetatik zenbat diren euskaraz galdetuta, lanpostuen % 15etan bakarrik daude instalatuta euskarazko bertsioak – Gipuzkoako erakundeetan da zifra hori altuagoa, % 28 –.

**48. grafikoa.** Programa informatikoen euskarazko bertsioak instalatuta dituzten lanpostuak (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023.

### Euskarazko aplikazio informatikoen erabilera

Eta langileei egindako inkestan ere galdetu da, zer neurritan erabiltzen dituzten baliabide informatikoak euskaraz – langileen % 97k erantzun dute-. Lautik ia hiruk (% 73), gaztelaniaz daudenak erabiltzen dituzte beti edo gehiago, eta bostetik batek (%19), euskaraz daudenak beti edo gehiago; gainerako %7ak, parean, hizkuntza batean zein bestean daudenak. Gipuzkoako erakundeetan eta euskaraz ongi idazteko gai diren langileek, gehiago erabiltzen dituzte euskarazkoak, % 43 eta % 31,3 hurrenez hurren.

**49. grafikoa.** Lanerako erabilitako programa informatikoetako hizkuntza (%)



Iturria: Siadeco, 2023.


## 4.5. Langileen kudeaketa eta prestakuntza

### Langileen kudeaketarako dokumentazioa

Zeri erreparatu zaion, pertsonalaren kudeaketarekin zerikusia dokumentu hauek hartu dira kontuan: langile etorri berrientzako protokoloa, lan kontratuak eta bestelako lege dokumentuak, lanpostuarekin edo erakundearen barne funtzionamenduari zerikusia duten barneko txostenak eta baita zabalpen handiagoa duten jakinarazpenak ere - lanpostu eskaintzak, posta bidezko jakinarazpenak, lan egutegia...-.

Eta zer hizkuntzatan dauden, ia erdia (% 49) euskaraz edo ele bietan: gehiago ele bietan (% 34), euskara hutsean baino (% 15). Dokumentazio hori euskaraz gehiago dago, Jaurlaritzaren menpeko erakundeetan eta Gipuzkoakoetan, % 68 eta % 62 hurrenez hurren. Hizkuntza bakarraren aldeko hautua gehiago egiten da Gipuzkoan (% 22, soilik euskaraz).

**50. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskara hutsean eta ele bietan) langileen kudeaketarako dokumentu eta komunikazioetan (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023.



**Prestakuntza ikastaroen dokumentazioa**

Erakundeek langileentzako ikastaroak antolatzen dituztenean – erakundeen % 82k eskaintzen dituzte–, ikastaro horien idatzizko kudeaketa (deialdiak, izen-emateak, asebetetze inkestak, kudeaketa-aplikazioak, eta abar), nagusiki euskaraz egiten da: % 43 ele bietan eta % 10 euskaraz. Batez besteko datu horren gainetik daude, Gipuzkoakoak eta Jaurlaritzaren menpekoak, % 84 eta % 70 hurrenez hurren.

**51. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskarahutsean eta ele bietan) langileen prestakuntza ikastaroen dokumentazioan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.

### Langileek jasotako formakuntza saioak

Hamar langiletatik zazpik (% 69) egin dute lanari lotutako ikastaroren bat azken urtean, eta formazio hori zein hizkuntzatan egin duten galdetuta, 4tik 3k (% 73), gaztelania hutsean edo gaztelaniaz nagusiki jaso dituzte ikastaroak; gainerakoek, % 27ak, euskaraz gaztelaniaz adina edo gehiago.

Aldea dago beraz, nagusiki idatzizkoa den jardunetik, ahozkoak garrantzia duen jardunera, hau da, ikastaroen deialdiak nola egiten diren eta formakuntza saioak zein hizkuntzatan jasotzen dituzten langileek.

Toki batetik besterako aldeak, betikoak: ikastaro gehiago egiten dira euskaraz Gipuzkoako erakundeetan (euskaraz gaztelaniaz adina edo gehiago. % 47), Jaurlaritzaren menpekoetan (% 33), euskaraz ongi egiten dutenek (% 35) eta emakumezkoek (%32).

**43. taula.** Langileek formazioa jasotako hizkuntza (%)

			Azken 12 hilabeteetan formazioa zein hizkuntzatan jaso da			
			Gaztelaniaz gehiago eta gaztelania hutsean (%)	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (%)	Euskaraz gehiago eta gaztelania hutsean (%)	Guztira (%)
GUZTIRA			73,5	9,3	17,3	100,0
Langilearen generoa, adin-tartea eta euskara gaitasuna	Generoa	Emakumezkoa	68,3	10,1	21,7	100,0
		Gizonezkoa	80,9	8,0	11,1	100,0
	Adin-tartea	<=35 urte	75,7	10,7	13,6	100,0
		36-45 urte	70,5	8,8	20,7	100,0
		46-55 urte	73,4	8,8	17,8	100,0
		>55 urte	79,1	8,9	11,9	100,0
	Euskara gaitasuna idatziz	Ongi	64,6	8,1	27,2	100,0
		Nahiko ongi	73,7	13,0	13,3	100,0
		Zertxobait	83,5	13,0	3,6	100,0
		Hitz batzuk	98,6	1,2	0,3	100,0
Ezer ez		97,3	2,8	0,0	100,0	
Zein erakunderen menpekoa den		Eusko Jaurlaritza (%100ean)	68,4	7,9	23,7	100,0
		Gainerakoak	76,6	10,1	13,2	100,0
Lurralde eremuko en eragin esparrua		Araba	80,7	9,1	10,1	100,0
		Bizkaia	91,3	8,4	0,3	100,0
		Gipuzkoa	52,9	13,0	34,2	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

#### 4.6. Kanpo harremanak, erakunde publikoekin eta enpresa pribatuekin

Langileei galdetu zaie, erakundez kanpokokoak diren harremanetan zer hizkuntzatan egiten duten, ahoz eta idatziz, eta berezita, herri erakundeak (udalak, aldundiak, Jaurlaritza...), erakundeak berak kontratatzen dituen enpresa edo entitate pribatuak (finantza-entitateak, produktu eta zerbitzu hornitzaileak, etab.) eta bestelako harremanak dituzten erakunde edo enpresak (erakunde kolaboratzaileak, aliatuak, etab.).

##### *Bidalitako idatziak*

**Herri erakundeetara:** batez beste, herri erakundeetara igorritako hiru idatzitatik ia bitan (% 63) euskara erabiltzen da, honela banatuta: soilik euskara % 27tan eta bi hizkuntzak % 36tan – inkestatutako langileen %36 dira halako dokumentuak idazten dituztenak –.

**Enpresa edo entitate pribatuetara:** herri erakundeetara bidalitakoetan baino gutxiago erabiltzen da euskara enpresa pribatuekin; hirutik batean baino gutxiagotan (% 31) bermatzen da euskararen erabilera, % 14 euskaraz eta % 17 ele bietan – inkestatutako langileen erdiek (% 50) halako dokumentuak idazten dituzte beren lanean, beste erdiek ez–.

**Bestelako erakunde pribatuetara:** herri erakundeekin baino gutxiago eta enpresa pribatuekin baino gehiago, erdian kokatzen da euskararen erabilera maila, beste erakundeetara bidalitako komunikazioetan: % 13 euskara hutsean eta % 24 ele bietan, guztira % 37.

Idatzizko kanpo harreman guzti horietan, euskararen erabilera altuagoa da, Gipuzkoako erakundeetan –elebitasunak baino, euskara hutsezko sistemak indar handiagoa– eta euskara maila oneko langileetan. Alde txikiagoarekin bada ere, datuak hobeak dira, Jaurlaritzaren menpeko erakundeetan eta emakumeak diren langileen artean.

**52. grafikoa.** Euskararen erabilera (euskara hutsean eta ele bietan) beste erakundeetara bidalitako dokumentu edo agirietan (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.

### Ahozko harremanak

Gainerako sektore publikokoak diren erakundeetako langileen erdiak baino gehiago (% 53) ahoz komunikatu ohi dira herri administrazioekin, % 64 entitate pribatuekin, eta % 56 bestelako erakundeekin

Ahoz ere, herri erakundeetako langileekin egiten da euskara gehien —euskararen batez besteko erabilera % 52 da—, eta gutxiago erakundeak kontratatutako edo erakundearentzat lan egiten duen enpresa edo erakunde pribatuetako langileekin (% 31); zertxobait gehiago, bestelako erakundeekin (% 34).

**53. grafikoa.** Euskararen erabilera ahoz, beste administrazioekin, enpresa pribatuekin eta bestelako erakunde pribatuekin (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.

#### 4.7. Hizkuntza kudeaketa eta irizpideak

##### *Euskararen erabilera normalizatzeko planak*

Herri erakunde orokorretako egoerarekin alderatuta, gainerako sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, baxua da euskararen erabilera normalizatzeko planen ezarpen maila eta alde handiak daude gainera lurralde batetik bestera: EAE osoa hartuta, erdiek baino gutxiagok, erakundeen % 47k dute euskararen erabilera normalizatzeko plana indarrean. Gipuzkoako erakundeetan lautik hiruk (% 75) eta Jaurlaritzaren menpekoen artean % 60k, baina Araba eta Bizkaiko erakundeen, % 26k eta % 21ek bakarrik.

##### *Zuzendaritza batzordeko kideen inplikazioa eta plangintzaz egindako jarraipena*

Plana indarrean duten erakundeetan, zuzendaritza batzordeko kideen parte hartzea eta inplikazioa nolakoa den galdetuta, hamarretik seitan (% 59), ordezkari horiek joaten dira egindako bileretara, % 53tan hobekuntza eta neurri zuzentzaileei buruzko hausnarketan parte hartu ere bai, eta gutxiagotan parte hartzen da, planaren diseinua egiteko edota adierazleen bilakaerarekiko hausnarketa egiteko, % 46 eta % 40 hurrenez hurren.

Planaren jarraipenean erakundearen zuzendaritzako zenbat kidek parte hartzen duten ere galdetu da; batez beste, erdiek inguruk (% 49) parte hartzen dute.

**44. taula.** Euskararen erabilera normalizatzeko planak indarrean dituzten erakundeak (%) eta zuzendaritza batzordeko kideen inplikazio maila (%)

		Erakundeak ba al du euskararen erabilera normalizatzeko planik?	Euskararen erabilera planaren jarraipena egiten ote duten erakundearen zuzendaritza batzordeko kideek? (Ehunekoak, plana duten erakundeekiko)				Zuzendaritzako zenbat kidek parte hartzen dute jarraipenean (Ehunekoak, plana duten erakundeekiko)
			Bai, zehatutako bileretara joaten dira	Bai, adierazleen bilakaerari buruzko hausnarketan parte hartzen dute	Bai, hobekuntzei eta neurri zuzentzaileei buruzko hausnarketan parte hartzen dute	Bai, erabilera planen diseinuan parte hartzen dute	
GUZTIRA		47,0	58,9	40,0	53,1	46,3	48,5
Zein erakunderen menpekoea den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)	60,1	66,4	41,6	56,0	41,6	45,9
	Gainerakoak	42,6	55,3	39,2	51,7	48,5	49,8
Lurralde eremuko en eragin esparrua	Araba	25,7	100,0	100,0	100,0	50,0	50,5
	Bizkaia	21,4	54,8	11,2	11,2	11,2	43,8
	Gipuzkoa	75,0	50,2	42,0	60,5	61,7	51,9

Iturria: Siadeco, 2023

### Langileen parte hartzea euskararen normalizaziorako egitasmoetan

Hamarretik lauk (% 40) erantzun dute, asko edo nahikoa hartu dutela parte – % 10ek asko, % 31k nahikoa, % 30ek gutxi eta % 15ek batere ez –. Aukerarik ez zaiela eman adierazi dute %7k eta euskara sustatzeko ekimenik ez dela bere erakundeantolatu % 8k –zer ekimen mota izan zitezkeen, hauek zerrendatu dira langileei zuzendutako galdetegian: Euskaraldia, mintza-saioak, Korrika, Eusle metodologia, trebakuntza, monografikoak, tailerrak, planen jarraipena, euskarazko trebakuntza orokorra, etab.) –.

Langile gehiagok hartzen dute parte Gipuzkoan kokatuak dauden erakundeetan (% 16k asko eta %39k nahikoa). Eta erabileran bakarrik ez, euskara ekimenetako parte hartzean ere, langileen hizkuntza gaitasunak eragiten du; zenbat eta gaitasun hobea, orduan eta parte hartze altuagoa: ongi hitz egiten dutenetan, erdiek (% 51) parte hartze handia edo nahikoa, eta beste muturrean, euskara ez dakiten langileetan (ezer ez edo hitz batzuk bakarrik), % 8,3k bakarrik. Tartean, nahiko ongi egiten dutenak eta zertxobait hitz egiten dutenak.

**45. taula.** Langileen parte-hartze maila plangintzaldi honetan erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan (%)

			Plangintzaldi honetan, zein mailatan parte hartu duzue zure erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan? (adierazlea eta langileen erantzunak)							Guztira (%)
			Adierazlea (asko + nahikoa) (%)	Asko (%)	Nahikoa (%)	Gutxi (%)	Batere ez (%)	Erakundeak ez du euskararen normalizaziorako ekimenik aurrera eraman (%)	Ez dut aukerarik izan euskararen normalizaziorako ekimenetan parte hartzeko (%)	
<b>GUZTIRA</b>			<b>40,4</b>	9,9	30,5	28,9	15,2	8,1	7,4	100,0
Langilearen generoa, adin-tartea eta euskara gaitasuna	Generoa	Emakumezkoa	<b>44,1</b>	9,7	34,4	25,5	13,8	9,0	7,7	100,0
		Gizonezkoa	<b>35,7</b>	10,5	25,2	33,1	17,3	6,9	7,0	100,0
	Adin-tartea	<=35 urte	<b>30,2</b>	6,6	23,6	28,4	9,6	12,9	18,9	100,0
		36-45 urte	<b>40,6</b>	10,0	30,6	29,9	12,4	11,8	5,4	100,0
		46-55 urte	<b>46,3</b>	10,6	35,7	26,2	16,8	5,9	4,8	100,0
		>55 urte	<b>33,8</b>	10,4	23,4	32,6	19,8	4,3	9,4	100,0
	Euskara gaitasuna hitz egiteko	Ezer ez	<b>8,3</b>	0,0	8,3	11,5	42,5	13,0	24,7	100,0
		Hitz batzuk	<b>8,3</b>	2,9	5,4	29,7	32,9	6,1	23,0	100,0
Zertxobait		<b>28,5</b>	9,6	18,9	27,5	23,3	13,9	6,9	100,0	
Nahiko ongi		<b>39,3</b>	8,2	31,1	30,1	15,3	8,3	6,9	100,0	
Ongi		<b>50,9</b>	12,3	38,6	30,3	8,3	6,3	4,2	100,0	
Zein erakunderen menpekoea den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)	<b>44,4</b>	9,5	34,9	30,4	14,1	5,1	6,0	100,0	
	Gainerakoak	<b>37,8</b>	10,2	27,6	27,9	15,9	10,1	8,3	100,0	
Lurralde eremukoaren eragin esparrua	Araba	<b>46,7</b>	15,3	31,4	30,3	15,2	6,6	1,2	100,0	
	Bizkaia	<b>21,8</b>	4,5	17,3	29,8	22,0	15,7	10,7	100,0	
	Gipuzkoa	<b>53,6</b>	15,5	38,1	25,3	9,3	4,4	7,4	100,0	

Iturria: Siadeco, 2023

### Euskararen kudeaketa zenbateraino txertatuta erakundearen kudeaketan

Gainerako sektore publikoko erakundeetan ere galdetu da, zer mailatan dagoen euskararen kudeaketa erakundearen gestio plan eta kudeaketa orokorrean txertatuta. Hirutik bitan (% 66) kontsideratzen da dagoela txertatua, gehiago Gipuzkoakoetan (% 78).

**46. taula.** Euskararen kudeaketa zenbateraino dagoen txertatuta erakundearen kudeaketa sisteman (batez besteko %)

		Erakundearen kudeaketan, zenbateraino txertatuta dago euskararen kudeaketa (Batez besteko %)
GUZTIRA		65,6
Zein erakunderen menpekoa den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)	57,9
	Gainerakoak	68,2
Lurralde eremuko eragin esparrua	Araba	49,9
	Bizkaia	65,7
	Gipuzkoa	77,7

Iturria: Siadeco, 2023

Erakundea kudeatzerakoan, orokorrean, euskararen kudeaketa ere kontuan hartzen dute erakunde gehienek, baina ez guztiek; eta zergatiak zein diren galdetuta, bi argudio nagusi atera dira: lehena, erakundeak nagusiki erabiltzen duen hizkuntza ingelesa izatea; bigarrena, langileen euskara maila eta euskararekiko jarrerari lotua dago: euskararekiko interes edota kontzientzia falta eta ezagutza falta.

Euskararen kudeaketa erakundeetan txertatu gabe (% 25ean baino gutxiago) dagoela adierazi dutenek, zailtasun hauek aipatu dituzte: langileen euskara maila apala edota langileak euskalduntzeko zailtasuna. Kasuren batean, harreman ez formaletan bai erabiltzen dela adierazten dute, baina ez lan hizkuntza gisa.

*“Ingurune guztiz erdaldunean gaude, nahiz eta euskararekiko atxikipen sentimentu bat egon gero orokorrean zaila da gure lantokiko jendeak eskaintzak ele bietan joan behar direla ulertzea, ia gehienek ez bait dute hizkuntza menperatzen”.*

(Eusko Jaurlaritzaren menpekoa)

*“Enpresako langileen batez besteko adina 51 urtekoa da, eta horrek euskalduntze-prozesua zailtzen du”*

(Bestelako erakundearen menpekoa)

*“Todo el personal es consciente de la importancia del uso de ambas lenguas, ahora bien, hay una cantidad importante que no sabe euskera”*

(Bestelako erakundearen menpekoa)

*“El Euskera es utilizada por el personal en términos coloquiales, pero no como lengua de trabajo.”*

(Bestelako erakundearen menpekoa)



Euskararen kudeaketa zertxobait txertatuta dutela diotenen artean, aipatu berriki Bikain Ziurtagiria lortu eta langileak motibatzen hasita daudela dioen erakunde batek, laguntza ekonomikoa jasotzea eskertuko lukeela barne kudeaketan euskarari sendotasuna emateko.

*“Kudeaketa orokorrean euskara kontuan hartzen duela gutxi hasi garelako BIKAIN ziurtagiriak langileak kontzientziatu dituelako. HPStik jasotzen dugun laguntza teknikoa oso baliogarria da baina, euskararako partida ekonomikoa jasotzea benetan lagungarria litzateke barne kudeaketarako eta bereziki, euskarari sendotasuna emateko”*

*(Eusko Jaurlaritzaren menpekoea)*

Euskararen kudeaketa nahikoa txertatuta dutenen artean ere, langileen euskararen ezagutza edota erabilera maila altua aipatzen da arrazoi gisa, kasuren batean euskararen erabilera “derrigorrezkoa” dela esateraino.

*“Más de la mitad del personal domina las dos lenguas oficiales”*

*(Gainerako erakundeen menpekoea)*

*“Langileek badakite euskararen erabilera derrigorrezkoa dela”*

*(Eusko Jaurlaritzaren menpekoea)*

*“Erakunde euskaraz lan egiten dugu orokorrean”.*

*(Gainerako erakundeen menpekoea)*

Baina gehienek, euskararen kudeaketa, kudeaketa orokorrean oso txertatuta dagoela adierazi dute, eta arrazoez galdetuta, honakoak aipa daitezke:

- Langileak sentsibilizatuta daude eta kontzientzia maila altua dute, eta horrek errazten du txertatuta egotea. Kasuren batean, “naturalki” erakundearen hizkuntza nagusia dela adierazten da. Besteren batean, kontzientzia maila altuarekin batera, horretarako “derrigortasuna” ere aipatzen da.

*“Porque es un sentir generalizado y aceptado, además de normativamente obligado”.*

*(Bestelako erakundeen menpekoea)*

*“El personal de la entidad es consciente de la importancia de dar servicio en euskera al ciudadano, socio, proveedor que lo solicita.”*

*(Bestelako erakundeen menpekoea)*

*“Euskara lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza dela oso barneratuta dago. Egunerokotasunen naturalki erabiltzen da erakundeko arlo guztietan”*

*(Bestelako erakundeen menpekoea)*

*“Diría que la plantilla en general es consciente de que hay que cuidar el buen uso de las lenguas, pero que caemos en la costumbre de utilizar el castellano como lengua habitual.”*

*(Bestelako erakundeen menpekoea)*

*“Gure erakunde euskaraz egiten dugu lan”*

*(Bestelako erakundeen menpekoea)*

*“Hizkuntza politika daukagu. Harremanak %100ean euskaraz dira bai kudeaketa arloko langileen artean zein hezitzaileekin edota hezitzaileen artean. Haurrei ere euskaraz zuzentzen dira eta familiei lehen hitza beti euskaraz zuzentzen zaie.”*

*(Eusko Jaurlaritzaren menpekoea)*

- Erakundeak garatu beharreko hizkuntza politika edota hizkuntza irizpideak onartuta eta zabaldua daude langileen artean. Kasu batzuetan, horrek ez du kentzen akatsak edo hutsuneak egotea, baina ez modu sistematikoan. Erakunde batzuek, horien jarraipena egiten dute, gogorarazpenak bidali,... eguneroko lanean kontuan hartutako gaia dela adierazten dute.
- Honekin batera, batzuek Euskara Ziurtagiria lortu izana aipatzen dute errekonozimendu, eta aurrera egiteko “akuilu” bezala.

*“Euskara Plana zabaldu da eta espreski eskatu zaie guztiontzako mezuak direnez, barne komunikazioa elebiduna izan behar dela. Gainera, herritarrei dagokienez denok dakigu zaindu behar dela eta zuzendaritza aldetik esaten da behin eta berriro.”*

*(Bestelako erakundearen menpekora)*

*“Kudeaketan eta kalitate prozeduretan erabat txertatuta ditugu hizkuntza politika eta haren irizpideak.”*

*(Bestelako erakundearen menpekora)*

*“HPO eta irizpideen gida intranetean daude eta langileek eskuragarri daukate mahai gainean, papelean. Urtean pare bat aldiz Euskara jardunaldiak egiten ditugu irizpideak gogorarazi eta euskararen inguruko ekimen desberdinei buruz hitz egiteko. Urteko garai desberdinetan ekimen desberdinak antolatzen ditugu. Erakundearen prozesuen jarraipen bileretan ere Euskarak bere txokoa du eta beste prozesu edo arloak bezala lantzen da.”*

*(Eusko Jaurlaritzaren menpekora)*

*“Euskararen kudeaketa guztiz txertatuta dago. Zuzendaritzak eta langilegoak jakin badaki euskara eta euskararen erabilera kontuan hartu behar dela. Kanpainak egin dira, informazioa eman da eta nola edo hala beti gauza berdintsu batzuk errepikatzen dira. Beste gauza bat eguneroko jardueren dinamikak batzuetan kontuan hartu beharreko gauzak ahaztera eramaten gaituela.”*

*(Eusko Jaurlaritzaren menpekora)*

*“Jakin badakigu nola aritu behar garen hizkuntzen erabilera egokia egin dezagun, oinarri bezala hizkuntza irizpideak hartuaz. Hauen gogorarazpenean ariketa errepikakorra egin da. Hori horrela izanik, hala ere irizpide batzu aurrera eramateko zailtasunak egoten dira, ahaztu gabe oraindik ere inertiak bere lekua duela. Baina jakin badakigu.”*

*(Eusko Jaurlaritzaren menpekora)*

### *Euskara normalizaziorako teknikaria*

Hamarretik sei baino gutxiagok (% 57) dute euskararen normalizaziorako teknikaria edo euskara gaien ardura daraman pertsonaren bat erakundeetan. Gehiagok Gipuzkoakoetan (% 68), Jaurlaritzaren menpekoetan (% 64); gutxiagok, Araba eta Bizkaikoetan, % 49 eta % 46, hurrenez hurren.

**47. taula.** Euskara normalizaziorako teknikaririk edo euskara gaien ardura duen pertsonarik baduten erakundeak (%)


		Erakundeetan ba al dago euskara normalizaziorako teknikaririk edo euskara gaien ardura duen pertsonarik? (Bai %)
GUZTIRA		57,3
Zein erakunderen menpekoea den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)	64,4
	Gainerakoak	54,8
Lurralde eremuko en eragin esparrua	Araba	48,6
	Bizkaia	46,3
	Gipuzkoa	67,8

*Iturria: Siadeco, 2023*

### Idatzizko lanaren sortze hizkuntza

Batez beste, erakundeetako langileek ekoizten dituzten idatzien % 23 euskara hutsean sortzen dituzte eta % 20 ele bietan, eta baturak, % 43 ematen du – beren lanean idatziz egin beharreko lanik egiten duten galdetuta, langile gehienek (% 89) baietz erantzun dute –. Bai ele bietan, bai hizkuntza bakarrean, hau da euskaraz, askoz ere gehiago Gipuzkoan eta euskaraz idazteko maila altuko langileen artean ere. Zerbait beherago baina batez bestekoaren gaineratik, Jaurlaritzaren menpeko erakundeak (% 49) eta emakumezkoen artean (% 47,7).

54. grafikoa. Idatzizko lanaren sortze hizkuntza (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023


### Hizkuntza irizpideak

Hizkuntza irizpideei lotutako hiru adierazle neurtu dira: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezarriak dituzten erakundeen ehunekoa – erakunde bakoitzeko solaskideari galdetuta jaso da informazio hau–, bere erakundearen hizkuntza irizpideak langileek zenbateraino ezagutzen dituzten, eta zer mailatan betetzen diren –azken bi datu hauek langileei egindako inkestatik kalkulaturakoak dira–.

- Hizkuntza irizpideen **ezarpen maila**: Hizkuntza Ofizialen erabilerarako irizpideak ezarriak dituzten erakundeak, gainerako sektore publikoan, hamarretik sei eskas (% 58) dira. Eusko Jaurlaritzari loturikoetan da ezarpen maila nabarmen altuagoa, % 85; eta lurraldearen arabera, Gipuzkoan ere altuagoa da, % 74.

Aldea dago herri erakundeetatik gainerako sektore publikoko erakundeetara; herri erakundeetan, orokortua dago hizkuntza irizpideak izatea (% 95), gainerako sektore publikoan sartzen diren erakundeetan ordea ez (% 58).


**55. grafikoa. Hizkuntza irizpideen ezarpen maila (%)**



*Iturria: Siadeco, 2023.*

- Hizkuntza irizpideen **ezagutza** langileen artean: hamarretik ia zazpik, asko (% 20,0) edo nahikoa (% 49,0) ezagutzen dituztela erantzun dute. Ezagutza maila altuagoa da (asko eta nahikoa) Gipuzkoako erakundeetan (% 79) eta euskaraz ongi hitz egiteko gai diren langileen artean (% 75).
- **Betetze maila**: Langile gehienek (% 87,0) irizpideak asko edo nahikoa betetzen dituztela adierazi dute; gehiago ala gutxiago, hizkuntza irizpideez informatuak dauden langile gehienek, bete ere egiten dituztela erantzun dute.

56. grafikoa. Hizkuntza irizpideen ezagutza eta betetze maila(%)



Iturria: Siadeco, 2023.

**48. taula.** Langileek erakundearen ezarritako hizkuntza irizpidez adierazitako ezagutza eta betetze maila (%)


			Zenbateraino ezagutzen dituzu zure erakundearen hizkuntza irizpideak? (adierazlea eta langileen erantzunak)							Zuk zure lanean zenbateraino betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak? (adierazlea eta langileen erantzunak)(langile guztiak barne, irizpideak ezagutzen ez dituztenak eta erakundeak irizpideak ez dituela esaten dutenak ere)						
			Adierazlea (asko+nahikoa)	Asko (%)	Nahikoa (%)	Gutxi (%)	Batere ez (%)	Erakundeak ez ditu hizkuntza irizpideak ezarritako (%)	Guztira (%)	Adierazlea (asko+nahikoa) (%)	Asko (%)	Nahikoa (%)	Gutxi (%)	Batere ez (%)	Ez ditut ezagutzen / Ez dauzka (%)	Guztira (%)
GUZTIRA			69,1	20,0	49,0	20,3	7,0	3,6	100,0	77,6	38,6	39,0	9,1	1,7	11,5	100,0
Langilearen generoa, adin-tartea eta euskara gaitasuna	Generoa	Emakumezkoa	72,1	22,5	49,6	18,5	6,2	3,3	100,0	81,6	41,1	40,5	7,0	0,7	10,8	100,0
		Gizonezkoa	64,1	16,8	47,3	23,2	8,5	4,2	100,0	71,8	34,6	37,2	12,5	2,9	12,8	100,0
	Adin-tartea	<=35 urte	58,0	11,5	46,5	25,0	14,6	2,4	100,0	80,7	40,0	40,7	2,2	0,0	17,2	100,0
		36-45 urte	66,0	14,8	51,3	22,0	7,7	4,3	100,0	77,1	44,5	32,6	9,0	0,7	13,2	100,0
		46-55 urte	73,7	22,1	51,6	17,3	5,5	3,5	100,0	79,9	36,7	43,2	9,5	0,3	10,3	100,0
		>55 urte	71,5	27,8	43,7	20,4	4,3	3,8	100,0	71,0	33,6	37,4	13,8	7,0	8,1	100,0
	Euskara gaitasuna hitz egiteko	Ongi	74,8	24,7	50,1	15,8	6,8	2,7	100,0	84,4	54,2	30,2	5,0	0,2	10,3	100,0
		Nahiko ongi	66,2	11,5	54,8	25,3	5,6	3,0	100,0	75,8	20,6	55,2	15,0	0,0	9,2	100,0
		Zertxobait	63,4	17,6	45,8	22,7	6,8	7,1	100,0	66,8	17,2	49,6	16,3	2,8	14,1	100,0
		Hitz batzuk	54,8	12,8	41,9	29,1	10,3	5,9	100,0	63,2	20,0	43,2	9,2	8,1	19,5	100,0
Ezer ez	53,6	17,1	36,5	31,4	12,5	2,6	100,0	61,4	26,4	35,0	11,4	12,0	15,2	100,0		
Zein erakunderen menpekoa den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)	71,4	21,6	49,8	19,4	6,0	3,2	100,0	81,6	41,6	40,0	7,7	0,5	10,2	100,0	
	Gainerakoak	67,5	19,0	48,5	20,8	7,7	3,9	100,0	75,1	36,7	38,4	10,1	2,4	12,5	100,0	
Lurralde eremukoaren eragin esparrua	Araba	67,9	6,6	61,3	25,3	5,2	1,7	100,0	67,9	21,9	46,0	20,5	4,8	6,9	100,0	
	Bizkaia	57,5	10,8	46,7	24,4	10,7	7,3	100,0	66,5	27,5	39,0	10,9	2,9	19,7	100,0	
	Gipuzkoa	79,3	31,3	48,0	15,6	4,9	0,2	100,0	87,0	51,2	35,8	6,5	1,2	5,2	100,0	

Iturria: Siadeco, 2023

### Dokumentuen estandarizazio maila

Erakunde barneko prozedura administratiboan eta herritarrekiko harremanean, estandarizatuak dauden dokumentuak euskaraz zer mailatan dauden jaso da. Herritarrekiko harremanean erabiltzen diren etatik, hirutik ia bi (% 63) euskaraz (ere) badaude; barneko prozedura administratiboetan aldiz gutxiago, ia 20 puntu (% 44). Bietan, estandarrak diren dokumentuetan euskararen erabilera maila altuagoan bermatzen da Gipuzkoan, eta hein txikiago batean, Eusko Jaurlaritzaren menpekoetan.

**57. grafikoa.** Euskaraz estandarizatutako dokumentuak (batez besteko %)



Iturria: Siadeco, 2023.



#### 4.8. Euskararen erabileraren bilakaerarekiko balorazioak

##### Balorazioaren emaitza kuantitatiboak

Bere erakundeetan euskara zer bilakaera ari den izaten langileei galdetuta, erdiek baino gehiagok (% 57), balorazio positiboa egiten dute – oso positiboa % 13k, positiboa % 44k– . Jarrera ezkorrekin balorazio negatiboa gutxiagok egin dute, % 13k (negatiboa edo oso negatiboa) eta gainerakoek (% 30), ez positiboa ez negatiboa erantzun dute. Baikortasun gehien, Gipuzkoako erakundeetan dago (% 75), eta adinak ere markatzen du aldea: 55 urtetik gorakoetan, altuagoa da balorazio positiboa egindakoen zifra (% 67). Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakundeetako langileen artean eta euskaraz ongi hitz egiten dutenen artean ere gehiago izan dira bilakaera positiboa dela adierazitakoak.

Balorazioaren zergatiak galdetuta, hirutik batek (% 37) euskararen alde nahikoa egin dela eta ia laurden batek (% 23), asko egin dela adierazi dute; baina bostetik batek (% 20) gutxiegi eta % 1ek gehiegi. Gainerakoek, % 19ak, ez du iritzirik eman.

Bi aldagaiok gurutzatuta, esan balorazio oso positiboa egiten duten gehien gehienek (% 85,0), “asko” egin dela uste dutela: eta positiboa egiten dutenen artean, aldiz gehienek (% 66,1), “nahikoa” egin dela. Bilakaeraz balorazio negatiboa egiten duten gehien gehienek “gutxiegi” egin dela adierazten dute, eta gutxi batzuk dira “gehiegi egin dela” diotenak (% 5,9).


**49. taula.** Euskararen erabileraren bilakaeraren balorazioaren arrazoia, bilakaeraz egindako balorazioaren arabera (%)

		Zure erakundeetan euskararen erabilerak duen erabilerari buruzko ebaluazioa					Guztira
		Oso negatiboa	Negatiboa	Ez negatibo ez positiboa	Positiboa	Oso positiboa	
Ebaluazio horren arrazoia	Asko egin delako	0,0	0,0	0,5	27,0	85,0	23,0
	Nahikoa egin delako	0,0	0,0	20,5	66,1	10,2	36,5
	Gutxiegi egin delako	92,6	87,4	25,8	1,6	0,0	19,8
	Gehiegi egin delako	0,0	5,9	0,5	0,2	0,0	1,3
	Ed/Ee	7,4	6,7	52,7	5,2	4,8	19,5
Guztira	% bert.	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	% horiz.	2,1	10,5	30,5	43,8	13,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

Gutxiegi egin dela dioten ehunekoa altuagoa da Araba eta Bizkaiko erakundeetan, % 30 eta % 24 hurrenez hurren), eta gehiegi egin dela dioten ehunekoa, Arabakoetan (% 10).

**58. grafikoa. Euskararen bilakaerarekiko balorazioak (%)**



Iturria: Siadeco, 2023.

**50. taula.** Erakundearen erabilerak duen erabilerari buruz langileek egindako balorazioa (%), eta erantzun horren arrazoiak (%)

			Zein balorazio egiten duzue zure erakundearen erabilerari buruz? (adierazlea eta langileen erantzunak)								Zergatik?					
			Adierazlea (%) (Oso positiboa + positiboa)	Adierazlea (%) (Oso negatiboa + negatiboa)	Oso negatiboa (%)	Negatiboa (%)	Ez negatibo ez positiboa (%)	Positiboa (%)	Oso positiboa (%)	Guztira (%)	Asko egin delako (%)	Nahikoa egin delako (%)	Gutxi egin delako (%)	Gehiegi egin delako (%)	Ed/Ee (%)	Guztira (%)
GUZTIRA			56,8	12,7	2,1	10,6	30,5	43,8	13,0	100,0	23,1	36,5	19,6	1,4	19,4	100,0
Langilearen generoa, adin-tartea eta euskara gaitasuna	Generoa	Emakumezkoa	59,2	10,4	2,4	8,0	30,4	44,4	14,8	100,0	28,2	33,8	17,3	1,1	19,6	100,0
		Gizonezkoa	53,1	15,9	1,5	14,4	31,0	43,3	9,8	100,0	15,4	40,6	22,8	1,7	19,5	100,0
	Adin-tartea	<=35 urte	50,6	19,0	4,0	15,0	30,3	42,0	8,6	100,0	13,2	40,3	20,3	0,9	25,2	100,0
		36-45 urte	49,7	12,0	1,3	10,7	38,3	35,1	14,6	100,0	24,1	32,6	21,0	1,7	20,6	100,0
		46-55 urte	59,3	13,0	2,1	10,9	27,7	46,8	12,5	100,0	22,7	37,0	23,1	0,3	16,9	100,0
		>55 urte	67,3	9,8	1,5	8,3	22,8	53,1	14,2	100,0	30,6	39,8	10,9	2,0	16,8	100,0
	Euskara gaitasuna hitz egiteko	Ezer ez	49,8	8,5	1,1	7,4	41,7	46,7	3,1	100,0	8,7	28,2	6,2	0,0	56,9	100,0
		Hitz batzuk	44,3	10,9	0,0	10,9	44,8	37,2	7,1	100,0	12,1	34,7	18,0	0,0	35,3	100,0
		Zertxobait	47,7	10,0	1,5	8,5	42,4	39,9	7,8	100,0	11,2	47,9	13,9	2,4	24,6	100,0
		Nahiko ongi	58,3	13,9	2,4	11,5	27,8	48,5	9,8	100,0	18,0	42,0	19,7	2,0	18,3	100,0
Ongi	61,0	13,7	2,5	11,2	25,3	43,9	17,1	100,0	30,6	32,6	22,5	1,2	13,1	100,0		
Zein erakunderen menpekoa den	Eusko Jaurlaritza (%100ean)	61,9	12,0	2,1	9,9	26,1	48,7	13,2	100,0	23,7	40,9	19,1	1,0	15,3	100,0	
	Gainerakoak	53,4	13,1	2,0	11,1	33,5	40,6	12,8	100,0	22,6	33,6	19,9	1,6	22,2	100,0	
Lurralde eremukoaren eragin esparrua	Araba	37,3	20,1	0,3	19,8	42,6	32,1	5,2	100,0	0,4	37,2	30,4	9,5	22,5	100,0	
	Bizkaia	38,8	15,2	2,8	12,4	46,0	33,4	5,4	100,0	9,3	35,5	24,1	0,0	31,2	100,0	
	Gipuzkoa	74,5	8,7	1,4	7,3	16,8	50,9	23,6	100,0	44,0	31,0	12,1	1,2	11,7	100,0	

Iturria: Siadeco, 2023

## Langileen argudioak

Argudioak emateko eskatu zaie langileei: zertan ikusi duten bilakaera hobetzen edo okertzen.

Positiboki (% 43,8) edo oso positiboki (% 13,0) baloratu dutenek, euskararekiko jarreran, sentsibilizazioan eta erabileran aurrera egin dela azpimarratu dute, batez ere. Askok langile berrien eta gazteen ekarpena nabarmendu dute, alde horretatik.

*«Joera ona dela esango nuke, lankideen artean gero eta gehiago entzuten eta erabiltzen da euskara (denbora asko ere ez daramat hemen lanean, baina hasieratik errespetua somatu dut hizkuntzarekiko). Lan handia egin behar da oraindik, baina esango nuke bide onean doala kontua»*

(Ongi)

*«Azken urtean jendeak sentsibilizazio puntu handiago bat duelakoan nago»*

(Ongi)

*«Gure erakundeetan jende berria sartzen ari da eta beraiek gero eta "normalizatuago" dute euskararen erabilera arlo guztietan»*

(Ongi)

*«Lanean hasi diren langile berriak gazteagoak dira eta euskarazko formakuntza daukate. Honek asko lagundu du, lan munduan euskaraz aritu ahal izateko garaian»*

(Ongi)

*«Langile berriak sartu diren azken urte hauetan euskararen erabilera nabarmen handitzen ari da»*

(Zertxobait)

*«Nire inpresioa da dexente egin dela, baina oraindik asko dugula egiteko. Eta beti egon behar dugula guardian, euskara bazterrean uztea erraza baita»*

(Ongi)

*«Nire erakundeetan euskararen erabileran eta bultzatzean esfortzua egin eta egiten ari dela esango nuke, euskararen erabilera geroz eta handiagoa dela esango nuke, gazteok normalean geroz eta gehiago moldatzen garelako, baina hau talde eta pertsonen euskararen ezagutzaren arabera da»*

(Ongi)

*«Duela hiru urte hasi nintzen lanean enpresa honetan eta aurrera pausu asko eman dira urte hauetan, bai hizkuntz paisaia eta erabileran»*

(Ongi)

Hizkuntza Ofizialen erabilerarako irizpideak ezarrita dituzten gainerako sektoreko erakundeak % 58 dira, 10etik 6 baino ez. Administrazio orokorrean, aldiz, ia guztiek dituzte irizpideak ezarrita (% 95).

Beharginei hizkuntza irizpideak ezagutzen dituzten galdetuta, asko edo nahikoa ezagutzen dituztenen ehunekoa (% 69), administrazio orokorreko langileen artean baino zertxobait altuagoa da (% 66,0).

Eta betetzen ote dituzten, % 78k asko edo nahikoa, administrazio orokorreko beharginekiko ez dago alderik (% 79).

### 6.2.5. Euskararen bilakaerarekiko balorazioa eta parte-hartzea

Euskararen erabilerak erakundeetan izandako bilakaeraz langileek zer balorazio egiten duten, oro har alde handirik ez dago gainerako sektore publikoko langileen eta administrazio orokorrekoen artean; hala ere, ikuspegi zertxobait positiboagoa dute gainerako sektore publikoek (% 57), administrazio orokorrekoek baino (% 54).

Eta balorazioaren arrazoiak galdetuta, gainerako sektore publikoko langileen eta administrazio orokorrekoen erantzunak oso antzerakoak dira: gainerako sektore publikoko langileen % 60k diote, asko edo nahikoa egin dela (administrazio orokorrekoen % 57k) eta gutxiegi egin dela % 20k (administrazio orokorrean, % 19k),

Euskara sustatzeko erakunde bertatik antolatutako ekimenetako langileen parte-hartzea 5 puntuz altuagoa da gainerako sektore publikoko langileen artean (% 40k asko edo nahikoa), administrazio orokorrekoen artean baino (% 35).

## EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO VI. PLANGINTZALDIAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA: HIZKUNTZA ADIERAZLEEN TAULA

### Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak eta administrazio orokorreko erakundeen adierazleak

		Guztira	Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak						Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak				
			Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko en eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakundeen adierazleak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak			
			Eusko Jaurlaritza (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
1.1.- Eraikinetako errotulazio orokorraren hizkuntza egoera	Euskara hutsean (%)	4,9	4,7	5,0	2,6	2,0	9,3	10,9	0,1	0,1	11,9	28,1	
	Ele bietan (%)	90,1	86,7	91,2	90,6	92,3	90,1	87,9	99,9	99,4	86,4	71,6	
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>95,0</b>	<b>91,5</b>	<b>96,2</b>	<b>93,1</b>	<b>94,3</b>	<b>99,4</b>	<b>98,8</b>	<b>100,0</b>	<b>99,4</b>	<b>98,4</b>	<b>99,7</b>	
1.2.- Erakundearen irudi korporatiboko elementuen hizkuntza egoera	Euskara hutsean (%)	18,1	21,2	17,0	2,6	27,5	10,4	14,5	1,0	0,1	13,5	41,1	
	Ele bietan (%)	71,7	74,1	70,9	76,4	57,2	84,1	83,5	98,8	99,7	81,7	58,8	
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>89,8</b>	<b>95,3</b>	<b>87,9</b>	<b>79,0</b>	<b>84,7</b>	<b>94,5</b>	<b>98,0</b>	<b>99,8</b>	<b>99,8</b>	<b>95,3</b>	<b>99,9</b>	
1.3.- Erakundea beraren paper edizioko argitalpenen hizkuntza egoera:	Euskara hutsean (%)	6,9	0,0	8,9	12,1	9,4	7,5	12,2	7,3	5,2	14,1	17,0	
	Ele bietan (%)	86,0	97,9	82,6	69,6	82,4	86,6	79,8	90,4	82,6	73,0	80,1	
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>92,9</b>	<b>97,9</b>	<b>91,5</b>	<b>81,7</b>	<b>91,8</b>	<b>94,0</b>	<b>92,0</b>	<b>97,7</b>	<b>87,7</b>	<b>87,0</b>	<b>97,2</b>	
1.4.- Hedabideen bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatearen hizkuntza egoera	Euskara hutsean (%)	10,1	3,9	11,8	0,0	15,5	10,3	21,5	14,1	11,9	8,4	56,5	
	Ele bietan (%)	78,0	93,5	73,8	86,2	69,4	76,0	71,1	71,8	87,0	86,9	32,5	
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>88,1</b>	<b>97,5</b>	<b>85,6</b>	<b>86,2</b>	<b>85,0</b>	<b>86,3</b>	<b>92,6</b>	<b>85,9</b>	<b>98,9</b>	<b>95,4</b>	<b>89,1</b>	
1.5.- Hedabideen bitartez zabaldutako berriak	Euskara hutsean (%)	11,4	5,1	12,7	0,0	13,6	16,1	15,0	5,3	14,5	9,9	35,5	
	Ele bietan (%)	57,3	76,7	53,3	63,1	54,8	47,8	61,3	82,5	80,4	49,5	52,4	
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>68,7</b>	<b>81,8</b>	<b>66,0</b>	<b>63,1</b>	<b>68,4</b>	<b>63,9</b>	<b>76,3</b>	<b>87,8</b>	<b>94,9</b>	<b>59,5</b>	<b>87,9</b>	
1.6. Jendaurreko ekitaldiak	Euskaraz (%)	53,8	59,0	52,5	35,3	42,9	66,2	71,3	65,5	62,1	73,0	77,1	
	Euskara hutsean (%)	4,2	0,0	5,6	2,6	9,4	2,0	3,2	0,0	0,0	3,6	7,6	
	Ele bietan (%)	88,8	94,3	87,0	62,7	87,3	95,4	94,6	98,3	99,0	93,9	89,1	
<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>93,0</b>	<b>94,3</b>	<b>92,6</b>	<b>65,3</b>	<b>96,7</b>	<b>97,4</b>	<b>97,8</b>	<b>98,3</b>	<b>99,0</b>	<b>97,6</b>	<b>96,8</b>		
1.8. Sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak	Euskara hutsean (%)	16,3	6,2	19,9	6,9	30,9	11,8	15,5	12,2	20,0	7,0	29,1	
	Ele bietan (%)	69,0	84,8	63,5	49,8	58,9	72,6	75,6	75,3	58,0	92,0	62,5	
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>85,3</b>	<b>90,9</b>	<b>83,4</b>	<b>56,7</b>	<b>89,8</b>	<b>84,3</b>	<b>91,1</b>	<b>87,5</b>	<b>78,0</b>	<b>99,0</b>	<b>91,6</b>	
2.1. eta 2.2. Herritarrari zuzendutako jarduerak	Euskaraz (%)	67,8	55,0	69,9	58,4	60,3	83,4	88,2	96,6	93,0	87,2	79,7	
2.3. eta 2.4. Herritarrari zuzendutako ikastaroak	Euskaraz (%)	52,4	40,8	54,6	5,0	60,5	59,4	56,4	72,8	61,0	31,9	65,0	

		Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak							Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak				
		Guztira	Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko en eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakundeen adierazleak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak			
			Eusko Jaurlaritza (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
1.2. Erakundeak herritarri bidalitako dokumentu edo idatzi ofizialak		Euskara hutsean (%)	13,0	18,4	9,1	9,8	3,7	10,7	13,0	7,9	4,3	7,3	28,6
		Ele bietan (%)	68,8	63,4	72,7	64,3	64,5	78,6	60,2	69,0	54,2	59,5	59,2
		<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>81,8</b>	<b>81,7</b>	<b>81,8</b>	<b>74,1</b>	<b>68,2</b>	<b>89,3</b>	<b>73,2</b>	<b>77,0</b>	<b>58,5</b>	<b>66,8</b>	<b>87,9</b>
1.3. Herritarrek euskaraz aurkeztutako idatziei erantzuteko erabilitako hizkuntza		Euskara hutsez (%)	64,0	63,8	64,1	72,7	48,9	68,8	61,8	58,6	59,1	57,1	71,0
		Ele bietan (%)	24,5	26,7	22,9	22,0	30,8	20,2	25,0	31,3	24,4	26,6	20,6
		<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>88,5</b>	<b>90,5</b>	<b>87,1</b>	<b>94,6</b>	<b>79,8</b>	<b>89,0</b>	<b>86,7</b>	<b>89,9</b>	<b>83,5</b>	<b>83,8</b>	<b>91,7</b>
Harrera gunea	2.3. Aurrez aurreko harreran erabilitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	73,9	71,9	74,6	49,0	42,2	91,7	68,2	62,9	47,6	64,8	82,7
	2.4. Aurrez aurreko harremanean herritarrek erantzuteko erabilitako hizkuntza	Euskaraz (%)	43,6	50,5	41,5	11,6	17,0	55,4	39,9	33,9	23,2	35,7	52,2
	2.6. Telefono bidezko harreran erabilitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	74,1	81,6	71,6	49,2	37,3	91,2	70,7	66,7	47,1	69,0	83,4
	2.7. Telefono bidezko harremanean, herritarrek erantzuteko erabilitako hizkuntza	Euskaraz (%)	39,7	53,1	35,2	11,8	16,8	47,1	41,4	39,5	23,3	37,7	53,0
Harrera guneetakoak ez diren langileak	3.2. Aurrez aurreko harreran erabilitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	64,6	68,7	61,5	33,8	55,2	76,2	63,6	64,3	41,4	60,1	82,2
	3.3. Aurrez aurreko harremanean herritarrek erantzuteko erabilitako hizkuntza	Euskaraz (%)	42,8	43,9	42,0	25,0	37,3	52,0	42,3	37,9	23,6	37,4	61,5
	3.5. Telefono bidezko harreran erabilitako hizkuntza, herritarrek hizkuntza esplizitatu arte	Euskaraz (%)	67,0	70,3	64,1	27,5	55,4	82,1	65,7	65,3	40,3	64,0	87,6
	3.6. Telefono bidezko harremanean, herritarrek erantzuteko erabilitako hizkuntza	Euskaraz (%)	43,9	45,1	42,8	16,7	33,6	57,5	39,8	37,5	21,2	36,5	58,7

		Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak						Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak				
		Guztira	Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko en eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakunde adierazleak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak		
			Eusko Jaurlaritza (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
4.1. Euskarazko eskaerei, erakundeak emandako erantzuna	Euskaraz (%)	72,7	78,2	69,3	57,5	60,5	83,0	80,5	77,2	65,4	81,8	91,8
4.2. Euskaraz artatzeko gai ez direnen jokabidea (herritarrekin ahozko harremanak dituztenak soilik)	Eskatzen diot gaztelaniaz hitz egiteko (%)	11,4	7,3	14,0	22,7	16,0	9,2	6,1	5,2	9,4	6,9	2,7
	Euskaraz hitz egiteko eskatzen diot, nahiz eta nik gaztelaniaz erantzun (%)	12,3	10,9	13,2	17,9	19,3	4,0	13,9	15,4	20,2	16,4	4,5
	Erakundearen protokolo bat dago eta beste lankide batek artatzen du (%)	3,4	3,1	3,6	6,2	5,4	0,7	2,9	4,9	6,8	1,8	0,1
	Erakundearen ez dago protokolorik, baina beste lankide bati eskatzen diot artatzeko (%)	1,6	1,0	2,0	0,7	3,2	1,0	2,1	3,4	4,1	1,7	0,8
	Ez dagokio. Gai naiz herritarra euskaraz artatzeko (%)	67,2	73,4	63,3	46,4	51,4	82,8	67,8	61,8	49,4	67,0	88,4
	Besterik (%)	4,0	4,2	3,9	6,1	4,7	2,4	7,1	9,3	10,2	6,2	3,6
	Guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
3.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia	Euskara hutsean (%)	23,5	22,6	23,9	10,9	21,0	31,8	22,7	30,3	1,0	13,4	48,0
	Ele bietan (%)	41,3	55,4	36,9	25,4	41,3	35,5	42,4	55,4	39,5	41,9	33,9
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	64,8	78,0	60,7	36,3	62,3	67,3	65,1	85,7	40,5	55,3	82,0
3.2. Barne informaziorako edota komunikaziorako tresnak	Euskara hutsean (%)	18,6	7,1	22,3	0,9	11,3	40,9	17,2	21,4	0,0	8,8	40,2
	Ele bietan (%)	44,3	79,2	33,0	48,0	30,9	31,8	70,7	73,9	84,6	69,3	58,7
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	62,8	86,3	55,3	48,8	42,2	72,7	87,9	95,3	84,6	78,1	98,9
5.2. Lan bileretako dokumentu idatzien hizkuntza	Euskara hutsez (%)	21,2	23,5	19,5	5,2	5,2	36,8	23,2	16,2	6,1	15,0	55,5
	Ele bietan (%)	25,9	28,5	24,1	22,9	17,4	31,9	25,4	25,0	15,7	27,2	26,2
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	47,1	52,0	43,6	28,1	22,6	68,7	48,6	41,3	21,8	42,2	81,7
3.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak (modu sistematikoan jasoz gero soilik)	Euskara hutsean (%)	7,5	12,0	6,0	0,0	2,2	10,3	23,4	13,5	0,0	15,9	51,5
	Ele bietan (%)	55,0	81,9	46,5	50,0	19,0	65,9	55,1	72,8	65,2	50,0	29,9
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	62,5	94,0	52,6	50,0	21,2	76,2	78,5	86,3	65,2	65,8	81,4
5.4. Erakunde barruko komunikazio ofizialetan erabilitako hizkuntza	Euskara hutsez %	22,2	27,3	18,5	4,9	3,7	35,6	25,1	17,4	7,3	18,3	56,3
	Ele bietan %	23,9	26,2	22,3	37,6	16,3	26,2	28,9	37,1	20,3	27,3	27,4
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	46,1	53,6	40,8	42,4	20,0	61,9	54,0	54,5	27,6	45,6	83,7
6.1. Lan bileretan ahoz erabilitako hizkuntza	Euskaraz (%)	34,5	35,6	33,8	17,2	13,9	59,2	38,3	32,1	14,9	30,2	72,1
6.2. Lankideen arteko aurrez aurreko harremanetan erabilitako hizkuntza	Euskaraz (%)	41,2	45,5	38,5	28,1	22,4	59,3	44,0	40,6	22,1	38,1	73,4

		Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak						Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak				
		Guztira	Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko en eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakunde adierazleak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak		
			Eusko Jaurlaritza (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
6.3. Lankideen arteko telefono bidezko harremanetan erabilitako hizkuntza	Euskaraz (%)	41,6	46,3	38,5	26,4	22,2	60,1	44,5	41,1	21,7	38,5	74,7
3.4. Programa informatiko orokorren euskarazko bertsioak instalatuta dauden lanpostuen ehunekoa	Euskarazko bertsioak instalatuta dauden lanpostuak (bb %)	14,6	17,4	13,7	0,0	5,7	28,2	51,6	41,8	91,6	26,8	66,6
7.1. Lanerako baliabide informatikorik erabiltzen al duzu?	Bai (%)	96,9	97,8	96,3	99,8	94,8	97,1	96,1	98,8	95,0	95,0	95,9
7.2. Gehien erabilitako programa eta aplikazio informatikoetatik, zenbatean erabiltzen da euskara (langileen erantzunak eta adierazlea)	<b>Adierazlea (%)</b>	26,3	27,8	25,3	10,4	8,2	48,2	27,5	26,9	9,8	20,3	53,8
	Beti/ia beti gaztelaniazkoak (%)	51,2	46,2	54,6	78,3	74,6	26,4	46,4	43,9	70,9	55,1	15,7
	Gaztelaniazkoak gehiagotan (%)	22,0	25,4	19,7	11,3	21,3	19,7	25,2	28,9	22,0	24,9	24,1
	Gaztelaniazkoak euskarazkoak bezainbeste (%)	7,4	8,8	6,4	5,6	2,0	11,1	10,3	11,3	5,3	8,6	16,4
	Euskarazkoak gehiagotan (%)	9,2	10,2	8,5	0,0	0,9	19,4	8,1	7,3	0,6	6,5	17,2
	Beti/ia beti euskarazkoak (%)	10,2	9,4	10,8	4,8	1,2	23,2	10,0	8,5	1,2	4,9	26,7
	Guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
4.1. Pertsonen kudeaketarako dokumentazioan erabilitako hizkuntza	Euskara hutsean (%)	14,7	12,9	15,3	14,8	10,5	21,8	10,1	6,8	0,0	6,1	27,2
	Ele bietan (%)	34,3	55,1	27,2	17,8	19,3	40,5	70,1	90,3	61,0	65,0	67,0
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	48,9	68,0	42,5	32,5	29,8	62,3	80,2	97,1	61,1	71,1	94,3
8.2. Azken 12 hilabeteetan formazioa zein hizkuntzatan jaso da (langileen erantzunak eta adierazlea)	Adierazlea (%)	24,4	31,8	19,8	15,3	6,7	41,1	26,9	25,1	16,5	18,0	52,2
	Gaztelania hutsean (%)	56,5	46,3	62,8	68,7	82,4	31,7	50,8	54,5	63,9	60,8	19,9
	Gaztelaniaz gehiago (%)	17,0	22,1	13,8	12,0	8,9	21,2	17,6	17,3	17,7	16,7	19,2
	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (%)	9,3	7,9	10,1	9,1	8,4	13,0	14,2	11,9	11,1	15,3	16,6
	Euskaraz gehiago (%)	6,9	5,5	7,7	9,4	0,2	19,4	8,0	6,0	3,2	3,8	20,5
	Euskara hutsean (%)	10,4	18,2	5,5	0,7	0,1	14,8	9,4	10,4	4,1	3,3	23,7
	Guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
4.2. Prestakuntzako ikastaroen dokumentazioan erabilitako hizkuntza	Euskara hutsean (%)	10,5	2,8	13,6	0,0	9,9	26,8	13,2	8,0	13,7	4,7	30,6
	Ele bietan (%)	42,7	66,8	33,3	20,0	24,4	57,1	64,4	82,1	26,2	73,9	63,9
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	53,2	69,6	46,9	20,0	34,3	83,9	77,6	90,1	39,9	78,6	94,5
	Euskara hutsez (%)	27,1	28,6	26,3	5,3	8,6	46,5	23,4	15,8	6,7	14,8	52,5
9.2. Herri erakundeetara bidalitako dokumentu edo agirietako hizkuntza	Ele bietan (%)	36,0	45,7	30,6	33,3	23,4	35,8	44,4	61,8	35,8	45,3	35,4
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	63,2	74,3	56,9	38,6	32,0	82,3	67,8	77,6	42,5	60,1	87,9
	Euskaraz (%)	52,3	58,8	48,6	29,3	29,6	73,7	54,0	48,9	26,6	50,1	79,4
9.4. Herri erakundeekiko ahozko harremanetako hizkuntza	Euskaraz (%)	52,3	58,8	48,6	29,3	29,6	73,7	54,0	48,9	26,6	50,1	79,4

		Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak						Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak				
		Guztira	Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko en eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakunde adierazleak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak		
			Eusko Jaurlaritzaz (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
10.2. Erakunde pribatuetara bidalitako dokumentu edo agirietako hizkuntza	Euskara hutsez (%)	14,3	15,1	13,9	0,9	5,1	26,0	18,8	13,4	6,1	9,7	45,6
	Ele bietan (%)	17,0	22,3	14,6	8,7	11,0	19,9	27,2	33,2	13,4	29,9	32,1
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>31,2</b>	<b>37,4</b>	<b>28,5</b>	<b>9,5</b>	<b>16,1</b>	<b>46,0</b>	<b>46,0</b>	<b>46,6</b>	<b>19,4</b>	<b>39,7</b>	<b>77,7</b>
10.4. Erakunde pribatuekiko ahozko harremanetako hizkuntza	Euskaraz (%)	30,8	34,3	29,0	17,5	16,4	45,1	37,7	32,6	17,6	34,0	63,6
11.2. Beste erakundeetara (aliatuak, taldeko enpresak, kolaboratzaileak...) bidalitako dokumentu edo agirietako hizkuntza	Euskara hutsez (%)	12,5	12,8	12,4	0,7	3,8	23,8	16,5	12,2	5,7	8,7	40,9
	Ele bietan (%)	23,7	31,0	20,4	4,8	16,4	28,9	35,8	40,6	20,8	38,7	40,7
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>36,2</b>	<b>43,7</b>	<b>32,8</b>	<b>5,4</b>	<b>20,2</b>	<b>52,6</b>	<b>52,3</b>	<b>52,8</b>	<b>26,5</b>	<b>47,4</b>	<b>81,5</b>
11.4. Beste erakundeekiko (aliatuak, taldeko enpresak, kolaboratzaileak...) ahozko harremanetako hizkuntza	Euskaraz (%)	33,7	37,4	31,9	14,1	20,4	51,2	40,4	36,3	19,7	35,8	66,1
5.1. Erakundeak ba al du euskararen erabilera normalizatzeko planik?		47,0	60,1	42,6	25,7	21,4	75,0	Galdera hau ez zen egin admin orokorreko erakundeetan				
5.2. Euskararen erabilera planaren jarraipena egiten ote duten erakundearen zuzendaritza batzordeko kideek? (Ehunekoak, plana duten erakundeekiko)	Bai, zehatutako bileretara joaten dira	58,9	66,4	55,3	100,0	54,8	50,2	81,2	70,2	90,4	93,2	89,1
	Bai, adierazleen bilakaerari buruzko hausnarketan parte hartzen dute	40,0	41,6	39,2	100,0	11,2	42,0	51,1	31,9	0,4	76,2	48,2
	Bai, hobekuntzei eta neurri zuzentzaileei buruzko hausnarketan parte hartzen dute	53,1	56,0	51,7	100,0	11,2	60,5	39,7	46,8	7,8	40,9	32,8
	Bai, erabilera planen diseinuan parte hartzen dute	46,3	41,6	48,5	50,0	11,2	61,7	39,2	59,7	3,4	18,5	52,8
5.3. Zuzendaritzako zenbat kidek parte hartzen dute jarraipenean (Ehunekoak, plana duten erakundeekiko)	Zenbatak (adierazlea)	48,5	45,9	49,8	50,5	43,8	51,9	42,1	46,7	14,1	53,4	47,6
5.4 eta 5.5. Erakundearen kudeaketan, zenbateraino txertatuta dago euskararen kudeaketa	Zenbateraino (adierazlea)	65,6	57,9	68,2	49,9	65,7	77,7	55,1	56,1	20,6	56,0	69,5
12.2. Idatzizko lanaren sortze hizkuntza	Euskara hutsez (%)	22,9	26,4	20,5	6,1	7,7	35,4	24,6	20,2	9,1	17,4	50,6
	Ele bietan (%)	20,0	22,7	18,2	8,2	11,0	27,5	23,1	28,9	14,6	23,3	23,3
	<b>Euskaraz + ele bietan (%)</b>	<b>42,9</b>	<b>49,1</b>	<b>38,7</b>	<b>14,3</b>	<b>18,7</b>	<b>62,8</b>	<b>47,8</b>	<b>49,1</b>	<b>23,6</b>	<b>40,7</b>	<b>74,0</b>

	Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak						Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak					
	Guztira	Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko en eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakundeen adierazleak: Aldundiak eta Batzar Orokorrak, mankomunitateak eta udalak			
		Eusko Jaurlaritza (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
5.6. Prozedura administratiboetan estandarizatutako dokumentuak (%) (adierazlea)	44,0	49,6	42,0	27,3	33,8	57,5	70,7	79,5	61,9	64,3	71,9	
5.7. Herritarrekiko harremanetan estandarizatutako dokumentuak (%) (adierazlea)	63,2	64,5	62,8	46,7	56,0	77,0	76,4	81,8	60,4	80,7	77,1	
5.8. Hizkuntza Ofizialen erabilerarako irizpideak ezarriak ditu erakundeak?	58,1	84,9	48,6	22,9	35,6	74,1	95,0	100,0	99,1	90,2	95,3	
5.9. Erakundeak ba al dago euskara normalizaziorako teknikaririk edo euskara gaien ardura duen pertsonarik?	57,3	64,4	54,8	48,6	46,3	67,8	Galdera hau ez zen egin admin orokorreko erakundeetan					
13.1. Zenbateraino ezagutzen dituzu zure erakundearen hizkuntza irizpideak? (adierazlea eta langileen erantzunak)	<b>Adierazlea (asko+nahikoa)</b>	69,1	71,4	67,5	67,9	57,5	79,3	66,0	66,4	63,6	60,4	74,2
	Asko (%)	20,0	21,6	19,0	6,6	10,8	31,3	14,9	12,4	9,9	13,8	21,4
	Nahikoa (%)	49,0	49,8	48,5	61,3	46,7	48,0	51,1	54,1	53,7	46,6	52,8
	Gutxi (%)	20,3	19,4	20,8	25,3	24,4	15,6	26,9	29,5	29,0	30,4	19,1
	Batere ez (%)	7,0	6,0	7,7	5,2	10,7	4,9	5,4	2,9	5,8	7,2	4,8
	Erakundeak ez ditu hizkuntza irizpideak ezarrita (%)	3,6	3,2	3,9	1,7	7,3	0,2	1,8	1,1	1,6	2,0	1,9
	<b>Guztira (%)</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
13.2. Zuk zure lanean zenbateraino betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak? (adierazlea eta langileen erantzunak)	<b>Adierazlea (asko+nahikoa) (%)</b>	77,6	81,6	75,1	67,9	66,5	87,0	78,8	76,0	69,1	76,7	89,7
	Asko (%)	38,6	41,6	36,7	21,9	27,5	51,2	32,3	26,5	20,7	28,1	52,6
	Nahikoa (%)	39,0	40,0	38,4	46,0	39,0	35,8	46,5	49,5	48,4	48,6	37,1
	Gutxi (%)	9,1	7,7	10,1	20,5	10,9	6,5	12,6	15,6	17,9	13,5	6,6
	Batere ez (%)	1,7	0,5	2,4	4,8	2,9	1,2	0,9	0,7	1,0	1,5	0,3
	Ez ditut ezagutzen (%)	11,5	10,2	12,5	6,9	19,7	5,2	7,6	7,7	12,1	8,3	3,4
	<b>Guztira (%)</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
14.1. Zein balorazio egiten duzu zure erakundearen euskararen erabilerak duen bilakaerari buruz? (adierazleak eta langileen erantzunak)	<b>Adierazlea (%) Oso positiboa+positiboa</b>	56,8	61,9	53,4	37,3	38,8	74,5	53,5	46,9	40,0	50,9	73,2
	<b>Adierazlea (%) Oso negatiboa+negatiboa</b>	12,7	12,0	13,1	20,1	15,2	8,7	12,1	12,1	13,3	14,2	7,0
	Oso negatiboa (%)	2,1	2,1	2,0	0,3	2,8	1,4	2,5	1,8	2,7	3,4	1,5
	Negatiboa (%)	10,6	9,9	11,1	19,8	12,4	7,3	9,6	10,3	10,6	10,8	5,5
	Ez negatibo ez positiboa (%)	30,5	26,1	33,5	42,6	46,0	16,8	34,4	41,0	46,7	34,9	19,8
	Positiboa (%)	43,8	48,7	40,6	32,1	33,4	50,9	43,7	41,2	36,6	42,3	53,0
	Oso positiboa (%)	13,0	13,2	12,8	5,2	5,4	23,6	9,7	5,7	3,3	8,6	20,2
	<b>Guztira (%)</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	Asko egin delako (%)	23,1	23,7	22,6	0,4	9,3	44,0	19,9	13,0	8,8	17,8	37,2
	Nahikoa egin delako (%)	36,5	40,9	33,6	37,2	35,5	31,0	36,9	38,7	36,6	37,8	33,3
14.2. Zergatik? (langileen erantzunak)	Gutxi egin delako (%)	19,6	19,1	19,9	30,4	24,1	12,1	19,0	21,5	19,8	22,5	10,8
	Gehiegi egin delako (%)	1,4	1,0	1,6	9,5	0,0	1,2	1,4	1,2	2,7	0,8	1,3
	Ed/Ee (%)	19,4	15,3	22,2	22,5	31,2	11,7	22,8	25,7	32,1	21,0	17,4
	<b>Guztira (%)</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0



		Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak						Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak				
		Guztira	Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakundeen adierazleak: Aldundiak eta Batzar Orokorrek, mankomunitateak eta udalak		
			Eusko Jaurlaritzaren (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
14.4. Plangintzaldi honetan, zein mailatan parte hartu duzue zure erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan? (adierazlea eta langileen erantzunak)	<b>Adierazlea (asko+nahikoa)(%)</b>	40,4	44,4	37,8	46,7	21,8	53,6	35,4	29,3	28,7	36,7	43,0
	Asko (%)	9,9	9,5	10,2	15,3	4,5	15,5	7,5	5,7	6,3	6,6	11,5
	Nahikoa (%)	30,5	34,9	27,6	31,4	17,3	38,1	27,9	23,6	22,4	30,1	31,5
	Gutxi (%)	28,9	30,4	27,9	30,3	29,8	25,3	36,3	37,5	31,2	38,2	36,3
	Batere ez (%)	15,2	14,1	15,9	15,2	22,0	9,3	18,3	21,7	29,2	15,4	11,8
	Erakundeak ez du euskararen normalizaziorako ekimenik aurrera eraman (%)	8,1	5,1	10,1	6,6	15,7	4,4	2,3	2,5	3,0	2,2	1,4
	Ez dut aukerarik izan euskararen normalizaziorako ekimenetan parte hartzeko (%)	7,4	6,0	8,3	1,2	10,7	7,4	7,7	9,0	7,9	7,5	7,6
	<b>Guztira (%)</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
15.1 Zein da zuk egiaztatutako euskara mailarik altuena Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuari jarraiki?	A1	1,6	1,8	1,5	0,3	2,1	1,2	Galdera hau ez zen egin admin orokorreko erakundeetan				
	A2	2,5	2,4	2,5	0,0	3,9	1,4					
	B1	4,9	3,3	6,0	10,2	7,5	2,6					
	B2	17,5	15,5	18,8	29,9	19,4	15,9					
	C1-EGA-Euskaltzaindia D	45,3	52,0	40,9	31,0	23,2	64,1					
	C2-Euskaltzaindia B	4,0	4,8	3,5	4,9	0,8	5,8					
	Batere ez	17,7	13,2	20,7	22,8	32,4	6,8					
	Ez dakit	6,4	7,0	6,1	0,8	10,7	2,3					
	<b>Guztira</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0					

Iturria: Siadeco, 2023

### Gainerako sektore publikoaren adierazle orokorrak eta administrazio orokorreko erakundeen adierazle orokorrak

	Gainerako sektore publikoko erakundeen adierazleak						Administrazio orokorreko erakundeen adierazleak				
	Guztira	Zein erakunderen menpekoa den		Lurralde eremuko erakunde eragin esparrua			Guztira	Eusko Jaurlaritzako Sail + Erak autonomiadunen adierazleak	Lurralde mailako erakunde eragin esparruak: Aldundiak eta Batzar Orokorrek, mankomunitateak eta udalak		
		Eusko Jaurlaritzaren (%100ean)	Gainerakoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Zerbitzu-hizkuntza</b>	70,5	73,3	69,1	51,2	60,8	78,3	73,1	73,5	64,2	69,6	81,7
<b>Lan-hizkuntza</b>	44,4	53,8	40,2	25,5	24,2	61,8	53,6	55,8	31,7	46,8	77,5
<b>Guztira</b>	58,1	64,1	55,4	39,0	43,4	70,4	63,8	65,1	48,8	58,8	79,7

Iturria: Siadeco, 2023

## 7. Ondorioak

### 7.1. Ikerlanaren objektua eta lagina

#### **Dimentsioa: 220 erakunde eta 13 mila langile inguru**

Sektore publikoan kokatzen diren EAEko gainerako erakundeetan ere egin da, herri erakundeetan egindako ebaluazioaren parekoa. Izaera juridiko ezberdineko erakundeek osatzen dute gainerako sektore publiko hori: merkataritza-sozietateak, fundazioak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, eta irabazi asmorik gabeko bestelako erakunde publiko batzuk. Ikerketaren unibertsoko erakundeak, guztira 218 dira eta 13.200 langile inguruko enplegua sortzen dute. Oraingoan, VI. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko, irizpide ezberdinak erabili dira eta V. Plangintzaldikoa egiteko baino erakunde gehiago hartu dira kontuan.

#### **Lagina: 84 erakunde eta 1.298 langile**

Ebaluazioa ez da egin entitate guztietan, baizik eta lagin adierazgarri bateko erakundeetan bakarrik. Laginketa geruzatua egin da, erakundeen eragin eremua eta tamainaren arabera. Ondoren, datuak haztatu egin dira, laginketarako erabilitako aldagai berdinak erabilia.

Datuak, bi informazio iturri erabilia lortu dira, erakundeetako solaskideak eta langileak. Guztira 84 erakunde hartu dute parte ebaluazioan eta 1.298 behargin inkestatu dira.

### 7.2. Hizkuntza gaitasuna

#### **Hizkuntza gaitasuna: orokorrean, herri erakundeetan adinakoa bai, baina baxua Bizkaiko erakundeetan**

Langileen ia hiru laurden (% 73) gai dira euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko, eta idazteko gaitasuna ere maila berdinean dago. Zenbat eta gazteago, orduan eta gaitasun hobe, baina lurralde arteko aldeak oso handiak dira. Gipuzkoan bai, hamarretik bederatzi gai dira euskaraz mintzatzeko baina Araban % 62, eta Bizkaian, oraindik eta gutxiago, erdiak baino zertxobait gehiago (% 53).

#### **Harrera guneetan langile gehiegok dakite euskara**

Harrera guneetakoak eta gainerako lanpostuetakoak bereizita, harrera guneetan, 15 puntu altuagoa da langile euskaldunen pisua, % 86 gai dira euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko; herri erakundeetan, baxuagoa da harrera guneetako langileen euskara maila (% 81) eta alde txikiagoa dago harrera guneen eta gainerako lanpostuen artean, 10 puntukoa.

### 7.3. Zerbitzu-hizkuntza

#### IRUDIA

##### **Erakundeen iruditeriko elementu idatzietan zaindua dago hizkuntzen erabilera**

Errotulazioa, irudi korporatiboa, argitalpenak, webguneak eta erakunde horiek dituzten iruditeriko elementu idatziak, erakunde gehienek (% 90) euskaraz dituzte, ele bietan gehiago, euskaraz bakarrik baino. Euskararen presentzia zertxobait baxuagoa da, sare sozialetan eta komunikaziorako aplikazio digitaletan (% 85), eta batez ere, hedabideen bidez zabaldutako berrietan (% 69).

Orokorrean, Eusko Jaurlaritzaren menpekoak diren erakundeetan, eta Gipuzkoan kokatuak dauden erakundeetan, maila altuagoan bermatzen da euskararen erabilera erakundearen irudiari lotutako elementuetan.

##### **Ahozko jardunean asko jaisten da euskararen erabilera**

Jendaurreko ekitaldietan, erakunde ordezkariak edo teknikariak ahoz azaldutako informazioaren ia erdia, euskaraz eman gabe geratzen da, euskaraz egiten dena % 54 baita. Gehiago Gipuzkoan (% 66) eta Jaurlaritzaren menpekoetan (% 59).

##### **Herritarrentzat antolatutako jardueretan, euskarazko eskaintza ez da guztiz bermatzen**

Erakundeek antolatutako erakusketa, hitzaldi, kanpaina eta bestelako jardueretan, % 68 da euskarazko eskaintzaren adierazlea eta gainerakoa, hau da, % 32, gaztelaniaz bakarrik eskaintzen da. Euskarazko eskaintza gehiago bermatzen dute Gipuzkoako erakundeek (% 83), gutxiago ordea Araba eta Bizkaikoek (% 60 inguru). Ikastaroetan, 16 puntu baxuagoa da euskarazko eskaintza (% 52) – kontuan hartu behar da hala ere, herritarrentzako ikastaroak, hiru erakundeetatik bakarrik antolatzen dituela (% 31) –.

## HERRITARREKIKO HARREMANAK

### Idatziz

#### Herri erakundeek baino gutxiago gaztelania hutsean, % 69 ele bietan eta % 13 euskaraz

Gainerako sektore publikoko erakundeetan, herritarrari bidalitako dokumentuen % 69, ele bietan bidaltzen dira, eta % 13 euskara hutsean; guztira, % 82 euskaraz, herri erakundeekin alderatuta, 9 puntu gainetik. Gaztelania hutsean, erakunde hauetan % 18, herri erakundeetan % 27.

#### Euskarazko idatziei euskaraz erantzun, neurri oso altuan (% 89)

Herritarrek euskaraz aurkeztutako idatziak, batez beste, hirutik ia bi (% 64) euskaraz erantzuten dira, eta lautik bat (% 25) ele bietan. Datu horiek hobeak dira, euskaraz ongi idazteko gaitasuna duten langileetan, eta adinez, 36-45 bitartekoetan.

### Ahozko harremanak

#### Ez dago orokortua herritarrari lehen hitza euskaraz egitea

Herritarrari harrera egiteko garaian, harrera guneetako langileek, batez beste, % 74ean agurtzen dute euskaraz, bai aurrez aurre, baita telefonoz ere; harrera postuetan ez dauden langileetan, baxuagoa da zifra hori: % 65 aurrez aurre eta % 67 telefonoz.

#### Herritarrek zer hizkuntzatan erantzuten duten, herri administrazioetako datu bera atara da: % 42 inguru

Langilearen lehen hitza entzun ondoren, batez beste, herritarren %40 - % 43 inguruk erantzuten dute euskaraz.

#### Zerbitzua euskaraz jaso nahi dutenekin, % 73 egiten da euskaraz

Herritarra langilearengana zuzentzeko aukeratutako hizkuntza euskara denean, euskararen batez besteko erabilera % 73 da.

## 7.4. Euskara lan-hizkuntza

### **Erakunde barneko hizkuntza paisaia, komunikazio euskarriak eta prozedura administratiboetako Hizkuntza**

#### **Lanari lotutako hizkuntza paisaiaren bi heren (% 65) dago euskaraz**

% 65ean euskaraz dago lanari lotutako hizkuntza paisaia, % 41 ele bietan eta % 24 euskaraz. Jaurlaritzaren menpeko erakundeetan altuagoa da euskararen presentzia (% 78), ele bietakoa altuagoa delako (% 55). Gipuzkoako erakundeetan, pisu altuagoa du euskara hutsezko erabilerak (% 32), eta baxuagoa aldiz ele bietakoak (% 36).

#### **Herri erakundeetan baino gehiago daude erakunde hauetan barneko komunikazioak gaztelania hutsean**

Ele bietan daudenak % 44 dira gainerako sektore publikoan eta % 71 herri erakundeetan; euskaraz bakarrik, ez dago halako alderik: % 19 gainerako sektore publikoan eta % 17 herri erakundeetan.

Prozedura administratiboetan erabilitako hizkuntzaren jarraipen sistematikorik ez da egiten erakunde gehienetan (% 72). Egiten dutenek, batez beste, % 63an erabiltzen dute euskara erakunde barruko prozedura administratiboetan, kasu gehien gehienetan gaztelaniarekin batera (% 55).

Lanari lotutako hizkuntza paisaian eta barneko informazio eta komunikazio euskarrietan, batez beste, hirutik bikoia da euskararen erabilera (soilik edo gaztelaniarekin batera); hori horrela izanda, erdara hutsean egiten da hirutik batean.

### 7.4.1. Idatzizko jarduna

#### **Erakunde barneko idatzizko jarduna herri erakundeetako baino erdaldunagoa da**

Erakunde barnerako langileek idazten dituzten agiri eta dokumentu ofizialak (prozedura administratiboak, bileretako dokumentuak, bestelako barne komunikazioak...), batez beste, euskaraz edo ele bietan bideratzen direnak, % 46 dira (gutxi gorabehera, horien erdiak euskara hutsez eta beste erdiak ele bietan). Gipuzkoako erakundeetan (% 62) eta euskaraz ongi idazten duten langileen artean (% 59) hobeak dira datuak; bi kasuotan, euskara hutsean egiten da idatzizko lan gehiago.

Lan bileretako dokumentuen erdia baino gutxiago dago euskaraz (% 47): % 26 ele bietan eta % 21 euskaraz bakarrik.

Erakundearen barnerako idatzizko jardunean, gaztelania hutsezko jarduna nagusitzen da (% 53 inguru).

#### 7.4.2. Ahozko jarduna

##### **Ia herri erakundeetan bezainbeste egiten da lankideekin euskaraz: % 41**

Lankideekin hitz egiterakoan, euskararen batez besteko erabilera % 41ekoa da; aurrez aurre aritu ala telefonoz, apenas dagoen alderik.

Lan bileretan, euskararen erabilera zertxobait baxuagoa da, batez beste, % 35.

#### 7.4.3. Baliabide informatikoak

##### **Programa informatikoen euskarazko bertsioak ez dira erakunde hauetara zabaldu**

Erakundeetako solaskideek adierazitakoaren arabera, batez beste, lanpostuen % 15etan bakarrik daude euskarazko bertsioak instalatuta. Gipuzkoan gehiago (% 28). Eta hamar langiletik 7k baino gehiagok adierazi dute berriz, (nagusiki) gaztelaniaz dauden aplikazioak erabiltzen dituztela lanerako.

#### 7.4.4. Langileen kudeaketa eta prestakuntza

##### **Erdara da nagusi baina alde handia dago erakunde batzuetatik besteetara**

Pertsonalaren kudeaketarekin lotura duten dokumentuen ia erdia (% 49) dago euskaraz, gehiena (% 34) ele bietan. Gehiago Gipuzkoan (% 62) eta askoz ere gutxiago Araban eta Bizkaian (% 30 inguru). Jaurlaritzaren menpeko erakundeetatik besteetara ere badago aldea, % 68 eta % 49 hurrenez hurren.

Langileei zuzendutako prestakuntza ikastaroen informazioa zabaltzerakoan, euskaraz egiten da erdia baino gehiago (% 53), ele bietan batez ere. Gero ordea, ikastaro gehienak erdaraz egiten dira; lau langiletik batek bakarrik (% 27) jaso du formazioa euskaraz; Gipuzkoako erakundeetan, azken zifra hori bikoitza da.

#### 7.4.5. Kanpo harremanak, erakunde publikoekin eta enpresa pribatuekin

##### **Idatziz, beste herri erakunde batera bidali edo enpresa batera, erdira jaisten da euskaren erabilera**

Herri erakundeetara, euskaraz igortzen da dokumentazio gehiena (% 63),—% 27 euskara hutsean eta % 36 ele bietan— Aldiz, entitate pribatuetara eta bestelako erakundeetara (erakunde kolaboratzaileak, aliatuak...) ere, dokumentuen herena bakarrik, % 31 eta % 36, hurrenez hurren.

##### **Gainerako sektore publikoan ere, lankideekin baino gehiago erabiltzen da euskara beste herri erakundeekin**

Ahoz ere, herri erakundeetako langileekin egiten euskaraz gehiago (batez besteko erabilera % 52 izanik), erakundeak kontratatutako enpresekin (% 31) eta beste erakundeekin (% 34). Lankideekin edo herri erakundeekin, 11 puntuko aldea dago, lankideekin gutxiago.

#### **7.4.6. Hizkuntza kudeaketa eta irizpideak**

##### **Euskara plana, erdiek baino gutxiagok dute**

Sektore publikoko gainerako erakundeen erdiek baino gehiagok (% 53) ez dute oraindik euskararen erabilera normalizatzeko planik. Gipuzkoan, lautik hiruk badute (% 75). Jaurlaritzaren menpekoetan ere nahiko zabalduak daude (% 60) baina Araba eta Bizkaian diharduten erakundeen % 25 eta % 21ek besterik ez.

Plana egina duten erakundeen erdia baino gehiagotan, zuzendaritza batzordeetako kideek egiten dute planaren jarraipena: 10 erakundetik 6tan (% 59) bileretan parte hartuz, eta % 53tan, hobekuntza eta neurri zuzentzaileei buruzko hausnarketan ere parte hartuz.

##### **Euskara ez dakiten langileek, gutxi hartzen dute parte euskara ekimenetan**

Orokorrean, erakunde bertatik bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan, hamar langiletatik lauk parte hartu dutela erantzun dute – parte hartze handia % 10ek eta nahikoa %31k –. Alde handia dago ordea euskaraz jakin edo ez: euskara ongi hitz egiteko gai diren langileen erdiek baino gehiagok (% 51) hartzen dute parte, aldiz, euskara ez dakitenetan, %8k baino ez.

##### **Hiru erakundetatik bitan, erakundearen kudeaketan, hizkuntzen kudeaketa ere kontuan hartzen dela jaso da**

Erakundearen gestio plan eta kudeaketa orokorrean, euskararen kudeaketa, batez beste % 65an txertatuta dagoela adierazi dute erakundeetako solaskide edo ordezkariak; gehiago Gipuzkoako erakundeetan (% 78).

##### **Hamarretik sei baino gutxiagok dute euskara arduraduna**

Erakundeen % 57k dute euskara teknika edo euskara gaien arduraduna duen pertsonaren bat. Ehunekoa altuagoa da Gipuzkoako erakundeetan (% 68) eta Eusko Jaurlaritzaren menpekoetan (% 64).

##### **Herri erakundeetan baino 5 puntu baxuagoa da sortze hizkuntzaren datua**

Langileek lanean idatzi behar dituzten dokumentuak, bete behar dituzten inprimakiak, bidali behar dituzten mezu elektronikoak, eta abar, batez beste, % 43 dira euskaraz sortutakoak, horien erdiak euskara hutsez (% 23) eta ia beste hainbeste ele bietan (% 20). Euskaraz idazteko gaitasuna (ongi edo nahiko ongi) % 73 izanda, 30ko jaitsiera dago gaitasunetik sortze hizkuntzara. Hala ere badira aldeak eta batez besteko horren gaineratik egiten da, Gipuzkoako erakundeetan % 63, euskaraz ongi idazteko gai diren langileen artean % 60, Jaurlaritzaren menpeko erakundeetan % 49 eta emakumezkoen artean % 48).

Herri erakundeetan, % 48 da sortze hizkuntzaren datua, gainerako sektore publikoan baino 5 puntu altuagoa.

## Hizkuntza irizpideak

### Hamarretik seik baino gutxiagok dituzte hizkuntza irizpideak ezarrita

Erakundearen ordezkariak adierazitakoaren arabera, Hizkuntza Ofizialen erabilerarako irizpideak finkatuta dituzte sektore publiko gainerako erakundeak, % 58 dira. Hala ere, Jaurlaritzaren menpekoetan ia gehienetan badaude (% 85) eta Gipuzkoetan, lautik hirutan ere bai (% 74).

Irizpideak ezagutzen dituzten langileei galdetuta, hamarretik zazpi, asko (% 20,0) edo nahikoa (% 49,0) ezagutzen dituztela adierazi dute.

Eta irizpideak bete, ezagutzen dituzten langileen artean, hamarretik ia bederatzik (% 87).

### Dokumentuen estandarizazio maila:

Herritarrekiko harremanetan erabilitako dokumentuetatik, euskaraz estandarizatutakoak batez beste, % 63 dira eta prozedura administratiboetan erabilitakoetatik, aldiz, ia 20 puntu gutxiago, % 44. Bi kasuetan, euskaraz estandarizatutako dokumentuen ehunekoa altuagoa da Gipuzkoako erakundeetan, eta Eusko Jaurlaritzaren menpekoetan.

## 7.4.7. Euskararen erabileraren bilakaerarekiko balorazioak

### Euskararen erabilera zein norabidetan doan, gainerako sektore publikoko behargin gehienek ere, balorazio positiboa egiten dute

Erdiek baino gehiagok (% 57), bere erakundearen euskararen erabilerak izandako bilakaera positiboki baloratzen dute eta askoz gutxiagok (% 13) negatiboki. Gainerakoek (% 30 inguru) ez dute baloraziorik egin, nagusiki, behar beste informazio ez dutelako, edo, beren erakundearen gehien erabiltzen den hizkuntza, ez delako ez euskara ez gaztelania, baizik eta ingelesa eta atzerriko beste hizkuntzak. Gipuzkoako erakundeetako langileak baikorrak dira (% 75) eta langileen soslaiari erreparatuta, 55 urtetik gorakoek ere iritzi positiboagoa dute (% 67). Euskara sustatzeko nahikoa ahalegin egiten dela erantzun dute gehienek (% 56) eta gutxiegi bostetik batek (% 20).

Euskararen bilakaerarekin baiko direnek (% 57), nabarmendu dutena da, euskararekiko jarrerak hobetu direla eta sentsibilizazioan eta erabileran, aurrera egin dela. Alde horretatik, langile berrien eta gazteen ekarpena nabarmendu dute.

Langile multzo batek adierazi du euskara ikasteko aukerak eman eta erraztasunak eskaini beharko lituzketela entitateek. Badirudi, beraz, zenbait entitatetan ez dela halakorik eskaintzen, edo eskaintzak ez dituela langileen beharrak edo nahiak asetzen. Euskara ikasteko aukerak murriztu direla jaso da edo ez dela behar adinako erraztasunik ematen. Bilakaeraren balorazio negatiboa egin dutenek, euskararekiko interes falta edo jarrera txarrak ere antzematen dituzte entitatean. Kasu batzuetan, baita zuzendaritzen aldetik ere.



## **Euskara teknikari edo ordezkarien balorazioa: azken plangintzaldian izandako lorpenak eta hutsuneak**

### **Lorpenak:**

- Plan Estrategikoak eta kudeaketa-planak edukitzea edo martxan jarri izana azpimarratu dute batzuek. Bikain ziurtagiria lortu izana edo hura eskuratzeko aurkeztu izana nabarmendu dute beste batzuek.
- Entitateko dokumentazioan eta barne komunikazioan euskarak duen presentzia maila altua.
- Langileek hizkuntza-profilak eta derrigortasun-datak izateak, eta kontratazioetako hizkuntza-klausulak.

### **Hutsuneak:**

- Lan-hizkuntza eta sortze-hizkuntza gisa euskararen erabilera mugatua izatea.
- Arduradunen inplikazio handiagoaren beharra.

### **Erronkak:**

- Euskara lan-hizkuntza gisa sustatzea eta Euskara-Planak garatzea.
- Bestelakoak: hizkuntza-irizpideak finkatzea, baliabide informatikoak eta barne-dokumentazioa euskaratzea, hizkuntza-profilak, formaziorako baliabideak...



## C. ERAKUNDE ORDEZKARIAK

## SARRERA

VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan, erakunde publikoetako ordezkari politiko eta izendapen askeko arduradun eta zuzendarien datuak ere jaso dira, inkesta bidez. Lehen aldiz egin da inkesta hau, erakunde-ordezkarien hizkuntza gaitasuna eta hizkuntza-erabileraren datuak jasotzeko, eta bide batez, norbere erakundeko hizkuntza irizpideen ezagutzaz eta euskara planari buruzko iritziez ere galdetzeko.

## 1. Helburua

EAEko udaletako eta lurralde zein erkidego mailako erakunde publikoetako ordezkari politiko, izendapen askeko zuzendari eta aholkularien ondorengo datu linguistikoak jaso dira:

1. Hizkuntza gaitasuna, hau da, ahozko harremanetan euskaraz egiteko, eta idatziz, erakundeko lan funtzioak euskaraz betetzeko.
2. Erabilera, hau da, erakundearen ahozko harremanetan euskaraz zenbat egiten den, eta erabilitako dokumentuetatik, zenbat dauden euskaraz.
3. Erakundeko hizkuntza irizpideen eta euskara planaren, ezagutza maila eta balorazioa.
4. Euskara erabili eta erakundeak dituen euskara planeko helburuak lortzeko, zer ahalegin egiten den.

## 2. Metodologia

### 2.1. Aztertutako erakundeen unibertsoa eta lagina

#### Eusko Jaurlaritza

Sailburu, sailburuorde, zuzendari, aholkulari eta izendapen askeko bestelako kargudunen unibertsoa 213 lagunek osatzen dute eta 141 erantzun lortu dira, % 66ko erantzun maila; lortutako laginaren akats tarteak, %  $\pm 4,81$ koa da (%95eko konfiantza mailarekin).

#### Foru aldundiak

Arabako Foru Aldundian, unibertsoa osatzen zuten 37 erakunde ordezkari eta bestelako kargudunetatik, 20 izan dira erantzun dutenak (%  $\pm 15,06$ ko akats-tarteak), Gipuzkoako Foru Aldundian, 45etik 35 (%  $\pm 7,90$ eko akats-tarteak), eta Bizkaiko Foru Aldundian lortutako erantzun maila oso baxua izan da, 38tik 12ren erantzunak jaso dira eta lortutako laginaren adierazgarritasun maila baxuegia da. Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak ezin izan dira txosten honetan jaso.

Hiru lurraldeetako Batzar Nagusiekin ere egin da ahalegina baina 18 erantzun bakarrik jaso dira.

#### Udalak

EAEko 251 udalerrietako udal hautetsiak guztira 2.723 dira. Inkesta egiteko laginean sartu diren udalak, herri erakundeen VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egindako berdinak izan dira, hau da, 5 mila biztanlez gorako udal guztiak eta 5 mila biztanlez beherako udalen lagin bat. Guztira, 129 udaletako informazioa eskuratzen saiatu gara, erakunde horietako udal ordezkariak 1.709 izanik. 678 udal ordezkariaren datuak jaso dira, %39,7ko erantzun mailarekin. EAEko udal hautetsi guztien unibertsoarekiko, lortutako laginaren akats-tarteak, % + 3,26koa da (%95eko konfiantza mailarekin).

#### 61. taula. Erakunde ordezkarien unibertsoa, lagina eta akats-tarteak

		Unibertsoa	Lagina	Akats-tarteak	
		Kopurua	Kopurua	(%95eko konfiantza mailarekin) %	
<b>Eusko Jaurlaritza</b>		213	141	$\pm 4,81$	
<b>Foru Aldundiak</b>	Arabako Foru Aldundia	37	20	$\pm 15,06$	
	Gipuzkoako Foru Aldundia	45	35	$\pm 7,90$	
<b>Udalak</b>	Gune soziolinguis- tikoaren arabera	1 eta 2 gune SL	1.194	329	$\pm 4,60$
		3 eta 4 gune SL	1.529	349	$\pm 4,61$
	Lurralde Historikoaren arabera	Arabako udalak	437	55	$\pm 12,37$
		Bizkaiko udalak	1.300	351	$\pm 4,47$
		Gipuzkoako udalak	986	272	$\pm 5,06$
	Udalak guztira	2.723	678	$\pm 3,26$	

Iturria: Siadeco, 2023

## 2.2. Prozedura metodologikoa

### Galdetegia

Online galdetegi bidez jaso dira erakunde-ordezkarien erantzunak.

### Erakunde-ordezkariekiko kontaktua:

Erakunde bakoitzarekin adostu da, bere erakundeko ordezkariari galdetegia nola bidali eta jarraipena nola egin, erakunde bertatik edo Siadeco-tik. Baita galdetegiak modu pertsonalizatuan bidali, edo esteka ireki baten bidez bidali ere —erabateko anonimotasuna ziurtatuz—.

### Datuen haztatzea:

Udalen kasuan, lortutako udal hautetsien lagineko datuak, haztatu egin dira gune soziolinguistikoaren arabera, EAE mailako datu orokorrak kalkulatzeko. Haztapan indize hauek erabili dira:

		Haztapan indizea
Gune soziolinguistikoa	1 eta 2 gune SL	0.903629668.
	3 eta 4 gune SL	1.087730969.

### Landa lana egin den garaia

2022ko abendutik 2023ko martxora luzatu da landa lana.

### 3. Eusko Jaurlaritzza

#### 3.1. Inkestatuen profila

Guztira 141 erantzun jaso dira (unibertso osoaren % 66). Haien karguak zein diren eta generoaren araberako ehunekoak zein diren, hurrengo taulak erakusten du.

**62. taula.** Ikerketan parte hartutako Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkarien karguak eta generoa

	Generoa					
	Emakumezkoa		Gizonezkoa		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Sailburua	1	1,5	3	4,0	4	2,8
Sailburuordea	9	13,6	14	18,7	23	16,3
Zuzendaria	35	53,0	38	50,7	73	51,8
Aholkularia	16	24,2	17	22,7	33	23,4
Besterik (Zientzia, teknologia eta Berrikuntzarako Komisionatua, Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkariak, Ikuskari Nagusia, Hezkuntza Ikuskaritza, Kabinete-burua, Idazkari orokorra...)	5	7,6	3	4,0	8	5,7
<b>Guztira</b>	<b>66</b>	<b>100,0</b>	<b>75</b>	<b>100,0</b>	<b>141</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2023

#### 3.2. Hizkuntza gaitasuna ahoz eta idatziz

Jaurlaritzako erakunde ordezkarien % 71 gai dira laneko ahozko harremanean euskaraz ongi edo nahiko ongi aritzeko. Idatziz, erakundeko lan funtzioak euskaraz betetzeko nola moldatzen diren galdetuta, % 46k ongi erantzun dute eta % 19k nahiko ongi, guztira % 65.

**63. taula.** Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkarien euskara gaitasuna ahoz eta idatziz (%)

	Ahoz	Idatziz
Ezer ez	2,8	5,0
Hitz batzuk	7,8	7,8
Zertxobait	18,4	22,0
Nahiko ongi	12,1	19,1
Ongi	58,9	46,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
N	141	141

Iturria: Siadeco, 2023

### 3.3. Hizkuntzaren erabilera lan jardunean

#### 3.3.1. Ahoz

Ahozko lan harremanetako erabilera, zerotik hamarrerako eskalaren arabera galdetu da, zero, beti gaztelania, eta hamar, beti euskara izanik. Eraitzen irakurketa errazte aldera, hiru tarte erabili dira:

- Euskaraz nagusiki**, 0tik 10erako 7, 8, 9 eta 10 balioetako ehunekoen baturarekin.
- Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste**, 4, 5 eta 6 balioetako erantzunen ehunekoekin.
- Gaztelaniaz nagusiki**, 0, 1, 2 eta 3 balioetako erantzunen ehunekoekin.

Eusko Jaurlaritzako ordezkarien herena baino gehiago (% 36) nagusiki euskaraz mintzatzen dira lan harremanetan eta laurdenek (% 26) gaztelania bezainbeste erabiltzen dute euskara. Gainerakoek, % 38, nagusiki gaztelaniaz egiten dute.

**64. taula.** Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkariak, ahozko lan harremanetan erabilitako hizkuntzari jarraiki (%)

	%
Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)	36,2
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)	26,2
Gaztelaniaz nagusiki/beti (0,1,2,3)	37,6
Guztira	100,0
N	141

Iturria: Siadeco, 2023

Euskaraz *ongi* mintzatzeko gai diren ordezkarien % 58k nagusiki euskaraz egiten dute; ehunekoa nabarmen baxuagoa da, % 18koa, adierazitako ahozko gaitasuna “nahiko ongi” erantzun dutenen artean; horietatik ia erdiek (% 47) nagusiki gaztelania erabiltzen dute ahozko harremanetan.

**65. taula.** Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkariak, ahozko erabilera eta adierazitako euskara gaitasunaren arabera (%)

	Ahozko gaitasuna				Guztira
	Ezer ez / Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi	
Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)			17,6	57,8	36,2
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)		7,7	35,3	34,9	26,2
Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)	100,0	92,3	47,1	7,2	37,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	15	26	17	83	141

Iturria: Siadeco, 2023



### 3.3.2. Idatziz

Idatzizko erabileran galdetu da, erakunde ordezkariak lanerako erabiltzen dituzten dokumentuetatik zenbat dauden euskaraz, zenbat ele bietan eta zenbat gaztelaniaz. Datuen irakurketa errazteko, hiru tarte erabili dira hemen ere:

- Nagusiki, euskara hutsean edo ele bietan dauden dokumentuekin lan egiten dutenak:** euskara hutsean gehi ele bietan dauden dokumentuen ehuneko batura % 65etik gorakoa dela erantzun duten erakunde ordezkariak.
- Euskara hutsean edo ele bietan dauden dokumentuak, gaztelania hutsean daudenak bezainbeste erabiltzen dituztenak:** euskara hutsean gehi ele bietan dauden dokumentuen ehuneko batura % 35 eta % 65 artean.
- Erabat edo nagusiki, gaztelania hutsean dauden dokumentuekin lan egiten dutenak:** euskara hutsean gehi ele bietan dauden dokumentuen ehuneko batura % 35etik beherakoa da.

Jaurlearitzako 10 erakunde ordezkarietatik 4k (% 39), euskara hutsean edo ele bietan dauden dokumentuak erabiltzen dituzte nagusiki (% 65 baino gehiago). Nagusiki erdara hutsean daudenekin lan egiten dutenak (gaztelania hutsean % 65 edo gehiago), % 30 dira; gainerakoen kasuan (% 29), parean kokatzen dira gaztelania hutsean eta euskaraz edo ele bietan dauden dokumentuen ehunekoak (euskara hutsean edo ele bietan, % 35 eta % 65 artean).

**66. taula.** Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkariak, erabilitako lan dokumentuetako hizkuntzari jarraiki(%)

	%
Euskara hutsean edo ele bietan gehienak (>% 65)	39,0
Euskaraz edo ele bietan, gaztelaniaz bezainbeste (eusk/elebi % 35-% 65)	29,1
Gaztelania hutsean gehienak (eusk/elebi <% 35)	29,8
Zehaztu gabe	2,1
Guztira	100,0
N	141

*Iturria: Siadeco, 2023*

Idatzizko lana euskaraz ongi egiteko gaitasuna duten ordezkarien erdien kasuan, erabiltzen dituzten dokumentu gehienak euskaraz edo ele bietan daude; % 19 dira berriz, gaztelania hutsean idatzitakoak nagusiki erabiltzen dituztenak.

**67. taula.** Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkariak, erabilitako lan dokumentuetako hizkuntza eta adierazitako idatzizko euskara gaitasunaren arabera (%)

	Gaitasuna idatziz				Guztira
	Ezer ez / Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi	
Euskara hutsean edo ele bietan gehienak (>% 65)	25,0	29,0	37,0	50,0	39,9
Euskaraz edo ele bietan, gaztelaniaz bezainbeste (eusk/elebi % 35-% 65)	12,5	25,8	40,7	31,3	29,7
Gaztelania hutsean gehienak (eusk/elebi <% 35)	62,5	45,2	22,2	18,8	30,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	16	31	27	64	138

Iturria: Siadeco, 2023

### 3.3.3. Agerraldi publikoak

Agerraldi publikoetan parte hartzen duten Jaurlaritzako ordezkarien herena pasatxok (% 36) nagusiki euskara erabiltzen du agerraldietan; beste ia heren batek (% 31), gaztelania bezainbeste erabiltzen du euskara, eta gainerakoek (% 34), nagusiki gaztelania. Datu positiboa da, euskaraz ongi hitz egiteko gai direnen % 56k euskara erabiltzen dutela nagusiki; negatiboa berriz, euskara nahiko ongi hitz egiten dutenen % 57k, nagusiki gaztelania erabiltzen dutela agerraldi publikoetan.

**68. taula.** Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkariak, agerraldi publikoetan erabilitako hizkuntza eta ahozko euskara mailaren arabera (agerraldi publikoak egiten dituztenak soilik N=118 % 83,7)

	Gaitasuna idatziz				Guztira
	Ezer ez / Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi	
Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)			14,3	55,6	35,6
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)		20,0	28,6	38,9	30,5
Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)	100,0	80,0	57,1	5,6	33,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	12	20	14	72	118

Iturria: Siadeco, 2023

### 3.3.4. Euskararen erabileraren adierazleak

Atal honetan, erakunde ordezkarien erantzunak erabilia, herri erakundeetako langileek emandako datuekin erabiltzen diren adierazleen antzerakoak kalkulatu dira. Langileei eta ordezkari politikoei egindako galderak ez dira berdinak, beraz datuak ez dira zuzenean alderagarriak. Adierazlea kalkulatzeko modua da berdina dena. Izan ere, adierazleak, emaitzak alderatzea errazten du – erakunde batetik bestera, edo neurketaldi batetik bestera–.

#### Ahozko erabilera:

Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkarien ahozko lan harremanetako batez besteko erabilera indizea %50 da. Zeretik hamarrerako eskalan, balio bakoitzari dagokin puntuazioa eta balio bakoitzak lortutako ehunekoaren arabera kalkulatzeko den adierazlea da hori. Horrela, ordezkarien %100ak erabilera 5 erantzungo balute (0tik 10erako eskalan), indizea % 50 izango litzateke. Ordezkarien erdiek 10 erantzungo balute eta beste erdiek 0, indizea % 50 izango litzateke baita ere. Eta langileen erdiek 5 erantzungo balute eta beste erdiek 0, indizea % 25 izango litzateke.

#### Erakundeko idatzizko lanerako erabilitako dokumentuak:

Batez beste, Jaurlaritzako ordezkariak erabiltzen dituzten dokumentuen % 45 gaztelania hutsean daude, % 40 ele bietan eta % 15 euskara hutsean.

#### Agerraldi publikoak

Jaurlaritzako ordezkarien agerraldi publikoetako euskararen erabilera mailaren batez besteko indizea % 50 da.

**69. taula.** Eusko Jaurlaritzako erakunde ordezkarien hizkuntza erabileraren adierazleak

		Batez besteko %
Erakundeko lan jarduneko ahozko harremanetan euskararen erabilera indizea		49,79
Idatziz, lanerako erabilitako dokumentuetatik zenbat daude gaztelaniaz bakarrik, euskaraz bakarrik eta ele bietan?	Gaztelaniaz bakarrik (%)	44,91
	Euskaraz bakarrik (%)	14,86
	Ele bietan (%)	40,23
	Guztira %	100,00
Agerraldi publikoetan euskara zenbateraino erabiltzen den (0tik 10erako eskalan)		50,17

Iturria: Siadeco, 2023

### 3.4. Euskara planaren ezagutza maila eta balorazioa

Jaurlearitzako ordezkarien erdiek baino gehiagok (% 55) erakundeko euskara planaren gutxieneko ezagutza maila bat badute eta % 11k ongi ezagutzen dute.

Balorazioaz galdetuta, 10etik 6k positiboki baloratzen dute eta % 11k oso modu positiboan. Balorazio positibo hori, erakundeak egindako ahalegina handia izan dela edo nahikoa izan dela uste delako da. Euskara planetik zenbat eta gertuago egon, zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta positiboagoa da balorazioa. Hurrengo hiru tauletan daude datu zehatzak.

**70. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkariak euskara planaz duten ezagutza maila (%)

	%
Asko	11,3
Nahikoa	55,3
Gutxi	28,4
Batere ez	2,8
Zehaztu gabe	2,1
Guztira	100,0
N	141

Iturria: Siadeco, 2023

**71. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkariak euskara planaz egindako balorazioa, ezagutza mailaren arabera (%)

		Zenbateraino ezagutzen duzu zure erakundeko euskara plana?					Guztira
		Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Zehaztu gabe	
Zein balorazio egiten duzu erakundeko euskara planari buruz?	Oso positiboa	50,0	9,0				10,6
	Positiboa	37,5	79,5	40,0			59,6
	Ez positibo, ez negatiboa	6,3	9,0	12,5		33,3	9,9
	Negatiboa		1,3	2,5			1,4
	Ez dakit, erantzunik ez	6,3	1,3	45,0	100,0	66,7	18,4
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N		16	78	40	4	3	141

Iturria: Siadeco, 2023

**72. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkariak euskara planaz emandako balorazioaren arrazoia, adierazitako balorazio positibo edo ez positiboaren arabera (%) (plana baloratu dutenen artean soilik N=115 %81,6)

		Zein balorazio egiten duzu erakundeko euskara planari buruz?				Guztira
		Oso positiboa	Positiboa	Ez positibo, ez negatiboa	Negatiboa	
Zergatik?	Asko egin delako	80,0	28,6			% 31,3
	Nahikoa egin delako	20,0	65,5	14,3		% 52,2
	Gutxi egin delako		1,2	21,4	50,0	% 4,3
	Ez dakit, erantzunik ez		4,8	64,3	50,0	% 12,2
Guztira		100,0%	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

### 3.5. Euskarak erakundean izan duen bilakaeraren balorazioa

Erakunde ordezkarien % 72k irizten diote euskararen azken 5 urteetako bilakaera positiboa izan dela Eusko Jaurlaritzan. Negatiboa izan dela uste dutenak % 1 bakarrik dira. Hala ere % 27 izan dira , “ez positibo, ez negatiboa” erantzun dutenak (% 14) eta baloraziorik egin ez dutenak (% 13).

**73. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkarien balorazioak, euskarak azken bost urteetan erakundean izan duen bilakaerari buruz (%)

	%
Oso positiboa	16,3
Positiboa	56,0
Ez positibo, ez negatiboa	14,2
Negatiboa	0,7
Ez dakit, erantzunik ez	12,8
Guztira	100,0
N	141

Iturria: Siadeco, 2023

Jaurlaritzan euskarak azken bost urteetan izandako balorazio positibo edo ez positiboaz, erakunde ordezkariak modu irekian aipatutako arrazoi nagusiak hauek izan dira:

#### A. Balorazio oso positiboa edo positiboa egin dutenek:

1. Politikariak eredu badira eta jokabide proaktiboa izan, asko aurrera daitekeela ikusi da.

*“Arduradun politikook hasieratik hizkuntza irizpideak ezartzen ditugunean eta eredu garenean, jendeak ondo erantzuten du eta lan dinamikak euskalduntzen hasten dira”*

2. Euskararen ezagutza asko handitu da Jaurlaritzan, erabilera ere gora egiten ari da, bereziki ahozkoan

*"Euskararen ezaguerak oso-oso nabarmen egin du gora, eta erabilera ere gero eta handiagoa da Jaurlaritzan egunetik egunera"*

*“Cada vez se utiliza más en oral como en escrito”*

*“Cada vez se utiliza más el euskera en la comunicación entre el personal, así como se ha pasado a elaborar prácticamente toda la documentación en bilingüe.”*

*“Ahozko erabilera asko handitu delako lankideen artean”*

*“Gero eta bilera gehiago euskaraz egiten ditugulako”*

*“Zerbitzuak ematen dizkiguten enprekin euskara gero eta gehiago erabiltzen dugulako. “*

*“Porque el número de personas que utilizan de manera habitual el euskera ha aumentado considerablemente”*

*“Ahozkoan batez ere, nabarmen ugartu da euskararen erabilera Sailean”*

### 3. Borondate gero eta handiagoa dagoelako

*“Euskaraz aritzeko gaitasun minimoa duen langilegoan euskara erabiltzeko prestutasuna ikusi det. “*

*“Euskararen inguruko lan-giro hobea dago Sailean“*

### 4. Euskara lan-hizkuntza bihurtzeko urratsa egiten.

*“Euskaraz sortzen delako gehienetan jatorrizko dokumentuak. Lehen hitza ere euskaraz da“*

*“Gero eta idazki gehiago egiten ditugulako euskaraz, euskaratzera bidali gabe“*

### 5. Ahalegin handia egiten delako

*“Inguruari begira dauden eragozpenak eragozpen, sentsibilizazioa lantzen delako eta ekimen ugari eta anitz bideratzen direlako“*

*“Migrazio eta Asilo zuzendaritza berria da beraz oso positiboki baloratzen dot hasikeratik euskera plan bat eukitea“*

*“Hemos integrado dentro del plan de gestión del organismo las actividades que vamos poniendo en marcha derivadas del plan de euskera de manera que se vayan incluyendo de forma natural en nuestro qué hacer“*

*“Bikain ziurtagiria lortu da“*

*“Lan asko eta ondo egina dagoelako, nahiz eta inpaktuan falta somatzen dudana, lankideen arteko laneko hizkuntza erdera izaten jarraitzen baitu, adibidez, aginduak edo ebazpenak zein dekretuak egiterakoan. “*

*“Gero eta jarduera konszienteagoa egiten delako euskeraren alde“*

*“Euskara teknikarien lana oso ona izan delako“*

*“Gure Departamentua uharte bat da gainontzekoekin alderatuz. Baina urrats handi eta garrantzitsuak eman ditugula esango nuke“*

## **B. Balorazio, ez positibo-ez negatiboa egin dutenek:**

### **1. Behar adinako aurrera pausorik ez ikustea**

*“Egoera oso antzekoa dela deritzot“*

*“Nire inguruan, kargu publikoen artean, erabilera ez da igo. Euskara dakitenekin, saiatzen naiz euskaraz hitz egiten, baina hizkuntza menperatzen ez dutenak baditugu taldean eta gaztelaniaz egiteko joera dugu. Egia da, teknikariek gero eta gehiago hitz egiten dudala euskaraz“*

*“La situación está estancada“*

*“Se han llevado a cabo actuaciones, pero la evolución no es suficiente“*

*“Paperean jasotzen diren planak, estrategiak... beharrezkoak dira, baina horiek baino garrantzitsuago ikusten ditut norbanako bakoitzaren jarrera euskararekiko euskararen erabileraren bilakaera positiboa izan dadin. Zorionez, administrazioak euskara ikasteko baliabide ugariak medio, funtzionari eta kargu askok dute (daukagu) hizkuntz eskakizuna. Hala ere, horien artetik badaude asko euskaraz lan egiteko gaitasuna ez dutenak (nahiz eta SHE izan)“*

### **2. Baloratu ahal izateko informazio edota irizpiderik ez**

*“Ez daukat balorazioa egiteko irizpenik“*

*“El no ser euskaldun me hace no tener una postura definida“*

### 3.6. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza eta hizkuntza eskubideen bermea

Jaurlaritzaren hizkuntza irizpideak nahikoa ezagutzen dituzte ordezkarien % 63k eta asko % 14k. Gutxi edo batere ez % 20 inguruk.

**74. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkariak erakundearen hizkuntza irizpideez duten ezagutza maila (%)

	%
Asko	14,2
Nahikoa	63,1
Gutxi	17,7
Batere ez	1,4
Zehaztu gabe	3,5
Guztira	100,0
N	141

*Iturria: Siadeco, 2023*

Hiritarren hizkuntza eskubideak guztiz bermatzen dituela Jaurlaritzak erantzun dute bertako ordezkarien herenek (% 33) eta nahikoa 10etik 6k.

**75. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkarien iritziz, hiritarren hizkuntza eskubideak zenbateraino bermatzen diren (%)

	%
Gutziz	32,6
Nahikoa	60,3
Gutxi	2,8
Ez dakit. Erantzunik ez	4,3
Guztira	100,0
N	141

*Iturria: Siadeco, 2023*



### 3.7. Euskararen erabilerarekiko jarrera proaktiboa

Ahal duten guztietan euskara erabiltzeko ahalegin handia egiten dutela erantzun dute % 25ek eta nahiko handia % 61ek. Txikia % 9k.

**76. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, euskara planaren helburuak lortzeko egiten duten ahalegina, ahal duten guztietan euskara erabiliz (%) (euskaraz ahoz nahikoa ongi/ongi egiten dutenak soilik N=100 - %70,9)

	%
Handia	25,0
Nahiko handia	61,0
Txikia	9,0
Ez dakit. Erantzunik ez	5,0
Guztira	100,0
N	100

Iturria: Siadeco, 2023

Euskaraz ez dakiten ordezkarien laurdenek (% 24) adierazi dute, erraztasun asko eskaintzen dutela ingurukoek euskara erabiltzeko eta beste ia erdiek (% 51) nahikoa erraztasun. 10etik ia 1ek (% 10), gutxi edo batere ez.

**77. taula.** Euskaraz hitz egiteko gai ez diren Eusko Jaurlaritzako ordezkariak zenbateraino errazten duten ingurukoek euskaraz egin dezaten (%) (euskaraz ahoz ezer ez/hitz batzuk/zertxobait egiten dutenak soilik N=41 - % 29,1) (%)

	%
Asko	24,4
Nahikoa	51,2
Gutxi	9,8
Batere ez	2,4
Ez dakit. Erantzunik ez	12,2
Guztira	100,0
N	41

Iturria: Siadeco, 2023

Laurden bat inguru dira (% 24) baita ere beren ardurapekoak diren pertsonetik eta komunikazioetan, euskara erabiltzeko jarraibideak ematen ahalegin handia egiten dutenak. Horretan, *nahikoa* ahalegin egiten dutela kontsideratzen dute berriz erdiek baino gehiagok (% 53). Txikia, % 14k.

**78. taula.** Eusko Jaurlaritzako ordezkariak euskara planaren helburuak lortzen egindako ahalegina, beren ardurapekoak diren pertsona eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatzearen aldekoak diren jarraibideak emanez (%)

	%
Handia	24,1
Nahiko handia	52,5
Txikia	13,5
Ez dakit. Erantzunik ez	9,9
Guztira	100,0
N	141

*Iturria: Siadeco, 2023*

Eta azkenik, euskara planeko helburuak lortze aldera jarrera proaktiboa duten ordezkarien ehunekoak ere oso antzekoak dira; guztiz jokabide proaktiboa dutenak % 23, nahikoa jokabide proaktiboa dutenak % 53 eta gutxi edo batere ez, % 16 inguru.

**79. taula.** Erakundearen euskara planeko helburuak bete daitezzen, orokorrean, jokabide proaktiboa dutela adierazi dute Eusko Jaurlaritzako ordezkariak (%)

	%
Guztiz	22,7
Nahikoa	53,2
Gutxi	15,6
Batere ez	0,7
Ez dakit. Erantzunik ez	7,8
Guztira	100,0
N	141

*Iturria: Siadeco, 2023*

### 3.8. Bestelako zenbait iritzi eta ekarpen

Amaitzeko, galdetegiaren amaierako galdera irekian Eusko Jaurlaritzako ordezkariak egindako zenbait aipamen jaso dira eta gaika sailkatu dira ondoren:

1. Hizkuntza ohiturak aldatzeko zailtasunak

*“Sailburuordetzako Zuzendaritzan biltzen garen kargudun eta aholkulari gehienek euskara ezagutzen dute. Baina normalean gaztelania erabiltzen dugu bilera horietan”*

2. Ingelesaren erabilerarekiko

*“Idatzizko komunikazioetan, nik beti erabiltzen ditut bi hizkuntzak eta ingelesa. Elkarrizketetan gaztelania da nagusi. Euskarak dagokion lehen lekua izan dezan saiatzen naiz. Beti. Eskerrik asko”*

3. Euskara jakin gabe euskararekiko egiten den ahaleginaz

*“Cuando recibo documentos o correos en euskera utilizo el traductor automático para asegurarme que he entendido correctamente todos los términos. En los escritos que realizo que demandan un uso bilingüe utilizo el traductor automático, validando cuando es necesario el resultado con las personas de mi equipo que dominan el euskera o con los itzultzailes si fuera necesario. Cuando se trata de documentos legales o vinculantes, que ocurre menos veces, se ocupan otras personas de la traducción al euskera. “*

*“Intento dar todas las facilidades posibles para que quien quiera aprender pueda hacerlo, y me esfuerzo por comunicarme aunque mis conocimientos sean los que son (PL1) “*

4. Euskara planaren helburuak egokitu beharraz

*“Sugiero que en la revisión del Plan de Normalización, adapten los objetivos a la elección libre de idioma por parte del usuario, huyendo de imposiciones normativas que perjudican la libre comunicación. “*

## 4. Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia

### 4.1. Erantzun maila

Ikerketa egiteko erabilitako metodologiaren argibideak azaldutakoan adierazi bezala, Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, ezin izan da bertako erakunde ordezkarien datuak estatistikoki adierazgarriak izateko adina erantzun lortu. Ondorioz, Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuak jaso dira, erakunde bakoitzarenak bereizita.

Foru aldundietako euskara teknikariek emandako informazioaren arabera, erakunde ordezkarien unibertsoaren kopuruak hauek dira: Arabako Foru Aldundian 37 pertsona eta Gipuzkoako Foru Aldundian 45. Guztira, 20 erantzun jaso dira Arabako Foru Aldundian (%54,1) eta 35 Gipuzkoakoan (%77,8)

### 4.2. Inkestatuen profila

#### Karguak

**80. taula.** Ikerketan parte hartutako Araba eta Gipuzkoako aldundietako erakunde ordezkarien karguak (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Foru Diputatua	15,0	14,3
Zuzendaria	65,0	82,9
Aholkularia	15,0	
Besterik	5,0	2,9
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

*Iturria: Siadeco, 2023*

Oharra: inkestako online galdetegia bidaltzeko prozedura, aldundien kasuan, erakunde bertako solaskideen bitartez egin da, modu ez pertsonalizatuan eta inkestatu beharreko pertsonen zerrenda nominalik erabili gabe; prozedura horrekin, ezin izan da inkestari erantzundakoen generoari buruzko informaziorik lortu.

### 4.3. Hizkuntza gaitasuna ahoz eta idatziz

#### Arabako Foru Aldundia

Erakunde ordezkarien laurdena (% 25) dira ahozko lan harremanetan euskaraz ongi egiteko gaitasuna dutenak. Idatzizko lanean beren lan funtzioak euskara betetzeko gaitasunean, ongi edo nahiko ongi moldatzen direnak % 30 dira.

#### Gipuzkoako Foru Aldundia

10etik 8 baino gehiagoren (% 83) euskara maila egokia da laneko harremanetan euskaraz mintzatzeko eta erakunde ordezkarien beste % 11 gai dira nahiko ongi euskaraz egiteko. Erakundeko lan funtzioak idatziz egiteko gaitasuna ere altua da; idatzizko lanean, ordezkarien % 77 ongi moldatzen dira euskaraz eta % 17 nahiko ongi.

**81. taula.** Araba eta Bizkaiko aldundietako erakunde ordezkarien euskara gaitasuna ahoz eta idatziz (%)

	Arabako Foru Aldundia		Gipuzkoako Foru Aldundia	
	Ahoz	Idatziz	Ahoz	Idatziz
Ezer ez		5,0		
Hitz batzuk	20,0	20,0		2,9
Zertxobait	55,0	45,0	5,7	2,9
Nahiko ongi		10,0	11,4	17,1
Ongi	25,0	20,0	82,9	77,1
Guztira	100,0		100,0	100,0
N	20	20	35	35

*Iturria: Siadeco, 2023*

## 4.4. Hizkuntzaren erabilera lan jardunean

### 4.4.1. Ahoz

#### Arabako Foru Aldundia

Erakunde ordezkari gehienek (% 78) gaztelania erabiltzen dute nagusiki laneko ahozko harremanetan. Nagusiki euskaraz aritzen direnen ehunekoa % 6 da, eta gainerakoa, euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, % 17.

#### Gipuzkoako Foru Aldundia

Gehienek (% 78) ahozko lan harremanetako hizkuntza euskara da; gaztelaniaz nagusiki, % 16k egiten dute, eta gainerakoek (% 6), euskaraz gaztelaniaz bezainbeste.

**82. taula.** Araba eta Bizkaiko aldundietako erakunde ordezkariak, lan jardunean ahoz erabilitako hizkuntza eta adierazitako euskara gaitasunaren arabera (%)

		Zein da lan egiteko euskaraz duzun gaitasuna ahozko harremanetan?				Guztira
		Ezer ez/ Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi	
Arabako Foru Aldundia	Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)				20,0	5,6
	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)		10,0		40,0	16,7
	Gaztelaniaz nagusiki/beti (0,1,2,3)	100,0	90,0		40,0	77,8
	Guztira	100,0	100,0		100,0	100,0
	N	4	11	0	5	20
Gipuzkoako Foru Aldundia	Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)				92,6	78,1
	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)			33,3	3,7	6,3
	Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)		100,0	66,7	3,7	15,6
	Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0
	N	2	4	28	1	35

Iturria: Siadeco, 2023

#### 4.4.2. Idatziz

##### Arabako Foru Aldundia

Gehien bat (% 65etik gora), euskara hutsean edo ele bietan dauden dokumentuak erabiltzen dituzte ordezkarien % 37k; gaztelania hutsean daudenak nagusiki (% 65etik gora) erabiltzen dituztenak % 42 dira; azkenik, euskaraz edo ele bietan gaztelaniaz bezainbeste, % 21.

##### Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde ordezkarien % 74k lanerako erabilitako dokumentu gehienak euskaraz edo ele bietan daude eta % 14ren kasuan, euskaraz gaztelaniaz bezainbeste. Gainerako % 11k, gaztelania hutsean daudenekin egiten du lan nagusiki.

**83. taula.** Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak, erakundeko lan jardunean erabilitako dokumentuen hizkuntza eta adierazitako gaitasunaren arabera (%)

		Gaitasuna idatziz				Guztira
		Ezer ez/ Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi	
Arabako Foru Aldundia	Euskara hutsean edo ele bietan gehienak (>% 65)	60,0	12,5	50,0	50,0	36,8
	Euskaraz edo ele bietan, gaztelaniaz bezainbeste (eusk/elebi % 35-% 65)	20,0	12,5	50,0	25,0	21,1
	Gaztelania hutsean gehienak (eusk/elebi <% 35)	20,0	75,0		25,0	42,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	N	5	8	2	4	19
Gipuzkoako Foru Aldundia	Euskara hutsean edo ele bietan gehienak (>% 65)	100,0	100,0	33,3	81,5	74,3
	Euskaraz edo ele bietan, gaztelaniaz bezainbeste (eusk/elebi % 35-% 65)			33,3	11,1	14,3
	Gaztelania hutsean gehienak (eusk/elebi <% 35)			33,3	7,4	11,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	N	1	1	6	27	35

Iturria: Siadeco, 2023

#### 4.4.3. Agerraldi publikoak

##### Arabako Foru Aldundia

Honakoa da agerraldi publikoetan nagusiki erabilitako hizkuntzaren arabera banaketa:

- Euskaraz nagusiki: erakunde ordezkarien % 5
- Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste: % 17
- Gaztelaniaz nagusiki: % 78

##### Gipuzkoako Foru Aldundia

- Euskaraz nagusiki: erakunde ordezkarien % 78
- Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste: % 6
- Gaztelaniaz nagusiki: % 16

**84. taula.** Araba eta Bizkaiko aldundietako ordezkariak, agerraldi publikoetan erabilitako hizkuntza eta ahozko euskara mailaren arabera (agerraldi publikoak egiten dituztenak soilik N=50 % 90,9)(%)

		Euskara gaitasuna ahoz				Guztira
		Ezer ez/ Hitz batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi	
Arabako Foru Aldundia	Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)				20,0	5,6
	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)		10,0		40,0	16,7
	Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)	100,0	90,0		40,0	77,8
	Guztira	100,0	100,0		100,0	100,0
	N	3	10		5	18
Gipuzkoako Foru Aldundia	Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)				92,6	78,1
	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)			33,3	3,7	6,3
	Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)		100,0	66,7	3,7	15,6
	Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0
	N		2	3	27	32

Iturria: Siadeco, 2023



#### 4.4.4. Euskararen erabileraren adierazleak

##### Arabako Foru Aldundia

VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko herri erakundeetako langileekin kalkulaturako adierazleak kalkulatzeko erabilitako metodologia bera erabiltuta, hauek dira emaitzak:

- Erakunde ordezkarien ahozko lan harremanetako batez besteko euskararen erabilera maila: ..... % 19
- Agerraldi publikoetan: ..... % 21
- Erabilitako dokumentuetan batez beste euskara hutsean edo ele bietan daudenak: ..... % 45

##### Gipuzkoako Foru Aldundia

- Erakunde ordezkarien ahozko lan harremanetako batez besteko euskararen erabilera maila: ..... % 79
- Agerraldi publikoetan: ..... % 78
- Erabilitako dokumentuetan batez beste euskara hutsean edo ele bietan daudenak: ..... % 73

#### 85. taula. Araba eta Bizkaiko aldundietako erakunde ordezkarien hizkuntza erabileraren adierazleak

		Arabako FA Batez besteko %	Gipuzkoako FA Batez besteko %
Erakundeko lan jardunean ahoz zenbat euskara erabiltzen den		18,50	79,71
Idatziz, lanerako erabilitako dokumentuetatik zenbat daude gaztelaniaz bakarrik, euskaraz bakarrik eta ele bietan?	Gaztelaniaz bakarrik (%)	54,68	26,77
	Euskaraz bakarrik (%)	6,37	28,66
	Ele bietan (%)	38,95	44,57
	Guztira %	100,00	100,00
Agerraldi publikoetan euskara zenbateraino erabiltzen den (0tik 10erako eskalan)		21,10	78,13

Iturria: Siadeco, 2023

## 4.5. Euskara planaren ezagutza maila eta balorazioa

### Arabako Foru Aldundia

Erakunde ordezkarien % 60k erantzun dute Arabako Foru Aldundiaren euskara plana nahikoa ezagutzen dutela eta % 10ek asko. Gehienek balorazioa positiboa da, % 30entzat oso positiboa eta beste % 30entzat positiboa. Eta balorazio positibo horren arrazoa, euskararen normalizazioan aurrera egin izanarekin lotzen da. Datu zehatzak hurrengo tauletan jasoak daude.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Ordezkariek gehienek (% 54) badute euskara planari buruz gutxienezko informazioa baina % 34k gutxi eta, % 9k batere ez. Hala ere positiboki baloratzen dute gehienek, % 26k modu oso positiboan eta modu positiboan beste % 46k. Eta balorazio positibo hori, asko edo nahikoa aurreratu izanarekin lotzen da baita ere.

**86. taula.** Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak euskara planaz duten ezagutza maila (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Asko	10,0	2,9
Nahikoa	60,0	54,3
Gutxi	25,0	34,3
Batere ez		8,6
Zehaztu gabe	5,0	
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

Iturria: Siadeco, 2023

**87. taula.** Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak euskara planaz egindako balorazioa (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Oso positiboa	30,0	25,7
Positiboa	30,0	45,7
Ez positibo, ez negatiboa	15,0	5,7
Negatiboa		5,7
Oso negatiboa	5,0	
Ez dakit, erantzunik ez	20,0	17,1
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

Iturria: Siadeco, 2023

**88. taula.** Planaz egiten den balorazioa, planaz adierazitako ezagutza mailaren arabera (%)

		Zenbateraino ezagutzen duzu zure erakundeko euskara plana?					Guztira
		Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Zehaztu gabe	
Arabako Foru Aldundia	Oso positiboa	50,0	41,7				30,0
	Positiboa		50,0				30,0
	Ez positibo, ez negatiboa	50,0		40,0			15,0
	Oso negatiboa			20,0			5,0
	Ez dakit, erantzunik ez		8,3	40,0		100,0	20,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0		100,0	100,0
	N	2	12	5		1	20
Gipuzkoako Foru Aldundia	Oso positiboa		36,8	16,7			25,7
	Positiboa	100,0	63,2	25,0			45,7
	Ez positibo, ez negatiboa			8,3	33,3		5,7
	Negatiboa			8,3	33,3		5,7
	Ez dakit, erantzunik ez			41,7	33,3		17,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0		100,0
	N	1	19	12	3		35

Iturria: Siadeco, 2023

**89. taula.** Planaz egiten den balorazioaren arrazoa, adierazitako balorazioaren arabera (plana baloratu dutenen artean soilik N=45 %61,6)

		Zein balorazio egiten duzu erakundeko euskara planari buruz?					Guztira
		Oso positiboa	Positiboa	Ez positibo ez negatiboa	Negatiboa	Oso negatiboa	
Arabako Foru Aldundia	Asko egin delako	16,7		33,3			12,5
	Nahikoa egin delako	83,3	100,0	33,3			75,0
	Gutxi egin delako					100,0	6,3
	Ez dakit, erantzunik ez			33,3			6,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0		100,0	100,0
		N	6	6	3		1
Gipuzkoako Foru Aldundia	Asko egin delako	77,8	68,8				62,1
	Nahikoa egin delako	22,2	31,3	50,0			27,6
	Gehiegi egin delako				100,0		6,9
	Ez dakit, erantzunik ez			50,0			3,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0		100,0
		N	9	16	2	2	

Iturria: Siadeco, 2023

## 4.6. Euskarak erakundeetan izan duen bilakaeraren balorazioa

### Arabako Foru Aldundia

Azken bost urteetan, Arabako Foru Aldundian euskararen bilakaera positiboa izan dela uste dute bertako ordezkarien erdiek (% 50) eta oso positiboa % 10ek. Balorazio negatiboa egin dutenak % 5 bakarrik dira. Kontuan hartu behar da % 20k ez dutela inolako baloraziorik egin.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Ordezkarien bi herenek baino gehiagok (% 69) positiboki baloratzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiko bilakaera eta % 17k oso positiboki. Iritzi ezkorrekoak, hau da, negatiboki baloratzen dutenak % 6 dira.

**90. taula.** Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkarien balorazioak, euskarak azken bost urteetan erakundeetan izan duen bilakaerari buruz (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Oso positiboa	10,0	17,1
Positiboa	50,0	68,6
Ez positibo, ez negatiboa	15,0	2,9
Negatiboa	5,0	5,7
Ez dakit, erantzunik ez	20,0	5,7
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

*Iturria: Siadeco, 2023*

Euskarak azken bost urteetan izandako balorazio positibo edo ez positiboaz, aldundietako erakunde ordezkariak modu irekian aipatutako arrazoi nagusiak jaso dira segidan:

## Arabako Foru Aldundia

### A. Balorazio oso positiboa edo positiboa egin dutenak:

1. Euskararen ezagutza eta erabileraren bilakaera aldekoa izatea.

*“La presencia del euskera ha aumentado”*

*“Tanto los funcionarios como cargos públicos están aumentando el uso del euskera, siendo las nuevas generaciones las que mayor conocimiento tienen”*

*“Cada vez más presente en el día a día”*

2. Euskara planaren gauzatze maila egokia

*“Adecuado cumplimiento del Plan de Euskera”*

### B. Balorazio positiboa egin ez dutenak

1. Idatzizko lanean euskara erabiltzeko zailtasunak

*“No hay prácticamente expedientes en euskera. Por dos motivos: la ciudadanía no se dirige a la institución en euskera, solo un pequeño porcentaje. Y los funcionarios prefieren hacer los informes en castellano”*

2. Ahozko erabilera baxua izatea

*“Cumplimos con lo que establece la ley pero por ejemplo en atención presencial, reuniones,... no se utiliza el euskera”*

## Gipuzkoako Foru Aldundia

### A. Balorazio oso positiboa edo positiboa egin dutenak:

1. Erakundeetan gero eta barneratuago dagoelako, euskarak zeharkako politikak lantzea eskatzen duela.

*“Pixkanaka ulertzen ari delako plantilla eta agintari jendea, zeharkakotasunez landu beharrekoa dela hizkuntza politika. Departamentu bakoitzak duela erantzukizun eta ardura hizkuntza biziberritze horretan ere.”*

*“Zeharkako politika bat soilik izateaz haratago, gizarte mailan euskararen erabilerarako izandako aldarrikapenak, erakundeetan eta erakundeko pertsonengan gero eta barneratuagoak daudelako eta horretarako bide ematen delako.”*

*“Geroz eta jende gehiagok egiten dugulako lan batez ere euskaraz. Gure hizkuntza, Diputatuena, euskara denean, zuzendari eta langileek ere euskaraz egiten dute. Guk gazteleraz egiten badugu, denek gazteleraz. Gure esku dago neurri handi batean”*

*“Barne erresistentziak gainditzea lortzen ari garelako.”*

2. Euskaren ezagutza eta erabilera gero eta altuagoa, baita lan-hizkuntza bezala ere.

*“Gobernu kontseiluak euskaraz egiten ditugu %95ean eta hau orain dela urte gutxi ez zen horrela. Euskararekiko normaltasuna asko handitu da politiko eta langileen artean ere.”*

*“Langileen gehiengoa gai delako euskaraz lan egiteko”*

*“Gero eta jende gehiagok erabiltzen du euskara lanerako hizkuntza bezala, bai eguneroko harremanetan, bai bileretan, bai korreoetan.”*

*“Gero eta gehiago euskaraz soilik dokumentuak idazten direlako”*

*“Gipuzkoako Foru Aldundian euskara oso lehenetsia dago, oasi moduko bat ikusten dut beste lurralde edo esparru batzuekin alderatuta.”*

*“Alde batetik, euskaldun gehiago daude erakundeetan, belaunaldi berriak gero eta euskaldunagoak baitira. Beste aldetik, areagotu da euskararen erabilera langileen artean.”*

*“Gure Departamentuan, adibidez, jubilazioak direla eta, jende berria sartzen joan da urte hauetan, eta euskararen erabilera asko handitu da. Eskakizun linguistikoa betetzen duten pertsonak dira (jubilatzen joan diren gehienek gaztelania erabiltzen zuten harreman hizkuntza bezala), eta beraz, euskara erabiltzen dute bere egunerokotasunean.”*

## **B. Balorazio negatiboa egin dutenak**

1. Eremuren batean erabilera jaistea

*“Euskaraz bakarrik entzuten zen guneetan gaztelaniaz entzuten delako.”*

2. Ezarritako hizkuntza eskakizunak desegokiak izatea

*“La política de perfiles lingüísticos en las escalas de la diputación foral de Gipuzkoa es ridícula”*

## 4.7. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza eta hizkuntza eskubideen bermea

### Arabako Foru Aldundia

10etik 7k (% 70) erantzun dute Arabako Foru Aldundiaren hizkuntza irizpideak “nahikoa” ezagutzen dituztela eta % 5ek “asko”. 5etik 1ek (% 20) irizpide horien ezagutza maila txikia du.

Herritarren hizkuntza eskubideak guztiz (% 55) edo nahikoa (% 40) bermatzen dituela Arabako Foru Aldundiak uste dute bertako ordezkarietatik gehienek.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundian, hizkuntza irizpideak “nahikoa” ezagutzen dituztenak % 69 dira eta “asko” % 20. Ezagutza txikia dutenak % 11.

Herritarren hizkuntza eskubideak zaintzen ditu aldundiak bertako ordezkarien iritzian; guztiz bermatuak daudela uste dute erdiek baino gehiagok (% 51) eta nahikoa bermatuak daudela gainerako beste ia erdiek (% 49).

**91. taula.** Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak erakundearen hizkuntza irizpidez duten ezagutza maila (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Asko	5,0	20,0
Nahikoa	70,0	68,6
Gutxi	20,0	11,4
Zehaztu gabe	5,0	
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

*Iturria: Siadeco, 2023*

**92. taula.** Arabako eta Gipuzkoako ordezkarien iritziz, hiritarren hizkuntza eskubideak zenbateraino bermatzen diren (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Guztiz	55,0	51,4
Nahikoa	40,0	48,6
Ez dakit. Erantzunik ez	5,0	
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

*Iturria: Siadeco, 2023*



## 4.8. Euskararen erabilerarekiko jarrera proaktiboa

### Arabako Foru Aldundia

Aukera dagoenean euskara erabiliz, Arabako Foru Aldundiko euskara planaren helburuak lortzeko, ahalegin nahiko handia egiten dutela erantzun dute euskaraz egiteko gai diren ordezkari ia guztiek (% 80); txikia edo batere ez berriz % 20k.

Euskara ahoz nahikoa jakin gabe ingurukoek euskaraz egiteko erraztasun asko ematen dutela adierazi dute ordezkarien % 7k, eta nahikoa % 53k. Guztira, 10etik 6k, beraz.

Beren ardurapekoak diren pertsona eta komunikazioetan, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarraibideak ematen dituzten galdetuta, ordezkarien % 15ek erantzun dute ahalegin handia egiten dutela eta % 45ek nahiko handia. Txikia % 20k.

Euskara planeko helburuak lortzeko jokabide proaktiboa duten galdetuta, guztiz % 25ek, nahikoa % 40k eta gutxi edo batere ez % 20k.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Ahal den guztietan euskara erabiltzeko ahalegin handia egiten duten euskaraz egiteko gai diren erakunde ordezkariak % 33 dira Gipuzkoako Foru Aldundian eta % 61ek, ahalegin nahiko handia egiten dutela jaso da. Ia guztiak, beraz.

Euskara ez dakitenak oso gutxi izanik, batek ahalegin nahikoa egiten duela dio; besteak batere ez.

Ordezkariek beren ardurapekoak diren pertsonen aurrean eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatzearekiko, ahalegin handia egiten dutela erantzun dute % 29k eta nahiko handia % 57k. Txikia edo batere ez, % 9 inguruk.

Euskararekiko proaktibitate mailaz zuzenean galdetuta, guztiz jokabide proaktiboa dutela erantzun dute herenak baino gehiagok (% 34) eta nahikoa jokabide proaktiboa erdiek baino gehiagok (% 51).

**93. taula.** Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak, euskara planaren helburuak lortzeko egiten duten ahalegina, ahal duten guztietan euskara erabiliz (%) (euskaraz ahoz nahiko ongi/ongi egiten dutenak soilik N=38 % 69,1)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Handia		33,3
Nahiko handia	80,0	60,6
Txikia		3,0
Batere ez	20,0	
Ez dakit. Erantzunik ez		3,0
Guztira	100,0	100,0
N	5	33

*Iturria: Siadeco, 2023*

**94. taula.** Euskaraz hitz egiteko gai ez diren Araba eta Gipuzkoako ordezkariak zenbateraino errazten duten ingurukoek euskaraz egin dezaten (%) (euskaraz ahoz ezer ez/hitz batzuk/zertxobait egiten dutenak soilik N=17 % 30,9)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Asko	6,7	
Nahikoa	53,3	50,0
Gutxi	6,7	
Batere ez		50,0
Ez dakit. Erantzunik ez	33,3	
Guztira	100,0	100,0
N	15	2

Iturria: Siadeco, 2023

**95. taula.** Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak euskara planaren helburuak lortzen egindako ahalegina, beren ardurapekoak diren pertsona eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatzearen aldekoak diren jarraibideak emanez (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Handia	15,0	28,6
Nahiko handia	45,0	57,1
Txikia	20,0	2,9
Batere ez		5,7
Ez dakit. Erantzunik ez	20,0	5,7
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

Iturria: Siadeco, 2023

**96. taula.** Erakundearen euskara planeko helburuak bete daitezzen, orokorrean, jokabide proaktiboa dutela adierazi duten Araba eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak (%)

	Arabako Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Guztiz	25,0	34,3
Nahikoa	40,0	51,4
Gutxi	15,0	2,9
Batere ez	5,0	5,7
Ez dakit. Erantzunik ez	15,0	5,7
Guztira	100,0	100,0
N	20	35

Iturria: Siadeco, 2023

#### 4.9. Beste zenbait iritzi eta ekarpen

Galdetegiren amaieran, edozein iritzi eman edo ekarpen egiteko aukera eman da eta aldundi bakoitzean, zenbait ordezkari egindako aipamenak jaso dira segidan.

##### Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiaren kasuan, ordezkari batek bakarrik azaldu du atal horretan bere iritzia, zehazki ondorengo:

*“Creo que una vez que se facilita el conocimiento de los dos idiomas oficiales y además se garantiza que con la administración se pueden usar los dos, es una decisión personal usar uno u otro”*

##### Gipuzkoako Foru Aldundia:

Hobekuntza esparru nabarmen bat, beste erakundeekiko harremanetan dagoela jaso da:

*“Nire ustez behintzat beste erakundeekiko harremanetan dago hobekuntza esparrua, beste bi aldundiekin batik bat, dokumentuak euskaraz partekatuarik eta landuak izan daitezten”*

*“Lehen sektorearekin, landa eremuko jendearekin gure hizkuntza bakarra euskara da. Gaztelera erabilera izaten da normalki beste Aldundi edo Jaurlaritzako teknikariekin edo kanpotik datozen araudi eta bestelako txostenak kudeatzerakoan”*

Eta, agintari berrien kasuan, euskara normalizatzeko ardura, berezkoa izatea ere garrantzitsua ikusten da:

*“Agintari berriek berez ekarri beharko lukete erakundera etortzen direnean hizkuntza biziberritzearen ardura ere badela beren eginkizuna, daukaten alorra edozein dela ere. Erantzukizun partekatua dela, alegia. Eta ejenplu eman beharko lukete, bai eguneroko harremanetan hizkuntza erabiliz (lanerako, harremanetarako...), bai lurralde ikuspegitik, proaktibo jokatzu beren esparruko gaietan”*

## 5. Udalak

### 5.1. Erantzun maila

Atal metodologikoan azaldu bezala, udalen kasuan, ikerketa egiteko laginean sartu dira herri erakundeen VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan sartu ziren udalak: 5 mila biztanlez gorako udal guztiak eta 5 mila biztanlez beherako udalen lagin lagin bat. Guztira 129 udaletako hautetsien informazioa eskuratzen saiatu ondoren (1.709 hautetsi), 121 udaletako hautetsiren baten erantzunak jaso dira. Zehazki, 678 hautetsienak. Hau da % 39,7ko erantzun maila izan da,

**97. taula.** Ikerketan parte hartutako udaletako ordezkariak, lurralde historikoaren, gune soziolinguistikoaren, generoaren eta karguaren arabera

		Kopurua	%
Lurralde Historikoa	Araba	55	8,1
	Bizkaia	351	51,8
	Gipuzkoa	272	40,1
Gune soziolinguistikoa	1 eta 2 gune SL	329	48,5
	3 eta 4 gune SL	349	51,5
Generoa	Emakumezkoa	337	49,7
	Gizonezkoa	290	42,8
	Zehaztu gabe	51	7,5
Kargua	Alkatea	60	8,8
	Alkate-ordea	95	14,0
	Udal gobernuko hautetsia	227	33,5
	Oposizioko hautetsia	211	31,1
	Zinegotzia (zehaztu gabe)	47	6,9
	Zuzendaria	11	1,6
	Aholkularia	9	1,3
Besterik	18	2,7	
Guztira		678	100,0

*Iturria: Siadeco, 2023*

Atal metodologikoan azaldu bezala, datuak haztatu egin dira gune soziolinguistikoaren arabera.

## 5.2. Hizkuntza gaitasuna ahoz eta idatziz

Zinegotzien % 67 gai dira laneko ahozko harremanean euskaraz ongi mintzatzeko, eta erakunde ordezkarien beste % 14 gai dira nahiko ongi egiteko. Idatziz, erakundeko lan funtzioak euskaraz betetzeko nola moldatzen diren galdetuta, % 60k *ongi* erantzun dute eta % 19k *nahiko ongi*,

Beraz, zinegotzien % 20 inguru ez dira gai ez ahoz, ez idatziz, lan funtzioak euskaraz egiteko (euskara batere ez, hitz batzuk edo zertxobait ezagutzen dute).

Lurralde historiko eta gune soziolinguistikoaren arabera alde handiak daude euskaraz lan egiteko azaldutako gaitasunean, bai ahoz, baita idatziz ere.

Arabako zinegotzien artean % 42 dira, Bizkaian % 57 eta Gipuzkoan % 83 lanerako ahoz euskaraz ongi moldatzen direnak; 3 eta 4. gune soziolinguistikoan % 85 dira ongi moldatzen direnak, 1. eta 2. gune soziolinguistikoan aldiz, erdiak baino gutxiago (% 44).

Bere lan funtzioak idatziz euskaraz betetzeko ongi moldatzen direnen ehunekoan ere alde nabarmenak daude, bai lurralde historikoaren, bai gune soziolinguistikoaren arabera ere.

**98. taula.** Udaletako erakunde ordezkarien euskara gaitasuna ahoz eta idatziz (%)

		Lurralde Historikoa			Gune soziolinguistikoa		Guztira %
		Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Zein da lan egiteko euskaraz duzun gaitasuna ahozko harremanetan?	Ezer ez	1,8	2,8	0,4	2,7	0,9	1,7
	Hitz batzuk	7,3	6,0	1,8	7,9	1,4	4,3
	Zertxobait	29,1	17,8	6,0	25,5	4,3	13,6
	Nahiko ongi	20,0	16,3	9,2	19,5	8,9	13,5
	Ongi	41,8	57,2	82,6	44,4	84,5	66,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Eta idatziz? Nola moldatzen zara erakundean dituzun lan-funtzioak idatziz euskaraz betetzeko?	Ezer ez	3,6	3,0	1,8	4,3	1,1	2,5
	Hitz batzuk	5,5	7,0	2,5	9,1	1,7	5,0
	Zertxobait	36,4	17,5	5,8	24,3	5,7	13,9
	Nahiko ongi	30,9	20,5	14,5	24,3	14,3	18,7
	Ongi	23,6	52,0	75,5	38,0	77,1	59,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023

### 5.3. Hizkuntzaren erabilera lan jardunean

#### 5.3.1. Ahoz

Udaletako ordezkarien erdiak baino gehiago (% 56) nagusiki euskaraz mintzatzen dira lan harremanetan, eta 6tik 1ek euskara gaztelania bezainbeste erabiltzen du. Udal ordezkarien laurden batek nagusiki gaztelaniaz egiten dute ahozko lan jarduna (% 27).

Lan harremanetan nagusiki euskaraz mintzatzen dira Gipuzkoako eta 3. eta 4. gune soziolinguistikoko udal ordezkari gehienak (% 81 eta % 84 hurrenez hurren); nabarmen gutxiago Bizkaiko ordezkarien artean (% 42), eta 5etik bat baino gutxiago Arabakoaren artean.

Arabaren eta 1. eta 2. gune soziolinguistikoko laurdena pasa dira euskaraz gaztelaniaz bezainbeste egiten dutenak (% 29 eta % 27 hurrenez hurren) eta erdiek baino gehiagok gaztelaniaz egiten dute nagusiki (% 56 eta % 51 hurrenez hurren).

**99. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak erakundeko lan jardunean ahoz erabilitako hizkuntza (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)	14,5	41,8	80,9	21,3	84,0	56,4
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)	29,1	21,5	8,1	27,4	7,7	16,4
Gaztelaniaz nagusiki/beti (0,1,2,3)	56,4	35,9	10,3	50,8	7,4	26,5
Zehaztu gabe	0,0	0,9	0,8	0,6	0,9	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023

Euskaraz ongi hitz egiteko gai direnen % 78k lan jardunean nagusiki euskaraz egiten dute, baina portzentaje hori % 27ra jaisten da euskaraz nahiko ongi moldatzen direnen artean.

Euskaraz zertxobait egiten dutenen artean ere, badira euskara erabiltzen dutela diotenak: ziur aski, testuinguru linguistikoa eragingo du euskaraz ongi moldatzen ez direnak ere tarteka erabiltzea.

**100. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak erakundeko lan jardunean ahoz erabilitako hizkuntza, euskaraz adierazitako gaitasunaren arabera (%)

	Zein da lan egiteko euskaraz duzun gaitasuna ahozko harremanetan?				
	Ezer ez/ Hitz Batzuk	Zertxobait	Nahiko ongi	Ongi	Guztira
	%	%	%	%	%
Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)	0,0	2,9	26,5	77,9	56,4
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)	5,1	9,2	36,4	14,8	16,4
Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)	94,9	86,9	34,9	6,8	26,5
Zehaztu gabe	0,0	1,0	2,2	0,5	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	43	99	95	441	678

Iturria: Siadeco, 2023

### 5.3.2. Idatziz

Udaletako ordezkarien % 76k lanerako erabilitako dokumentu gehienak euskaraz edo ele bietan daude, eta % 10aren kasuan, euskaraz gaztelaniaz bezainbeste. Gainerako %14k, gaztelania hutsean daudenekin egiten du lan nagusiki.

Gipuzkoako eta 3.eta 4.gune soziolinguistikoetako zinegotzi ia guztiek (10etik 9k baino gehiagok) egiten dute lan nagusiki euskara hutsean edo ele bietan dauden dokumentuekin; Arabakoen artean, aldiz, hirutik batek (%35ek). Arabako zinegotzien erdiek baino gehiagok (% 52), lanerako erabilitako dokumentu gehienak gaztelania hutsez daude.

**101. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak erakundeko lan jardunean erabilitako dokumentuen hizkuntza (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	1 eta 2	3 eta 4	
	%	%	%	%	%	
Euskara hutsean edo ele bietan gehienak (>% 65)	34,6	66,7	94,3	57,1	91,2	76,3
Euskaraz edo ele bietan, gaztelaniaz bezainbeste (eusk/elebi % 35-% 65)	13,5	15,5	3,6	16,1	5,6	10,2
Gaztelania hutsean gehienak (eusk/elebi <% 35)	51,9	17,8	2,2	26,7	3,2	13,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023

Idatziz euskaraz ongi egiten duten zinegotzien gehien gehienek euskaraz edo ele bietan dauden dokumentuak manejatzen dituzte (% 83k). Euskara maila apalagoa dutenen artean (*zertxobait* edo *nahiko ongi*), aldiz, apenas dagoen alderik, 3tik 2 inguruk erabiltzen dituzte euskarazkoak.

**102. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak erakundeko lan jardunean erabilitako dokumentuen hizkuntza, euskaraz adierazitako gaitasunaren arabera (%)

	Gaitasuna idatziz				
	Ezer ez/ Hitz batzuk %	Zertxobait %	Nahiko ongi %	Ongi %	Guztira %
Euskara hutsean edo ele bietan gehienak (>%65)	68,7	64,1	67,0	82,8	76,3
Euskaraz edo ele bietan, gaztelaniaz bezainbeste (eusk/elebi %35-%65)	11,3	10,2	13,5	9,1	10,2
Gaztelania hutsean gehienak (eusk/elebi <%35)	20,0	25,7	19,5	8,1	13,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	54	100	130	394	678

Iturria: Siadeco, 2023

### 5.3.3. Agerraldi publikoak

Agerraldi publikoetan nagusiki euskaraz egiten dute udal ordezkarien % 58k (10etik 6k); eta gaztelaniaz nagusiki % 25ek (4tik 1ek). % 17k, (6tik 1ek) euskaraz gaztelaniaz bezainbeste egiten dutela adierazi dute.

Hala ere alde handiak daude: Gipuzkoako eta 3.eta 4.gune soziolinguistikoko ordezkarien % 80k baino gehiagok euskaraz egiten ditu nagusiki agerraldi publikoak eta % 7 inguruk euskaraz gaztelaniaz bezainbeste. Gaztelaniaz nagusiki egiten dute Gipuzkoako ordezkarien % 11k eta 3.eta 4.gune soziolinguistikoko ordezkarien % 7k. Arabako ordezkarien artean, % 17k egiten ditu euskaraz nagusiki agerraldi publikoak, heren batek euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (% 33), eta erdiek gaztelaniaz nagusiki (% 50). Tartean 1.eta 2.gune soziolinguistikoko ordezkariak, eta Bizkaikoak, non euskaraz nagusiki egiten dutenak % 24 eta % 43 dira hurrenez hurren.



**103. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak agerraldi publikoetan erabiltzen duten hizkuntza (agerraldi publikoak egiten dituztenak soilik N=639 % 94,2)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)	17,3	43,0	82,6	24,1	85,8	58,1
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)	32,7	23,0	6,7	27,8	7,7	16,8
Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)	50,0	33,9	10,7	48,1	6,5	25,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	52	329	258	316	323	639

Iturria: Siadeco, 2023

Euskaraz ongi hitz egiteko gai direnen % 80k agerraldi publikoak nagusiki euskaraz egiten dituzte, baina portzentaje hori % 34ra jaisten da euskaraz nahikoa ongi egiten dutenen artean.

**104. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak agerraldi publikoetan erabiltzen duten hizkuntza (agerraldi publikoak egiten dituztenak soilik N=639 % 94,2)

	Gaitasuna idatziz				
	Ezer ez/ Hitz batzuk %	Zertxobait %	Nahiko ongi %	Ongi %	Guztira %
Euskaraz nagusiki/beti (7,8,9,10)	0,0	3,5	33,9	79,5	58,1
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste (4,5,6)	2,7	13,7	33,2	15,3	16,8
Gaztelaniaz nagusiki/beti(0,1,2,3)	97,3	82,8	32,8	5,3	25,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	41	95	90	413	639

Iturria: Siadeco, 2023

### 5.3.4. Euskararen erabileraren adierazleak

VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egiteko herri erakundeetako langileen adierazleak kalkulatzeko erabilitako metodologia berarekin kalkulatu dira jarraian aurkeztutako adierazleak. Aurrez adierazi bezala, horrek ez ditu zuzenean konparagarri egiten, langileei eta erakundeetako ordezkariari ez zaielako galdera bera egin, baina kalkulaturako erabilera-adierazleak, lagungarri dira, bai erakundeen arteko konparaketak egiteko, baita bilakaera aztertzeke ere.

Honela, udal ordezkarien (zinegotzien) ahozko lan harremanetako batez besteko euskararen erabilera maila, % 65 da eta agerraldi publikoetan % 66.

Lanean erabilitako dokumentuetan batez beste euskara hutsean edo ele bietan daudenak, % 79.

Alde nabarmenak daude lurralde historikoaren eta gune soziolinguistikoaren arabera, orain arte ikusi bezala.

#### 105. taula. Udaletako erakunde ordezkarien hizkuntza adierazleak

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira	
	Araba Batez besteko %	Bizkaia Batez besteko %	Gipuzkoa Batez besteko %	1 eta 2 Batez besteko %	3 eta 4 Batez besteko %	Batez besteko %	
Erakundeko lan jardunean ahoz zenbat euskara erabiltzen den (Otik 10erako eskalan)	33,09	54,11	83,36	38,56	85,75	65,00	
Idatziz, lanerako erabilitako dokumentuetatik zenbat daude gaztelaniaz bakarrik, euskaraz bakarrik eta ele bietan?	Gaztelaniaz bakarrik (%)	49,8	28,3	8,7	34,7	11,0	21,4
	Euskaraz bakarrik (%)	6,8	19,2	54,1	10,5	51,2	33,3
	Ele bietan (%)	43,4	52,5	37,2	54,9	37,8	45,3
	Guztira %	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Agerraldi publikoetan euskara zenbateraino erabiltzen den (Otik 10erako eskalan)	36,15	54,42	83,91	39,72	86,84	65,71	

Iturria: Siadeco, 2023

## 5.4. Euskara planaren ezagutza maila eta balorazioa

Udaletako erakunde ordezkarien % 21ek erantzun dute asko ezagutzen dutela beren udalaren euskara plana, eta beste % 54k nahikoa ezagutzen dutela. Beste % 21ek, aldiz, gutxi edo batere ez dutela ezagutzen adierazi dute.

Erakundearen euskara planaren balorazio oso positiboa egiten dute ordezkarien % 17k eta positiboa % 48k; 3tik 2k beraz balorazio positiboa egiten dute. % 15ek ez dute baloratzen eta % 7k balorazio negatiboa egiten dute.

Alde handirik ez badago ere, planari buruz balorazio zertxobait kritikoagoa egin dute Arabako eta 1. eta 2. gune soziolinguistikoetako ordezkariak.

**106. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak euskara planaz duten ezagutza maila (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Asko	14,5	19,0	25,0	17,6	24,1	21,2
Nahikoa	54,5	54,0	52,9	53,2	53,9	53,6
Gutxi	23,6	19,7	14,7	23,4	13,5	17,8
Batere ez	7,3	3,7	2,6	4,0	3,2	3,5
Ez dagokio. Erakundeak ez du euskara planik	0,0	1,8	1,1	0,6	2,0	1,4
Zehaztu gabe	0,0	1,8	3,7	1,2	3,4	2,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023

**107. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak euskara planaz egindako balorazioa (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Oso positiboa	14,5	15,7	18,7	14,0	19,2	16,9
Positiboa	43,6	47,8	48,2	47,1	48,1	47,7
Ez positibo, ez negatiboa	16,4	14,2	14,8	17,6	12,3	14,7
Negatiboa	9,1	6,9	5,2	7,9	5,2	6,4
Oso negatiboa	0,0	1,1	0,8	1,2	0,6	0,9
Ez dakit, erantzunik ez	16,4	11,8	11,9	10,9	13,2	12,2
Ez dagokio. Erakundeak ez du euskara planik	0,0	2,3	0,4	1,2	1,4	1,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023

Bere erakundeko planaren baloraziorik positiboena, plana bera asko ezagutzen dutenek egiten dute (% 88k oso positiboa edo positiboa); nahikoa ezagutzen dutenen artean, gutxiago dira positiboki baloratzen dutenak, (% 75), eta nabarmen gutxiago gutxi ezagutzen dutenen artean (% 28).

**108. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak euskara planaz egiteko balorazioa, ezagutza mailaren arabera (%)

	Zenbateraino ezagutzen duzu zure erakundeko euskara plana?						
	Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ez dagokio. Erakundeak ez du euskara planik	Zehaztu gabe	Guztira
	%	%	%	%	%	%	%
Oso positiboa	40,8	14,4	3,0	0,0	0,0	0,0	16,9
Positiboa	47,7	61,1	25,3	0,0	0,0	11,9	47,7
Ez positibo, ez negatiboa	5,9	16,2	24,7	3,8	0,0	6,5	14,7
Negatiboa	3,4	6,7	10,6	4,6	0,0	0,0	6,4
Oso negatiboa	1,4	0,2	1,6	3,8	0,0	0,0	0,9
Ez dakit, erantzunik ez	0,8	1,1	34,6	84,0	23,1	81,5	12,2
Ez dagokio. Erakundeak ez du euskara planik	0,0	0,2	0,0	3,8	76,9	0,0	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	142	363	124	24	9	16	678

Iturria: Siadeco, 2023

Bere erakundearen euskara planaz egindako balorazioaren arrazoiaz galdetuta, % 31k, asko egin delako adierazi dute, eta % 43,4k nahikoa egin delako.

Asko edo nahikoa egin dela dioten portzentajerik altuena, Gipuzkoako eta 3.eta 4.gune soziolinguistikoko ordezkarien artean ematen da (% 78 eta % 79 hurrenez hurren); gutxi egin dela diotenak, aldiz, gehiago dira Araban, Bizkaian eta 1.eta 2.gune soziolinguistikoetan.

**109. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak euskara planaz egindako balorazioa (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	1 eta 2	3 eta 4	
	%	%	%	%	%	%
Asko egin delako	17,4	24,0	41,3	20,8	39,3	31,0
Nahikoa egin delako	52,2	48,0	36,5	48,4	39,3	43,4
Gutxi egin delako	21,7	18,6	12,1	19,7	13,1	16,0
Gehiegiz egin delako	0,0	1,6	1,3	1,7	1,0	1,3
Ez dakit, erantzunik ez	8,7	7,8	8,8	9,3	7,4	8,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	46	302	239	289	298	587

Iturria: Siadeco, 2023

Bere erakundeko euskara plana oso positiboki baloratzen duten gehienek, asko egin delako baloratzen dute horrela (% 80k); positiboki baloratzen dutenen artean, aldiz, nabarmen gehiago dira “nahikoa” egin dela diotenak.

Ez positibo, ez negatibo edo negatibo baloratzen dutenen artean, aldiz, gehienak “gutxiegí” egin dela adierazten dute.

**110. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak euskara planaz emandako balorazioaren arrazoia, adierazitako balorazio positibo edo ez positiboaren arabera (%) (plana baloratu dutenen artean soilik N=587, % 86,6)

	Zein balorazio egiten duzu erakundeko euskara planari buruz?					
	Oso positiboa %	Positiboa %	Ez positibo, ez negatiboa %	Negatiboa %	Oso negatiboa %	Guztira %
Asko egin delako	79,9	27,3	0,0	4,6	0,0	31,0
Nahikoa egin delako	20,1	66,2	15,2	0,0	34,4	43,4
Gutxiegí egin delako	0,0	1,8	52,4	75,2	65,6	16,0
Gehiegí egin delako	0,0	0,0	2,9	11,3	0,0	1,3
Ez dakit, erantzunik ez	0,0	4,7	29,6	8,8	0,0	8,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N			113	323	101	44

*Iturria: Siadeco, 2023*

## 5.5. Euskarak erakundean izan duen bilakaeraren balorazioa

Azken bost urteetan, bere erakundean euskararen bilakaera oso positiboa izan dela uste dute udal ordezkarien % 17k, eta positiboa ia erdiek (% 48). Balorazio negatiboa % 10 inguruk egin dute.

Oso bilakaera positiboa izan duela adierazi dutenak, zertxobait gehiago dira 3.eta 4.gune soziolinguistikoko eta Gipuzkoako ordezkarien artean (% 22 eta % 20 hurrenez hurren); eta gutxiago aldiz 1.eta 2.guneko eta Arabakoaren artean (% 11 eta % 9 hurrenez hurren).

**111. taula.** Udaletako erakunde ordezkarien balorazioak, euskarak zuen erakundean azken bost urteetan izan duen bilakaerari buruz (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Oso positiboa	9,1	15,8	20,1	11,2	21,8	17,2
Positiboa	54,5	47,6	47,4	50,8	45,8	48,0
Ez positibo, ez negatiboa	20,0	17,0	14,8	18,8	14,3	16,3
Negatiboa	9,1	8,1	5,4	7,6	6,6	7,0
Oso negatiboa	3,6	2,9	2,3	4,0	1,7	2,7
Ez dakit, erantzunik ez	3,6	8,5	10,0	7,6	9,7	8,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023

Euskarak erakundean azken bost urteetan izandako bilakaeraz balorazio positiboa edo negatiboa egin duten udaletako erakunde ordezkariak modu irekian aipatutako arrazoi nagusiak jaso dira segidan:

**A. Balorazio oso positiboa egin dutenak:**

1. Lehen eta 2. gune soziolinguistikoko ordezkarien artean:

a. Kasu batzuetan lan handia eginez, baina aurrerapauso handiak eman dira erabilera sustatzeko.

*“Nahiz eta erraza ez izan, aurrerapen handiak egin dira eta”*

*“Aurrera pauso handiak egin direlako, bai Udalean bertan euskararen erabilera sustatzeko, bai Udalerrian”.*

*“Por el esfuerzo que ha supuesto estos últimos años”*

b. Erakundeko langile edota ordezkarien artean, euskararen ezagutza orokortu delako:

*“El 100% de la plantilla domina el euskera y lo utiliza en su trabajo diario”*

*“Legealdi honetan politikari guztiok ahobizi edo behintzat belarriprest gara”*

c. Erakundean euskararen erabilerak gora egin du, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, eta kasuren batean, horren errekonozimendua ere lortu dute:

*“Gero eta errazagoa delako euskaraz lan egitea eta lan-harremanak euskaraz izatea.”*

*“Euskararen presentzia udalean lan eremuan oso handia delako.”*

*“Zerbitzu-hizkuntza ia %100 euskara hutsezkoa izatea lortu dugulako. Lan-hizkuntzan urratsak ditugu oraindik emateko, baina bide onean ari garela uste dut.”*

*“Zilarrezko Bikain ziurtagiria ere lortu dugulako aurten.”*

*“El uso del euskera como medio de trabajo es muy habitual. Además se han implementado medidas para que trabajadores/as y cargos públicos lo puedan emplear habitualmente.”*

## 2. Hirugarren eta 4. gune soziolinguistikoko ordezkarien artean:

### a. Euskara erakundean, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza ere bilakatu delako:

*“Udalean euskara hutsez lan egiteko hautua egin zen eta horrela egiten dugu. Lan-hizkuntza euskara da”*

*“Udalean euskaraz lan egiten delako”*

*“Gure lana euskaraz egiten dugu. Erdara behar denean bakarrik erabiltzen da eta ez da asko”*

*“Euskara delako lan eta harreman hizkuntza eta hori posible delako ia % 100ean”*

*“Urtetik urtera lan sailetan euskararen erabilera gorantz doa, lan-hizkuntza bilakatu arte”*

*“Ia guztiz euskaraz lan egitera pasa gara. Euskara da gure laneko hizkuntza”*

*“Udaleko lan eta erlazio hizkuntza euskara delako”*

*“Egun, herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeaz gain, ia erabat euskaraz lan egiten da Udaletxean, bai barne dokumentuak lantzeko garaian baita laneko hizkuntza erabilerari dagokionez, euskaraz jarduteko joerak nabarmen egin du gora baita eremu informaletan”*

*“Gure lanerako eta harremanetarako euskara % 90an erabakitzen dugulako”*

*“2015. urtera arte 12 urtez gaztelaniaz lan egin duen erakunde bat izan da udala: bere bilkurak, barne funtzionamendua, dokumentazioa, aurkezpenak,... Bere oinarria gaztelania zan. Gaur egun egoera guztiz aldatu da, euskeraz egiten dira administrazioa lan guztiak, gaztelaniako dokumentazio gehiena euskeratu da, komunikazio eta kartel gehienak euskara hutsean dira, bilkurak euskeraz egiten dira, batzordeak,... Beraz udalean eboluzioa oso positibotzat jo daiteke”*

### b. Orokortu dela esatera iritsi gabe, ahozko edota idatzizko erabilera areagotu delako, batzuetan modu nabarmenean:

*“Batipat nire arloan, lehen sortzen ziren dokumentu gehienak gaztelera hutsean zeuden eginda. Orain, batipat sinatu beharrekoak elebietan daude, nahiz eta atzetik egon daitezkeen hainbat txosten elebakarrean baldin badaude ere (eta kasu horietan gaztelera hutsean), azken txostenak elebietan jartzen pausu haundia egin da. Hurrengo pausua jatorrizko dokumentazioa euskaraz edota elebietan egotea litzateke”*

*“Aurreko legegintzaldietan gaztelera hutsez zeuden hainbat dokumentu ofizial elebiz egiten dira dagoeneko eta lehentasuna eman zaio euskarari argitalpen eta dokumentuetan”*

*“Ahozko hartu emonatan eta batez ere idatzizko sormenean aurreratu egin dogulako”*

*“Gure dokumentazio guztia euskara hutsez sortzen dugulako, edo elabitan, herritarra gaztelaniaz aritzen bada. Lan horren ondorioa izan da lortu dugun Bikain Ziurtagiria”*

*“Bilerak euskeraz egitera pasatu gara”*

*“Udalaren jarduna geroz eta euskaldunagoa delako”*



- c. Kasu batzuetan, bilakaera oso positiboaren atzean, arrazoi zehatzak aipatzen dira: Euskara Sailak egindako lana, udalean egun euskara teknikaria izatea, euskararen ezagutza altuagoa duten lankide gazteen inkorporazioa, e.a.

*“Udaletxeko euskara arloak lan asko egin du euskarak Udaletxean izan behar duen inplantazioaren alde”*

*“Euskara teknikaria egotea ezin bestekoa delako”*

*“Udaletxean langile berriak (euskara maila altuarekin) sartu diren heinean eta egin den plangintzaren bitartez aurretik hanka motz zeunden arlo batzuetan euskararen erabilpena sustatu egin da erabat”*

*“Euskara Departamenduak egindako lan bikainagatik”*

## **B. Balorazio positiboa egin dutenen artean, honakoak azpimarratzen dira:**

1. Lehen eta 2. gune soziolinguistikoko ordezkarien artean:

- a. Arrazoietan sartu gabe, positiboki baloratzen dute bilakaera, erabilerak gora egin duelako; gehiago erabiltzen da euskara erakundean, bai ahoz, lankideen arteko harremanetan, bai idatziz, ele bietako komunikazioetan. Hona adibide batzuk:

*“Lantokian gero eta euskara gehiago erabiltzen delako eguneroko lanean”*

*“Langileen artean gehiago erabiltzen da euskara eta herritarrekin ere”*

*“Los trabajadores usan prioritariamente el euskera para su trabajo”*

*“Porque se van rompiendo barreras de uso diario y común”*

- b. Langileen artean euskararen ezagutza zabaldu edo orokortu da; kasu gehienetan, ez beti, horrek erabilerak ere gora egitea ekarri du.

*“Egun herritarren aurrean lan egiten duten langile ia denek euskaraz komunikatzeko gai direlako; eta gainera, barne lanean badira zenbait sail geroz eta gehiago erabiltzen dutenak euskara beraien ohiko jardunean”*

*“Udal administrazioaren ezagutza eta erabilera handiagotu delako”*

*“Ezagutza asko handitu delako gure erakundean. Ez hainbeste, erabilera”*

*“Cada vez más funcionarios dominan a la perfección el idioma y también cada vez más concejales”*

*“Langile batzuk, euskera ikasteko bekak eta abar direla eta, erdaldunak izatetik ia euskaldunak izatera pasatzen ari direlako”*

- c. Plangintza positiboki baloratzea, alderdi zehatzagoekin lotzen dituztenak ere badira: barne harremanak lantzea, adostasunak lortzea, baliabide informatikoak eskaintzea, eta abar:

*“Barneko harremanetan ahalegin handia egin delako. Baliabideak ere gehitu egin direlako eta adostasuna landu egin delako, eragile eta alderi politikoeekin”*

*“Euskarri informatikoeak (itzultzaile automatikoak, e.a) asko lagundu dute euskaraz funtzionatzen”*

2. Hirugarren eta 4. gune soziolinguistikoko ordezkarien artean, esandakoez gain, honelakoak ere aipatzen dira:

- a. Euskararen sustapena zeharkako lan-ildoak bilakatzea, ez sail jakin baten egitekoa.

*“Euskara zeharkako arlo bat izatea lortu dugu.”*

- b. Hala ere, euskararen erabilera zabalduta dagoen hainbat erakundetako ordezkarien artean ere antzematen dira kezkak: udal barneko jarduera euskaraz izan arren, gaztelaniara jo behar dute kanpo harremanetan; sail jakinetan zailtasunak dituzte erabilera areagotzeko; ordezkari politikoak euskaraz trebatzeko laguntzak faltan dituzte,

....

*“Udal jarduera euskaraz egiten da orokorrean, bai ahoz, bai idatziz. Kanpo eragileekin euskararen erabilera normalizatzen dago lana. Zerbitzuak ematen dituzten zenbait enpresarekin esaterako. Baina batez ere Foru Aldundiko zenbait sailekin, gaztelerez funtzionatzeko ohitura dutelako”*

*“Udalean euskaraz egiten dugu lan. Beste erakundeekin elkarlana egiteko garaian erabiltzen dugu gaztelera. Udaltzaingoarekin izaten ditugu gora-beherak”*

*“Los cargos públicos no liberados y sin dietas y que trabajamos todo el día por cuenta ajena en una empresa, no se nos da la oportunidad de formarnos ni en horario laboral, ni en el escaso tiempo libre que tenemos”*

**C. Balorazio negatiboa edo oso negatiboa egin dutenen artean, honako arrazoiak azpimarratzen dira:**

1. Lehen eta 2. gune soziolinguistikoko ordezkarien artean:

- a. Euskaraz egiteko gai ez diren ordezkari politikoez, ordezkari eta udal langile euskaldunen jarduna eragozten dute. Kasu batzuetan, horrek udalaren kanpora begirako jardunean ere eragiten du.

*“Udal batzordeetan euskaldunok gure interbentzioak erderara itzuli behar ditugu zinegotzi erdaldunak behartuta.*

*Horrek gure interbentzioak baldintzatzen ditu, eta horren ondorioz gure sormen politikoa (desabantailan jokatzen dugu haiekiko)”*

*“Izan ere, gobernu-taldeko kideen % 80 gaztelania hiztunak dira, eta hori Udaleko sail guztietara eguneroko harremanetan zabaltzen da. Joera hori neurri batean, programatzen diren jarduera askotara eramaten da”*

*“Bestetik gobernu taldearen euskararen erabilera ez da ohiko hizkuntza, gehienek ez dute ulertzen bez, horrek harremanak finkatzeko ohitura baldintzatzen du”*

*“Den dena gaztelaniaz azaltzen delako, euskara batzordeetan ere informazioa eta eztabaida gazteleraz egiten da. Zinegotzi batzuek ez dakite euskeraz eta ez delako baliabiderik jartzen (itzultzaileak) uler dezaten eta horregatik denak gaztelera jo egiten dute. Osoko bilkura batean auzokide bati esan zitzaion gazteleraz hitz egiteko denak uler dezaten”*

*“Udal batzorde guztiak GAZTELERAZ egiten dira. Osoko bilkuretan ez dago EUSKARAZKO ITZULPEN ZERBITZURIK”*

- b. Euskara sustatzeko interes falta sumatzen da.

*“Se necesita más voluntad del equipo de gobierno para aumentar su uso”*

*“Ez zaiolako behar beste garrantzia ematen.  
Gehiena erdaraz egiten da eta euskaraz, beharrezkoa dena ez gehiago”*

*“Gure herrialdean lan asko falta zaigu egiteko oraindik eta erakundeak hizkuntza ez du gehiegi baloratzen”*

*“Ez dagoelako euskara erabiltzeko inolako asmorik”*

*“Kudeaketan dauden kargu politikoez ez dute euskara bultzatzen eta haien jardunean euskara bigarren maila batean geratzen delako”*

- c. Azken legegintzaldian ez dela aurrerapausorik eman eta kasuren batean, erabilerak atzera egin duela ere adierazi du zenbaitek:

*“Udaleko Euskara Plana, idatzitakoari erreparatuta, ezin da txartzat jo. Asko eta zuzenak litezke azken lau urteetarako proposatutako neurriak baldin eta bete izan balira”*

*“Atzeraka egin duelako udalak”*

*“Porque no se ha avanzado hacia la normalización”*

*“No se han alcanzado los objetivos”*

*“Aurrera egin beharrean atzera egin dugu: Gobernatzan duen partiduaren zinegotzien % 36 baino ez da euskalduna, eta EAJk gobernatzan du; Orotara zinegotzien %57k ez du euskara ulertzen, beraz, komisio guztietan, euskara komisioetan ere, gaztelera egin behar dugu. Administrazioan edo udal langileen %60k ez du euskaraz hitz egiten, eta udal egoitzetan harrera egiten dutenen lehen hitza gaztelera da (Castaños Egoitza, epaitegia, Zahar etxea, liburutegia, udaltzaingoa, musika eskolan eta kiroldegietan; interbentoreak eta idazkariak ez dute euskara ulertzen....”*

*“Publikoki euskara presentzia gutxiago duelako, ekitaldi publiko askotan euskarak presentziarik ez duelako (...), euskara sustatzeko aurrekontuak murriztu direlako”*

*“Euskara plana indarrean egon arren, bertan jasotakoa ez da errealitatean antzematen”*

- d. Erakundearen erabilitako dokumentuen sortze hizkuntza gaztelania da:

*“Dokumentu gehienak gaztelera lantzen direlako, eta bukaeran euskaratu egiten dira, euskara ez delako lanerako hizkuntza”*

*“Idatzizko materialari erreparatuz, jatorriz gaiak gaztelera lantzen dira eta ondoren itzultzaile neuronalaren bitartez euskaratzen dela dirudi; ez dirudi euskarazko testua erreparatzen denik (...) Bestalde, dokumentazioa gaztelera hutsean jasotzea da ohikoena, eta, beranduago euskarazkoa”*

- e. Euskarari, prestakuntza akademikoari baino garrantzia gehiago ematen zaio eta euskaraz egitea inposaketa bihurtzen ari da:

*“El euskera tiene más valor que la formación académica, estamos apostando por personas que hablen euskera pero no se da valor a los profesionales vascos que sin tener la lengua, están más preparados académicamente.. el euskera no debe discriminar el valor académico, debe ser valorado como una lengua pero no usado como herramienta para quitar valor a profesionales altamente cualificados que tienen o dominan otros idiomas”*

*“Inposaketaren alde apustu egiten ari delako. Joera positibo bat izatetik, inposatutako hizkuntza baten bihurtzen ari da. Dagoeneko ez da: "Euskeraz egin ahal duzu". Horren orde: "Euskeraz egin behar duzu" maiz entzuten dut”*

## 2. Hirugarren eta 4. gune soziolinguistikoko ordezkarien artean:

- a. Euskararen erabilerak behera egin du, gaztelaniaren mesedetan: udal barneko jardunean erabaki desegokiak hartu dira, edo gaiarekiko inplikazio edo interes falta sumatzen da. Hala ere, hainbat kasutan herritarren arteko erabileran ere behera egin du euskarak:

*“Emandako aurrerapausoak, atzerakakoak bilakatu dira behar baino gehiagotan. Gure hizkuntzaren ahulezia ez da behar beste hartzen kontuan: onartutako irizpideei kasurik egin ez, agerraldi publikoetan gaztelaniazko jarduna onartu (euskal komunikabideetan), ...”*

*“Legegintzaldi honetan erabaki zen udal argitalpenak eta barne dokumentuak bi hizkuntza ofizialetan ekoiztuko zirela. Lehen, euskaraz bakarrik egiten eta argitaratzen ziren. Erabaki negargarri horren ondorioa da, lehen Interneten euskaraz bakarrik agertzen zirela udal argitalpenak, orain interneten edozein bilaketa egiten baduzu udaletxeari buruz, kulturari buruz, kirolei buruz... gaztelaniaz bakarrik agertzen dira. (...) Bestalde, euskara desagertu egin da Udalaren informazioetatik, google motorrak gaztelaniari pisu handiagoa ematen diolako”*

*“Euskara plana lantzen da eta teknikarien aldetik lan bikaina egin ere, baina ez da betetze maila zaintzen, ez dago konpromiso nahikoa (ez politikarien aldetik ezta langile batzuen aldetik ere). Gai edo arlo batzuetan atzerakada egon da, eta hainbat arazo ez dira konpontzen (gaztelararen erabilera gehiegizkoa politikarien aldetik, txostenak gaztelaraz egitea eta azken bertsiora arte ez euskaratzea eta, beraz, lan-hizkuntza gaztelera izatea...)”*

*“Euskarak behar duen zaintza eta mimoaz ahaztu direlako. Gaztelaniak lehen ez zeukan terrenoa hartu du”*

*“Euskararen presentzia handitze bidean baino, erabilera gutxitzen ari denaren sentsazioa dut”*

*“Oraindik plenoetan itzultzailea behar da eta herrian euskeraren erabilerak behera egin du”*

*“No ha habido cambios importantes a nivel del pueblo. Los datos del euskera dicen que incluso hay menor uso del euskera en la calle”*

*“Gobernuan jardunean dagoen taldeak euskararekiko duen kontzientzia eta interes faltagatik . Beraien barne jarduna erabat erdalduna da”*

- b. Euskaraz egiteko gai ez diren ordezkari politikoak iritsi dira udalera, eta horrek guztion erabilera ohituretan izan du eragina:

*“Udalbatza erabat euskalduna zen duela bost urte eta gaur egun ez. Horrek erabat baldintzatzen du euskararen erabilera arlo guztietan. Batzorde batzuk gaztelaraz egiten dira lehen euskaraz zirenak barne. Komunikazio idatzizkoan ere ohikoa da gaztelera hutsezko txostenak jasotzea hornitzaile/zerbitzu emaleei ez zaielako eskatzen euskaraz bidaltzeko eta udal itzultzailea aritzen da lan hori egiten”*

*“Lehen bilera guztiak ia euskara hutsean egiten genituen, baita udalbatzak ere. Orain kide batek euskaraz ulertzen ez duela eta itzultzaile batekin egin behar ditugu bilkurak. Itzultzaileak bere lana egin ahal izateko hitza hartzen dugun bakoitzean mikrofonoa erabili behar dugu, ta askotan mikrofonoa ez hartzeagatik gaztelarera pasatzeko joera dago”*

*“Udal gobernuan dauden zenbait zinegotzik gaztelania hutsean hitz egiten dutelako, beraz batzordeak gaztelania hutsean izatera bultzatzen dute”*

- c. Gaztelaniazko dokumentuen presentzia eta pisua; kasu batzuetan erakunde beraren barnean, beste batzuetan kanpo harremanetan (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiko hainbat sailekin komunikatzeko):

*“Inongo lotsa barik aurkezten dira barne batzordeetan landu behar diren dokumentuak erdaraz soilik eta euskarazkoak eskatzean ez diote eskaerari erantzunik ematen”*

*“Zenbait dokumentu ere gaztelania hutsean helarazi dizkigute eta beti gutxienez elebitan bidaltzeko eskatu beharra izan dugu”*

*“Ez zaiolako buelta ematen euskararen diglosi egoerari eta bai Eusko Jaurlaritza eta baita Diputazioko egoerak ere, hainbat eremutan gaztelera egitera behartzen duelako udala. Hainbat material bakarrik gaztelera sortuta daude. Gaztelera funtzionatzen dutelako Diputazio eta EJKo hainbat eremurik. Gure beharren azpitik daude, era nabarmenean. Utzikeria handia dago”*

*“Dagoeneko, informeak, komisiotako hitzartzeak, asko eta asko erdara hutsean egiten direlako”*

*“Erabileran ez goazelako aurrera. Idatziz sortzen den asko gaztelera hutsez delako”*

- d. Euskara hutsezko jardunak, euskaraz egiteko gai ez diren herritarrak kaltetzen ditu: udalaren jardunak ele bietan beharko luke.

*“Euskera ez dakiten herritarrak kaltetuta sentitzen direlako askotan. Nire ustez gizartea elebiduna izan behar da. Ez da euskara hutsean izan behar”*

*“Ulertzen dut euskara bultzatu behar dela, baino kontutan eduki behar dugu ere bai gure herrian badagoela portzentai handi bat euskera ez dakiena. Arlo askotan (ia guztietan) etxeetara heltzen den dokumentazioa, reziboak, publizitatea euskaraz hutsik dago, eta hori ez zait ondo iruditzen. Bi hizkuntzetan bidali behar lirateke. Horregatik negatiboa jartzen dut, ez euskera erabiltzeagatik baizik eta nola kudeatzen dugu administratuz”*

## 5.6. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza eta hizkuntza eskubideen bermea

Udaletako ordezkarien % 26k bere erakundearen hizkuntza irizpideak asko ezagutzen dituzte, eta beste % 55ek nahikoa ezagutzen dituzte. Gutxi edo batere ez dituztela ezagutzen diote % 14k.

Asko ezagutzen dituztenak gehiago dira Gipuzkoako eta 3.eta 4.gune soziolinguistikoko ordezkarien artean (% 35 eta % 30 hurrenez hurren).

1.eta 2.gune soziolinguistikoko eta Arabako eta Bizkaiko ordezkarien artean, aldiz, gehiago dira bere erakundeko hizkuntza irizpideak gutxi edo batere ezagutzen ez dituztenak (% 18-% 20 artean).

**112. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak erakundearen hizkuntza irizpideez duten ezagutza maila (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Asko	21,8	18,8	34,7	21,0	29,5	25,8
Nahikoa	56,4	57,1	51,3	54,7	54,4	54,6
Gutxi	12,7	14,2	8,4	15,2	8,9	11,7
Batere ez	5,5	3,3	0,8	4,3	0,9	2,4
Ez dagokio. Erakundeak ez du hizkuntza irizpiderik	0,0	3,4	0,8	2,4	1,7	2,0
Zehaztu gabe	3,6	3,3	4,1	2,4	4,6	3,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023

Bere erakundeak herritarren hizkuntza eskubideak guztiz bermatzen dituela diote ordezkarien % 37k, eta % 46k nahikoa bermatzen dituela. Aldiz, % 13k gutxi edo batere ez dituela bermatzen adierazi dute.

Gipuzkoako eta 3.eta 4. gune soziolinguistikoko ordezkarien artean, % 43 dira bere erakundeak hizkuntza eskubideak guztiz bermatzen dituela diotenak.

Arabako ordezkarien artean, aldiz, % 22 dira bere erakundeak, herritarren hizkuntza eskubideak gutxi edo batere bermatzen ez direla diotenak.

**113. taula.** Udaleko erakunde ordezkarien iritziz, hiritarren hizkuntza eskubideak zenbateraino bermatzen diren bere erakundeetan (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Guztiz	34,5	31,1	43,6	28,6	43,0	36,7
Nahikoa	41,8	49,9	42,9	49,8	43,6	46,3
Gutxi	20,0	14,3	7,5	16,7	8,0	11,8
Batere ez	1,8	0,8	0,8	1,2	0,6	0,9
Ez dakit. Erantzunik ez	1,8	3,9	5,2	3,6	4,9	4,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	55	351	272	329	349	678

Iturria: Siadeco, 2023



## 5.7. Euskararen erabilerarekiko jarrera proaktiboa

Ahoz euskaraz nahikoa ongi edo ongi egiteko gai diren zinegotzien % 40k, ahal duten guztietan euskaraz egiteko ahalegin handia egiten dute, eta % 47k nahiko handia. % 7k ahalegin txikia edo batere ahaleginik ez du egiten.

Ahalegin handia egiten dute Gipuzkoako eta 3. eta 4. gune soziolinguistikoko ordezkarien ia erdiek (% 45 eta % 48 hurrenez hurren); 1. eta 2. gune soziolinguistikoko ordezkarien laurdenak (% 25) eta Arabakoaren artean, 5etik batek (% 19).

**114. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak euskara planaren helburuak lortzeko egiten duten ahalegina, ahal duten guztietan euskara erabiliz (%) (Euskaraz ahoz ongi/nahiko ongi egiten dutenak soilik N=536 - % 79,1)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Handia	19,4	36,4	45,1	24,7	47,6	39,6
Nahiko handia	61,3	49,2	43,6	55,8	42,5	47,2
Txikia	16,1	8,8	3,0	14,2	2,3	6,4
Batere ez	0,0	0,4	0,4	0,5	0,3	0,4
Ez dakit. Erantzunik ez	3,2	5,2	8,0	4,7	7,3	6,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	34	253	249	210	326	536

Iturria: Siadeco, 2023

Aldiz, euskaraz ahoz ongi egiteko gai ez direnen artean, % 23k, ingurukoek euskaraz hitz egin dezaten erraztasun handiak ematen dituzte, % 42k, nahikoa erraztasun eta % 21ek gutxi edo batere ez.

**115. taula.** Euskaraz hitz egiteko gai ez diren udaletako erakunde ordezkariak zenbateraino errazten duten ingurukoek euskaraz egin dezaten (%) (Euskaraz ahoz ezer ez/hitz batzuk/zertxobait egiten dutenak soilik N=142 - % 20,9)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Handia	25,0	19,8	30,4	19,4	36,0	22,6
Nahiko handia	30,0	45,1	39,1	41,7	44,0	42,1
Txikia	20,0	19,8	8,7	21,3	4,0	18,0
Batere ez	5,0	3,3		3,7		3,0
Ez dakit. Erantzunik ez	20,0	12,1	21,7	13,9	16,0	14,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	21	98	23	119	23	142

Iturria: Siadeco, 2023

Lau ordezkarietik batek (% 27k), euskara planaren helburuak lortzen ahalegin handia egiten duela dio, bere ardurapekoak diren pertsona eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatzearen aldekoak diren jarraibideak emanez, eta ia erdiek (% 48) ahalegin handia.

Txikia edo batere ahaleginik egiten ez dutela dio 10etik 1ek.

Ahalegin handia egiten dutela diotenak, gehiago dira Gipuzkoan eta 3.eta 4.gune soziolinguistikoan (% 34 eta % 35 hurrenez hurren); txikia edo batere ahaleginik egiten ez dutela diotenak, aldiz, gehiago dira 1.eta 2. gune soziolinguistikoan (% 19).

**116. taula.** Udaletako erakunde ordezkariak euskara planaren helburuak lortzen egindako ahalegina, beren ardurapekoak diren pertsona eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatzearen aldekoak diren jarraibideak emanez (%)

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira %
	Araba %	Bizkaia %	Gipuzkoa %	1 eta 2 %	3 eta 4 %	
Handia	25,5	23,2	33,5	18,5	35,0	27,7
Nahiko handia	50,9	49,0	45,4	49,8	45,8	47,6
Txikia	14,5	12,0	5,3	17,6	2,9	9,3
Batere ez	0,0	0,8	0,8	0,9	0,6	0,7
Ez dakit. Erantzunik ez	9,1	14,9	15,1	13,1	15,8	14,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	55	351	272	329	349	678

*Iturria: Siadeco, 2023*

Erakundearen euskara planeko helburuak bete daitezzen, orokorrean, guztiz jokabide proaktiboa dutela adierazi duten udaletako erakunde ordezkariak % 29 dira, eta nahikoa jokabide proaktiboa dutenak, % 49.

Jokabide proaktibo gutxi edo batere ez dutela diote % 12k.

Guztiz jokabide proaktiboa adierazten dutenak, gehiago dira Gipuzkoan eta 3.eta 4. gune soziolinguistikoan (% 36 eta % 38 hurrenez hurren); gutxi edo batere jokabide proaktiborik ez dutela diotenak, aldiz, gehiago dira 1.eta 2. gune soziolinguistikoan (% 20).

**117. taula.** Erakundearen euskara planeko helburuak bete daitezen, orokorrean, jokabide proaktiboa dutela adierazi duten udaletako erakunde ordezkariak

	Lurralde Historikoa			Gune Soziolinguistikoa		Guztira
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	1 eta 2	3 eta 4	
	%	%	%	%	%	%
Gutziz	14,5	25,6	35,7	17,9	37,8	29,1
Nahikoa	67,3	47,8	47,5	50,8	47,9	49,1
Gutxi	16,4	14,1	6,7	19,5	4,6	11,1
Batere ez	0,0	,5	,8	,6	,6	,6
Ez dakit. Erantzunik ez	1,8	11,9	9,3	11,2	9,2	10,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
N	55	351	272	329	349	678


Iturria: Siadeco, 2023

## 6. Erakunde guztien emaitza nagusi orokorrak

Atal honetan, grafiko bidez, txostenean zehar azalduko datu nagusiak aurkezten dira, erakunde motaren arabera.


Ez da irakurketa bateratua egin, parte hartzaileen soslaia oso desberdina izanik, ez delako egokia ikusi, baina hala ere, erakunde mota bakoitzean parte hartutakoen emaitza nagusiak batera azaldu nahi izan ditugu.

**59. grafikoa.** Erakunde ordezkarien gaitasuna ahoz euskaraz lan egiteko (%)




Iturria: Siadeco, 2023

**60. grafikoa.** Erakunde ordezkarien gaitasuna idatzizko lan funtzioak euskaraz egiteko (%)




Iturria: Siadeco, 2023

**61. grafikoa.** Erakunde ordezkariak, erakundeko lan-jardunean ahoz erabilitako hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2023

**62. grafikoa.** Erakundeetako ordezkariak, lanean erabilitako dokumentazioaren hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2023

**63. grafikoa.** Erakunde ordezkariak, agerraldi publikoetan erabilitako hizkuntzaren arabera (agerraldi publikoak egiten dituzten ordezkariak soilik)(%)




Iturria: Siadeco, 2023

**64. grafikoa.** Erakundeko lan jarduneko ahozko harremanetan euskararen erabilera indizea (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023

**65. grafikoa.** Idatziz, lanerako erabilitako dokumentuetatik zenbat daude gaztelaniaz bakarrik, euskaraz bakarrik eta ele bietan? (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023

**66. grafikoa.** Agerraldi publikoetan euskara zenbateraino erabiltzen den (Otik 10erako eskalan) (batez besteko %)




Iturria: Siadeco, 2023

67. grafikoa. Erakunde ordezkariak zenbateraino ezagutzen duten bere erakundeko euskara plana (%)



Iturria: Siadeco, 2023


68. grafikoa. Erakunde ordezkariak bere erakundeko euskara planaz egiten duten balorazioa (%)



Iturria: Siadeco, 2023




**69. grafikoa.** Erakunde ordezkariak, euskara planaz egindako balorazioaren arrazoiak (plana baloratu dutenen artean soilik)(%)




Iturria: Siadeco, 2023

**70. grafikoa.** Bere erakunde euskarak azken urteetan izan duen bilakaerari buruz erakunde ordezkariak egindako balorazioa (%)




Iturria: Siadeco, 2023

**71. grafikoa.** Erakunde ordezkariak bere erakundearen hizkuntza irizpidez duten ezagutza mailaren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2023

**72. grafikoa.** Erakunde ordezkarien iritziz, zenbateraino bermatzen dira herritarren hizkuntza-eskubideak bere erakundearen (%)




Iturria: Siadeco, 2023

**73. grafikoa.** Erakunde ordezkariak euskara planaren helburuak lortzeko egiten duten ahalegin maila, ahal duten guztietan euskara erabiliz (euskaraz ahoz nahikoa ongi/ongi egiten dutenak soilik)(%)




Iturria: Siadeco, 2023

**74. grafikoa.** Erakunde ordezkariak zenbateraino errazten duten ingurukoak euskaraz egin dezaten (euskaraz ahoz ezer ez /hitz batzuk/zertxobait egiten dutena soilik)(%)




Iturria: Siadeco, 2023

**75. grafikoa.** Erakunde ordezkariak euskara planaren helburuak lortzen egindako ahalegina, bere ardurapekoak diren pertsona eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatzearen aldekoak diren jarraibideak emanez (%)



Iturria: Siadeco, 2023

**76. grafikoa.** Erakundearen euskara planeko helburuak bete daitezzen, orokorrean, jokabide proaktiboa dutela adierazi duten erakunde ordezkariak (%)



Iturria: Siadeco, 2023



## ERANSKINAK

## 1. Herri erakundeak

### 1.1. Erakundearen galdetegia

## Euskararen erabileraren normalizazioa herri erakundeetan VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa 2022

### ERAKUNDEAREN SOLASKIDEEI ZUZENDUTAKO GALDETEGIA

#### Aurkezpena

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak arautua du Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua. Dekretu horren arabera, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu, gauzatu eta ebaluatu behar du entitate bakoitzak.

2022. urtean, VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa egitea dagokie.

Ebaluazioa bera egiteko metodologiari dagokionez, V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan egin bezala, bi datu iturri erabili dira: batetik, erakunde bakoitzean euskara planaren ardura duten teknikari edo ordezkariak erakunde mailako informazioa emango dute; bestetik, herri administrazioetako langileek, zuzenean, ohiko ahozko eta idatzizko hizkuntza praktikari buruzkoa. Metodologia honek bide emango du emaitzak V. Plangintzaldiko Amaierako Ebaluaziokoekin alderatzeko.

Esku artean duzun galdetegia, erakundearen solaskideei zuzendutakoa da, eta bertan, Plangintzaldiko Ebaluazioa egiteko, erakunde mailako adierazleak biltzeko informazioa jasotzen da.

## 1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

### 1.1. Eraikinetako errokulazio orokorra

**Euskarri motak.** Eraikinetan, barnian nahiz kanpoan, dauden errokulazioak hartu behar dira kontuan: herritarren joan etorri handieneko espazioetan dauden seinale, errokulatu eta informazio euskarri orokorrak. Ohikoengak hauek dira: toki edota zerbitzuen identifikazio seinaleak, norabide seinaleak, igogailuetako ahots mezu automatikoak, eta herritarrei informazioa emateko panel elektronikoak. Informazioa eskuratzeko zailtasunogatik, ez dira neurtuko aldi baterako edo modu probisionalean jarrita egon daitezkeen elementuak, ezta eraikinetako kafe makina, fotokopiagailu eta bestelako tresnerietan irakur daitezkeena ere.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi behar da errokulazio orokorreko elementuen hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak; hau da, gaztelania hutsean (ez dago euskarazko bertsiorik), euskara hutsean (ez dago gaztelaniazko bertsiorik), edo ele bietan (euskarri berean ele bietan edo bereizita bi bertsiotan, euskaraz eta gaztelaniaz) dauden ehunekoak.

#### 1.1. Eraikinetako errokulazio orokorraren hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):	<input type="text"/>
Euskara hutsean (%):	<input type="text"/>
Ele bietan (%):	<input type="text"/>
GUZTIRA (%):	0,00

### 1.2. Erakundearen irudi korporatiboko elementuak

**Euskarri motak.** Gutun azalak, orri buruak, ziguiloak, bisita txartelak eta erakundeak erabiltzen dituen irudi korporatiboko bestelako euskarri eta papertegiko elementuak.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi behar da irudi korporatiboko elementuen hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak; hau da, gaztelania hutsean (ez dago euskarazko bertsiorik), euskara hutsean (ez dago gaztelaniazko bertsiorik), edo ele bietan (euskarri berean ele bietan edo bereizita bi bertsiotan, euskaraz eta gaztelaniaz) dauden ehunekoak.

#### 1.2. Erakundearen irudi korporatiboko elementuen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):	<input type="text"/>
Euskara hutsean (%):	<input type="text"/>
Ele bietan (%):	<input type="text"/>
GUZTIRA (%):	0,00

### 1.3. Erakundearen beraren paperezko argitalpenak

**Euskarri motak.** Herritar guztiengana edo publiko analik eta zabalenera iristeko helburuarekin erakundeak berak kaleratzen dituen paperezko argitalpenak: udal aldizkariak, egitarauak, aqendak, informazio orriak, memoriak, liburuak, eta abar.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Zabalpen handiko argitalpen ofizialak izan arren, erakunde berean asko aida daiteke paperezko produktu horien trataera linguistikoa zerbitzu batetik bestera edo idatzizko produktu batetik bestera. Egoera horrek asko zailtzen duenez erakunde osorako hizkuntza ofizialen egoeraren datu bat kalkulatzeko prozedura, proposatzen da **bost bat argitalpenetara** mugatzea neurketa, honako jarraibide hauetara segituta:

1. Zabalpen handienekoak: herritar guztiei zabaldukoak, edota erabilpen handia duten zerbitzuetako erabiltzaileei.
2. Erakundeak maiztasun handiarekin kaleratzen dituen argitalpenak.
3. Zabalpen maila eta maiztasuna kontuan izanda, erakundearen papereko bost argitalpen garrantzitsuenak zerrendatu behar dira. Kanpo komunikazioaz arduratzen den berariazko komunikazio arlo edo zerbitzu bat dagoen erakundeetan, arlo horretako arduradunen laguntzarekin erabakiko da zein diren bost argitalpen horiek.
4. Behin erakundearen papereko bost argitalpen nagusiak identifikatuta, bost elementu horien hizkuntza ofizialen egoeraren arabera kalkulatu da adierazlea: bost elementuetatik euskara hutsean, ele bietan edo gaztelaniaz argitaratzen direnen ehunekoak. Bost argitalpenetara pisu bera emango zaie, zein nah! dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua.
5. Zehaztu egin beharko da zein bost argitalpen hartu diren kontuan, hurrengo ebaluazioa egiten denerako erreferentzia gisa.

#### 1.3. a. Erakundearen beraren paperezko argitalpenen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):	<input type="text"/>
Euskara hutsean (%):	<input type="text"/>
Ele bietan (%):	<input type="text"/>
GUZTIRA (%):	<input type="text" value="0,00"/>

#### 1.3. b. Ehunekoak kalkulatzeko aztertutako bost argitalpenak:

1.
2.
3.
4.
5.



#### 1.4. Hedabideen bitartez zabaldutako iragarkiak eta publizitatea

**Euskarri motak.** Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan ageri diren erakundearen iragarkiak, sustapen kanpainak nahiz publizitatea. Sare sozialetan agertu direnak ez dira kontuan hartuko.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Erakundeak iragarkiak eta publizitatea argitaratu ohi dituen **bost bat hedabide** zein diren identifikatuko da, eta ehunekoak kalkulatuko dira hedabide horiek erakundearen publizitatea zabalteko erabiltzen duten hizkuntza ofizialaren arabera. Ohikoen kontsideratutako hedabide horien irismena izan daiteke udalerri nahiz lurralde edo herrialde mailakoa. Horretarako ere, kontuan hartu diren bost hedabide nagusiak zerrendatu behariko dira. Bost hedabideei pisu bera emango zaie, zein nahi dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua.

#### 1.4. a. Hedabideen bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatearen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

#### 1.4. b. Ehunekoa kalkulatzeko aztertutako bost hedabideak iragarki eta publizitate kanpainetan:

- 
- 
- 
- 
- 

#### 1.5. Hedabideen bitartez zabaldutako berriak

**Euskarri motak.** Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan ageri diren erakundearen berriak. Sare sozialetan agertu direnak ez dira kontuan hartuko.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Erakundearen berriak argitaratu ohi dituzten **bost bat hedabide** zein diren identifikatuko da, eta ehunekoak kalkulatuko dira hedabide horiek erakundearen berriak zabalteko erabiltzen duten hizkuntza ofizialaren arabera. Ohikoen kontsideratutako hedabide horien irismena izan daiteke udalerri nahiz lurralde edo herrialde mailakoa. Horretarako ere, kontuan hartu diren bost hedabide nagusiak zerrendatu behariko dira, eta bostei pisu bera emango zaie.

#### 1.5. a. Hedabideen bitartez zabaldutako berrien hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

#### 1.5. b. Ehunekoa kalkulatzeko aztertutako bost hedabideak:

- 
- 
- 
- 
-

### 1.6. Jendaurreko ekitaldiak

Atari honetan neurtuko dira zein hizkuntza ofizialetan eskaintzen dituzten erakundearen ordezkariak (**Ordezkarria: jendaurreko edozein egoeratan erakunde ordezkatzen duen pertsona, ordezkari politiko zein tekniko**) herritarrekin (hitzaren zentzu zabalean: herritarrekin, bezeroekin, elkarrekin, beste erakundeetako ordezkariekin, etab.) egiten diren ekitaldiak, agerraldiak, prentsaurrekoak, jardunaldiak...

Zein den, erakundeak egiten duen eskaintzan, ahozko eta idatzizko harremonean, euskararen eta beste hizkuntzen presentzia maila.

#### ERANTZUTEKO JARRAIBIDEAK:

Argibideak: Euskarazko jarduna neurtzeko garaian kontuan hartu, erakundeak egindako hizkuntza ofizialen eskaintza galdetzen dela (ez hartzaileek ekitaldi, ikastaro, jardunaldi, etab. horietan erabilitako hizkuntza ofizialaz).

Eskatutako ehunekoak zehazteko garaian jarraitu beharreko irizpidea: Jardueran zehar **azaldutako informazio unitateetatik, zenbat azaldu diren euskaraz eta zenbat erdaraz galdetzen da**; azaldutako informazio kopuruaz ari gara, **ez hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egindako denboraz.**

Adibide modura:

- Ekitaldian azaldutako informazio guztia euskaraz eta erdaraz eskaini bada, informazio bera erreplikatu, erantzuna honakoa litzateke:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
- Ekitaldian azaldutako 10 informazio unitateetatik 5 euskaraz eman badira, eta beste 5 erdaraz, informazio bera **bi hizkuntza ofizialetan eman gabe**, denborak behartuta, hala egiten bada hizkuntzen erabilera "orekatua" egin dela esango dugu eta erantzuna honakoa litzateke:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
- Ekitaldian azaldutako 10 informazio unitateetatik, 2 euskaraz eman badira, eta erdaraz 10ak (**euskaraz azaldutakoak, erdaraz ere erreplikatu**), erantzuna honakoa litzateke:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 20
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
- Baina, adibidez, azaldutako 10 informazio unitateetatik, euskaraz 2 azaldu badira, eta erdaraz 8 (**informazioa erreplikatu gabe**):
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 20
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 80
- Aurkezpenerako idatzizko euskarria erabiltzen den kasuan, ahoz euskaraz hitz egiten bada, idatzizkoa erdaraz egon arren, edo alderantziz, idatzizkoa euskaraz azaldu, eta ahozkoa erdaraz egin arren:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100

1.6.a Zure erakundearen (Sail, Erakunde Autonomo, Udal, Foru Aldundi...), zenbateko maiztasunez egiten dituzte erakundearen ordezkariak jendaurreko ekitaldiak?

- Egunero  
 Astero  
 Hamabostean behin  
 Hilean behin  
 Hilean behin baino gutxiagotan  
 Inoiz ez → 1.7 GALDERARA PASATU

1.6.b. Jendaurreko ekitaldietan erakundearen ordezkariak zein hizkuntza ofizialetan eskaintzen dute informazioa? Horietan erakundearen ordezkariak euskaraz emandako/aurkeztutako informazioa neurtuko da, ez ekitaldiak zer hizkuntza ofizialetan gauzatzen diren.

Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

Gaztelaniaz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

#### 1.7. Webguneak eta tramitazio telematikoak

**Euskarri motak.** Erakundearen webguneak atal finkoak eta dinamikoak, eta Internet bidez herritarrei eskainitako zerbitzu telematikoak.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Jaso behar da euskara digital horiek zein hizkuntza ofizialetan kontsulta edo erabili daitezkeen, kontuan hartu gabe herritarrek hizkuntza ofizial batean edo bestean egindako erabilpena.

1.7. Webguneen eta tramitazio telematikoen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

#### 1.8. Sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak

**Euskarri motak.** Erakundearen sare sozialak eta herritarrekin komunikatzeko erakundearen beraren aplikazio telematikoak.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Jaso behar da erakundeak euskarri digital horietan zein hizkuntza ofizial erabiltzen duen, herritarrek hizkuntza ofizial batean edo bestean egindako erabilpena kontuan hartu gabe.

1.8. Sare sozialen eta aplikazioen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

## 2. HERRITARREKIKO HARREMANAK: IKASTARO ETA JARDUERAK

2.1. Zure erakundeak (sail, erakunde autonomo, udal, foru aldundi...), eskaintzen al ditu herritarrari zuzendutako jarduerarik (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...)? Urtean zenbat eskaintzen ditu, gutxi gorabehera?

- Urtean 50 baino gehiago  
 Urtean 20-50 artean  
 Urtea 10-20 artean  
 Urtean 10 baino gutxiago  
 Ez, inoiz ez → 2.3. GALDERARA PASATU

2.2. Zure erakundeak antolatutako jarduera horietan zein hizkuntza ofizialetan eskaintzen da informazioa? Horietan euskara erabiltzeko eskaintza neurtuko da, ez ekitaldiak zer hizkuntza ofizialetan gauzatzen diren. (IKUS 1.6 ATALEKO JARRAIBIDEAK)

Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

Gaztelariaz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

